



Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak



URTE AÑOS

ararteko



www.ararteko.net



**txosten
bereziak**

Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak



**Arartekoak
Eusko Legebiltzarrari
egindako txosten berezia**

Vitoria-Gasteiz 2014

Lan hau [Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziarean](#) dago



Familiei laguntzeko politikak Euskadin [Baliabide elektronikoa] : azterketa eta proposamenak : Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia / oinarritzko azterlanaren egilea, ADO2, Consultoría, Investigación y Coaching. – Vitoria-Gasteiz : Ararteko, 2014

Lineako baliabidea (193 or.). – (Txosten bereziak)

Sartzeko modua: [World Wide Web](#)

CD-ROMean (978-84-89776-62-3), [RTF](#), [HTML](#) eta [XML](#) formatuetan ere bai

1. Familia-politika 2. Euskadi

364-787.24(460.15)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Oinarritzko azterlanaren egilea: ADO2, Consultoría, Investigación y Coaching

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Multimedia: UTE MANIPULADOS - EPS



aurkihidea

Aurkibidea

Aurkezpena	19
Ohar metodologikoa	21
■ I. ATALA	
Familia eta politika publikoak. Esparru kontzeptuala	27
1. Sarrera.....	29
2. Familiara hurbilketa hirukoitza, laguntza emateko politikei dagokienez.....	29
3. Familiei laguntzeko politika publikoak. txosten honen ikuspegia eta azterlana...	33
4. Ondorioak.....	34
■ II. ATALA	
Familiaren bilakaera eta laguntzeko politikan eragina daukaten faktoreak	37
1. Sarrera.....	39
2. EAEko familien bilakaera. Funtsezko datu batzuk.....	39
3. EAEko familia-ereduen bilakaerarako zenbait arrazoi.....	43
3.1. Familiei laguntzeko politikan eraginik ez daukaten barne-izaerako aldaketak.....	43
3.2. Kanpo-izaerako aldaketak. Politika publikoen bidez hel dakiekeen faktoreak.....	44
4. Biztanleriaren zahartzearen ondorioak familiei laguntzeko politika publikoei lotuta.....	48
5. Ondorioak.....	49

■ III. ATALA

Esparru juridikorako hurbilketa	51
1. Sarrera.....	53
2. Nazioarteko araudia.....	53
3. Europar Batasuneko araudia.....	54
4. Estatuko esparru juridikoa.....	54
5. EAEko esparru juridikoa.....	55
5.1. Autonomia Estatutua.....	55
5.2. 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa.....	55
5.3. Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen arau-garapena.....	56
5.4. Familiaren arloan eragina daukaten beste xedapen batzuk.....	57
5.5. Arautzeko beste tresna batzuk.....	59
6. Ondorioak.....	59

■ IV. ATALA

EAEEn familiei laguntzeko politika publikoak	61
1. Sarrera.....	63
2. Familiei laguntzeko erakundeen arteko III. plana.....	63
3. Kostuak orekatzeko neurri ekonomiko garrantzitsuenak.....	64
3.1. Autonomiako neurriak.....	64
3.2. Estatuko neurriak. Gizarte Segurantzako prestazioak.....	67
4. Familiei laguntzeko zerbitzu gisa eragin altua daukaten neurri garrantzitsuenak.....	67
4.1. Hezkuntza.....	67
4.2. Gizarte zerbitzuak.....	68
4.3. Diru-sarrerak bermatzea.....	69
4.4. Etxebizitza eta lurzorua.....	69
4.5. Bestelako jardun-eremuak.....	70
5. Ondorioak.....	70

■ V. ATALA

Familiei laguntzeko politika publikoak Europan eta EAEEn. Azterketa konparatiboa	73
1. Sarrera.....	75
2. Familiei laguntzeko politika eredu nagusiak Europan.....	75
3. Familiei laguntzeko politiketako gastu publikoak Europan.....	77
3.1. Haurtzaroa.....	78
3.2. Ezintasunak dituzten pertsonak.....	80
3.3. Adineko pertsonak.....	82
3.4. Baterako konparazioa.....	84
4. Familiei laguntzeko neurrien azterketa, haurtzaroari dagokionez.....	89
4.1. Diru-laguntzak.....	89
4.2. Zerbitzuak eta baliabideak.....	92
5. Familiei laguntzeko neurrien azterketa, mendetasunari dagokionez.....	96
5.1. Diru-laguntzak.....	97
5.2. Zerbitzuak eta baliabideak.....	98
6. Ondorioak.....	101

■ VI. ATALA

Familiei laguntzeko politiken euskal sistemaren balorazio kritikoa EAEn. Ondorioak..... 103

1. Gizartearen eta familien bilakaera eta familiei laguntzeko politiken gaineko eragina..... 105
2. Familiei laguntzeko politiken ezaugarri nagusiak EAEn..... 106

■ VII. ATALA

Gomendioak..... 111

1. Familiei laguntzeko politiken erronkak Euskadin..... 113
2. Euskal herri administrazioei egindako gomendioak Euskadin familiei laguntzeko..... 114

Bibliografia..... 119

1. Arautegia..... 121
 - 1.1. Nazioarteko arautegia..... 121
 - 1.2. Estatu mailako arautegia..... 122
 - 1.3. Autonomia Erkidegoko arautegia..... 122
 - 1.4. Foru aldundietako arautegia..... 123
2. Txostenak, estatistikak eta argitalpenak..... 124

■ ERANSKINAK

1. eranskina.

Kostuak konpentsatzera zuzendutako neurri ekonomikorik garrantzitsuenei buruzko laburpena. Zenbatekoen taulak..... 131

2. eranskina.

Familiei laguntzeko politiken konparatiboa. Kostuak konpentsatzeko neurriei eta familia-orientazioko programei eta zerbitzuei buruzko taulak..... 137

3. eranskina.

Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluaren bileraren aktaren laburpena (2013ko martxoaren 15a)..... 149

4. eranskina.

Hirugarren sektorearen ekarpenak..... 159

5. eranskina.

Azterketa lana garatzeko tresnak..... 171

Arartekoaren argitalpenak..... 195

Taula eta grafikoen aurkibidea

Taulen aurkibidea

(1. taula)			
Agiri-azterketa: Europa mailako erakunde-iturriak.....	24		
(2. taula)			
Agiri-azterketa: beste erakunde-iturri batzuk.....	24		
(3. taula)			
Landa-lana: herri-administrazioei helarazitako galdetegiak.....	25		
(4. taula)			
Landa-lana: irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei egindako galdetegiak.....	25		
(5. taula)			
Landa-lana: Europako familia-erakundeei egindako galdetegiak.....	25		
(6. taula)			
Landa-lana: herri-administrazioei helarazitako elkarrizketak.....	25		
(7. taula)			
Landa-lana: irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei egindako elkarrizketak.....	25		
(8. taula)			
Landa-lana: <i>focus groups</i> irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeekin.....	26		
(9. taula)			
Familia eta etxearen sailkapena tresnaren arabera.....	32		
(10. taula)			
65 urte baino gehiago dituen eta mendetasun-graduren bat daukan biztanleriaren ehunekoa.....	48		
(11. taula)			
Estatistika-itemen azterketa konparatiboa, estatistika-motaren arabera.....	77		
(12. taula)			
Hurtzaroaren gaineko gastua BPG portzentajearen.....	78		
(13. taula)			
<i>Per cápita</i> gastua hurtzaroan.....	79		
(14. taula)			
Familiei eta haurrei laguntzeko politiken gaineko <i>per cápita</i> gastu osoa adingabe bakoitzeko. EAE/Espainia azterketa konparatiboa.....	80		
(15. taula)			
Ezintasunaren gaineko gastua BPG portzentajearen.....	80		
(16. taula)			
<i>Per cápita</i> gastua ezintasunean.....	81		
(17. taula)			
Adineko pertsonen gaineko gastua BPG portzentajearen.....	82		
(18. taula)			
<i>Per cápita</i> gastua adineko pertsonengan.....	83		
(19. taula)			
Familiei laguntzeko politiken gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen.....	84		

(20. taula)		
<i>Per cápita</i> gastua familiei laguntzeko politiketan	86	
(21. taula)		
Eguneko zentroak EAEn. Ezintasunen bat duten pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea.....	100	
(22. taula)		
Egoitzak EAEn. Ezintasunen bat duten pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea.....	100	
(23. taula)		
Eguneko zentroak EAEn. Adineko pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea	100	
(24. taula)		
Egoitzak EAEn. Adineko pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea.....	100	
1. eranskina		
(1. taula)		
2013an familiei zuzendutako zerga-kenkarien laburpena.....	133	
(2. taula)		
Kostuak konpentsatzeko neurri nagusiak EAEn. Eusko Jaurlaritza.....	134	
(3. taula)		
Kostuak konpentsatzeko neurri nagusiak EAEn. Gizarte Segurantzza.....	135	
2. eranskina		
(1. taula)		
Gobernu-antolakuntzaren konparatiboa herrialdeka, familiari dagokionez.....	139	
(2. taula)		
Amatasun-baimena, herrialdeen arabera.....	140	
(3. taula)		
Aitatasun-baimena, herrialdeen arabera.....	141	
(4. taula)		
Haurrekin zerikusia duten familia-transferentzia jarraituak.....	142	
(5. taula)		
Haurrekin zerikusia duten familia-transferentzia zehatzak.....	143	
(6. taula)		
Zerga-kenkariak familia-egituraren gastuak direla eta...	143	
(7. taula)		
Zerga-kenkariak familia-zainketaren ondoriozko gastuak direla eta	145	
(8. taula)		
Haurrak zaintzeko sistemak, herrialdeka.....	146	
(9. taula)		
Mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza ekonomiko zehatzak.....	147	
(10. taula)		
Mendekotasuna artatzeko baliabideak, herrialdeka.....	148	

Grafikoen aurkibidea

(1. grafikoa)			
Txostenaren ikuspegia familiaren arloan.....	34		
(2. grafikoa)			
EAEko familiak, motaren arabera	40		
(3. grafikoa)			
EAEko familia kopurua, motaren eta aldiaren arabera (1991-2006)	40		
(4. grafikoa)			
Familia-unitatearen batez besteko tamainaren bilakaera, familia-motaren arabera.....	41		
(5. grafikoa)			
EAEko eta EB27ko jaiotza tasaren bilakaera %-tan.....	42		
(6. grafikoa)			
EAEko biztanleriaren bilakaera. 0-19 urteko eta 65 urte baino gehiagoko taldeak	42		
(7. grafikoa)			
EAEko ezkontza-tasaren bilakaera. 2004-2010	43		
(8. grafikoa)			
Lanpetuta dauden biztanleek etxeko lanetan batez beste ematen dituzten orduak.....	46		
(9. grafikoa)			
EAEko soldatako biztanleria, enpresaren ardurapeko gizarte-prestazioen arabera	47		
(10. grafikoa)			
Jarduera-tasaren eta bateratze-indizearen arteko korrelazioa.....	48		
(11. grafikoa)			
Hautzaroaren gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen 2009an	78		
(12. grafikoa)			
Hautzaroaren gaineko gastu publikoaren bilakaera BPG portzentajearen	78		
(13. grafikoa)			
Hautzaroaren gaineko <i>per cápita</i> gastua 2009an.....	79		
(14. grafikoa)			
Ezintasunaren gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen 2009an	80		
(15. grafikoa)			
Ezintasunaren gaineko gastu publikoaren bilakaera BPG portzentajearen	81		
(16. grafikoa)			
Ezintasunaren gaineko <i>per cápita</i> gastu publikoa 2009an.....	81		
(17. grafikoa)			
Adineko pertsonen gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen 2009an	82		
(18. grafikoa)			
Adineko pertsonen gaineko gastu publikoaren bilakaera BPG portzentajearen	82		
(19. grafikoa)			
Adineko pertsonen gaineko <i>per cápita</i> gastua 2009an....	83		
(20. grafikoa)			
Familia-politiken gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen 2009an	84		

(21. grafikoa)

Talde eskandinaviarreko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastu publikoaren bilakaera EAerekin alderatuta..... 85

(22. grafikoa)

Talde kontinentaleko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastu publikoaren bilakaera EAerekin alderatuta..... 85

(23. grafikoa)

Talde mediterraneoko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastu publikoaren bilakaera EAerekin alderatuta..... 85

(24. grafikoa)

Familia-politiken gaineko *per cápita* gastu publikoa 2009an..... 86

(25. grafikoa)

Biztanleriaren banaketa herrialdeka adin-talde handietan..... 86

(26. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. EAE..... 87

(27. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Espainia..... 87

(28. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Suedia..... 87

(29. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Danimarka..... 87

(30. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Italia..... 88

(31. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Irlanda..... 88

(32. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Alemania..... 88

(33. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Frantzia..... 88

(34. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema formalak. Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik behera..... 94

(35. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema formalak. Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik gora..... 95

(36. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema ez formalak. Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik behera..... 95

(37. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema ez formalak. Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik gora..... 95

(38. grafikoa)

Lan egiteko adinean dauden eta onura ekonomikoak dituzten biztanleak, ezintasun-motaren arabera..... 99

(39. grafikoa)

Iraupen luzeko zaintzak jasotzen dituen 65 urtetiko gorako biztanleriaren portzentajea..... 100

Aurkezpena



2010ean Arartekoak familiei arreta emateko lan arlo berria sortzea erabaki zuen. Hala, erabaki horrek oinarri izan zuen pertsonen eskubideak bermatzea xede duen erakunde batek eman beharreko arreta bereziko subjektu sozialtzat jo behar dela familia.

Familia indibiduoak hezteko eta guztiz garatzeko euskarri materiala eta afektiboa da, afektuari eta elkartasunari lotutako lehenengo harremanetarako lekua, baita zaintzaren bizi-penetarako ere eta, besteak beste, prestatutako pertsonak gure sistema sozioekonomikoan txerta daitezten bermatzen du haien laneratzearen eta partaidetzaren bitartez interes orokorrari lagunduz.

Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea ez dagoela adingabeen, adinekoen eta gaixotasuna edo mendetasunagatik premia bereziak dituzten pertsonen zaintza eta arreta bezalako zereginak burutzean familien egitekoa ordezka dezakeen erakunde publikorik. Horregatik guztiagatik, familiei arreta ematea estatuarentzako funtsezko estrategia publikoa eta beharrezkoa izan behar da.

Halaber, familiei arreta emateko politiken irismena azterteak pertsonen eskubideak babestean ikuspegi unibertsalista hartzea dakar, guztiok izan baikara, baikara edo izango baikara familia baten zati (modu batean edo bestean). Beraz, familiak babesteak esan nahi du herritar guztiak babestu behar direla. Orduan, familia-ereduek botere publiko guztien babes berezia behar dute.

Historikoki, familiei laguntza emateko neurri publikoen multzoa hainbat administraziotan eta zenbait ikuspegi edo abordatzerekin osatu da eta, ondorioz, egungo neurriak oso zabaldua daude. Hori horrela izateak esparru kontzeptualean

eta juridiko eta politikoan zehaztugabetasun handia eragin du familiei laguntza emateko politika publikoak artikulatzerakoan.

Egun EAEn familiei laguntza emateko azaroaren 12ko 13/2008 Legea eta Erakunde arteko III. Plana ditugu. Hala ere, Arartekoaren ustez, esparru hori gehiago garatu behar da. Horrez gain, egia da tarte handia dagoela EAeko familien babeserako politiken eta gure inguruko Europako herrialdeetan sus-tatu diren politika aurreratuago eta babesleagoen artean.

Horregatik guztiagatik eta familiei laguntzeko politika publiko horiek bultzatu eta indartzeko asmoz, alor honetako politika publikoen egoera, baita euskal familien premiak eta eskaerak ere, argitu nahi dituen txostena egin dugu. Eduki hori azaletik hauxe da:

Txosten honen lehenengo kapituluak **“familia” nozioaren hurbilketa kontzeptualaren** gaia jorratu du, aztertutako alderdien esparru teoriko eta testuinguru gisa. Hala, EAEn dauden familia-ereduak txertatzen dituen ikuspegia lortu da, zenbait teoria-, arau- eta estatistika-ikuspegi oinarri hartuta kokatuta daudenak, eta horrek laguntza publikoa zein subjektuk gain hartuko duten xedatzen lagunduko digu.

2. kapituluak txostenak **familia-ereduen bilakaeran** eragina duten eta ezaugarri zehatz horiek dituzten faktore nagusien gaineko azterketa jaso du eta, hala, familien **egungo egoerari buruzko diagnosis** agerian jar dezakegu. Puntu hori funtsezkoa izango da familia-ereduen testuinguru sozioekonomikoak eta konfigurazioak elkarri nola eragiten dioten deskribatzeko. Halaber, azterketa horrek aukera emango digu aldaketa horiek eragiten ari diren etorkizuneko erronka nagusiak identifikatzeko.

Kontu horietan sakonduz, ezinbestekoa da **familien arloko erregulazio juridikoaren azterlana** egitea. Familiei laguntza ematea xede duen politika bat konfiguratzeko **elementu juridiko nabarmenen azalpena** bildu du 3. kapituluak. Azterlan horrek aukera emango digu familiaren arloko esku-hartze publikorako esparru juridiko nahikoa ote dagoen antzemateko eta esparru hori Europako arauzko joerekin alderatzeko oinarriak xedatuko ditu (hori luze eta zabal jorratuko da 5. kapituluan).

Txostenaren 4. kapituluan jaso eta aztertu dira EAEko **familiei laguntza emateko politika publikoak**, aipatu esparru juridikoaren ondotik sortutako neurri publikoen konfigurazioa esploratuz. Horretarako bi ikuspegi hartu dira aintzat: alde batetik, familia-politika zuzenak definituko dira, tradizionalki halakotzat jotakoak, eta, bestetik, sektore-politikak edo familiengan eragin handiko politikak.

5. kapituluak **Europako hainbat herrialdetan familiei laguntzeko politika publikoei buruzko azterketa** eta familia-politikaren gaineko lehentasunak jorratu ditu, aztertutako Europako sistema bakoitzaren xedeak lortzeko laguntza nola artikulatzen den kontuan hartuta eta familia-erakundeari laguntza publikoa emateko euskal sistemarekin konparazio bat eginez. Hala, EAE Europako testuinguruan koka dezakegu, bai familia-ikuspegiaren osotasunean bai osatzen duten dimentsio eta talde bakoitzean.

Gauzak horrela, ondorio-kapitulu bat aurkeztu ahal izango dugu, **familiei laguntzeko euskal sistemaren balorazioa** eginez, aipatu balorazioaren ezaugarri esanguratsuenak identifikatuz, hala konfiguratzeko arrazoiak esploratuz eta EAEn familiei laguntzeko politika publikoek aurre egin beharreko zenbait erronka identifikatuz.

Azkenik, txosten honek **Arartekoaren gomendioen** atal bat barne hartuko du, zenbait esparrutan –hala nola, legeria, erakunde antolamendua, gastu publikoa, lanbidea eta familiako bizitza eta pertsonala bateratzeko politika espezi-fikoak– familiei laguntza emateko politikei lotuta gaika antolatuta daudenak eta, azkenik, familietan eragin handia duten esparrutzat jotakoei lotutako gomendio batzuk.

Aurkezpen honekin amaitzeko, nahitaezkoa da txosten hau egiten parte hartu duten eragile pilo aipatzea. Horregatik, agirian zehar haien partaidetza jaso bada ere eta haien ekarpenak ikus badaitezke ere, Arartekotik eskerrak eman nahi dizkiegu **txostenaren idazketa bideratzen lagundu duten pertsona, gizarte-erakunde, instituzio eta herri-administrazio guztiei** eta, bereziki, Ado2 taldeari, oinarritzko txostenaren idazleari.

Iñigo Lamarca Iturbe

ARARTEKOA

2014ko apirila

Ohar metodologikoa



Ohar metodologikoa

Sarrera

Txosteneko lehen atal honen xedea da familiei laguntza emateko politikei buruzko txosten berezi hau idazteko baliatutako metodologia zehatz-mehatz aurkeztea.

Txostena idatzi ahal izateko informazioa lortzeko ikerketarako hainbat teknika erabili dira, agiri-azterketa eginez (estatistika- eta erakunde-iturrietako kontsulta bibliografikoaren bidez) eta lehen mailako iturriak aztertuz (teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak –galdetegiak, elkarrizketak eta eztabaida taldeak edo *focus groups*– barne hartzen dituen landa lan bat zabalduz).

Agiri azterketa

Talde ikertzaileak egindako agiri-azterketak hiru jatorri mota hartu ditu kontuan: erakunde-iturriak, estatistika-iturriak eta iturri bibliografikoak.

Erakunde-iturriak

Azterlanean berriaz hartu dira aintzat familiei zuzendutako politikak, baita familiaren testuinguruan eragin handia duten beste batzuk ere. Horien artean garrantzi berezia dute zergaren eremukoek (EAEn duten garrantziagatik), hezkuntza, ezgaitasun edo mendetasun esparruei lotutakoak ere kontuan hartu badira ere.

Esparru geografikoari dagokionez, EAEn eragina izan duten arau guztiak hartu dira kontuan, Europako Erkidegoko zuzenbidetik foru araudiraino, estatu eta autonomia mailakoe-tatik igaroz.

Gainera, Europako familia-politiken ereduak agerian jartzen dituzten 15 herrialde aztertu dira, EAEn egoerarekin egingo den alderaketa ahal den zehatzena izateko:

- *Eredu nordikoan* Danimarka, Norvegia, Suedia eta Finlandia aztertu dira eta batzuetan Islandia ere kontuan hartu da.
- *Europaren erdialdeko ereduan eta eredu anglosaxoian* (kontinentala), alde batetik, Frantzia, Belgika, Luxenburg, Holanda, Alemania eta Austria aztertu dira eta, bestetik, Erresuma Batua eta Irlanda.

■ *Eredu mediterraneoan* Espainia, Italia eta Portugalekin egin da lan. Grezia kontzienteki kanpoan utzi da, kontuan hartuta datuen antzinatasunak (aurrerago ikusiko den moduan) konparazioa guztiz eraginik gabe utziko lukeela.

Kasu horietan, hainbat herrialdeetako agiri, txosten eta lege aztertu dira, betiere, ingelesez edo frantsesez argitaratuta badaude. Halaber, herrialde horietan familia-arretaren ereduaren inguruan Europar Batasuneko informazio zentralizatua kontsultatu da. Oro har, honako organismo hauek aztertu dira:

(1. taula.)

Agiri-azterketa: Europa mailako erakunde-iturriak

Agence Nationale des Services à la Personne	http://www.servicesalapersonne.gouv.fr	Frantzia
Bundesministerium für Familie, Senioren, Frauen und Jugend	http://www.bmfsfj.de	Alemania
Department for Education, Schools and Children	http://www.education.gov.uk	Erresuma Batua
Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa	http://www.msp.es	Espainia
Ministry of Children, Equality and Social Inclusion	http://www.regjeringen.no	Norvegia
Ministry of Health and Social Affairs	http://www.sweden.gov.se	Suedia
Ministry of Health, Welfare and Sport	http://www.government.nl/ministries/vws	Herbehereak
Ministry of Social Affairs and Health	http://www.stm.fi/en	Finlandia
Ministry of Social Welfare and Integration. Family and Consumer Affairs. Children, young people and families	http://english.sm.dk/Sider/Velkommen.aspx	Danimarka
Ministry of Welfare. Family Affairs	http://eng.velferdarraduneyti.is	Islandia
SPF Emploi, Travail et Concertation Sociale	http://www.meta.fgov.be	Belgika
The European Alliance for Family	http://ec.europa.eu	Europar Batasuna

Azkenik, honako erakundearen web-orrialdeetan eskuragarri dagoen informazio publikoaren agiri-azterketa egin da:

(2. taula.)

Agiri-azterketa: beste erakunde-iturri batzuk

Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udala	Gizarte Ekintza eta Ongizate, Finantza eta Fiskalitate, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol, Hiri Garraio eta Etxebizitza Atalak
Foru aldundiak	Gizarte Ekintza eta Ongizate, Finantza eta Fiskalitate, Herri Lan eta Garraio eta Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Atalak
Eusko Jaurlaritzak	Familia Politika eta Komunitate Garapenerako, Gizarte Gaietako, Gazteria eta Kirol, Kultura, Etxebizitza eta Garraio Zuzendaritzak
Espainiako Gobernuak	Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioa eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

Estatistika-iturriak

Lehenengo eta behin, Europako hainbat herrialdeetako familia-politiken arloan egindako ahalegin absolutuen eta erlatiboaren inguruko estatistika-informazioa lortu da. Horretarako, herrialde bakoitzeko estatistika-iturriak kontsultatu dira (eskuragarri zeudenean) baina, batez ere, EUSTAT, EUROSTAT eta ELGAko estatistika bateratuekin egin da lan.

Estatistika horien erabileraren bidez (gehienez SEEPROS metodologia dute oinarri) Eusko Jaurlaritzako Estatistika Organo Espezifikoak eta EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundeak erabiltzen dituzten sailkapenekin konpara daitezkeen datuak lortu nahi dira.

Estatistikoki konpara daitezkeen iturriak eta metodologiak badira ere eta datu horietatik ateratarako informazioa oso erabilgarria bada ere EAek Europan duen lekua ulertzeko, azpimarratu nahi dugu horien azterketa nolabaiteko kautela aintzat hartuta egin beharko dela. Izan ere, horien antzinatasunaz gain, konparatzeko aukera ez dator bat eta, hala, Europako kapitulu konparatiboan (5.3. atala) azterketa baldintzatzen duten berezitasun horiek sakonago aztertuko dituen atal espezifikoak egongo da.

Iturri bibliografikoak

Azkenik, familia-soziologiaren arloan egile nabarmenen azterketa bibliografikoa egin da, baita ikerketa honen aztergaiarekin zuzenean lotuta dauden beste azterlan batzuenak ere, bereziki, estatuko ereduaren eta Europako beste kasu zehatz batzuetan familiei laguntza emateko politika publikoei dagokienez.

Txosten honetan baliatutako argitalpenen zerrenda osoa lortzeko, bibliografiari buruzko kapitulua ikus daiteke.

Landa lana

Lehen adierazitako bigarren mailako iturrien azterketaz gain, txostena egin ahal izateko lehen mailako iturrietako (kuantitatiboak eta kualitatiboak) informazioa ere erabili da.

Inkesta kanpaina

Online inkesta-kanpaina bi egin dira, desberdin direnak eta aldi berean egindakoak: bata herri-administrazioei zuzendutakoa (udalak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak) eta bestea familiaren arloan edo familiengan eragin zuzena duten beste esparru batzuetan lan egiten duten gizarte-erakundeak zuzendutakoa.

Erakunde publikoei dagokienez, honako administrazioek erantzun zigtuten:

(3. taula)

Landa-lana: herri-administrazioei helarazitako galdetegiak

Arrasateko Udala. Kirolak
Arrasateko Udala. Gizarte Zerbitzuak eta Prebentzioa
Barakaldoko Udala. Kirolak
Eibarko Udala. Gizarte Zerbitzuak
Getxoko Udala. Gazteria Zerbitzua
Irungo Udala. Gizarte Ongizatea
Leioako Udala. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Ordiziako Udala. Gizarte Ongizatea
Portugaleteko Udala. Gizarte Ongizatea
Sestaoko Udala. Gizarte Ekintza eta Emakumea
Tolosako Udala. Gizarte Zerbitzuak
Gasteizko Udala. Hezkuntza Atala
Gasteizko Udala. Gizarte Etxeen Zerbitzua
Gasteizko Udala.. Kirol Zerbitzua
Gasteizko Udala. Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua
Arabako Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirola
Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura

Familiaren arloan edo familiengan eragin zuzena duten beste esparru batzuetan lan egiten duten **irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei** egindako *online* inkesta-kanpainari dagokionez, honako hauen erantzuna jaso zen (ordena alfabetikoa):

(4. taula)

Landa-lana: irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei egindako galdetegiak

Hiesaren aurkako Harribeltza Elkarte
Bidegintza Elkarte
Euskadiko Dislexia Elkarte, DISLEBI
Alzheimerdun eta antzeko dementsiak dituzten Gaixoen Senideen Arabako Elkarte, AFADES
Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarte, ARANSI
Gorren Gurasoen Elkarte, ASPASOR
ECAI Mimo Elkarte
Berritzu Hezkuntza Elkarte
Gipuzkoako Diabetikoen Elkarte, AGD
Adingabeak hartzearen aldeko Arabako Elkarte, BESARKA
CEAR Euskadi
ASPACE Bizkaia Konfederazioa
Gizarte Ekimenerako Kooperatiba, Agintzari
Euskadiko Familia Ugariak, Hirukide
Ezintasun Fisiko Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea, FEEKOOR
Gorren Guraso eta Lagunen Elkarte Euskal Federazioa, FEVEPAS
Adimen Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Elkarte Euskal Federazioa, FEVAS
Etorkintza Elkargoa Fundazioa
Mariaren Konpainia Nazioarteko Elkartasun Fundazioa

Azkenik, **Europako familia-erakundeei** *online* inkesta-kanpaina egin zitzaion, Europako herrialde horietan familia-politiken ikuspegi osoagoa lortzeko eta herrialdeetako informazio ofiziala familia-erakundeei emandako aplikazioaren ikuspegiarekin alderatzeko. Hala, erantzun hau lortu dugu:

(5. taula)

Landa-lana: Europako familia-erakundeei egindako galdetegiak

Haro (Suedia)
Väestöliitto (Finlandia)

Elkarrizketak egin

Familiaren arloko politika publikoei buruzko informazioa osatu, egiaztatu eta zabalteko, aztergai horretako garrantzitsuenak ziren euskal herri-administrazioetako atal, sail eta zerbitzu horietako langile tekniko eta politikako arduradunekin hainbat elkarrizketa egin ziren.

(6. taula)

Landa-lana: herri-administrazioei helarazitako elkarrizketak

Bilboko Udala. Gizarte Ekintzako programak	Karmele Guinea
Bilboko Udala. Haur eta Gazteen Azpiatala	María José Miralles
Donostiako Udala. Prebentzioa, Haur eta Familia Zerbitzua	Edorta Aspiazu Mikel Esnal
Gasteizko Udala. Haur eta Familia Zerbitzua	Loli García ¹
Arabako Foru Aldundia. Ogasun Zuzendaritza	Juan Ignacio Martínez Javier Armentia
Arabako Foru Aldundia. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	Paloma Aranceta Elena Martín
Bizkaiko Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Saila. Zerga Politika Zerbitzua	Gema Martínez
Bizkaiko Foru Aldundia. Emakume eta Familia Esku-Hartze Zerbitzua	Mercedes Muñiz
Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politika Departamentua. Gizarteratze eta Haur Zuzendaritza	Patxi Agiriano
Gipuzkoako Foru Aldundia. Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia	Itziar Miner José Luis Hernández
EUDEL. Familia Atala	Dorleta Goiburu
Eusko Jaurlaritza. Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritza	José Luis Madrazo

¹ Haur eta Familia Zerbitzuko Zuzendaritzarekin elkarrizketa egin ostean eta hark adierazitakoari jarraiki, kontuan hartuta egokitzen jo zela familiari lotutako ekimenak jorratzen zituzten udaleko beste atal eta zerbitzu batzuek azterlanean parte har zezaketela, galdetegi bat bidali zitzaion honako atal eta zerbitzuei: Herritarren Zerbitzuak eta Kirol Sailak (Hezkuntza Zerbitzua, Kultura Zerbitzua, Kirol Zerbitzua), Alkatetza Saila (Kultura programazioa, Berdintasun Zerbitzua) eta Ogasun Saila. Aurrerago, dagokion atalean, galdetegi bidali zuten atal horiek adieraziko dira.

Horrez gain, halako ezaugarriak dituen azterlan batek ezin ditu alde batean utzi familiaren ahotsa, haiek nola definitzen dituzten haien premiak eta nola baloratzen dituzten eman-dako erantzunak, haien ustez zer den lehentasunezkoa eta zeintzuk diren jorratu beharreko ildo eta neurri nagusiak. Hala, sozietate zibileko hainbat eragilerekin 17 elkarrizketa egin dira eta familia-aniztasuna nabarmen agerian jartzen duen taula ezarri da. Elkarrizketa egin duten erakundeak, ordena alfabetikoan, hauek dira:

(7. taula)

Landa-lana: irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeek irabazi-asmorik gabeko elkarrizketak

Acción Familiar Euskadi, AFAE. Delegazioa Bizkaian
Bidegintza Elkarte, Euskadiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkartearen deribazioz, Hirekin
Arantza Zatibitua eta Hidrozefalia Bizkaiko Elkarte, ASEBI
Kale Dor Kayiko Ijito Kultur Elkarte
Adopzio Familien Elkarte, Ume Alaia
Guraso Bakarreko Familien Euskadiko Elkarte, Sendia
Euskadiko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen Elkarte, Gehitu
Arabako Parkinson Elkarte, Asopara
Adingabeak hartzearen aldeko Arabako Elkarte, BESARKA
CREAR Euskadi, Etorkeinei laguntza emateko Euskadiko GKE Koordinakundearen deribazioz, Harresiak Apurtuz
Gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroa, ALDARTE
Euskal Herriko Gurasoen Elkarten Konfederazioa, EHIGE
Euskadiko Familia Ugariak, Hirukide
Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa Koordinatzailea, Elkartu
Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntza, Kidetza
Alzheimerraren Euskadiko Federazioa
Adimen Ezintasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarten Euskal Federazioa, FEVAS

Eztabaidarako taldeak edo focus groups egitea

Halaber, bi lantalde egin ziren eta horietan zenbait familia-tal-detako gizarte-erakundeek premia eta eskaeretan sinergiak antzeman ziren. Aipatu taldeetan honako erakundeek hartu zuten parte (ordena alfabetikoan ordenatuta):

(8. taula)

Landa-lana: focus groups irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeekin

Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren aurkako Elkarte, ACABE
Euskadiko Dislexia Elkarte, Dislebi
Alzheimerdun gaixoen senideen elkarte, AFA Bizkaia
Familia-girorik ez duten haurrentzako familia-elkarte, Nuevo Futuro
Elbarritasun Zerebralaren Elkarte, ASPACE Gipuzkoa
Isabel Orbe-Down Araba Elkarte
Arabako Gao Lacho Drom ijito elkarte
Euskadiko PKU-OTM Elkarte
Tratu Txarrak jasotako Haurren Laguntzarako Euskal Elkarte, AVAIM
Autismoa Bizkaia, APNABI
Euskadiko Familia Ugariak, Hirukide
Ezintasun Fisiko Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea, FEEKOOR
Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarten Euskadiko Federazioa, Fedeafes
Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntza, Kidetza
Gorren Guraso eta Lagunen Elkarten Euskal Federazioa, FEVEPAS
Minbizia duten Haurren Gurasoen Euskal Federazioa, Umeekin
Jeiki Fundazioa
Futubide Fundazio Babeslea
Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, Aize Berria
Familia etorkin eta mistoentzako esku-hartze psikosozialerako zerbitzua, Etorbide

Haur eta Nerabeen Kontseiluak bilera bat egitea

Azkenik, eta haurrak tartean hartzen dituzten kontuen gainean erabakiak hartzerakoan haurrok eta nerabeek entzunak izan daitezten duten eskubidea kontuan hartuta, bistakoa da familiei laguntza emateko politikei buruz hitz egiterakoan, Ararteko erakundeko **Haur eta Nerabeen Kontseiluak**² bilera bat egin zuen, familia-politikei lotutako gai bakarra jorratuz.

² Ikusi 3. eranskina.



Familia eta politika publikoak

Esparru kontzeptuala

a t a l a

I. atala

Familia eta politika publikoak. Esparru kontzeptualak

1.

Sarrera

Kapitulu honen bidez **familia eta familiei laguntza emateko politiken terminoetara lehen hurbilketa kontzeptuala egin nahi da. Hurbilketa** hiru diziplina jorratuz (soziologikoa, juridikoa eta estatistikoa) egingo da, “familia izatea” definitzen duten funtsezko egitekoak zeintzuk diren, zein familia-konfiguraziok duen onarpen juridikoa eta gizarte-mailan identifika daitezkeenak zeintzuk diren zehazteko aukera emango dutenak.

Halaber, familiei laguntzerakoan estatuaren esku-hartzea legitimatuko duten argudioak emango ditu eta horien eskaerei eutsiko die eta oro har familiei laguntza emateko politikak izenekoak (seme-alabak dituzten familiei laguntzekoak) gainditzen dituen familiei laguntzeko politiken definizioaren alde egingo du, eragin handiko sektoreko beste politika horiek ere gehitzeko.

2.

Familiara hurbilketa hirukoitza, laguntza emateko politikei dagokienez

Euskadin familiei laguntzeko politika publikoen egoera zein den ahalik eta ondoen ezagutzeko ikuspegira gerturatzeko aukera emango diguten zenbait datu eta elementu aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da labur-labur aztertzea zer ulertzen dugun familiatzat eta haren funtzio eta ezaugarritzat, politika hauen diseinua eta artikulazioa ulertu ahal izateko.

Familia kontzeptua oso zabala, anitza eta interpretazio askotara lotuta dagoenez, soziologiak, zuzenbideak eta estatistikak eman diezazkigukeen tresnetara jo dugu, diziplina horientzat familiaren ezaugarria eta funtzio nagusiak zein diren jakiteko asmoz. Hainbat diziplinetako ikuspegiaren esparru kontzeptual horrek aukera emango digu, gainera, familiei laguntza emateko politika publikoen irismena zein izan behar den mugatzeko.

Ikuspegi soziologikoa, juridikoa eta estatistikoa batzen dituen azterketak garrantzi handia du, jarduera publikoaren neurri zehatzak garatzeko oinarria baita, familiari lotutako dimentsioak modu osagarrian jorratuz eta gizarte-erakunde honi hurbilketa osoagoa egiteko aukera emanez.

Hurbilketa soziologikoa

Rodríguez Fernándezek (2012) dioten moduan, familia “oinarrizko lehen mailako gizarte-sarea da bizitzaren edozein fasetan” eta, beraz, erakunde aldakorra da eta, hurrengo kapituluaren ikusiko den moduan, funtzioak eta ezaugarriak gure gizartea lotuta dagoen garrantzi handiko egitura-aldaketan islan aldatuz egiten du aurrera.

Dinamika aldakor hori Fantovak (2004) aipatu du. Harentzat familia ez da elementu estatistikotzat jo behar da, “(familia egiteko) prozesutzat baizik, alegia, inguruarekin harremanetan egoteaz gain (funtzioak sistema zabalago batean), bizitzak, berariazko dinamikak, barne hartu behar duen ekintza eta harreman multzo gisa”.

Horregatik, ez dago familia tipologia bakar bat eta horren inguruan egiten dugun kontzeptualizazioak gehiago dauka zerikusia partekatutako hezkuntza- eta bizikidetzat-balio eta esleitutako funtzio batzuekin, horren formatu edo tamainarekin baino. Hala, Donatik (2003) horri buruz hitz egiterakoan zera dio: “oso sistema konplexua, desberdindutakoa eta muga aldakorrak dituena; giza banakoa pertsona gisa egituratzeko oinarrizkoa den berariazko bizi-esperientzia hori egiten da bertan”.

Hau da, familia morfologian anitza izan daitekeen kontzeptua da, baina **Eusko Jaurlaritzako Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Plana** (2011a) izenekoan jasota dagoen moduan, ados dago “*pertsonen lehen mailako harremanak erraztu, harreman pertsonalak ahalbidetu, dimentsio afektibo eta emozionalari euskarria eman, jokabideari lotutako urratsak helarazi, kideak gizarteratzeko hezi eta prestatzeko*” egitekoarekin.

Historikoki familiak “*haren kideen biziraupena eta ongizatea antolatzeko*” zeregina izan du, Reherek (1996) esan duen moduan eginkizun horietako batzuk pixkanaka-pixkanaka estatuari helarazi bazaizkio ere (neurri batean zeregin hori betetzen jarraitu arren bertako kideei gizarte- eta lan-arloko sareen bidez lagunduz, norberaren bizi-proiektuari ekiteko kapitalizazio ekonomiko nahikoa sortuz).

Salustiano del Campo, Gerardo Meil edo Lluís Flaquer bezalako egileek sakon jorratu dute ideia hori, familia-egitekoen aldaketa bistaratu –horren bidez ezgaitasunen bat duten edo mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzari lotutako funtzioak ongizate-estatuaren egitura publikora transferitu dira–.

Estatuak familia-funtzioak gain hartzeari dagokionez –txosten honen ondorengo kapituluaren ikusiko den moduan–, desberdintasun handiak daude zenbait familia-politika ereduren artean, sistema batzuk gehiago babesten baitute familia eta beste batzuk, aldiz, ez horrenbeste.

Ekar dezagun gogora familia babesten duten erregimenak honako hauek direla: “*politika publikoek ulertzen dute (...) familiek hartu behar dutela gain haien kideen ongizatea asezteko erantzukizun nagusia*” (Esping-Andersen, 1999) eta horietan “*erabateko konfiantza dago familian, belaunaldi arteko elkartasunean eta genero-egituran, lan eta laguntza zerbitzuen hornitzaile gisa eta sarrerei laguntzeko neurri desegokien integratzaile gisa*” (Saraceno, 1995). Familia babesten ez duten politikak, ordea, dira “*familiaren banako mendetasuna murrizten dutenak eta familia- edo ezkon-elkarrekikotasuna*

alde batera utzita norbanakoaren baliabide ekonomikoen eskuragarritasuna maximizatzen dutenak” (Esping-Andersen, 1999) eta, beraz, funtzioen transferentzia handiagoa ezartzen da, hain zuzen familiatik estatura.

Dena den, ia kasu gehienetan, –ohikoagoa bada ere orientazio familista duten herrialdeetan– ez da lortu oraindik familia jakin batzuek “*berariazko familia-politika batzuk izan ditzaten (...), zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei dagokienez*” (Obiol, 2003), kopurua dela-eta gutxiengo ereduak izateagatik edo berriki eratu diren familia-ereduak izatearen ondotik araz oraindik erregulatu ez direlako. Hori izango da azterlan honen alderdi nagusietako ba. Gomendioen atalean eskaera mota horien berri emango da.

Edozelan ere, ongizate-estatuak tradiziozko funtzio batzuk gain hartzeak ez du esan nahi erakunde krisian dagoenik (gizartean gehien baloratutako erakundeetako bat izaten jarraitzen du³), funtzionaltasunaren gaineko aldaketa-egoeran baizik, familiak bakarrik eman ditzakeen zeregin horiek indartuz eta horiek jorratuz.

Baina, **zeintzuk dira familiaren funtzio eskusibo horiek?** Herrerak (1998) familia “*gizarte-, harreman-*” zerbitzuak edo ondasunak ematen dituen rolaekin lotzen du eta Del Campok (2004), aldiz, dio familia “*egun berezko funtzio gutxi dituen erakunde espezializatua bihurtu dela eta askotan afektu eta gizarte-eragilearen egoitza izatearekin lotzen dela*”.

Funtzio horiek ezin dira beste gizarte-sistema batzuek emandako ondasunekin ordezkatu eta hori da hain zuzen familia desberdintzen duen elementuetako bat, gure gizarte-sistema egituratzeko beste erakunde batzuekin alderatuz gero.

Elementu hori gakoa da, familiako funtzioak ahalmen propio eta eskusibo batzuekin lotzen baititu. Familiak bakarrik eman ditzake maitasun-, hezkuntza- eta harreman-zerbitzu jakin batzuk eta gauzak horrela, ondorioz, estatuaren egitekoa da horiek ematen jarrai dezala bermatzea, neurri zehatzetxei babesa emanez.

Nolanahi ere, eta sozializazio eta afektu funtzioaren garrantziagatik agian, gizarte-babesa familia-erakundetik ongizate-estatura kanporatu arren eta gure egungo egoeran familien rol afektiboaren eta emozionalaren zentraltasuna gorabehera, Flaquer (1995), Durán (2000) eta Navaroren (2001) ikerketek diote familiak direla haien kideei gizarte-ongizatea eta oinarrizko euskarria ematen dietenak, batez ere, familia arteko elkartasunaren, balioen transmisioaren, hezkuntzaren, enpleguaren arloan, baita adinekoak edota ezgaitasunen bat duten pertsonak zaindu eta horiei arreta ematerakoan ere. Hala, ondorioz, familiaren eta estatuaren funtzioa osagarria da.

Hurbilketa juridikoa

Ikuspegi soziologikoa familia motei atxikitako funtzio komunak identifikatu eta mugatzeko oinarriak ezartzeko aukera eman badigu, ikuspegi juridikoa aukera emango digu jakiteko nork jasoko dituen familiei laguntza emateko politika publikoak oinarri hartuta sortutako babes-neurriak.

³ **Arartekoa** (2009).

Funtsezko ikuspegia da, onartuta eta araututa dauden familia-eredu horiek bakarrik jasoko baitituzte prestazio publikoak haien zereginen garapena bermatzeko. Hortaz, zenbait ikuspegi juridikok eskubideak (edo eskubiderik eza) sortuko dituzte familia-eredu batzuetan eta, beraz, oso-oso garrantzitsua da esparru juridikoa gizarte-aldaketekin batera eta azkar garatzea, aurreko atalean ikusi dugun moduan.

Egun –aurrerago ikusiko dugunez– tradiziozko familiaren zentraltasuna galdu duten familia-eredu asko ditugu eta beste familia-mota batzuk gehitu dira, adibidez, guraso bakarreko familiak, sexu bereko gurasoak, banandutakoak, haurrak adoptatzen dituztenak edo berreraikitakoak.

Etengabe aldatzeak eta familia-antolamenduaren inguruko gizarte-aniztasuna handitzeak zailtasunak sortzen ditu zuzenbidean modu progresiboan arautzeko eta, zuzenbidea gizarte-egoera berrietara egokitzen bada (behintzat neurri batean, txosten honen hirugarren kapituluaren ikusiko den moduan), familia-mota batzuk, berriki sortu direlako edo demografian zama txikia dutelako, ez dira guztiz arautu edo berriazko neurriak behar dituzte haien erabateko berdintasuna bermatzeko haien funtzioak betetzen laguntzeko baliabide publikoak eskuratzeko.

Hala, familia-mota berri batek, [Flaquerrek](#) (2000) dioen moduan “*egoera deserosoren bat sortzen badu* (familiei laguntza emateko politika publikoetan), *segur aski izango da gaur egungo gizarteetan egindako adierazpen berrien katalizazioa edo adierazlea delako*”.

Dena dela, oro har, aurrerapen erregulazioa argia da zuzenbide zibilaren eta zuzenbide publikoaren ikuspegitik.

Alde batetik, pertsona pribatuen arteko pertsona- edo ondare-harremanak arautzen dituen eta, beraz, juridikoki kontzeptuak (adibidez, estatu zibila edo seme-alabatasuna) mugatzen dituen **zuzenbide zibilean** funtsezko aurrerapenak jazo dira azken urteotan; besteak beste, ezkontza, dibortzioa edo izatezko bikoteen elkartzeak kategoriak garatu dira (eragin handia izan dutenak familia-eredu berrietan).

Adibidez, seme-alabatasunari dagokionez, seme-alabatasunaren, guraso-ahalaren eta senar-emazteen araubide ekonomiararen inguruan Kode Zibila aldatzen duen [maiatzaren 13ko 11/1981 Legeak](#) onartzen du bi pertsonen arteko lotura juridikoa, bata bestearen beheranzkoa denean jazo daitekeela modu naturalean edo adopzioaren bidez eta, hala, eskubideak zabaltzeko eta familia adoptatzaileentzako babes juridiko handiagorako atea irekitzen da.

Horrez gain, oso garrantzitsuak dira –gaia antzekoa izateagatik– izatezko bikoteen gaineko erregulazio autonomikoak, baita, beste kontu batzuei helduz, ezkontzeko eskubidearen arloan Kode Zibila aldatzen duen [uztailaren 1eko 13/2005 Legea](#). Izan ere, legezko bi gorputzek erabateko aldaketa ekarri zuten, alde batetik, ezkontzaren bidez arautu gabeko de facto elkartzeen eskubideetan (heterossexualak edo homossexualak) eta, bestetik –bigarren kasuan–, sexu bereko bikoteenetan (ezkontzetarako estatutu juridikoa eskuratzeko aukera zabaldu zitzaizen horiei).

Familia-egituren gizarte-bilakaerara arauz egokitzeko egindako beste adierazgarri bat familia ugarien legeetan bideratutako ondoz ondoko erreformak dira, hain zuzen, familia

ugariak babesten dituen egungo [azaroaren 18ko 40/2003 Legea](#) iritsi arte. Lege horrek familia ugaria zer den xedatzen du, bertan aipatu erregulazioan ebatzi gabeko edo aldaketa berrien komenigarritasuna mahai gainean jartzen duten hobe daitezkeen alderdiak egoten jarraitzen badu ere.

Halaber, sustapen neurrien erregulazioa, zerbitzu publikoen ematea eta familiei babeserako baliabide publikoak ematea abian jartzea barne hartzen dituen **zuzenbide publikoan** ere aurrerapausoak eman dira, bateratzeko laguntza ekonomikoak sortzeko neurriak, seme-alabengatiko laguntzak, estatuko edo, hala badagokio, autonomietako laguntzak, gizarte laguntzak edo kotizaziorik gabekoak artikulatuz, baita zerga neurriak ere. Bitarteko horiek guztiak funtsezkoak dira familien funtzioei laguntza ematerakoan (4. kapituluaren arretaz jorratuko dira).

Hala ere, EAEren esparruan, familiei laguntza ematen dien [abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#) da eta horren ondorengo legegintzako garapena (adibidez, bateratzeko laguntzen inguruko ondoz-ondoko erregulazioekin) EAEko familien egoerara hurbiltzen gaituena eta aurrerapen handia eman dezakeena. Lehenengo eta behin, ez duelako familia terminoaren gainean singularren hitz egiten –alegia, erakunde bakar eta uniforme gisa–. Egoera hori era askotara jorratzen du, hainbat familia-motari buruz ari da eredu batzuk izendatzeko (horiei jarraiki antolatu dira giza taldeak historikoki). Horrez gain, soziologia modernoak familiari esleitzen dizkion ezaugarri eta funtzionaltasun asko biltzen dituen familia-kontzeptua barne hartzen duen legea delako, bai barne morfologiari dagokionez, bai funtzioei eta ongizate-estatuaren barruan horien banaketari dagokionez. Hala:

- Legearen arabera familia da: “*ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzekoa den harreman baten bidez edo seme-alabatasunaren edo beste ahaidetasun batez bidez lotuta dauden bi pertsona edo gehiagoren bizikidetzataldea*”. Horrez gain, dio “*tutoretza eta harrera seme-alabatasunaren harremanarekin parekatu ahal izango dira, laguntzaren izaeraren arabera eta kasuan kasuko araudi erregulazioarekin bat etorriz*”.
- Legeak, gainera, xedatzen du –lehen adierazitako hainbat egilek bezala– familien funtzioa dela euskarri afektiboa, materiala eta gizarte-eragile izatea, pertsonak osotasun fisiko, emozional eta intelektuala edukita gara daitezkeen.
- Halaber, legeak ezartzen du familiek gizarte-babeserako eta baliabide publikoetarako sistemekin harreman zuzena eduki behar dutela gizarte zerbitzuen, osasunaren, hezkuntzaren, justiziaren, etab. esparruetako zenbait zerbitzu eta prestazioren bitartez.

Horrek guztiak aukera ematen digu ondorioztatzeko, esparru juridikoaren bidez eta bereziki familiei laguntza emateko politika zehatzak diseinatuz eta artikulatuz, herri-administrazioa aurrerapausoak ematen ari dela “*familiek betetzen dituzten zereginen gizarte-errentagarritasunaren*” onarpenean (Meil, 1992), familiei laguntzeko esku-hartze publikoaren legitimazio gisa. Horrek eragin handiagoa edo txikiagoa izango du araudiaren arabera, baita horietatik familientzat bideratuko diren neurri zehatzen arabera ere. Alderdi horiek 3. eta 4. kapituluaren jorratuko dira hurrenez hurren.

Hurbilketa estatistikoa

Estatistika oso tresna baliagarria da familien egoerara hurbiltzeko eta, hori oinarri hartuta, aipatu familiei laguntzeko politiken behar bezalako konfigurazioa mahaigaineratzeko. Ildo horretan, estatistikak, besteak beste, familia-ereduei, bilakaerari, garrantzi demografikoari eta egoera sozioekonomikoari buruzko informazio eguneratua ematen digu. Horretarako, estatistika gizarte-antolamendu moduen aniztasunerako egokitu behar da –familia nuklearrak, guraso bakarreko familia, kide bakarrekoak, berreraikitakoak, sexu bereko edo desberdineko pertsonak osatutakoak– eta, hala, gizarte-egoera ahalik eta modu fede-emailean erregistra daiteke.

Oso lotuta dago soziologiarekin, baita arazko ikuspegia-rekin ere. Izan ere, sailkapenak eta adierazleak estatistika-sailkapenei bakarrik gehitzen zaizkie, gizarte- eta lege-mailan onartzen baitira, aurreko bi ikuspegietan adierazi den moduan. Beraz, esan genezake estatistikak ez duela bakarrik gizarte-aldaketa islatzen, azken horren isla baita.

Familia-moten hainbat sailkapen daude, sailkapenerako irizpide ohikoenetako bat familia-nukleoa egon edo ez egotearen arabera zenbait tipologia ezartzen dituen bada ere, eta hori bat dator ahaidetasun lotura estuenera mugatutako familiaren ikusmolde modernoarekin (aita/ama eta seme-alaba harremanak).

Lotura kopuruaren arabera, familiek nukleo bat edo batzuk izan ditzakete eta, hala, familia nuklearra, guraso bakarreko familia (ama edo aita seme-alabekin osatutako familia-nukleoa), handitutako familia (edozein motatako familia-nukleoa eta ahaidetutako pertsona batekin edo gehiagorekin bizi dena) eta familia polinuklearrak (bi familia-nukleo edo gehiago) ditugu. Horrez gain, familiatzat jotzen dira (autore askok ez bezala) nukleorik ez duten horiek (pertsona bakarrekoak).

EAEn EUSTAT arduratzen da familiak zenbatzeaz [biztanleen eta etxebizitzaren](#) erroldaren bidez, baita [inkesta demografikoa](#) egiteaz ere. Organismo horrek emandako definizioa kontuan hartuta, familia da *“oro har ahaidetasun-harremanagatik, dela odolezkoa edo politikoa (maila alde batera utzita), lotuta dauden pertsonak, elkarrekin bizi direnak eta etxebizitza bat osorik okupatzen dutenak”* (EUSTAT, 2012a).

EUSTATEkin batera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailak [etxebizitzetako inkesta](#) (2004) egin du. Horrek tamainaren eta osaeraren arabera etxebizitzaren eta familia-unitateen sailkapenari buruzko oinarritzko informazioa eman du eta etxea eta familia termino berdintsuak direla ondorioztatu du.

(9. taula)

Familia eta etxearen sailkapena tresnaren arabera

BIZTANLEEN ETA ETXEBIZITZEN ERROLDA	ETXEBIZITZETAKO INKESTA
Pertsona bakarreko familia: pertsona bakarra da eta ez du nukleorik	Pertsona batek osatutako etxea: pertsona batek osatutakoa
Osatutako familia: ez du familia-nukleorik eta ahaidetuta dauden edo ahaidetasunik ez duten bi pertsona edo gehiagok osatzen dute	Familiakoak ez diren pertsona anitzeko etxea: ahaidetasunik ez duten bi pertsona edo gehiagok osatutakoa Nukleorik ez duen familia-etxea: ahaidetasuna duten bi pertsona edo gehiago, baina seme-alabatasun- edo ezkon-harremanik gabe
Seme-alabarik ez duen familia-nukleoa: seme-alabarik ez duen bikote batek osatutako familia-nukleoa	Guraso izan aurretiko ezkon-etxea: seme-alabak jaio aurretik bikoteak osatutako familia-nukleoa bakarrik Guraso izan osteko ezkon-etxea: seme-alabak dituen bikoteak osatutako familia-nukleoa, elkarrekin bizi ez dena seme-alabak emantzipatu egin baitira
Seme-alabak dituen familia-nukleoa: seme-alabak dituen bikote batek osatutako familia-nukleoa	Gurasoen ezkon-etxea: mendeko seme-alabak dituen baina elkarrekin bizi ez diren bikote harremanean sortutako familia-nukleoa
Guraso bakarreko familia: seme-alabak dituen aita edo ama batek osatutako familia-nukleoa	Guraso bakarreko etxea + ezkon osteko etxea: bikotekide bat hiltzearen ondorioz edo dibortzio baten ostean seme-alabak dituen eta elkarrekin bizi den familia-nukleoa Ezkon-etxea ez dena: guraso bakarreko familia-nukleoa (ez bikotekideetako bat hil delako edo dibortzatu izanagatik), seme-alabekin bizi dena (mendetasuna izanda edo izan gabe)
Handitutako familia: Edozein motatako familia-nukleoa, ahaidetasuna duen pertsona bat edo gehiagorekin bizi	Aurreko hiruretan gehi daiteke
Familia polinuklearra: bi familia-nukleo edo gehiago	Etxe polinuklearra: bi nukleo edo gehiagok etxea partekatzen dutenean

Iturria: EUSTAT (2012a).

Ikus daitekeen moduan, **ahaidetasun loturak, bizitza partekatutako edo elkarrekin bizitzea eta etxebizitza okupatzea** familia terminoa xedatzeko kontuan hartzen diren hiru alderdi garrantzitsu dira, EAEn esparru autonomikoan erabilgaitako estatistikaren ikuspegitik.

Halaber, ikus daiteke estatu- eta autonomia-mailako hainbat estatistika-iturri⁴ familiari zuzenean edo zeharka eragiten dioten **dimentsio** berriak gehitu dituztela informazioa bildu ostean. Hala, beharrezkoa da informazioa bildu eta aintzat hartzea ez bakarrik familien egoeraren, haien premien eta azterketa ebolutiboen premien berri edukitzeko; funtsezkoak baitira bitarteko, politika eta zerbitzu publiko egokiak eta eraginkorrak artikulatzerakoan. Horrela, esan dezakegu EAEn euskal familien egoera zenbatu eta azaltzen duten 135 adierazle daudela guztira, funtsezko azterketaren hainbat dimentsio gehitzen dituzten sei esparru oinarri hartuta:

⁴ Eusko Jaurlaritz (2012a).

- Demografia: ezkontza, banantze eta ugalkortasun eta jaiotza-tasari lotutako adierazleak hartzen ditu barne.
- Familia-sistema: familiaren osaera eta kopuruari (pertsona batek osatutakoa, guraso bakarrekoa), seme-alabak, adinekoak eta mendeko pertsonak dituzten familiei buruzko informazioa. Azterlanerako intereseko taldetzat edo erreferentziatzat jo diren taldeak.
- Egoera sozioekonomikoa: familiaren inguruko informazioa ematen diguten adierazleak biltzen dira, euskal familietako jarduerari, errenta-mailei, pobrezia-arriskuari eta emantzipatzeko zailtasunei dagokienez.
- Etxebizitza-ingurua eta ingurumena: etxebizitzari, ekipamenduei, etab. buruzko datuak ematen dira.
- Familia-harremanak, -zaintzak eta beste funtzio batzuk: zereginak eta denbora banatzeko, mendeko pertsonak dituzten familiak eta horiek zaintzeko eman beharreko denbora bateratzeko zailtasunei buruzko informazioa jorratzen duten datuak biltzen dira.
- Babeserako sistema: zerbitzu eta zentroetako familia-erabiltzaileak, zenbat adingaberen zaintza eta tutoretza eta zenbat familia-harrera bideratu diren eta familiaren inguruko gastu publikoak.

Adierazle horiek ezinbestekoak dira familien bilakaera aztertu ahal izateko –hurrengo kapituluan ikusiko den moduan– eta azterlanaren ikuspegia nabarmen handitzeko aukera ematen dute, politika publikoak diseinatzeko oinarritzko gurutzatze sozioekonomikoak ezartzerakoan, kontuan hartzen baitituzte zenbait elementu (etxebizitza, gizarte-babesa, zabaldu-tako familia-harremanak edo familia, lanbidea eta bizitza pertsonala batzea). Hori bai, baliagarriak izango dira datuen bilketa eta azterketa aldiari-aldian eta behar bezala eguneratuta egiten bada. Izan ere, oso datu zaharkituak erabiltzen badira, azterketek indarra galduko dute edo ez dira izango behar bezain zehatzak. Egoera horrek, hau da, datuak eguneratuta ez edukitzeak, zenbait herri-administrazioek haien artean konpara ezin daitezkeen metodologiak erabiltzearekin batera, asko zailtzen dute aipatu azterketa, txosten honetan agerian geratu den moduan.

3.

Familiei laguntzeko politika publikoak. Txosten honen ikuspegia eta azterlana

Familiei laguntzeko politika, gutxi gorabehera, gizarte-izae-rako politika publikoen katalogoaren barruan kontzeptu berria da. Joan den mendearen amaierara arte (estatu-mailan behintzat) ez zen termino hori modu askean erabiltzen.

Horretarako arrazoia da neurri handiagoan edo txikiagoan (herrialde bakoitzeko ongizate-ereduaren araubide orokorraren arabera) familia antolamendu-sistema pribatu edo banakakotzat jo izana (bertan estatuak zama handia zuen).

Argi dago eta Europako azterketaren kapituluan ikusiko da egoera herrialdeen arabera oso desberdina dela eta eremu mediterraneoko herrialdeek familia gehiago lotu dutela eremu pribatura eta herrialde nordikoek edo Europa erdialdekoak, berriz, ez horrenbeste. Horren adibide dira herrialde horietako lehen erreferentziak 1940. urtekoak baino lehenagokoak direla (adibidez, 1939ko Suediako Alva Myrdal-ekoak). Espainian, aldiz, ikuspegi hori ez da agerian jarri modu nabarmenean joan den mendeko 80ko hamarkadara arte.

Flaquerrek dioenez (2000), familia-politikei buruz hitz egiteak *“espazio pribatua kontu publikoen eraginik gabe utz dadila dioen kontzeptua haustea”* dakar eta *“herritar guztiak barne hartuko dituen gai komuntzat jotzea, politika publikoak egin eta aplikatuz erantzuna”* emanez. Izan ere, Esping-Andersenek (2013) aipatu duenez, politika horiek garrantzi handia dute ongizate-sistemaren etorkizuneko iraunkortasunean eta, beraz, ezin dira *“kontu pribatutzat”* jo.

Baina, **gure ustez, zer dira familia-politikak?** Oinarri gisa Flaquerren definizioa (2000) erabiliiko du. Horren arabera: *“familia-erantzukizunak dituzten pertsonen baliabideak emateko herri-administrazioek bideratzen dituzten esku-hartzeak, baldintza hobekoetan horiek burutu dituzten”*. Hala, *“familia-unitateetako premiei erantzuna emango zaie”*.

Dena den, definizio horiek ikuspegi erredukzionista dute Fantovak (2004) antzeman eta argi definitzen duen egoeraren aurrean. Aipatu ikuspegia bakarrik hartuko balitz aintzat, *“familia bere horretan kontuan hartzen duen politika publikotzat joko genuke familia-politika”*, familiari hertsiki lotuta ez dauden beste egoerak egon arren eta familia-esparruan eragina izan badute ere. Hori bai, ezin dugu gehitu egile honek dioen moduan *“familia-politikaren eduki edo objektu zuzen gisa familiei eragiten dien guztia; hala eginez gero, politika publiko hori familia-politika dela pentsatuko baikenu”*.

Beraz, lehen aipatutako hiru ikuspegiak kontuan hartuta, txosten honen bidez argitu nahi da zer ulertuko den familiei laguntzeko politikatzat eta zer ez den aintzat hartuko ikerketa honen esparruan.

Zenbait egilek familiei laguntzeko politiken inguruan egiten dituzten kontzeptualizazioak aintzat hartuta, **txosten honetan ez dira bakarrik familiei zuzenean lotutako politikak jorratu, familia-esparruan eragin handia duten horiek ere jorratuko dira**. Hala, Donati (2013) bezalako egileek orientazio horretan kokatuko lituzkete *“familia-politika zuzen edo zeharkakoei”* buruz hitz egiterakoan edo Fantovak (2004) politika publiko osagarri horiek *“familien bizitzan eragin handiko zerbitzuak”* edo *“familiei laguntzeko politika edo zerbitzuak”* bezala defini daitezkeela ezartzen duenean.

Hortaz, azterlan honen ikuspegiak familietan eragin handia duten politika-multzo zabal batekin egingo du lan, zuzenak eta zeharkakoak, edo Fantovak (2004) definitzen dituen moduan, alde batetik *“familia-politikak”* (familiarri hertsiki eta zuzenean aplikatzen zaizkionak, adibidez, zergak, prestazio

ekonomikoak, gauzazkoak, etab.) eta, bestetik, “familia-eragin handiko politiken eraztun zabala, gutxi gorabehera” (etxebizitzari, garraioari, etab. lotutako politikekin)⁵.

(1. grafikoa)

Txostenaren ikuspegia familiaren arloan



Iturria: guk egina (2013).

Horiek guztiek familiei baliabideak ematen dizkiete funtzioak ahal den ondoen burutzeko eta horien behar bezalako artikulazio konjugatua bakarrik izango da benetan erabilgarria gure gizartea osatzen duten familia-motetan.

Zabaldutako ikuspegiaren esparru hori hautatzea ez da kasualitate bat, kontuan hartuta lehen aipatutako zenbait aldagairen azterketak bakarrik emango digula aukera familiei laguntzeko eredu batean edo bestean izandako ondorioak edo eraginak ikusteko, baita horien baitan dauden azken xedeak ulertzeko ere.

Ikuspegia zabaltzea garrantzitsua da familiaren arloko babes publikoen egoera guztiz ulertzeko. Izan ere, herri-administrazioaren esku-hartzeak, jakina denez, ez dira neutralak eta familiaren arloko jarduera publiko orok –beste edozein arlotan bezala– gizartean eta familia-eredu zehatzetan eragin zehatz bat izango du. Gauzak horrela, eta Schulteisek (1998) hausnartzen duen moduan, familiei laguntzeko **politika jakin baten xedeak** desberdinak izan daitezke eta, hala, tradiziozko familiei lehentasuna emateko ereduak, lanaren tradiziozko banaketa babesteko ereduak edo jaiotza-tasa

⁵ Hezkuntza eta osasuna kanpoan uztea erabaki da; ongizate-sistemako bi euskarri direnez, nortasun propioa dutela eta horiek gehitzeak familia-politiken kontzeptuaren interpretazioa gaindi daitekeela uler baitaiteke.

sustatzeko ereduak daude; beste ikuspegi batzuek lana eta familia hobeto batzeko denbora bilatu nahi badute ere edo gizonak etxeko lanetan gehiago txertatu nahi badituzte ere edo familia ahulenei edo berriki sortu direnei babes berezia eman nahi badiete ere.

Hori bereziki garrantzitsua da. Izan ere, lehen aipatu moduan eta aurrerago adieraziko dugun moduan, familia aldaketei eta etengabeko bilakaerari lotuta dagoen gizarte-antolamendu eredu bat da. Beraz, arlo horretako jarduera publiko jakin bat baliagarriagoa izango da familia batzuentzat beste batzuentzat baino, are gehiago egun familien premiak agortzen ez direnean haurrak heztean. Horregatik, beste egoera batzuei erantzuna eman behar die, adibidez, mendetasunari, ezgaitasunari edo zaurkortasunari.

4.

Ondorioak

Pertsona oro izan da, da edo izango da haren bizitzaren ibilbidean familia baten zati, alde batera utzita familia hori osatzen duen pertsona kopurua, horien arteko lotura-mota edo horien ezaugarriak. Izan ere, familia da lehen mailako gizarte-sare oinarrikoena eta ezinbestekoena, aitortuta dituen barne morfologia-desberdintasunak biltzen dituen gizarte-egitura, baina gure gizartean maitasun-, hezkuntza- eta harreman-funtzio gako batzuk betetzen dituen.

Tradiziozko funtzio batzuk ongizate-estatuari transferitu bazaizkio ere –neurri batean behintzat–, lehen aipatu ditugun funtzioak familiak bakarrik bete ditzake. Ondorioz, familia garapen juridikoak onartutako elementu bat da (soziologia-ikuspegiak eta estatistika-datuek justifikatutakoa).

Beraz, funtzio horiek familiaren erakundeak bakarrik susta ditzakeenez, estatuaren egitekoa da, arauzko garapenen bidez, ahal den neurri onenetan ezar daitezzen, eta, bereziki, jarduteko politika zehatzak, batez ere, zaurkortasun gehien pairatzen duten familien kasuetan.

Familia gizarte-aldaketetara egokitzeak argi eta garbi jartzen du agerian ez dela indarra galdu duen erakunde bat, kontrakoa baizik. Izan ere, dinamismoari esker da bistakoa eta gizarte-aldaketaren sustatzailea. Horren ondorioz, laguntzeko politikak dinamikoak izan behar dira eta egungo familien premietara egokitu behar dira, familia-eredu berriak edo zama demografiko txikiagoa duten horiek laguntza publikoetatik kanpo gera ez daitezzen.

Txosten hau bezalako batentzat, familiei laguntzeko politika horien azterketa konparatiboa hizpide duenarentzat, gizarte-aldaketek gehitutako zailtasun bat dakarte, familiaren ikuspegi tradizionalagoa baino harago joan behar baita, haurtzarolari eta familia-esparruan eragin handia duten beste egoera batzuk kontuan hartzeari dagokienez.

Horregatik guztiagatik, txosten honek familiaren esparruan eragin handia duten hiru egoera aztertzen ditu: haurrak,

adinekoak eta ezgaitasuna eta mendetasuna; horiek familia-izaerako politika publikoak diseinatzean garrantzi handia dutela ulertzen da, egoerok batuz gero, familia-esparruaren egitura eta, ondorioz, estatuaren babeserako premiak aldatzen direlako.

Gauzak horrela, txosten honen ikuspegiak familiei zuzenean lotutako politika publikoen azterketa oinarri izateaz gain, familietan eta horien prestazio modalitateetan (laguntza ekonomikoen edo programa edo zerbitzuen bidez) eragin handia dutenak ere oinarri izango ditu.

Bizitzan zehar, pertsona orok laguntza beharko du familiaren esparruan haren funtzioak burutzean, bai haurtzaroan (fun-

tsean laguntzarako neurriak jasoko ditu) bai heldutasunean (aurreko eta ondorengo ahaideentzako baliabideak jaso eta eskatuko ditu) bai bizitzaren azken urteetan (zerbitzuak jaso edo eman familia-unitatearen esparruan) eta hala izango da alderdi oso desberdinetan, hezkuntza, lanbidea eta familia batzekoa, etxebizitza, ekonomia eta lana edo mendetasunari arreta ematekoa barne.

Beraz, familiaren ikuspegia zeharkako estrategia publikotzat jo behar da, familiaren erakundean modu intentsuagoan eragina duten jarduteko esparru horietan gehitu behar dena eta, hala, familiei laguntza emateko intentsitate maila desberdinak dituen politiken eratzun erradiala eratuko da.



Familiaren bilakaera

eta laguntzeko politiketan
eragina daukaten faktoreak

a t a l a

II. atala

Familiaren bilakaera eta laguntzeko politiketan eragina daukaten faktoreak

1.

Sarrera

Kapitulu honek azken hamarkadotan familietan gertatu diren aldaketa nagusiei buruzko ikuspegi bat eskaini nahi du. Horretarako, sozialki onartuta dauden zenbait familia-eredu ikusgai jarriko ditu eta haien neurriak ezarriko ditu, familia-osaera desberdinen bilakaera baldintzatzen duten faktore nagusiak identifikatuko ditu eta EAEko familientzat bereziki zailak diren eta politika publikoen bidez hel dakiekeen faktore batzuk azpimarratuko ditu.

2.

EAEko familien bilakaera. Funtsezko datu batzuk

Aurreko kapituluan aipatu dugunez –eta txostenean zehar aipatzen jarraituko dugunez–, familiei laguntzeko politika publikoek era eraginkorrean erantzun behar diete familia-eredu guztien premiei. Orobat azaldu dugun moduan, premia horiek aldatu egiten dira, familia ez dagoelako “XX. mendean agindu duen gizarte-eraldaketako prozesutik kanpo” eta “haren egiturei nahiz dagoen kulturari eragin dien aldaketa sakon eta bortitz bat” eduki duelako (Meil eta Ayuso, 2007).

Botere publikoek beraiek, neurriak planifikatzeko, dagoen gizarte-aniztasuna aintzat hartu dute, EAEn familiei laguntzeko erakundeen arteko III. planak adierazten duen moduan. Plan horrek onartzen du familia etengabe aldatzen ari den erakunde bat dela. *“Errealitate kulturelek gizarteak aldatzen dituzte eta beraiekin bat, familien formak eta funtzioak. Hitz batez, azken hamarkadotan gertatu diren gizarte- eta ekonomia-aldaketa ugariak Euskadiko gizarte-errealitatea osatzen duten familia-ereduen dibertsifikazioa ekarri dute”* (Eusko Jaurlaritza, 2011a).


Hala ere, **zeintzuk dira EAEko familia-tipologia nagusiak? Nola aldatu dira urteak joan ahala? Zein tamainatakoak dira? Zein da gure gizartean daukaten benetako pisua?** Hasierako diagnostiko-galdera horiei erantzuna emateko, ezinbestekoa da, lehen aurreratu denez, estatistikaren zeregina. Bestalde, datuek elkarrekin erkatzeko modukoak izan eta iturri eguneratuetatik etorri behar dute, baina hori –azterketan zehar ikusiko dugunez– ez da beti gertatzen.

EAEko familia-eredu nagusiak. Eredu tradizionalak iraun egiten dute, baina aldatzeko joera daukate

EAEko 2.100.000 biztanle baino pixka bat gehiago 787.000 familiatan baino apur bat gehiagotan antolatzen dira. Familiok hiru taldetan banatzen dira nagusiki. Lehenik, seme-alabak dituen bikote batez osatutako familiak dira ugariena EAEn; mota horretako 300.000 familia inguru daude (%38). Bigarrenik eta hirugarrenik, ia-ia pisu berarekin (%21 inguru), pertsona bakar batez eta seme-alabarik gabeko bikoteez osaturiko familiak nabarmentzen dira. Gainerako familiek (guraso bakarrek, konposatuak, handituak, etab.) %10 baino ehuneko txikiagoak dituzte.

(2. grafikoa)

EAEko familiak, motaren arabera



Iturria: guk eginikoa, EUSTAT (2006) oinarri hartuta.


Datu horiek baieztatzen dute familia tradizionalak (alegia, seme-alabak dituen bikote batez osatutakoa) familia-harremantarako lehentasunezko eredu izaten jarraitzen duela, baina bakarrik bizi diren pertsonak eta seme-alabarik ez dauzkaten familiek gizartean duten pisua gero eta nabarmenagoa da.

Beti gertatu izan al da horrela? EUSTATEk⁶ azken bi hamarkadei buruz eskaini dizkigun datuen arabera, aldaketa batzuk aldatzeko joeratzat jo litezke. Izan ere, seme-alabak dituzten familia nuklearrek eredu ohikoena izaten jarraitu duten arren, antzeman da urteak joan ahala haien kopurua arinki jaitsi dela. Aitzitik, bakarrik bizi eta kide bakarrekoko familia bat osatzea erabakitzen duten pertsonak zein ondoregorik ez daukaten bikoteez osatutako familiak nabarmen handitu dira.

⁶ Marcos, J. (2006). EUSTAT.

(3. grafikoa)

EAEko familia kopurua, motaren eta aldiaren arabera (1991-2006)



Iturria: guk eginikoa, Marcos, J. (2006) oinarri hartuta. EUSTAT.

Familia-eredu berrien gizarte-onarpena. Mailaka normalizatzen ari den egoera

Antolaketa-eredu nuklearraren pisu berezia (guztiaren %59, seme-alabekin eta seme-alabarik gabe bizitzeko aukerak barne hartzen baditugu) kontuan hartuta, egokia da –sentsibilizatzeko edo espezifikoki babesteko politika publikoen diseinuari eta antolaketari lotuta egon daitekeelako– geure buruari familia-eredu berri batez galdetzea, alegia, bikote homoparentalez (orain dela gutxi arautu dituzte).

Zehazki, familia-eredu horren arauketa, dagokion eskubideberdinketarekin batera, azken urteotan familien eta familia-politiken arloan egon diren gizarte-aldaketa nagusietako bat izan da. Beraz, bidezkoa da hausnarketa tarte labur bat sortzen diren zenbait galderari erantzuteko erabiltzea, honakoak adibidez: **nola ikusten dira familia-eredu berri horiek?** edo **zein izan behar da familiei laguntzeko politika publikoen zeregina haien kasuan, zereginen bat eduki behar badute?**

Oro har, eta familia-eredu berri horiek gizarte-estigmatik ez badaukate ere (Europako beste errealitate batzuen aldean), ezin da esan gizartean erabat onartuta daudenik; aitzitik, gizarte-normalizazioko egoera edo prozesu batean daudela esan liteke.

Zehatz-mehatz, txostenean parte hartu zuen hirugarren sektoreak argi eta garbi adierazi zuen batzuetan politika publikoak (eta zehazki legegintza) gizarte-errealitatearen aurretik joan direla eta normalizatzen laguntzeko funtsezko lan bat egin dutela.

“Homosexualen arteko ezkontzen arauketaren inguruko kontzientzia soziala legeak sortu dituen aukeren atzetik dago”.

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

Zehazki, eta EAEn (eta eskuarki estatuan) familia homoparentalak onartzeko eta normalizatzeko arazo handirik egon ez den arren⁷, gizarte-sentsibilizazioa eta aniztasunaren babesa, hurrengo kapituluetan ikusiko dugunez, familiei laguntzeko politiken esparruan lehentasuna duten ekintzarloetako bat da.

Bestalde, datuek normalizaziorako eta gizarte-onarpenerako joera etengabe hori bermatzen dute. Horrela, hainbat adierazlek familia homoparentalen onarpen-maila hazten ari dela diote. Esate baterako, homosexualen arteko ezkontza baimendu zuen lege-aldaketa egin zenean, Espainiako biztanleen %66,2 alde zeuden; lau urte geroago, aldiz, 2008ko CIS gazteen barometroak⁸ adierazi zuen Espainiako gazteen %76,4 homosexualak eta heterosexualek ezkontzarako sarbidea baldintza beretan edukitzearen alde agertu zirela.

Zehazki Euskadiko gizarteari dagokionez, familia-eredu berriak orobat normalizaziorantz aurrera egiten ari dira, bereziki gazteen artean. Aurreko txosten batzuetan, adibidez *Adingabekoei balioak transmititzea* delakoan (Ararteko, 2009) mailakako onarpen bat sumatu zen. Azterketa horretan egindako galdeketa batek erakutsi zuen gayez edo lesbianez osatutako familiak onartuagoak daudela ikasleen adinak aurrera egin ahala; horrela, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik DBHra igarotzean beste familia-mota bat dela uste zuten ikasleen ehunekoa bikoiztu egin zen.

Joera hori Arartekoaren Nerabeen Kontseiluaren bilkuran berretsi zen. Izan ere, bilkura horretan, parte hartu zutenek berez eta marrazki eta irudien bidez (ikus 3. eranskina) zenbait familia-eredu iradoki zituzten: aitaz, amaz eta bi seme-alabek osaturiko familia; familia homoparentala; guraso bakarrekoko familia (bananduta, dibortziatuta edo alargun izateagatik, baina baita norberak hala erabakitzeagatik ere); familia zabala, aitona-amonekin; eta familia berreratua.

Familiaren batez besteko tamainaren bilakaera. EAEko biztanleen zahartze jarraitua eta sistemaren mantentzean duen eragina

Eta eredu-mota bakoitzaren tamainari dagokionez, **zein da bilakaera? Ba al dago desberdintasunik familia-eredu motaren arabera? Familiaren tamaina handitu edo txikitu egiten da?**


EAEn kide gehien dituzten familiak, logikoa denez, batez beste bost kide baino gehiago dituzten familia-nukleo biz edo gehiagoz osaturiko familia konposatuak dira. Bestalde, familia handituek lau pertsona izaten dituzte.

Hala ere, beharbada daturik azpimarragarriena da seme-alabak dauzkaten familia nuklearren batez besteko tamaina

3,5 pertsonakoa dela. Datu horrek argi eta garbi erakusten du gizarte-aldaketarako faktoreetako bat (aurrerago garatuko dira), alegia, EAEko jaiotza-tasa baxua, zeren eta seme-alabak dauzkan familia nuklearren batez besteko tamaina ez baita lau kide tara ere iristen. Izan ere, familia-unitatearen batez besteko tamaina 1981ean 3,69 kidekoa zen, eta 2001, berriz, 2,76; familia-tipologia guztietan unitatearen tamaina murriztu egin zen (kide bakarrekoko familia izan ezik, noski).

(4. grafikoa)

Familia-unitatearen batez besteko tamainaren bilakaera, familia-motaren arabera



Iturria: guk eginikoa, Marcos, J. (2006) oinarri hartuta. EUSTAT.

Familiaren tamainaren etengabeko murrizketa funtsezko datu bat da, ongizatearen eredia etorkizunean iraunarazteko bereziki garrantzitsua izango delako eta politika publikoak – jaiotzaren aldeko joera handiagoa edo txikiagoa edukita ere – elementu horren gainean eragiten saiatzen direlako.

Lehen ikusi dugun moduan seme-alabak dituzten gero eta familia gutxiago badaude eta horiek gero eta ondorengo gutxiago badauzkate, ondorioa argia da: **Euskadiko gizartea biztanleriaren zahartze-prozesu batean murgilduta dago, jaiotza-tasa** –munduko baxuenetariko bat– **jaisten ari delako eta bizi-itxaropena** –munduko altuenetariko bat– **igo-tzen ari delako**.

Jaiotza-tasei dagokionez, EAEko tasan gaur egun 9,7 jaiotza daude 1.000 biztanleko; beraz, EBko baxuenetariko bat da eta oso herrialde gutxi gainditzen ditu, hala nola Italia (9,3) eta Alemania (8,3)⁹. Dena den, pixka bat igo da gure gizartean etorkinak sartu direlako, batez ere gazteak direnak eta jaiotza-tasa handiagoak dituztenak¹⁰.

⁷ CIS (2004).


⁸ CIS (2008).

⁹ EUSTAT (2011a).

¹⁰ Gazteen Euskal Behatokia (2011).

(5. grafikoa)

EAEko eta EB27ko jaiotza tasaren bilakaera %o-tan



Iturria: guk eginikoa, Eusko Jaurlaritza (2012b) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

Nolanahi ere, eta hazkunde arin hori gorabehera, jaiotza-tasa baxua denboran iraungo duen egoera bat izango da. Izan ere, duela gutxi egindako azterketa baten arabera¹¹, 18 eta 29 urte bitartean dituzten euskal gazteen %44k eta 30 eta 45 urte bitartean dituztenen %79k ez dute ondorengorik edukitzeko asmorik. Gainera, galdeketa parte hartu duten pertsonen %66k adierazi dute seme-alabak edukitzeak lanbide-karrera asko zailtzen duela, batez ere emakumeen kasuan. Elementu horiek garrantzi nabarmena daukate etorkizuneko familia-politiken plangintzan.

Seme-alaba kopuru idealaren eta errearen artean dagoen distantzia (bereziki ikasketa-maila altuagoa daukaten emakumeengan) azaltzen duten diagnostiko-datueterako bat da hori, Esping-Andersenek (2013) jaso duen bezala. Horrela, Espainian aurreikusitako seme-alaba kopurua Europako txikienetako bigarrena da (1,9), eta kopuru erreala, aldiz, 1,36 da. Diferentzia hori Europako handiena da, eta familiaren aldeko erregimenak dituzten herrialdeen berezko ezaugarri bat da. Izan ere, Livi-Baccik (2001) azaltzen duenez, *“badirudi familiaren alde dauden herrialdeak sindrome batean erori direla, zeinetan familia gehiegi egotea jaiotzarako kaltegarria den”*. Hau da, familiari eginkizun gehiegi esleitzen dizkioten herrialdeek jaiotza-tasa txikiagoak dituzte familiek esparru publikotik laguntza handiagoak jasotzen dituzten ereduaren aldean.

Horrela, estatuko profilaren ezaugarria ez da seme-alabarik ez dagoela, baizik eta familietan funtsean ondorengo bat edukitzea dela. Horren ondorioz, McDonaldeen (2002) arabera, konpentsatzen duen beste faktorerik –esaterako, immigrazioa (Espainian eragin handia baitauka) edo lagunduriko giza ugalketako tekniken garapen etengabea– ez balego, 100 urtetan biztanleria gaur egungoaren %25 izateraino murriztuko litzateke.


¹¹ Eusko Jaurlaritza (2012b).

Jaiotza-tasa baxu horrekin bat etorriz, EAEko **bizi-itxaropena** igo denez, biztanleriaren zahartzea Europako estatu guztiek eta bereziki EAEk aurre egin behar dioten erronka demografikoetako bat da, eta familiei laguntzeko politiketarako desafio berriak sortzen ari dira.

Izan ere, 2007an EAEko zaharren ehuneko biztanleria osoaren %18,4 zen: estatu osoko %16,6 baino ia bi puntu handiagoa eta European urte horretarako erregistratutakoa, %17, baino pixka bat altuagoa.

(6. grafikoa)

EAEko biztanleriaren bilakaera. 0-19 urteko eta 65 urte baino gehiagoko taldeak



Iturria: guk eginikoa, Marcos, J. (2006) oinarri hartuta. EUSTAT.

Aurreko grafikoak biztanleriaren zahartzearen eta jaiotza-tasa baxuaren arazoa oso era argian adierazten du, eta joera-aldaketa zeharo erakusten du. 1990ean, ia-ia Euskadiko biztanleriaren erdiak 20 urte baino gutxiago zeuzkan (65 urte baino gehiagoko biztanleak %5 baino gutxiago ziren, eta gainera bizi-itxaropena baxuagoa zen). 2006an, ordea, 65 urte baino gehiagoko biztanleen ehunekoak lehenengo aldiz 20 urte beherako biztanleen ehunekoak gainditu zuen. Horrek agerian jartzen du belaunaldi-ordezpenaren arazo larria, baita horrek ongizate-sistema gaur egun diseinatuta dagoen bezala iraunarazteko dakarren mehatxua ere.

EUROSTATek¹² erakutsi digu biztanleriaren zahartze hori European eragina daukaten lau joeraren emaitza dela: jaiotza-tasa baxu bat, 45 urte baino gehiagoko biztanleriaren ehunekoaren hazkundera (*baby boom* delakotik baitator), bizi-itxaropenaren handitze etengabea eta etorkinen biztanleriaren hazkundera (nolanahi ere, ez da nahikoa kontinentea gaztetzeko).

EUSTATek¹³ egin dituen proiektioetan, zehazki EAEk 2020rako izango duen zahartzeari lotuta, aurreikusi da 65 urte gorako biztanleriak hazten jarraituko duela eta milioi erdi

¹² EUROSTAT (2013a).

¹³ EUSTAT (2009).

zahar baino gehiago egongo direla. 65 eta 74 urte bitartean dauzkaten biztanleak %22 izango dira, eta 75 eta 84 urte bitartean dauzkatenak, berriz, %10. Bestalde, 85 eta 94 urte bitartean dituzten biztanleak bikoiztu egingo dira, eta 95 urte gorakoak %155 haziko dira. Zenbaki absolutuetan, 90 urte eta gehiagoko 15.000 biztanle zeuden 2006an, eta kopuru hori 36.000 baino altuagoa izango da 2020an.

3.

EAEko familia-ereduen bilakaerarako zenbait arrazoi

Ikusi dugu familia-antolaketak aldaketak eta bilakaerak izaten dituela. Hala ere, **zeintzuk dira familia-ereduen bilakaera horretarako arrazoiak? zergatik murrizten da haien tamaina?**, eta, zehazkiago, **zein da EAE gero eta zaharragoa izateko arrazoiak?** Eta batez ere, txosten honek aztertzen duenari bereziki lotuta dagoenez, **zer erantzukizun daukate politika publikoek, erantzukizunen bat badaukate?**

Familia-erakundean aldatutako zenbait ezaugarri egiturazko barne-aldaketekin daukate zerikusia, eta eskuarki familiei laguntzeko politika publikoetatik kanpo daude. Dena den, familiari lotutako beste ezaugarri batzuei politika publikoen bidez hel dakieke, familiako kideei haien bizi-garapenaren hainbat alderditan laguntzeko jardun daitekeelako.

Txosten honen helburua dela-eta, azken horiek baino ez dira analizatuko. Hala ere, testuinguruagatik garrantzitsua da barne-izaera daukaten bilakaeraren ezaugarri nagusi batzuk laburki aipatzea; izan ere, aurreko kapituluan adierazi denez, haien arrazoiak ez da familia-erakundearen krisi bat, baizik eta bakarrik *“familia-harremanen barne-logikaren eraldaketa bat”* (Pérez Díaz et al., 2000).

3.1. Familiei laguntzeko politiketan eraginik ez daukaten barne-izaerako aldaketak

Aurreko kapituluan jaso denez, familiaren azken helburuan aldaketak egon dira: gaur egun, zoriontasuna erdiestera zuzentzen da gehiago, zoriontasuna baita *“familia-proiektuen azken helburua, bizirik irauteko modu baten bilaketaren kalterako”* (Alberdi, 1999). Hortaz, familiari eusten zioten balio tradizionalak ordeztu egin dira eta beste termino batzuetara bideratu dira, hala nola “zoriontasuna”, “bikotea” eta “maitasuna”; aurreko garaietan garrantzitsuagoak zirenak, esaterako “batasun egonkorra”, “ezkontza” edo “ugalketa”, alde batera utzi dira. Horren ondorioz, barne-aldaketak eta familiaren eginkizunen aldaketak egon dira. Barne-aldaketa horiek, logikoki, familiek politika publikoen arloan eskatzen dituzten laguntzan ondorioak dituzte, politika horiek barne-antolaketa errealtate berrietara eta familiaren helburu eta premia desberdin batzuetara moldatu behar baitira.

Bizikidetzaren gizarte-onespenaren eredua. Ezkontzaren zeregina

González Blascok (2006) aipatu duen moduan, norberaren familia bat osatzeak pertsona ororen bizi-helburu nagusietariko bat izaten jarraitzen du. Dena den, ezkontzaren bidezko eta bereziki ezkontza erlijiosoaren bidezko gizarte-onespena orain ez da funtsezkoa gizarte-onarpenerako.

(7. grafikoa)

EAEko ezkontza-tasaren bilakaera. 2004-2010



Iturria: guk eginikoa, EUSTATen datuak (2012b) oinarri hartuta.

Eztabaidatutako elementu bat den arren, zenbait egile, adibidez Miret (2006), Martínez Pastor (2009) edo Esping-Anderesen (2013) ezkontzaren krisi batez ari dira. Miretek, esate baterako, honakoa baieztatu du: *“laurogeiko hamarkadan, ezkontzaren krisia egon bazegoen, eta horrela dirau: gero eta bikote gutxiago ezkontzen dira, eta gero eta beranduago egiten dute”*¹⁴. Ezkontza familia osatzeko lehen urratsa zen, baina orain zeregin lausoago bat du eta gizartean daukan pisua txikitzen ari da: EAEko ezkontza-tasa (ezkontza zibilari eta elizazko ezkontzari dagokienez) jaitsi egin da, 2004an 1.000 biztanleko 4,8koa baitzen, eta 2010ean, aldiz, 3,8koa¹⁵.

Ezkontza-tasaren beherakada hori, ezkontzeko adinaren hazkundearekin eta dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen gorakadarekin batera, familiei laguntzeko erakundeen arteko III. planak azpimarratu dituen ezaugarrietariko bat da; planak gure gizartearen sekularpen-prozesuarekin lotu du.

Ostera, sexu bereko pertsonen ezkontzaren kasuan, ezkontzak ematen duen gizarte-erregularizazioari buruzko interes altua antzeman da, EAEn %30 baino gehiago igo baita¹⁶

¹⁴ El País (2006-05-24).

¹⁵ EUSTAT (2012b).

¹⁶ Ibid.

2007 eta 2011 bitartean. Datu gutxi dauzkagunez eta ibilbide laburrekoak direnez, ez dugu analisi sakonik egingo, baina horrek gizarte-onarpen eta -erregulazio gehiago behar dela adieraz lezake.

Ezkondu gabe elkarrekin bizitzea. Izatezko bikoteak eta arautu gabeko batasunak

Autore batzuek, esate baterako Flaquerrek (1991), Meilek (2003) edo Elzok (2008), adierazi dute elkarrekin bizitzea askotan ezkontzaren aurreko urrats bat dela eta hausten ez bada ezkontzaren bidez “ofizialdu” egiten dela. Hala ere, arestian erakutsi ditugun datuek ezkontzaren krisi bat iradokitzen dute, bikoteak epe luzean ordenatzen dituen elementua izateari uzten ari baitzaio eta izatezko bikoteek eta arautu gabeko bikoteek euren burua etorkizunerako proiektutzat jotzen baitute.

Hain zuzen ere, autore berriago batzuek (Esping-Andersen, 2013) aditzera eman dutenez, elkarbizitza “*aukera funtzional egonkor*” bihurtzen ari da estatuan. Izatezko bikoteen kasu zehatzean, esan daiteke haien pisua hazi egin dela eta 2006an EAEn guztira 42.000 bikote zeudela, hau da, bikoteen %8 zirela, nahiz eta duela 20 urte guztien %1 baino ez izan¹⁷.

Hori familiei eta bereziki haurrei laguntzeko politika publikoen diseinuari zeharka eragiten dion funtsezko elementu bat da. Izan ere, mota horretako bikoteak egonkorak badira eta gainerako bikoteenaren antzeko jaiotza-tasa bat badaukate –eta bi baldintza horiek, Esping-Andersenek (2013) nabarmendu duenez, betetzen ari dira–, ezkontzatik kanpo jaiotako haurren kopurua pixkanaka handituko da (eta ezkontzak gaur egun mota jakin batzuetako eskubideen bermatzailea izaten jarraitzen du).

Bestalde, ezkontzatik kanpoko haurren kopuruaren hazkunde horri dagokionez, Euskadiko familia-ereduak Europako beste errealitate batzuekin arinen homogeneizatu diren norabideetako bat da. Gainera, oso azkar gertatu da, zeren eta herrialde askotan izatezko batasunak nabarmen igo baitira eta ezkontzatik kanpoko haurrak hazi baitira. Izan ere, 2008tik EB27an haurren heren bat baino gehiago ezkontzatik kanpo jaiotzen dira, eta herrialde batzuetan, Frantzia kasu, ezkontzatik kanpo barruan baino haur gehiago (%50,5) jaiotzen dira¹⁸. Estatuari dagokionez, 1995etik hirukoiztu egin dira, hau da, %11tik %31ra igaro dira¹⁹.

Autonomia, indibidualizazioa eta barne-negoziazioaren hazkundera

Flaquerrek (1995), Alberdik (1997), Del Campok (1999), Meilek (2004) edo Elzok (2008), azken urteotan, norberaren autonomiaren hazkundera, horren indibidualizazioa eta kideen negoziatzeko ahalmena nabarmendu dituzte familia-ereduaren barne-aldaketei lotutako funtsezko ezaugarri gisa, bereziki emakumeen kasuan (oraindik desberdintasun-egoeran egon arren). Hori familiaren postmodernizazioa delakoaren esparruan sartzen da.

Familiaren barne-antolaketan aldaketak eragiten dituzten elementu nagusietako bat kide bakoitzaren autonomia gero eta handiagoa da; izan ere, familiak unitate gisa helburu komunak dituen arren, ez da bateraezina banakako proiektuekiko (lanekoak eta pertsonalak) errespetu handiagoko batekin.

Era berean, azpimarragarria da emakumeen negoziatzeko ahalmena handitu egin dela. Horrek familia-unitatea antolatzeko jarraibideak aldatzen ditu, eta pixkanaka zereginen eta erantzukizunen barne-banaketa adostasun handiago bat oinarri hartuta egiten da. Nolanahi ere, negoziazioa oraindik ez da orekatua, zeren eta, geroago erakutsiko denez, negoziaketa hori gizonaren mesedetara desitxuratzen duten gizarte- eta ekonomia-faktore batzuk daude. Elementu horiek direla-eta, oso garrantzitsua da lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko laguntza-politiken bidezko jardun publikoa, orekaren alde egiteko.

3.2. Kanpo-izaerako aldaketak. Politika publikoen bidez hel dakiekeen faktoreak

Lehen azpimarratu ditugun barne-izaerako faktoreek ez bezala, kanpo-izaerako faktoreek gure gizarte-ereduaren gizarte- eta ekonomia-karakterizazio espezifiko bati erantzuten diote eta familiei laguntzeko politika publikoen bidez erabat hel dakie.

Halaber, faktore horiek EAeko biztanleriaren zahartzearen zati garrantzitsu bat azaltzen dute eta, logikoki, familiei arreta emateko ereduaren iraunkortasunean eragin handia daukate.

Azterketa honen esparruan **politika publikoen bidez hel dakiekeen faktore nagusietako bi** identifikatu ditugu (beste azterketa batzuek ere egin duten moduan²⁰): **berezko familia-nukleoak osatzeko atzeratzea eta lanbidea, familia-bizitza eta norberaren bizitza bateratzea**. Jarraian laburki analizatuko ditugu.

EAE emantzipatzean eta, beraz, familia bat osatzeko aukeran gehien atzeratzen diren Europako eskualdeetariko bat da

Europako hegoaldeko ongizate-estaturen ezaugarri nagusietako bat da emantzipatzeko batez besteko adina European baino berantiarra dela, Buchmannek eta Kriesik (2011) agerian jarri duten bezala. Hain zuzen ere, Espainian batez besteko adina 30 urtekoa da (Portugalekoaren eta Italiakoaren antzekoa), baina beste herrialde batzuetan, hala nola Frantzia, Alemanian, Holandan edo Erresuma Batuan, 25 urte baino baxuagoa da.

EAEko egoera are etsigarriagoa da, emantzipazio-tasa are atzeratuagoak baititu: 34 urte beherako gazteen %30 eta %40 bitartean baino ez dute euren bizi-proiektua hasi (beste eskualde batzuetan ia %50 da, eta Espainiako batez beste-koak %40 gainditzen du)²¹.

¹⁷ EUSTAT (2011b).

¹⁸ Martínez-Ahedo, M. (2008).

¹⁹ Esping-Andersen, G. (2013).

²⁰ Esping-Andersen, G. (2013).

²¹ Ballesteros, J.; Megías, G.; Rodríguez, E. (2012).

Emantzipatzeko adinaren atzerapen horren ondorioz, jaiotzarako sarbidea ia-ia emantzipaziorako sarbidearekin parakatuta dago, besteak beste aipatu ditugun batez besteko adinak direla-eta. Hala ere, egia da 40 urtetik gorako amatasuna bikoiztu dela²². Gainera, EAEko batez bestekoa (32 urte) estatukoa (30 urte) baino berantiarra da. Autore batzuek (Livi-Bacci, 2001) "atzerapenaren sindromea" ere deitzen diote egitate horri.

Egoera hori azaltzeko analisi-faktoreen artean, honakoak nabarmendu daitezke:

■ **Lan-merkatuan sartzea atzeratzen duen prestakuntza-maila altua.** Requenak (2001) ikertu duen moduan, Espainiako prestakuntza-aldiek 25 urte baino gehiago eduki arte irauten dute, eta ez da ohikoa ikasi bitartean gurasoen etxetik kanpo bizitzea (Suedian, Alemanian, Erresuma Batuan eta beste herrialde batzuetan ez bezala).

Hori are nabarmenagoa da unibertsitate-ikasketak egiten dituzten gazteen kasuan. Izan ere, mugigarritasun geografikoak kultura-osagaiak ez ezik ekonomia-osagaiak ere baditu: seme edo alaba batek kanpoan ikasteak oso kostu altua ekartzen dio familia-unitateari, eta, aurrerago ikusiko dugunez, ez dago familiei laguntzeko politika egokirik esparru horretan, Europako beste herrialde batzuetan ez bezala. Era berean, ikasketen iraupena luzeagoa da, eta batzuetan graduondokoez osatzen da lanmerkatuan sartzen saiatu baino lehen.

■ **Lan-merkatuaren ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna.** Egile nazional eta nazioarteko egile batzuek azpimarratu dutenez, estatuko lan-merkatua duala da²³: alde batetik, antzinatasun handieneko kontratu mugagabeetarako babes-maila altuak daude, eta, bestetik, lanmerkatuan sartzen diren gazteentzako ezegonkortasun altuko egoera bat dago, emakumeei hein handiagoan eragiten diena²⁴.

Beraz, lan-merkatua berandu sartzeaz gain ezegonkortasun-egoeran egiten bada, emaitza da gazte gehienek ez daukatela bizi-proiektu independente bat hasi ahal izateko erabateko autonomia finantzariorik; hala, independizatzeko gaitasuna duten 30 urteko beherakoen tasak minimoak dira.

■ **Etxebizitza eskuratzeko garestitasuna eta zailtasuna, jabetzan nahiz alokairuan.** Azkenik, berezko familia-nukleoaren osaketa atzeratzen duen hirugarren faktorea etxebizitza eskuratzeko zailtasuna da, Europako herrialde gutxierekin kidetasuna daukana²⁵. Estatuan (eta EAE ez da salbuespen bat, adibide nabarmenatariko bat baizik), etxebizitzaren prezioak Europako soldata-ehuneko handienatariko bat biltzen du, eta familia-zorpetze maila altu bat sortzen du²⁶.

Erostejoera berezia egoteaz gain (estatuko eta Mediterraneo estatuetako ereduaren ohikoa den bezala), alokairu aukera zaila da eta batzuetan hileko kostua etxebizitza bat jabetzan hartzean baino altuagoa da: ia-ia sarrera gordinen %30 ematen da horretarako²⁷, hileko 920 € inguru²⁸ Euskadiko kasuan.

Adierazitako hiru faktoreek familien baliabide ekonomikoak murrizten dituzte eta eragin indartsua daukate seme-alabak (eta zenbat) eduki ala ez edukitzeko erabakian eta, hortaz, Euskadiko biztanleriaren piramidean. Alderdi hori **Arartekoaren** (2013) txostenetan ere nabarmendu da. Bertan esanenez, "Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak oztopo handia direnean, bereziki pertsona gazteentzat, bizitza independentea izateko baliabide nahikorik ez izateagatik, estalitako estatusun-mota batez ari gara eta familia berriak sortzeko zailtasunarekin eta seme-alabak izateko etorkizuneko proiektuen atzerapenarekin lotuta dago".

EAEko familiek muturreko zailtasunak dituzte lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko

Hauxe da beharbada jaiotza-tasaren murrizketa azaltzeko garrantzitsuenetatik bigarrena: lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko zailtasunak daude, zeren eta gure gizartean bizitzaren hiru alderdi horiek bateragarri egiteko dauden gatazken ondorioz familiak asko atzeratu egiten baitira eta aipatutako hiru zailtasunak gainditu ahal izan arte beraien ondorengotza murrizten baitute.

Bateratzeko zailtasun horien atzean **familiako lanen banaketa desberdinari** lotutako faktoreak daude, baita ordu-baliagarritasunari, lan-malgutasunari eta antzeko balioei lehenetasuna ematen dien **lan-merkatu** bati lotutakoak, horrela **bizitzaren hiru alderdiak bateratzea zaila** izaten baita, batez ere laguntzeko neurri publikoak behar bezain eraginkorrak ez badira.

"Bateratzeko planak ezarri eta betetzen dituzten enpresak sustatu behar dira, lan-merkatuaren konfigurazioak ez baitu benetan bateratzeko biderik ematen".

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

"Jaiotza-tasa handitzeko helburua lortzeko aukerak hobetuko lituzketen bateratzeko neurri batzuk, enpresetan hartu beharrekoak, ordu-malgutasuna handitzea edo enpresetan haurtzaindegiak jartzea lirarteke".

(Gizarte-erakundeekin eztabaidatzeko taldea)

Emakumeak ez dira esparru publikoan sartzen ari gizonak esparru pribatuan sartzen ari diren baldintza beretan. Horren ondorioz, emakumeek haurrak eta bestelako mendeko pertsonak zaintzen duen familiako euskarri nagusia izaten jarraitzen dute, eta lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak ere egoten dira.

²² EIN Estatistika Urtekaria (2012).

²³ Cooley, F. (2010).

²⁴ Polavieja, J. (2006).


²⁵ Holdsworth, C. eta Irazoqui, M. (2002).

²⁶ Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (2012).

²⁷ Público.es (2013-01-26).

²⁸ Febrero, E. eta Dejuán, O. (2009).

(8. grafikoa)

Lanpetuta dauden biztanleek etxeko lanetan batez beste ematen dituzten orduak

Iturria: EUSTAT (2010b).

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, haurrak hazteari eta mendeko pertsonak zaintzeari buruzko lanek emakumeen esku diraute, nahiz eta gizonek, pixkanaka, gero eta denbora gehiago eman horretan²⁹. Dena den, jarrera erabateko desberdintasuneko da, zeren eta gizonek egunean hiru ordu baino gutxiago ematen baitituzte adingabeak zaintzen, eta emakumeek, aldiz, ia bost. Mendeko pertsonak zaintzeari dagokionez, diferentzia hori areagotu egiten da, gizonek egunean ia bi ordu ematen dituztelako jarduera horretan, eta emakumeek, ordea, bikoitza.

Zer dago datu horien azpian? Zergatik bateratzea ez da familiako gaitzat jotzen eta oraindik ere nagusiki emakumei lotuta dago, haiek baitira gehienetan etxeko lanetako eta ugalketako zereginez arduratzen direnak?

Lehen adierazi digunez, barne-negoizazioaren hazkundearen, emakumeen ahalduntzearen eta gizonak pixkanaka erantzunkide bihurtzearen ondorioz, etxeko lanen banaketa gero eta bidezkoagoa da, baina eginkizun hori gehienetan emakumeek gain hartzen jarraitzen dute.

Alde batetik, **kultura-paradigma** daukagu: erabaki horietan eragiten, ekoizpena gizonezkoen rolekin eta ugalketa emakumezkoen rolekin lotzen dituen sistema baten ondorioa

da, eta, bertan, bateratzea emakumearekin eta amatasunarekin lotuta dago (Emakumearen Erakundea, 2008).

Zehazki eta 2009ko datuen arabera³⁰, EAEn seme-alabak zaintzeko eszedentziatarako eta lanaldi-murrizketetarako diru-laguntzen 45.000 eskaera baino gehiago erregistratu ziren, eta 10 eskaeretatik 9 emakumeenak ziren. Irudikari kolektibo horri dagokionez, argi dago sentsibilizazio-politika publikoek jarduteko eta eraldatzeko ahalmena daukatela.

Hala ere, beste aldetik, oraindik sorrarazi zuten baldintzapen industrialetan ainguratuta dagoen **ekonomia- eta lan-sistema** bat dago; gaur egungo gizarte-egituratik urrun geratu da, eta, bertan, presentismoak, eskuragarri egoteak edo ekoizpen-egituraren barruan ugalketa-balioa ez sartzek agintzen jarraitzen dute: “emakumeok gizonek gizonen helburuak betetzeko sortu dituzten enpresa-egituretan sartu gara” (Merodio eta Muriel, 2012), eta horrek ondorioz tarazten digu “ugalkortasuna sustatzen duen ezein faktore ez dela aproposa Espainiako kasuan” (Esping-Andersen, 2013).

Hain zuzen, lan-berdintasun handiagoa duten herrialdeetan ere, azterketek erakutsi dute sarritan horren arrazoiak ez dela sektore pribatua berdintasunezkoagoa izatea, sektore publikoaren pisu espezifikoa baizik³¹. Adibidez, ugalkortasuna altuagoa izaten da sektore publiko handiagoak dituzten herrialdeetan (Bernhardt, 1993); gurasoek maizago eskatzen dute esparru publikoan jaiotzagatiko baimenak partekatzeko, eta, horrez gain, seme-alaben kopurua handitu nahi duten familietan, emakumeek “ekonomia gogorreko inguruetan” –enpresa pribatua– dauzkaten lanpostuak utzi eta “ekonomia biguneko inguruetara” –administrazio eta enpresa publikoa– joan ohi dira³².

EAEn lan esparruan bateratzeko neurriei garrantzirik ez emateari buruzko erreferentzia-elementu on bat eta urratu behar dugun bidearen erakusgarri on bat hauxe da: **enpresetan mota horretako oso elementu gutxi eskaintzen zaizkie langileei**. Izan ere, esate baterako, haurtzaindegiak eskaintzen diren gizarte-prestazioetako azken lekura baztertuta daude (biztanleriaren %4,5 dago beteta).


²⁹ Denbora-aurrekontuei buruzko galdeketa 2008ko (EUSTAT, 2008c) eta 2010eko (EUSTAT, 2010b) datuen erkaketa oso argia da alderdi horri dagokionez.

³⁰ Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (2009).

³¹ Mandel, H. eta Semyonov, M. (2006).

³² Esping-Andersen, G. (2013).

(9. grafikoa)

EAEko soldatako biztanleria, enpresaren ardurapeko gizarte-prestazioen arabera

Iturria: EUSTAT (2010b).

Gaur egungo lan-merkatuaren eta gizartearen arteko distantziaren beste adierazgarri bat EAEn dagoen **soldata-arraila** da: arauk etxeko eta zaintzako lan gehienak emakumeei ezartzen dizkietenez, emakumeek beraien lan-karreraren zati bati uko egin behar diote, eta, horren ondorioz, EBn emakumeen eta gizonen artean dauden soldata-diferentziak %17koak dira³³. Hortaz, gaur egun oraindik apurtzeko zaila den kristalezko sabai batera heltzen ari gara. Soldata-arrail horrek orobat ekartzen du ugalketa-balioak saritzen ez dituen lan-egoeraren eta bateratzea sustatzeko guztiz eraginkorrak ez diren neurri publikoen egoeraren ondorioz emakumeak izatea oraindik lanaldi-murrizketak edo eszedentziak hautatzen dituztenak (lehen ikusi dugunez); izan ere, etxeko diru-sarrerak batzen badira, emaitza ekonomikoa onuragarriagoa da familiarentzat gizonak mantentzen badu ekoizpen-eskuragarritasuna ukitu gabe.

Eta zein da politika publikoek esparru horretan daukaten eginkizuna? Lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko ahalmenak ez dira hobetuko zuzenean laguntzeko izaera publikoko politiken bidez soilik, zeren eta eskumen-eremu hori gaintzen baitu eta Merodiok eta Murielek (2012) azpimarratu dutenez *“barne-kudeaketa, -zuzendaritza eta -antolaketako ereduak”* aldaketa batekin zerikusia daukan espazio batean sartzen baita. Beraz, gizarte-aldaketaren alde egiten duten sentsibilizazio-neurri indartsuak ere izango dira beharrezkoak, bereziki EAEko enpresa-sarea ETEetan oinarrituta dagoelako.

³³ EMAKUNDE (2012).

Nolanahi ere, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europako Batzordearen ibilbide-orrian³⁴ islatuta dagoenez, harreman zuzena dago lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko eskaintzen diren erraztasunen eta emakumeak lan-munduan eraginkortasunez eta berdintasunez sartzearen artean, baita hurren pobrezia-tasaren murrizketarekin³⁵ eta jaiotza-tasaren gorakadarekin ere³⁶. Izan ere, emakumeen langabezia-tasa txikiagoa daukaten eta bateratzeko politikak garatuagoak dauzkaten herrialdeak ugalkortasun-tasa handienak dituzten herrialdeak dira.

Gainera, frogak iradokitzen dutenez –De Villotak (2009) eta Esping-Andersenek eta Palierrek (2010) jaso duten moduan–, bateratzeko neurri eraginkorrak hartuz gero baino ez da handituko eta hobetuko emakumeek lan-merkatuan daukaten partaidetza; ondorioz, horrela sortuko da aberastasun handiago bat eta, horrez gain, lan-sarea indartuko da, zerga-bilketa handituko da eta azkenik ugalkortasuna hobetuko da (Esping-Andersen, 2013).


Hortaz, bateratzeko laguntza-politika indartsu batek –diru-laguntzen zein azpiegitura-laguntzen bidez– erronka horri aurre egitea ahalbidetuko luke eta eragin argi bat edukiko luke bai jaiotza-tasaren bai enpresen produktibitatearen hobekuntzan. Izan ere, 25 eta 49 urte bitartean dauzkaten 6 milioi emakume europarrek baieztatu dute beraien familia-erantzukizunaren ondorioz ezin dutela lan egin edo denbora partzialen baino ezin dutela egin³⁷.

Hori modu argian frogatu da De Villotak (2009) emakumeek Europako hainbat herrialdetan bateratzeko daukaten gaitasunari eta jarduera-tasari buruz egindako analisiaren bidez. Hurrengo grafikoan antzematen denez, bateratzen laguntzeko neurrien arloan ausartagoak diren politika publikoak dituzten herrialdeek uzten dute emakumeek jarduera-tasa handiagoak edukitzea.

³⁴ Europako Batzordea (2006).³⁵ COFACE (2009).³⁶ IESE (2003).³⁷ EUROSTAT (2006a).

(10. grafikoa)

Jarduera-tasaren eta bateratze-indizearen arteko korrelazioa



Iturria: De Villota (2009).

Danimarkak, Suediak edo Finlandiak emaitza onenak dituzte, baina Espainiak, Italiak eta Irlandak –esparru horretan apustu ahulak egiten baitituzte, txosten honen V. kapituluaren ikusiko dugunez– emaitza txarrenak daukate. Egoera horrek harreman zuzena dauka oso desberdinduta dauden biztanleriaren piramideekin: Europako iparraldeko herrialdeek Mediterraneo herrialdeek baino jaiotza-tasa altuagoak daukate (orobat bosgarren kapituluaren ikusiko den moduan).

4.

Biztanleriaren zahartzearen ondorioak familiei laguntzeko politika publikoei lotuta

Biztanleriaren zahartze horrek ondorio bikoitza dauka familiei laguntzeko politika publikoen diseinuan, adinekoek eginkizun bikoitza daukaten heinean, alde batetik baliabideak jasotzen dituztelako (mendetasunaren arloan, adibidez), eta bestetik –eta bateratzea hain zaila den une batean– haurrek era ez formalean zaintzeko baliabide bat direlako.

Beraz, garrantzitsua da adinekoak familiaren arloko politika publikoek aurre egin behar dieten desafiok buruzko erreferentzia-puntua (jasotzaile gisa) baino ez direla ez pentsatzea; aitzitik, sare ez formaleko hornitzailetzat ere jo behar dira. Horrek bilobak zaintzeari buruz gaur egun Europan dagoen eztabaida (Eurochild, 2013) eragin du: familia-harreman

osasuntsu bat sustatu behar da, eta aitona-amonen zaintzeko rola ez du familiei laguntzeko politika eraginkorren diseinuan dagoen erantzukizun publikoa saihesteko biderik eman behar.

Egoera horri dagokionez, **zeintzuk dira jaiotza-tasa baxuagatik biztanleriaren zahartze horren ondorioak? Zer eragin dauka familiei arreta emateko politiken iraunkortasunean?**

Gaur egun, Europako gizarteak zahartze-osagai altu bat dauka dagoeneko, baina, hurrengo urteetan, hein handiago edo txikiago batean mendekoak diren adinekoen bolumena pixkanaka handitu egingo da.

(10. taula)

65 urte baino gehiago dituen eta mendetasun-graduren bat daukan biztanleriaren ehunekoa

	2010	2030	2040
Frantzia	% 25,81	% 39,02	% 45,20
Alemania	% 31,17	% 46,23	% 59,08
Erresuma Batua	% 24,72	% 33,23	% 42,14
Danimarka	% 24,98	% 37,85	% 42,66
Espainia	% 24,43	% 34,32	% 59,07
Italia	% 30,99	% 42,45	% 59,32
Herbehereak	% 22,82	% 40,00	% 47,18

Iturria: Kamette, F. (2011).

Esate baterako, gaur egun, Europan, 65 urte baino gehiago dituzten eta mendetasunen bat daukaten pertsonen batez bestekoa %23 baino altuagoa izan ohi da (Alemaniak eta Italiak, bestek beste, %30 gainditzen dute). Egoera hori areagotu egingo da eta 2030ean ohikoa izango da %40 baino ehuneko altuagoak egotea (Alemanian, Italian edo Holandan) eta %50 baino altuagoak 2040an (Espainian edo Italian). Horren ondorioz, Europako gobernuek erronka bati aurre egin behar diote, alegia, nola erantzun desafio soziodemografiko eta sozioekonomiko horri, dagoeneko oso garrantzitsua baita eta hurrengo urteetan are nabarmenagoa izango baita, bereziki gaur egun mendekotasunari lotutako politikek duten kostu altua aintzat hartuta eta biztanleriaren piramideak kotizatze gaitasunean eta adinean eduki duen murrizketa kontuan izanik.

Adinekoen pixkanakako eta etengabeko hazkunde horrek eta horri erantzuteari lotutako desfaiok herrialde eta eskualde batzuek horretan arreta jartzeko izaera soziosanitarioko eredu berritzaileak serioki ikertzea eragin dute (Khan, 2013).

EAEko erakundeek apustu sendo bat egin dute esparru horretan (gastu publikoari eta dauden baliabideei buruzko analisiak geroago erakutsiko duenez): azken urteotan, gizarte zerbitzuen sistema eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta soziosanitarioa indartu egin dira. Prestazio ekonomikoen zein zerbitzuen bidez (familia zaintzaileentzako laguntza, laguntza teknikoak eta ingurunearen egokitzapena,

eguneko arreta zentroak eta egoitza-arretako zentroak, besteak beste) antolatutako sistema bat da, eta laguntza argi bat izan da familientzat.

“Mendetasunari dagokionez, Euskadiko egoera, oro har, estatukoa baino hobea da”.

(Gizarte-erakundeekin eztabaidatzeko taldea)

Alde batetik, mendetasunaren esparruan bizitzaren adin eta eremu guztiak, hala nola hezkuntza, etxebizitza edo enplegua (adibidez, Enpleguko Zentro Berezien bidez), barne hartzen dituen arreta integraleko programa oso bat dago.

Bestetik, mendetasun-egoeran dauden adinekoen esparruan, arreta-sistema hazi egin da: erkidegoko baliabideak asko garatu dira (egoitzetakoak nahiz eguneko arretakoak), oraingoan bai publikoak bai erakunde pribatuek kudeatutakoak (irabazi-asmoa daukatenak eta irabazi-asmorik gabekoak).

Bi ereduak kalitate onekoak dira eta zerbitzuak ematen dituzten langileen ratioak oso altuak dira. Horren ondorioz, gastu publikoa ere oso altua da (adibidez, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako 4.100 plazek, eguneko zentroak eta egoitzak barne hartuta, 118 milioi euro baino gehiagoko gastua ekarri zuten³⁸). Horrek etorkizunean edukiko duen iraunkortasunari buruz hausnarrarazten du, zerga-bilketa murriztu egingo baita eta batez ere biztanleria gero eta zaharragoa eta jaiotzataso baxua izango baita.

5.

Ondorioak

Familia-ereduak eraldatzen ari den gizarte-egitura batean murgilduta daudenez, haiek ere eboluzionatzen eta aldatzen ari dira. Nukleoan eta seme-alabetan oinarritutako gizarte-egitura –hori baita eredu tradizionalena– oraindik ere nagusia bada ere, pixkanaka baina etengabe garrantzia galtzen ari da, beste eredu batzuen mesedetarako, adibidez seme-alabarik ez daukan bikoteak edo kide bakarreko familiak.

Familia-eredu berrien sorrera eta sendotze horretan, familia-mota berriak (familia homoparentalak, guraso bakarrekoak edo ezkontzaz araututa ez daudenak) gero eta indar handiagoaz sortzen ari dira. Horrez gain, familia guztiak ukitzen dituzten **barne-harreman mota berriak** ere eraten ari dira, eta, horrela, kideen autonomia hazten ari da eta barne-negoiazioa handiagoa da.

Hala ere, familia-ereduaren bilakaeran funtsezkoa den eta analizatu behar den elementua, familiei laguntzeko politika publikoekin duen harreman zuzena dela-eta, **seme-alabak dituzten ereduaren ehunekoaren pisu-galera** eta haren tamaina espezifikokoaren beherakada da. Izan ere, badira hogei

urte baino gehiago familien batez besteko tamaina –bai eredu tradizionalagoetan bai duela gutxiago sortu eta/edo arautu direnetan– etengabe murrizten ari dela, eta orain EAEn **20 urtetik beherako gazte baino 65 urtetik gorako adineko pertsona gehiago daude**. Horrek eragin nabarmena dauka gaur egungo ongizate ereduaren iraunkortasun falta, pentsatuta dagoen moduan.

Funtsean, **egoera soziodemografiko hori azaltzen duten bi faktore** daude (egoera hori ez da guztiz desiragarria, familiek adierazi baitute nahiko lituzketen baino seme-alaba gutxiago daukatela), eta bie hel dakieke familiei laguntzeko politika publikoen bidez.

Lehenik, **EAE gazteak atzerapen gehiagorekin emantzipatzen diren** (eta, beraz, beraien familiak sortzen dituzten) **Europako eskualdeetariko bat da**. Horren arrazoiak gizarte- eta ekonomia-aldagaiak dira, adibidez etxebizitzaren kostu zeharo altua, bai erosteko bai alokatzeko, edo berez luzea den ikasketa-aldiko mugikortasun geografiko eskasa.

Beste aldetik, **lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko zailtasun izugarria** dago, bai kulturari lotutako faktoreengatik (emakumeak hein handiagoan arduratzen dira ugalketa-lanez eta familia zaintzeaz), bai ordu-baliagarritasunari edo malgutasunari lehenetsuna ematen dieten balioetan oinarritzen den ekoizpen-sistemaren ondorioz. Gainera, neurri publikoak (zuzenak zein sentibilizaziokoak) ez dira egoera hori aldatzeko gai izan eta logikoa dirudi gogoeta bat egiten hasteak, eredu aldatzeko aukerari buruz eta neurri publikoek gizarte osoaren mentalitatea aldatzen ez den bitartean gaur egungo egoera aldatzeko dituen aukera errealei buruz.

Azken alderdi horren harira, bereziki garrantzitsua da beste herrialde batzuen (Frantzia, Suedia) esperientzia aintzat hartzea; izan ere, horietan enpresen eta erakundeen lehiakortasunari eutsi ez ezik gizarte-sistemaren iraunkortasuna indartu ere egiten ari da, jaiotza-tasa eta gizonen eta emakumeen arteko gizarte-berdintasuna handitzen ari baitira.


Azkenik, aipatu behar dugu egoera soziodemografiko eta sozioekonomiko horrek **familiaren arloan gizarte-ongizateko ereduaren iraunkortasunerako ondorioak** ekartzen dituela, eta zehazkiago ezgaitasunen bat duten pertsonen eta men-deko pertsonen arreta emateko erakunde-ereduari dagokionez, horren etorkizuna arriskuan baitago bizi-itxaropenaren etengabeko hazkunderaren eta EAEn lan egiteko adina duten pertsonen oinarriaren murrizketaren ondorioz.

Modu horretan, haurrei arreta emateko eredu gutxi garatuta dagoela eta –hurrengo kapituluetan ikusiko denez– Europako testuinguruaren aldean gabezia handiak dauzkala aintzat hartuta eta ezgaitasunen bat duten pertsonak, mendeko pertsonak edo adinekoak babesteko prestazioen eta zerbitzuen iraunkortasuna zalantzazko egoeran dagoela kontuan izanda, badirudi argi dagoela **EAEn familiei prestazio integralak emateko ereduari buruzko hausnarketa bat, eragile publikoak, pribatuak eta sozietate zibila barne hartzen dituen**, ezarri behar dela.

³⁸ EUSTAT (2010a).



Esparru juridikorako hurbilketa



a t a l a

III. atala

Esparru juridikorako hurbilketa

1.

Sarrera

Kapitulu honetan familia-arloari lotutako esparru juridikoaren testuingurua azalduko dugu, EAEn familiarentzako politika publikoen garapenean hein handiagoan edo txikiagoan eragina duena hain zuzen ere.

Arau garrantzitsuenak aurkeztuko ditugu laburki, bai familiari zuzendutakoak bai familian eragin handia daukaten sektoreko arauak, eta, jarraian, txosten honetako aurreko atal batzuetan adierazitako ikerketaren bideak aipatuko ditugu.

Kapitulu honek familiei laguntzeko neurriak antolatzen diren esparru juridikoa zedarritu nahi du, baita familien eta haren premien bilakaerarako egokitzapena eta aurreko kapituluan identifikatutako gizarte-aldaketekiko bat etortze maila ere.

Horren guztiaren bidez, dauden neurri juridikoak EAEko familien premiei erantzuna emateko gai diren aztertu nahi da, egiturari dagokionez behintzat –hurrengo kapituluan politika publikoen garapen zehatzak aztertuko baitugu–.

Azkenik, EAEko arau-esparruaren ezaugarri nagusiak identifikatzen saiatuko gara, neurri zehatzak hobeto ulertzeko helburuarekin (txosten honetan geroago analizatuko baititugu).

2.

Nazioarteko araudia

Aurreratu daiteke **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak** dagoeneko jasotzen dituela, 16. artikuluan, familiari buruzko lehen aipamenak, honakoa dio-eta: *“Gizonek eta emakumeek (...) ezkondu eta familia osatzeko eskubidea dute, inolako murrizketarik gabe, arraza, naziotasuna edo erlijioarengatik; halaber, eskubide berberak izango dituzte, ezkontzako unean, ezkontzak iraun bitartean eta ezkontza desagitean”*. Horrez gain, *“ezkongaien adostasun askeaz eta osoaz baino ezin izango da ezkondu. (...) Familia gizartearen elementu naturala eta funtsezkoa da eta gizartearen eta estatuaren babesa jasotzeko eskubidea dauka”*.

1948ko aipamen bat denez, adierazpen hori familiaren eredu klasiko baterantz zuzentzen da. Dena den, nazioarteko ordenan ezartzen duen parametroak, jarraian ikusiko dugunez, zalantzarik gabe familiak gure ingurunean daukan esparru juridikoari eragiten dio.

3.

Europar Batasuneko araudia

Azpimarratu behar da **Europar Batasuneko Zuzenbidearen arloan ez dagoela familiak arautzen dituen esparru espezifikorik**. Hala ere, joan den mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran sortzen hasi ziren erregulazio batzuk egon badaude; horiek familia-eredu guztiei hein handiagoan edo txikiagoan eragiten diete, familiak gizarte-egituraketan daukan funtsezko eginkizuna nahiz zeregin hori ahalik eta hoberen gauzatzeko hainbat eremutan laguntza publikoa jasotzeko beharra onartzen baititu. Zehazki, Europar Batasunak arautzeko egiten dituen ahalginek lanbidea, familiako bititza eta norberaren bititza bateratzeko politiketan, haurdunaldian eta seme-alabak haztean dauden eskubideen babesean eta aiten eta amen zaintzako erantzunkidetasunaren sustapenean jartzen dute arreta nagusiki.

Oro har, lehenik eta behin **Europako Gizarte-gutuna** azpimarratu behar dugu, 16. artikuluan honakoa jasotzen baitu: *“familiak babes soziala, juridikoa eta ekonomikoa jasotzeko eskubidea dauka”*. Horrela, gizarte-egituraketan daukan funtsezko eginkizuna onartzen du, baita familiek haien eginkizunak errazteko ahalegin publikoen jasotzaileak izateko daukaten eskubidea ere: *“Familia –gizartearen funtsezko zelula baita– erabat garatzeko ezinbestekoak diren bizi-baldintzak lortze aldera, alderdi kontratugileek familiaren babes ekonomikoa, juridikoa eta soziala sustatzeko konpromisoa hartzen dute, bereziki gizarte- eta familia-prestazioen bidez, zerga-xedapenen bidez, familien premietara egokitutako etxebizitzak eraikitze laguntzen bidez, ezkonberrientzako laguntzen bidez edo beste edozein neurri egokiren bidez”*.

Zehazkiago, Europar Batasuneko herrialdeetako arauketa nazionaletan eragin nabarmena daukaten eta familiako bizitzari indarrez eragiten dioten erkidegoko araudiak ditugu. Arau horiek **gurasotasun-baimenen arloan, haurdunaldia babesteko arloan** eta beste arlo batzuetan babestera bideratzen dira (adibidez, [Kontseiluaren 1996ko ekainaren 3ko 96/34/CE Zuzentarauaren](#) –UNICEk, CEEPek eta ESKk gurasotasun-baimenari buruz egindako esparru-akordioari buruzkoaren– bidez edo [Kontseiluaren 1992ko urriaren 19ko 92/85 Zuzentarauaren](#) –lanean haurdun dagoen, erditu den edo edoskitzaroan dagoen langilearen segurtasunaren eta osasunaren hobekuntza sustatzeko neurrien aplikazioari buruzkoaren– bidez).

Zorroztasun-maila txikiago batez, **lanbidea eta familiako bititza bateratzea** eta **gurasotasun positiboa** ere babestu egin dira, bai gomendioen bidez (hala nola Ministroen Batzardeak gurasotasuna positiboki gauzatzen laguntzeko politiken inguruan estatu kideei, Europako Kontseiluarekin bat etorritik, egindako [Rec \(2006\) 19 Gomendioa](#)) bai ondorioen bidez (esate baterako, [Lisboako Europako Kontseiluaren 2000ko martxoaren 23ko eta 24ko ondorioak](#)). Lehendakaritzaren ondorioak. Aukera-berdintasunaren alderdi guztiak, lanbidea eta familiako bititza bateratzeko bidea ematen dutenak barne, hobetzeko garrantzia), bai

komunikazioen bidez (esaterako, [Batzardearen komunikazioa Europako Parlamentuarentzat, Kontseiluarentzat, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearentzat eta Eskualdeetako Lantaldearentzat](#). Oreak hobe bat lanbidean: lanbidea, bititza pribatua eta familiako bititza bateratzeko laguntza gehiago).

4.

Estatuko esparru juridikoa

Estatuko arau-esparruari begiratzen badiogu, erakundeek ere familia babesteko egin dituzten ahaleginak ikusiko ditugu. Ahaleginok oso argiak dira **Espainiako Konstituziotik** aurrera, bereziki horren 39. artikuluari dagokionez, botere publikoek familia funtsezko hiru eremutan (gizartea, ekonomia eta zuzenbidea) babesteko betebeharra daukatela jasotzen baitu. Elementu hori estatuko administrazioek gerora egin dituzten ahalegin guztiak markatu ditu, arau goien horren oharrei jarraitu behar baitiete. Hain zuzen ere, konstituzioak honakoak ezartzen ditu:

- Botere publikoen betebeharra: *“familiaren gizarte-, ekonomia- eta zuzenbide-babesa segurtatzen dute”*.
- Gurasoen betebeharra: *“ezkontzaren barne ala kanpo izandako seme-alabei era guztietako laguntza eskaini behar diete, adingabeak direnean eta zuzenbidean hori eskatzen den gainerako kasuetan”*.
- Haurren eskubidea: *“euren eskubideen aldeko nazioarteko itunetan aurreikusitako babesa izango dute”*.

Era berean, Espainiako Konstituzioak honakoak jasotzen ditu era osagarrian bi artikulutan, familietan eragin handia daukaten arloei dagokienez, hala nola lana eta hezkuntza (botere publikoei hezkuntzarako eta irakaskuntzarako eskubidea bermatzeko mandatu bat ezarriz –27. artikulua–): zuzenbide-berdintasun osoz ezkontzeko eskubidea (32. artikulua) eta lanagatik norberaren eta norbere familiarren premiak asetzeko nahikoa den ordainsari baterako sarbidea (35. artikulua).

Gainera, **legeria zibilak** –hori ere kontsulta daiteke bibliografian era zabalagoan– familiei laguntzeko politika publikoen antolaketari eragiten dion arau-esparru bat ezarri du orobat, ezkontza-harremanei (ezkontza, dibortzioa) edo familiarren barruko antolaketari (gurasoen eta seme-alaben arteko harremana, guraso-ahala eta biloben eta aitona-amonen arteko harremanak) lotutako elementuak arautu baititu.

Horrek guztia geroko politika publikoen garapenean oinarria ezarri du, estatuak familiekiko daukan betebeharrak ez ezik antolatze moduak eta erregistratutako barne-harremantako motak ere arautu baitira; izan ere, azken horiek onartuta dauden familia-ereduen eta horiekin hartu beharreko konpromisoen oinarriak dira

Azkenik, aipatu behar dugu **familia ugariak** babesteari buruzko legeria egon badagoela, estatuan ere bai. Zenbaitean erreformatu egin da familia ugariaren kontzeptua garatu eta zabaltzeko ([abenduaen 23ko 21/1986 Legetik](#), [abenduaen 30eko 42/1994 Legetik](#) eta [apirilaren 14ko 8/1998 Legetik](#) gaur egun indarrean dagoen Familia Ugariak Babesteari buruzko [azaroaren 18ko 40/2003 Legea](#) arte). Erreforma horiek familia ugariaren kontzeptua birformulatzea ekarri dute; horrek seme-alaben kopuruaren betekizunean izan du eragina (murriztu egin baita) eta legezko familia-kategoria horretan mendetasun-kasuak sartu ditu. Gaur egun, aipatutako legearen arabera, familia ugaria da hiru seme-alaba edo gehiago dauzkana, edo bi seme-alaba dauzkana horietako batek mendetasunen bat badu. Seme edo alaba nagusia adin-mugara heltzen denean, familiak familia ugariak titulua edukitzeko eskubidea galtzen du, eta, horren ondorioz, eratorritako abantailak ere bai. Hala ere, txosten hau idazteko unean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa hori zabaltzea aztertzen ari da³⁹.

Araudi hori bat dator familiaren eginkizunen onarpenarekin –aurreko kapituluetan adierazi den bezala– eta, beraz, familiek beraien eginkizunak gauzatzeko laguntza publikoa behar dutela onartzearekin ere bai, bereziki tamaina handiagoa daukaten eta ekonomiari eta denboraren antolaketari lotutako zailtasunak dituzten familien kasuetan.

Dena den, eta txostenean ikusiko den moduan familientzako baliabide publikoak eskuarki oso urriak diren arren, nabarmendu daiteke familia ugariak babes berezia eskaintzen dien berariazko legezko onarpen bat daukaten familia-tipologietako bat direla. Babes hori hainbat eremutarako prestazio eta laguntza espezifikoaren bidez egikaritzen da (tasa akademikoak, garraiorako bekak, zerga-onurak, etab.).

5.

EAEko esparru juridikoa

5.1. Autonomia Estatutua

Euskadiko Autonomia Estatutua, [abenduaen 18ko 3/1979 Lege Organikoak](#) onartutakoa, EAEko eskumenak jasotzen dituen erreferentziako esparru juridikoa da. 1979. urteko aldatu ez denez, familiei laguntzeko politika publikoak instituzionalizatzeko prozesuaren aurrekoa da eta ez du berariaz jasotzen familiaren arloko eskumena (gerora beste autonomia-erkidego batzuetan sortu ziren beste estatutu batzuek hala egiten dute).

³⁹ Proposamen hori Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun ministroak, Ana Matok, iragarri zuen 2013ko uztailaren 17an. Gaur egungo araudiaren aldaketa eskatuko du eta hurrengo Familia Planaren zati bat izango da (aurreikuspenei jarraiki, plana 2014ko lehen seihilekoan onartuko da). [Espainiako Gobernua](#) (2013).

Beraz, estatutuan ez da eskumenik zehazten ezta familiaren arloko jardun zehatzak berariaz babesten dituen titulurik gaitu ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi EAEk familia-erakundeari buruzko berezko jardunak garatu ez duenik. Esate baterako, 9. artikulua zehazten du euskal botere publikoak, haien eskumenera arabera, herritarren eskubideen eta betebeharren erabilera egokia babesteko arduradunak direla, enplegua, aukera-berdintasuna eta herritarren partaidetzaren arloetan besteak beste. 10. artikulua, aldiz, bakarreko eskumenerako arloak jasotzen ditu, hala nola gizarte-laguntza, ekonomiaren sustapena, etxebizitza, aisia, kirola eta komunitatearen garapena.

Euskadiko Estatutuan familia babestu beharreko alderdi gisa espezifikoak jasota ez egotea familiaren arloko zeharkako ikuspuntuaren instituzionalizazio berantiarrean islatuta egon daiteke nolabait. Izan ere, horren ondorioz, XXI. mendean sartuta egon arte, familian eragina eduki duten baina familiei babesteko ikuspegi batetik antolatu ez diren sektoreko neurriak egon dira.

Egoera horretan inflexio-puntu argi bat egon da 13/2008 Legea indarrean sartutakoan. Dena den, horren aurretik, familiei laguntzeko erakundearen arteko lehenengo planak norabide horretan emandako lehen urratsak dira.

5.2. 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa

2008ko amaieran, Eusko Legebiltzarrak Familiei Laguntzeko [abenduaen 12ko 13/2008 Legea](#) onartu zuen, familiaren eta haren kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratuta dagoen familia-politika integral baterako testuingurua eta oinarriak ezartzeko helburuarekin. Lege horrek orientazio integral bat lortu nahi du bai zuzentzen zaien familia motetan bai jasotzen dituen neurrietan.

Alde batetik, legeak familia moten bilakaeraren berri eman du eta lehen ahalegin bat egin du familia-eredu berriei legitimitatea emateko eta eredu tradizionalagoen tratua bera jasoko dutela bermatzeko. Halaber, eta gizarte zerbitzuen legearen parean, arreta berezia jarri du ahultasun bereziko egoeretan dauden familietan (kategorizazio horren barruan guraso bakarreko familiak, genero-indarkeriaren biktimenak eta familia ugariak daude); beraz, horiek lege-esparruaren barruan araututa, definituta eta onartuta geratu dira.

Beste aldetik, gurasoek seme-alaba adingabeen zaintza eta mantenua bermatzeko daukaten eginkizuna onartu du eta adierazi du seme-alabak dituen pertsona orok unitate ekonomiko independente gisa horiek artatzeko baliabide ekonomiko eta zerbitzu nahikoak eduki behar dituela, hirugarrenen laguntzara jo behar izan gabe. Horrekin bat eginez, aurreko kapituluetan aipatu denez eta hainbat egilek adierazi dutenez, legez garatu beharreko neurri batzuk antolatu dira familiei beraien eginkizunak ahalik eta baldintza hobereenetan gauzatzeko laguntzeko.

Azkenik, lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeari emandako garrantzia azpimarratu nahi dugu (isla espezifikoak edukiko du neurri zehatzen garapenean, hurrengo kapituluaren ikusiko denez). Gizonek etxeko lanetan eta seme-alaben zaintzan eta hezkuntzan erantzukizuna

partekatze ekintza positiboak sustatu nahi dira eta enpresak eta bereziki enpresaburuak elkarrekin eta erakunde sindikalak tartean sartu nahi dira, lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko neurriak aplikatu dituzten; horretarako, neurri horiek enpresarentzat eta gizartearentzat dakartzaten abantaila buruz kontzientziatu behar dira.

5.3. Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen arau-garapena

Familiei laguntzeko euskal legea familien premia berriei erantzuten dieten eta legezko xedapenetako batzuk zehazten dituzten zenbait arautegiren bidez garatu da, bereziki seme-alabengatiko laguntzen eta lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko laguntzen esparruan. Arau-garapen horiek jarraitutasuna eman diote Eusko Jaurlaritzak lege horren aurretik hasi zuen arazko esku-hartze bati, bereziki seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa emateko eta bateratzen laguntzeko aipatutako laguntzei dagokienez. Jarraian, neurri horiek arautzen dituzten araudiak agerian jarriko ditugu, esku-hartzeko irizpide materialean arreta jarri, aintzat hartu gabe arau horietako bat familiei laguntzeko euskal legea baino lehen aldarrikatu den ala ez. Azpimarragarrienen artean honakoak nabarmendu daitezke:

■ Lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko laguntzak:

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko 177/2010 Dekretua

Ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoak, berariaz onartu du familiek lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko premia daukatela, eta aurreko kapituluan aztertu ditugun gizarte-aldaketako elementu askorekin (dekretua "gizartearen eta lan-mundua-aren aldaketaz" ari da) bat dator.

Hain zuzen ere, dekretuak Eusko Jaurlaritzak bateratzea errazteko daukan beharrezko eginkizuna gain hartzen du, eta familietan dauden rolen banaketari ez ezik enpresen ekoizpen-ereduei ere eragin behar dien kultura-aldaketa batean aurrea izan da.

Era berean, bateratzea gizonen eta emakumeen erantzukizun partekatuko elementu gisa sustatzeaz gain, osasun-egoera oso larriak dauden pertsonak ere sartu ditu bateratzean. Hortaz, bateratzearekin lotzen den haurren esparrua gainditu eta beste talde batzuek familian daukaten eragina onartu du, txosten honetan egitea erabaki den moduan.

Helburu horiek seme-alabak eta/edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera larriak dauden senideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duten langileen-laguntzen eskaintzaren bidez bideratu dira. Halaber, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa (arestian aipatutako kasuetan) eskatu duten langileak ordezkatzeko laguntzak eta seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak eskaini dira.

"Gehien balioesten dugun indargunea da antzeman dugula azken urteotan lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeari lotutako hobekuntzak egon

dira. Zentzu horretan, garrantzitsua da arautzen duen araudia betetzen dela bermatzeko lan egiten jarraitzea". (Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

■ Seme-alaben jaiotzagatiko edo adopzio-gatiko laguntzak:

Seme-alaben jaiotzengatiko laguntzei buruzko 255/2006 Dekretua

Abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen, familiei laguntza publikoa ematen dien tresnetako bat da eta politika publikoak pixkanaka gizartearen bilakaerara egokitzen ari direla erakusten du.

Dekretu horrek hiru laguntza-mota arautzen ditu (ardurapeko seme eta/edo alabagatiko, erditze, adopzio nazional anizkoitz eta nazioarteko adopzio-gatiko laguntzak), eta familiari buruz aurrekoetan erabilitakoak baino ikuspegi malguago bat dauka. Izan ere, familia-unitatearen zein aita eta ama kontzeptuen definizio zabalago bat xedatu du, egitate biologiko soilari baino gehiago dagozkien eginkizunei lotuta baitago. Gainera, familia-unitatearen barruan bizi diren adingabe guztiei tratamendu berbera eman die, eskatzailearekin daukaten harremana zein den ere, seme-alabatasunekoak, biologikoak edo adopziozkoak nahiz adoptatu baino lehen familian harrera egitearen ondoriozkoak.

"Oso era positiboan baloratu dugu jaiotzagatiko laguntzetan hartutako edo adoptatutako seme-alabak barne hartzea. Araudiak guraso izateko hainbat modu xedatu ditu. Hau da, familia adopziogileak biologikoekin parekatuta daude, tutoretzapean adingabeak dituzten pertsonak bezala".

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

■ Gizarte-partaidetzarako, kontsultarako eta familiaren arloko politikari jarraipena egiteko tresnen antolaketa:

Familia Euskal Kontseiluaren 53/2012 Dekretua

Familia Euskal Kontseiluaren apirilaren 17ko 53/2012 Dekretuaren bidez, kontseilu hori eratu da, batez ere organo aholku-emaile gisa (proposamenak hartu eta entzun ere egiten dituen arren) eta familia-eremuko gizarte-agenteei familiei eragiten dieten politika publikoen diseinuan duten parte-hartzea eta lankidetzaren bideratzeko gune gisa. Gune horretan Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak daukate ordezkapena, lau bideren bitartez: Osoko Bilkura, Familiaren Sail arteko Batzordea, Familiaren Erakunde arteko Bilkura eta Familiaren Batzorde Iraunkorra.

Mota horretako tresnak EAEko gizarte-politiken euskal ereduaren ezaugarri bereizgarriak dira, bertan sozietate zibilarren presentzia nabarmena baita eta jardura garrantzitsua baita bai proposamenei dagokienez baita kudeaketa zuzenari dagokionez ere.

Hala ere, baliteke azken urteotan ezaugarri hori desagertzen ari izatea, txosten honetarako landa-lanean hirugarren sektoreko erakundeek erakutsitakoaren arabera. Izan ere,

erakunde horiek haien presentzia txikiagotzen ari dela uste dute, bereziki erabaki garrantzitsuak hartzeko kontsultari eta haien jarduera babesteko bide ekonomikoei dagokienez.

“Elkarteek jasotako laguntzek, erakundeekin adostuta ez badaude, ziurgabetasun-maila altua daukate”.
(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzen duen 309/2010 Dekretua

Arestian aipatutakoarekin bat eginez, Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzen duen [azaroaren 23ko 309/2010 Dekretuaren](#) hasierako adierazpenak ere familietan eragina izan duten gizarte-aldaketa asko aipatu ditu, eta horren ondorioz onartu du erakunde publikoek familien eremuko esku-hartzea zabaldu eta sakondu behar dutela.

Horretarako, behatokiaren eginkizuna EAEn familiaren errealitatea, egoera eta problematika etengabe aztertzea da, baita Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen aplikazioan garaturiko politiken inpaktua aztertzea ere, horiek berrikusi eta gaur egun familia-mota guztien premiek, ikusi dugunez, daukaten etengabeko bilakaerara egokitu ahal izateko.

■ **Familia-errentak zenbatzeko parametro komunen eta haztatuen sorrera:**

Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko 154/2012 Dekretua

[154/2012 Dekretuak](#) Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen xedapen bat bete du, alegia, familiei laguntzeko politika publikoen eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema bat ezartzeko beharrari buruzkoa.

Hala ere, familiei arreta emateko euskal esparrua eskuarki sistema unibertsal bat ez denez, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen lege-garapenak bereziki ahultasun handieneko egoeran dauden familientzako babesean eta arretan sakondu du.

Bertan, familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefiziente baten bidez, familia-errenta estandarizatzeko sistema bat ezarri da, hain zuzen ere, familia-egoera eta -mota guztiak ekitatez tratatu ahal izateko. Sistema horiek familientzako diru-laguntzetan edo familiei laguntzeko zerbitzuetan aplikatzekoak dira (adibidez, jaiotzen, adopzioaren, harreraren eta lanbidea eta familiako bizitza bateratzearen arloan), baldin eta familia-unitatearen maila ekonomikoa laguntza edo zerbitzu horietara iristeko baldintza bada edo prestazio horren zenbatekoa zehazteko irizpidea bada. Izan ere, diru-sarreraren maila berbera duten baina osaera desberdina duten familia-unitateek ez dute izaten gaitasun ekonomiko berbera.

5.4. Familiaren arloan eragina daukaten beste xedapen batzuk

Azaldutako arauak Euskadin familiei laguntza publikoa emateko politikak zuzenean eta espezifikoki arautzen dituztenak dira, baina, horiez gain, beraien xedeagatik, irismenagatik

eta aplikazio-eremuagatik familien errealitatean eragin nabarmena daukaten beste legezko xedapen batzuk ere badaude. Hori dela-eta, jarraian EAEko esparruko lege jakin batzuek arituko gara, familiaren arloan daukaten eragina aipatzea garrantzitsua iruditzen baitzaigu:

Izatezko bikoteak arautzeko 2/2003 Legea

2003. urtean, Eusko Legebiltzarrak familiei laguntzeko politiken barruan erabat koka daitekeen lehen legegintzako ekimena egin zuen. Izatezko bikoteak arautzeko [maiatzaren 7ko 2/2003 Legea](#) izan zen; haren helburua sexu berdineko edo desberdineko harreman-talde afektibo eta sexual iraunkorren eskubideak bermatzea da.

Familia-eredu berriak onartzeko funtsezko tresna da hori. Izan ere, alde batetik, bikote heterosexualek eta homosexualen zenbait eskubide parekatzen zituen lehen legegintzako ahalegina izan zen, eta ekintza hori, geroago, estatuaren esparruan zabaldu zen, Kode Zibila ezkontzeko eskubidearen arloan aldarazteko [uztailaren 1eko 13/2005 Legearen](#) aldaketaren bidez.

Beste aldetik, lehen ezkontzen zirenentzat mugatuta zeuden eskubide ugari onartu dizkie bikoteei, eta, horrela, zeharo finkatuta dagoen gizarte-errealitate bati erantzun dio -aurreko kapituluan azaldu den moduan-.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legea

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko [otsailaren 18ko 3/2005 Legearen](#) onarpenak haurren eta nerabeen aldeko eskubideak benetan eta eraginkortasunez erabili ahal izan daitezkeen administrazioak betetzen duen jardunaren printzipioak arautu ditu berriaz.

II. tituluan familian eragin handia daukaten sektoreko jardun asko onartu dira; talde horrek osasunean, hezkuntzan, kulturaren, aisialdian, ingurumenean, giroan, gizartean parte hartzean eta gizarteratzean dauzkan oinarritzko eskubideak jaso ditu eta herri-administrazio guztiak eta arlo horretan aktiboki jarduten duten erakunde pribatu guztiak bildu ditu. Era berean, arrisku edo babesgabetasun egoeretan dauden haur eta nerabeei eman beharreko babesaren arloan esku-hartze esparrua zehaztu du.

“Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko 3/2005 Legeari esker, bi talde horiei lotutako eskumenak banatu egin dira. Zehazki, lege horrek argi eta garbi jaso ditu haurren eskubideak, alegia, nortasuna, babesa, higieena, etxebizitza eta hezkuntza; halaber, argi eta garbi ezarri du herri-administraziook noiz esku hartu behar dugun eskubide horiek urratzen ari direnean”.

(Herri-administrazioekin izandako elkarrizketak)

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea

Era berean, garrantzitsua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako [otsailaren 18ko 4/2005 Legea](#) azpimarratzea. Halaber, estatuari dagokionez eta arlo pribatuan eta enpresen arloan eragin handiagoa izan duenez, Emakumeen

eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako [martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa](#) nabarmendu behar da, horren ondorioz [Plan Concilia](#) delakoa sortu baita. Lege bien funtsezko printzipioa da berdintasunak zeharkako hedadura daukala; hori bereizkeriaren aurkako eskubide modernoaren bereizgarria da.

Bereizkeria-egoeren prebentzioa eta berdintasun-printzipioa eragingarri bihurtzen duten politika aktiboen xedapena araudiaren funtsezko helburuak dira. Hortik eratorri dira erantzunkidetasuna eta gurasotasun positiboa sustatzeko xedea duten neurriak, baita enpresek eta herri-administrazioek berdintasun eraginkorra bultzatzeko eta lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzearen aldeko ekintza zuzentzaile positiboak garatzeko hartu duten konpromisoa ere.

“Oso araudi interesgarria da, gurasotasun positiboa, erantzunkidetasuna eta bateratzea kontuan hartu ditu-eta. Neurri horiek oso positiboak dira familientzat”.

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

Familia Bitartekaritzako 1/2008 Legea

Familia Bitartekaritzako [otsailaren 8ko 1/2008 Legeak](#) familia-bitartekaritza arautzen du, familiaren barruan sortzen diren gatazkak epailetzaz kanpo ebazteko prozedura gisa. Alde batetik, konstituzioaren 39. artikuluan sartzen da, zeren eta horren arabera –lehen adierazi dugun bezala– botere publikoek segurtatzen baitute familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa, bai eta seme-alabek babes osoa izango dutela ere. Bestetik, Autonomia Estatutuan jasotako gizarte-laguntzari buruzko eskumenen barruan dago.

Lege horretan bitartekaritza aplikatzeko eremua zabaltzea erabaki da; hartara, bikotea –senar-emazteak izan nahiz izateko bikotea izan– hausten denean sortzen diren gatazkak ez ezik, familia-ingurunean gerta daitezkeen beste gatazka-egoera batzuk ere aintzat hartu ahal izango dira, hala nola, gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkak, familia biologikoaren eta harrera-familiaren artean sortutako gatazkak, mantenu-pentsioen inguruko gatazkak edo gurasoek aitona-amonei ilobekin harreman normalizatuak izatea galarazteagatik sortzen diren gatazkak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea

Gizarte Zerbitzuei buruzko [abenduaren 5eko 12/2008 Legeak](#) pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen eta autonomiaren alde egitea du xede; sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonen eta harremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Zalantzarik gabe, lege horrek familiei laguntzeko politika publikoari lotuta daukan funtsezko elementuetako bat da bere bi tresnen bidez (katalogoa eta zerbitzu-zorroa) eskubide subjektibotzat jotzen diren prestazioak zehaztu dituela eta, beraz, unibertsalak eta EAE osoan ezarri beharrekoak direla bermatu duela.

Lege horrek familiei laguntzeko politiketan eragina daukaten zenbait arlotako eskubideak onartu ditu, adibidez mendetasunaren, bateratzearen edo familiaren ongizatearen

arlotakoak. Hain zuzen ere, zioen azalpenean aurreko kapituluan aipatu ditugun faktore batzuk jaso ditu, berariaz, politika publiko espezifikoak eskatzen dituzten familiaren bilakaeraren faktore gisa.

Adibidez, onartu du aurreko legea, 1996koa, erreformatzea aholkatzen zuten faktore nagusietako bat autonomia mugatua daukaten pertsonen kopuruaren hazkunde etengabea dela. Besteak beste, *“mendekotasuna prebenitzeko eta artatzeko beharrianak eta eskaerak hazi egin dira, bai eta familiei laguntzeko beharrianak ere; horrekin batera, gizarte-laguntza informala ahuldu da, geroz eta emakume gehiago sartu direlako lan-merkatara eta, aldi berean, gizonezko askok zainketa informalean eginkizunak beren gain hartu ez dituztelako”.*

Era berean, onartu du *“familiei laguntzeko gizarte-sarea arinagoa eta sendagoa egiteko neurriak eta zerbitzuak”* bultzatu behar direla *“eta, oso modu berezian, oraindik ere mendetasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko eginkizunetan zama handiena hartzen duten emakumeak sare horretan sartzen laguntzekoak”.*

Halaber, argi eta garbi jaso du talde ahulentzako jardun publikoaren bidezko laguntza: *“etxebizitza eskuratzeko zailtasunek eta lan-prekarietateak batez ere gazteei, emakumei eta etorkinei eragiten diete; babes sozial nahikorik ez izateak eta isolamendu- eta bakardade-egoeretan bizitzeak adinduei eragiten die nagusiki; gizartearekin, ekonomiarekin edo familiarekin zerikusirik duten era askotako faktoreen ondorioz ugaldu diren gatazka-egoerek nerabeei eragiten diete eta babesgabetasun-egoerek oro har adingabeei”.*

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko [abenduaren 23ko 18/2008 Legeak](#) (etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko [urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak](#) eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko [maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak](#) garatu zuten, eta geroago Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen [azaroaren 24ko 4/2011 Legeak](#) aldatu zuen) honakoa dio diru-sarrerak bermatzeko errentari buruz: *“prestazio ekonomikoa da, nahiko diru-sarrerarik ez daukan bizikidetzaren unitate bateko pertsonen zuzendua, bizikidetzaren unitateak nahiko diru-sarrerarik ez daukanean ez oinarritzako premietako gastuei aurre egiteko eta ez gizarteratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko”.*

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bi modalitate desberdindutan egituratu da: gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzako errenta (baliabide ekonomikorik ez daukaten pertsonentzat) eta laneko diru-sarrerak osatzeko errenta (gizarteratzeko oinarritzako errentarako adierazitako zenbatekoa baino diru-sarrera gutxiago dituzten pertsonentzat). Diru-sarrerak bermatzeko errenta etxebizitzarako prestazio osagarriaren bidez (alokairuko bititokia ordaintzeko) eta gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez (gastu espezifiko ohikoak edo ezohikoak ordaintzeko) osatzen da.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide bikoitzaren printzipioan (bizitzako oinarritzako premiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eskubidea eta erkidegoko arre-

taren esparruan laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea) oinarritzen da eta, hortaz, enpleguak gizarteratzeko tresna gisa daukan nagusitasunaren inguruan antolatzen da.

Tresna hori oso garrantzitsua da familietan eragin handia daukaten politiken barruan, ahultasuneko egoeran eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen zailtasunak konpentsatzea xede duen transferentzia ekonomiko bat delako. Berariaz onartu ditu EAEko familia-mota batzuekin daukaten lotura dela-eta txosten honen aurreko kapituluaren aipatu diren zenbait egoera, hala nola pobrezia feminizazioa eta guraso bakarra izatea edo pobrezia estalia eta emantzipatzeko zailtasunak.

Izaera unibertsala (lehen aipatu den ahultasuneko taldearen barruan) eta haren zenbatekoen muntak (lanbide arteko gutxieneko soldataren %88 eta %125 artekoak, bizikidetzako unitatearen tamainaren arabera) direla-eta, diru-sarrerak bermatzeko errentak, Arartekoaren beste txosten batzuetan esan denez (2013), *“eragin positiboa eduki du EAEko pobrezia-tasei eusteari dagokionez”*.

5.5. Arautzeko beste tresna batzuk

Azkenik, garrantzitsua da arautzeko beste tresna batzuen zeregina azpimarratzea, izaera praktikoagoa dutenez hurrengo kapituluaren xehetasun gehiagoz aztertuko diren arren. **Erakundeen arteko planez** ari gara.

Familiei laguntzeko politika publikoetako lehen mugarrira, beharbada, 2001ean argitaratu zen Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko lehen Plana da. Familiei laguntzeko politikatzat har daitezkeenak Eusko Jaurlaritzako, erakundeetako eta foru- eta udal-administrazioetako sailetan zeharka sartzeko lehen saiakera da. Horretarako, planak Batzorde Iraunkor Sektorial bat eta Familia Erakundeen Batzorde bat ezarri ditu. 2006. urtean, lan hori hedatu egin zen, 2006-2010 urteetarako EAEn Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plana argitaratuz.

Gaur egun, 2011-2015 aldirako Erakundeen arteko III. Plana dago indarrean. Orain dela gutxi 2014-2015 urteetarako plan horretako jardunak lehenetsi dira, geroago azalduko dugun bezala.

Tradizionalki, legezko eta erregelamenduzko hainbat xedepenek familiaren zereginak gizarte-erakuntzan daukan nagusitasuna eta esleitzen zaizkion eginkizunak onartu dituzte, baita esparru publikotik laguntza jasotzeko beharra ere; elementu horiek oinarritzekoak dira familiek laguntza eskakizunetan legitimazioa eduki ditzaten eta, hortaz, laguntzeko neurri eragileak gara daitezzen.

Hala ere, azken hamarkadotan aldaketa handi bat egon da politika publikoen joeran –jadanik aipatu diren gizarte-bilakaerako faktoreekin bat eginez-. Horrela, ikusi da arau zaharrenek ez dutela bereziki familiako ikuspegia xedatzen, ez estatuan ez EAEn (esaterako, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak), edo familia-antolaketa ere duen interpretazio murriztaile bat egiten dutela (adibidez, Espainiako Konstituzioak).

Aitzitik, arautzeko tresna berriek familien zeharkako ikuspegi bat sartu dute (horrek sektoreko arauketetan eragina izango du) eta, aldi berean, familien aniztasuna, familiei neurri zehatzen bidez laguntzeko beharra eta familia-eredu guztiak errespetatzeko beharra onartzea erabaki dute (batez ere ahultasun handieneko inguruabarretan daudenen babes berezia bilatzen dute).

Legezko ahalegin berrien artean, azpimarra dezakegu Europar Batasuneko Zuzenbidearen esparruan familia-politikei esplizituki heltzen ez bazaie ere –besteak beste, Erki-degoko subsidiarotasun-printzipioa dela-eta– arauketa puntual batzuek familia-ereduen aniztasuna onartu egiten dutela. Arauketa horiek lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko politiken aldeko, erantzunkidetasunaren sustapenaren aldeko eta pertsonak lan-ingurunean haurdunaldian eta edoskitzaroan babestearen aldeko apustua egiten dute.

EAEn mende honen hasieran hasi da familiei laguntzeko neurrien ikuspegi integratzailea instituzionalizatzen, eta 2008. urtean ahalegin publikoak ordenatu eta jarduteko norabide berean bideratu dira, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen bitartez. Bestalde, EAEko arautzeko ekimenak, eskuarki, lehen aipatutako Europako ildo orokorrekin lerrokatuta daude, bereziki bateratzeari, familia-ereduen aniztasuna onartzei eta erantzunkidetasuna sustatzeari dagokionez; horrela, autonomia-erkidegoak arlo horietan esku-hartze publikoa izateko esparru juridiko egonkor bat dauka. Are gehiago, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen garapenetik sortutako jardunek gaur egun familiaren arloko euskal arau-esparru batez hitz egiteko bidea ematen duten berezko ezaugarri batzuk daukate, bai haien bat etortzeagatik bai izaera sektorialeko zenbait arauk familietan eduki dezaketen ondorioa ikuspegi integratzaile batez berriro ordenatzeko egin duten ekarpenagatik.

Zentzu horretan, sektoreko neurri jakin batzuek familientzat daukaten garrantzia nabarmendu nahi izan dugu, esate baterako gizarte zerbitzuen, hezkuntzaren, kulturaren, kirolaren, aisialdiaren, etxebizitzaren edo garraioaren arauketari dagokionez.

Gainera, ikusi dugu Euskadin bateratzeko politikak haurrak dituzten familietara ez ezik mendeko pertsonen zaintzak eta osasun-egoera oso larriko kasuek sortzen dituzten familia-premietara ere bideratuta daudela dagoeneko.

6.

Ondorioak

Azken hamarkadotan, familiak arautzen dituen arau-esparruak eboluzionatu egin du, nagusiki ezkontzan oinarritutako ikuskera batetik harreman-mota berriak legitimatzen dituen ikusmolde batera pasatu baita; horrela, mota guztiak tratamendu bera ematen zaie –oro har– eta familiei beren eginkizunak betetzeko eskubideak eta laguntzak onartzen zaizkie.

Era berean, egiaztatu dugu Familiei Laguntzeko 13/2008 Legetik eratorritako neurrietako askok ez daukatela izaera unibertsalistarik; aitzitik, eskuragarri dauden baliabide ekonomikoen arabera aktibatzen dira eta familia ahulenak babesteko haztapen-irizpideak ezarri ere egiten dute.

Azkenik, orobat antzeman dugu Euskadin sozietate zibilak kontsultak eta proposamenak egiten dituen eragile gisa parte har dezan organoak edo tresnak antolatu direla eta gizarte zerbitzuen esparruan garatuagoak daudela (oso garrantzitsuak dira familietan eragin handia daukaten neurrietarako). Hala ere, landa-lanean kontsultatu dugun hirugarren sektoreko zati batek uste zuen bide horien garrantzia azken urteotan murriztu zela, eta erabakiak hartzerakoan haien ahotzak zeukan garrantzia galtzen ari zelako sentrazioa zuen.

Dena den, eta euskal arau-esparrua familia-aniztasuna onartzeari eta familia-mota guztien eskubideak bermatzeari dagokionez ingurune aurreratua dela baieztatu daitekeen arren, garapen horretarako esleitutako baliabide zehatzik ez dagoenez (hurrengo kapituluan ikusiko den moduan), oraindik ez du bere indar osoa garatu.

Horrek guztiak ondorioztatzen digu EAEn familia-aniztasuna babestera eta onartzera bideratuta dagoen, laguntzei dagokienez unibertsalista ez den eta haurrak dituzten familiei laguntzeko tresna indartsurik ez daukan arau-esparru bat daukala. Azken hori era negatiboan balora daiteke herri-administrazioak EAeko biztanleriaren zahartzea geldiarazteko eduki dezakeen eginkizunaren ikuspuntutik, era berean hurrengo kapituluan ikusiko denez.



**EAEn familiei laguntzeko
politika publikoak**

a t a l a

IV. atala

EAEn familiei laguntzeko politika publikoak

IV

1.

Sarrera

Kapitulu honek **ibilbide bat** egingo du **familiei laguntzeko politika publikoetan zehar**, aurreko kapituluak aurkeztutako **esparru juridikotik datozenetan** hain zuzen. Jardutako neurri zehatz batzuen ezarketaren bidez **lege-esparrua nola garatu den** eta zein politika publiko mota sortu den aztertuko du.

I. kapituluak adierazienez, analizatutako neurriak honakoak dira: alde batetik, familiei zehazki zuzendutakoak, eta, bestetik, familiaren arloan eragin altua daukaten sektoreko politikak.

2.

Familiei laguntzeko erakundearen arteko III. plana

Banakako azterketa hasi baino lehen, garrantzitsua da **Familiei Laguntzeko Erakundearen Arteko III. Plana** berrikustea (Eusko Jaurlaritza, 2011a). Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearekin batera, eremu horretako lege-esparrua antolatzeko mugari nagusia da, eta familiei laguntzeko neurri zehatzetan arloan eratorritako tresna da.

Planaren helburua hau da: *“familien bizi-kalitatea hobetzea (...), babesaren, arretaren eta laguntzaren bitartez (...) autonomiako esparruan familien alde indarrean dauden neurriak modu koherentean antolatuz eta laguntzeko neurri berriak arautuz”*.

Analisiaren ikuspuntutik, garrantzitsua da planak 13/2008 Legearekin eta harremana daukaten beste arau-elementu batzuekin (aurreko kapituluak aipatu dira) daukan lotura-maila altua. Izan ere, hiru norabide nagusitan egiten du lan:

Alde batetik, **neurri zehatzak garatzen ditu**, bai ekonomikoak bai zerbitzuak ematekoak.

Bestetik, zenbait politikatan **familiaren ikuspuntua bateratzen du**; hori oso elementu garrantzitsua da familia tradizionalaren ikuspegia zabalduz (familien arloan eragina daukaten talde berriak biltzen baititu) eta familietara zuzenean bideratutako neurriak ez ezik familietan eragin altua daukatenak ere barne hartzen dituelako (beste arlo batzuetan, hala nola hezkuntzan, etxebizitzan edo garraioan).

Azkenik, **familia-ereduen aniztasuna onartzen du**, eredu horiek arautu eta ekintza espezifikoaren bidez babesten ditu.

Dena den, eta beharbada hain zuzen esandako guztiagatik, plan hori **oso handizalea** da (169 neurri eta hainbat administrazio eta talde daude tartean), eta, horren ondorioz, gaur egungo Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzak 2012-2016 aldirako 16 ekintza estrategikori lehentasuna eman behar izan die.

Ekintza horien analisiak erakusten du **lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzea** –garrantzi bereziko elementu bat, aurreko kapituluetan ikusienez– jarduteko arlo nagusia dela neurrien kopuruari dagokionez (gurasotasun positiboan, diru-laguntzetan eta belaunaldien

arteko solidaritatean ere jardunak bildu diren arren). Izan ere, aukeratutako 16 ekintzetatik 9 arlo horretakoak dira, zehazki **erakundeen arteko koordinazioaren hobekuntza** (lan-mahaiak edo bultzatzeko taldeak), **dibulgazioa eta sentsibilizazioa** eta **ezagutza-trukea** elkarrekin ikasteko eta etengabe hobetzeko, zerbitzuei zein prestazio ekonomikoetara lotuta.

Gainera, txosten honen landa-lanean, **lan-arlo horiek familientzat lehenetsunezkoak direla** ikusi da, **txosten hau idazteko egindako landa-lanean garatu diren elkarrizketen eta eztabaidatzeko taldeen bidez**, honakoei lotutako eskaera espezifikoak egin baitituzte (txosten honen ondorioetan eta gomendioetan kontsulta daitezke era zabalagoan):

- Erakundeen barneko eta erakundeen arteko **koordinazioa hobetzea**, erakunde bateko baliabideak nahiz administrazioenak lerrotatuta egon daitezen.

“Uste dut erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko arlo bat dela. Modu koordinatuan lan egitean, arrakasta izateko posibilitateak handitu egiten dira. Baliabideak optimizatzea eta kudeaketan efizientzia sortzea askoz ere errazagoa da administrazioen artean koherentzia dagoenean, eta, gaur egun, koordinatzeko dauden kanalak ez dira egokiak”.

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

- Familientzat dauden baliabideei buruzko **informazioa handitzea eta argitzea**, dagoen sakabanaketak horien berri edukitzea eta ondorioz onura ateratzea zailtzen baitu.

“Eskaintzen diren laguntzei buruzko informazio urria dago. Prestazioak eta baliabideak, kasu gehienetan, sakabanaketaren eta komunikazio desegokiaren ondorioz ez dira ezagutzen”.

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

- Lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza **bateratzeko politika integral** bat garatzea funtsezkoa da familia-eredu guztien eguneroko premietarako.

“Atsegin dut bateratzearen alde egiten ari dena, baina berdintasunarekin batera sustatzen jarraitu behar da, zeren eta gaur-gaurkoz hobetzeko ibilbide garrantzitsu bat geratzen baita hori errealitate bat izan dadin”.

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

Lehenetsunezko neurrien analisiak beste datu bat ere ekarri digu, hautatutako neurrien gaitasun ekonomikoari buruzkoa; izan ere –behintzat beste eragile batzuek abiarazitakoei, geroago egiaztatu ahalgo direnei, dagokienez–, **gaitasun ekonomiko murriztua** daukate. Dena den, haietako askok **koordinazioa sustatzeko** daukaten zereginari esker, eragin handia sor dezakete familien bizitzetan.

Era berean, azpimarragarria da **sentsibilizatze eta informazioa handitzea neurri** emandako laguntza, adibidez Concilia+ tresna lehenetsiz. Tresna horren bidez, enpresek, sindikatuek, langileek eta autonomoek bateratzeari buruzko informazioa jasotzeko eta hausnartzeko gune bat daukate. Horrez gain, autodiagnostikoak egin ditzakete, bateratzeko neurrien aplikazioaren kostuak eta onurak kalkulatu ditzakete eta diru-laguntzak eta hobariak eskatzeko edo bateratzeko neurriak baliatzeko behar diren izapideen inguruko informazioa jaso dezakete. Halaber, familientzako baliabideetarako

sarbidetazagoa eta zabalagoa dakarten tresnen sorrera lehenetsuna eman beharreko elementu bat dira eta familiek hori eskatzen dute.

Neurri horiek guztiek, ordainketa publiko murrizta ekartzen duten arren (adibidez zerga-arloari edo gizarte zerbitzuei esleitutako aurrekontuekin alderatuta), eragin altua izan dezakete familien bizitzetan, baina, jakina, ez dute konpentsatzen kostuak orekatzeko neurri zuzenetan egiten den inbertsio murrizta. Izan ere, hurrengo kapituluan ikusiko denez, inbertsio hori Europako estandarretik oso urrun dago.

3.

Kostuak orekatzeko neurri ekonomiko garrantzitsuenak

Kapitulu honen sarreran adierazi denez, familiei laguntzeko politikak neurri ekonomikoaren bidez edo zerbitzu eta programen bidez antolatzen dira nagusiki. Atal honen helburua EAEn kostuak orekatzeko eskuragarri dauden neurri nagusiak aurkeztea da, alegia, familiek beren eginkizunak betetzean aurre egin behar dieten gastuak orekatzen saiatzen diren neurri ekonomikoak (laguntza zuzenen bitartez zein kenkari fiskalen bitartez).

3.1. Autonomiako neurriak

Familientzat kostuak orekatzeko neurriak kenkari fiskalen bitartez bideratzen dira nagusiki, eta neurri zuzenak (familientzako transferentziak) ez dira oso esanguratsuak: funtsean, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak (255/2006 Dekretuak arautuak) eta lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko laguntzak (177/2010 Dekretuak arautuak) daude; biak aurreko kapituluetan aipatu dira.

A. NEURRI FISKALAK

Zerga-neurriak familiei laguntzeko bide nagusietako bat dira. Berez zuzeneko tresna gisa sortu ez diren arren, egia da eragin handia daukatela familian, kostuak orekatzeko neurri gehienak kenkari fiskalen bidez gauzatzen baitira.

Izan ere, gure ingurunean zenbait herrialdeetan elkarrekintza- eta koordinazio-maila altuago bat dago gizarte- eta zerga-sistemen artean, eta gizarte-politikak (eta bereziki familiei laguntzekoak) bi sistemak barne hartzen dituen eredu baten bidez diseinatzen dira, osagarriak dira-eta.

Neurri horien analisisa hasi baino lehen, garrantzitsua da EAeko zerga-erregimen espezifikoak laburki testuinguruan kokatzea, erregimenak ahalbidetzen baitu eredu hori. Bertan, lurralde historikoek daukate arautzeko eta betearazteko eskumena (lurralde bakoitzeko batzar nagusiek daukate zerga-arauak onartzeko ardura, eta foru-aldundiak zergak kudeatzeaz, likidatzeaz, biltzeaz eta ikuskatzeaz arduratzen

dira); Zerga-Kideketarako Sailak, ordea, haien arteko harmonizazioaren, koordinazioaren eta lankidetzaren fiskalaren alde egiten du.

Oro har, baieztatu daitezke **lurralde historikoen artean ez dagoela desberdintasun nabarmenik familiari buruzko zerga-araudian**, Bizkaia eta Araba eta Gipuzkoaren artean desberdintasun txiki batzuk badaude ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidezko neurriak

Familientzako zerga-onura nagusiak foru-araudian aurki daitezke, funtsean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

PFEZ autonomiako araudiaren menpe dagoen zerga itundu bat da, eta haren ordainarazpena foru-aldundi eskudunari dagokio, lurralde historikoen arabera. Erlatiboki birbanatzen duen zerga bat da, errenta pertsonala gizabanako bakoitzaren egoeraren arabera zamatzen baitu.

Familientzat kostuak orekatzeko neurrien ikuspegia nagusiki bide horren bidez antolatuta dago. Horren ondorio nagusietako bat da PFEZren aitortzea aurkezteko gaitasuna daukaten pertsonen baino ezin dietela neurri horiei etekina atera. Horrek metodoaren gehikortasuna murrizten du (printzipioz familia ahulak konpentsatzeko diseinatuta dago, zeren ondorengoagatik, aurreko ahaideagatik edo mendetasunagatik kenkariak barne hartzen baititu). Hau da, diru-sarrera maila eta egitura zehatz bat daukaten pertsonen eta familiek bakarrik edukiko dute sistemaz baliatzeko aukera, eta ekonomikoki benetan ahulenak diren familiak hortik kanpo geratuko dira.

“Garrantzitsua da aintzat hartzea zerga-onura horiek errenta-maila zehatz bat daukaten pertsonenganaino soilik heltzen direla. Hau da, diru-sarrera urriak edukitzeagatik PFEZren aitortzea aurkezteko betebeharrak ez duenak ez die zerga-politika horiei onurarik ateratzen”.

(Herri-administrazioekin izandako elkarrizketak)

Ereduaren **unibertsaltasun falta** horrek **eztabaida** argi bat ekartzen du beren egoera administratibo edo ekonomikotik eratorritako zerga-onurarik lortzen ez duten pertsonen inguruan eta sistema hori, unibertsaltasunean sakontzeko, beste arau-mota batzuen bitartez (adibidez, errentaren gaineko zerga negatiboa edo berreskura daitezkeen kenkariak) hobetzeko aukeraren inguruan⁴⁰.

Errentaren gaineko Zerga Negatiboaren (EZN) kasuan, ongizateko diru-sarrera minimoko atalase bat ezartzen da eta beren bitartekoen bidez, zerga nahikoak atxiki ez bazaizkie ere, atalase horretaraino heltzen ez diren familiei ordaintzen zaie; horrela, diferentzialaz transakzio garbi bat ezartzen da.

⁴⁰ Errentaren gaineko Zerga Negatiboaren kontzeptua jatorriz Augustin Cournotek asmatu zuen eta Juliet Rhys-Williams-ek garatu zuen, baina Milton Friedmanek (1962) eta James Tobinek (1968) sakondu zuten gehien horretan. Bestalde, berreskura daitezkeen kenkarien kontzeptuari dagokionez esan daitezke haren eboluzio bat direla; horri buruzko txosten espezifikoa bat hemen kontsulta daitezke: [SIIS](#) (2013b).

Berreskura daitezkeen kenkariak, aldiz, EZNren ideien garapen bat dira, baina gizarteratze aktiboko ikuspuntu handiago bat daukate. Izan ere, ez dute zigortzen bermatutako gutxieneko prestazioa lan ordaindu batekin bateratzea, maximo ekonomiko bat gainditzen ez bada. Berreskura daitezkeen kenkariekin, lan ordaindu bat edukitzeak ez du gizarte-prestazioa ezabatzen; aitzitik, gutxitu egiten du eta osagarri ekonomiko bihurtzen du, lan egitea zigortu ordez hori osatzeko.

Txosten honetan, mota horretako sistemek Europan daukaten presentzia analizatuko da. Era berean, horrelako neurriak iruzkintzen ari garen zerga-sistematik kanpo geratzen diren familia-ereduen egoera ekonomikoa hobetzeko dauzkaten posibilitateak eta familiei laguntzeko politiketako euskal sisteman sartzeko aukera aztertuko dira.

Nolanahi ere, eta jarraian antzeman daitezkeenez, PFEZ familia-kosteak zentzu zabalean eraginikortasunez orekatzeko eragin handiena daukaten tresnetariko bat da⁴¹. Izan ere, haurrei, adinekoei, ezgaitasunari nahiz mendetasunari lotutako neurri zehatzak ezartzen ditu eta, horrez gain, ahultasun-egoeran dauden familia-mota jakin batzuen babesaren hartzeko kontuan. Honako neurriak erabiltzen ditu:

Neurri orokorrak (familia-mota guztientzat)

- Murrizketak baterako zerga-ordainketagatik familia-unitateen kasuan.
- Kenkariak ohiko etxebizitza alokatzeagatik edo erostea-gatik.

Haurrei lotutako familientzako neurri espezifikoak

- Kenkariak ondorengoengatik.
- Salbuespenak herri-administrazioen eskutik jasotako muntengatik, pertsonak hartzeagatik.
- Kenkariak seme-alaben alde mantentzeko urtekoak ordaintzeagatik.

Ezgaitasunari eta mendetasunari lotutako familientzako neurri espezifikoak

- Salbuespenak ezintasun iraunkor absolutu edo osoagatik eta baliaezintasun handiagatik prestazioetatik.
- Lan-etekineko hobari gehigarriak ezgaitasunen bat duten pertsona aktiboentzako.
- Murrizketak ezgaitasunen bat duten pertsonen alde eraturako gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenengatik.
- Kenkariak ezgaitasunen bat duten pertsonen ondare babestuari egindako ekarpenengatik.
- Kenkariak ezgaitasun edo mendetasunagatik, ezgaitasun edo mendetasun horren mailaren arabera.

⁴¹ EAEn, 2009an, *“Familia-kenkariak eta kenkari pertsonalek –ondorengoengatik, seme-alaben mantentzeko urtekoengatik, aurreko ahaideengatik, mendetasunagatik eta adinagatik kenkariak barne hartzen baitituzte– 527 milioi euro gainditu zituzten”*. Hori *“gizarte zerbitzuetako gastu publikoaren heren bat da gutxi gorabehera, prestazio ekonomikoak zein zuzeneko arretako zerbitzuak barne hartuta”* (SIIS, 2013b).

- Salbuespenak autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik etorritako familia-ingurunekeo zaintzei eta laguntza pertsonalizatuari lotutako prestazio ekonomiko publikoetarako.

Adinekoei lotutako familientzako neurri espezifikoak

- Kenkariak adinagatik, adinekoentzat.
- Kenkariak zergadunarekin bizi diren aurreko ahaideengatik.

Neurri horien muntak zehaztasun gehiagorekin ezagutzeko eta horrela Europako kopuru batzuekin (hurrengo kapituluan eskainiko dira) konparatu ahal izateko, 1. eranskineko 1. taula kontsulta daiteke. Bertan, txosten hau egiteko datan indarrean dauden muntak agertzen dira, lurralde historikoaren eta kenkari-motaren arabera sailkatuta.

Beste bide fiskal batzuen bitartez

Ziurrenik PFEZ familientzat kostuak orekatzeko tresna fiskal nagusia den arren, familietan eragin handia daukaten beste tresna fiskal batzuk ere badaude, hala nola Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, edo zeharkako zergak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kasu.

Aurreko neurrietan bezala eta Familiei Laguntzeko 13/2008 Legeak araututakoaren ildoan, neurri horiek orobat familia ahulentzako babes berezia xedatzen dute eta familiaren arloan ondorioak dauzkaten hainbat talderi eragiten diete. Neurri nagusien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Karga-tasa murriztua etxebizitzaren eskualdaketa, eskuratzaren duena familia ugariaren titularra denean (Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga).
- %90ekoak ere izan daitezkeen hobariak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuota osoan, familia ugariaren titularrak diren alde (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga). Hobari horren ezarpena aukerakoa da toki-erakundeentzat.
- Salbuespenak partekatzen ez diren familia-zamak dituzten pertsonen gizarte-laguntzako zerbitzuak emateko (Balio Erantsiaren gaineko Zerga).
- Salbuespenak BEZetik hezkuntza bereziaren arloan eta ezgaitasunen bat duten pertsonen eta/edo adinekoei laguntzeko arloan (Balio Erantsiaren gaineko Zerga).
- Zerga-tasa oso murriztuak "gabezia fisikoak" osatzeko gailu eta osagarrietarako eta/edo protesietarako, telelaguntza-zerbitzuetarako, etxez etxeko laguntzarako, eguneko eta gaueko zentroetarako eta egoitzako arretarako, baita mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuetarako ere (Balio Erantsiaren gaineko Zerga).
- Murrizketak ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten pertsonen eskuraketetan (Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga).
- Salbuespenak mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuetan –horietaz ari da Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskineko A letra–, ezgaitasunen bat duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga).

- Salbuespena ezgaitasunen bat duten eta mugikortasun urriko eskasia-egoeran dauden pertsonen izenean matrikulatuta dauden eta 14 zaldi-indar fiskal baino gutxiago dauzkaten ibilgailuetan, ibilgailua erabilerara eskusiborako baliatzen bada (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga).
- Salbuespena 14 zaldi-indar fiskal baino gutxiago daukaten eta %65eko ezgaitasun-maila edo altuagoa duten pertsonen izenean matrikulatuta dauden ibilgailuetan (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga).
- Salbuespena ezgaitasunen bat duten eta aipatutako 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskin gisa dagoen baremoaren A letraz kalifikatutako mugikortasun urriko eskasia-egoeran dauden pertsonen izenean matrikulatuta dauden ibilgailuetan. Ez zaie 14 zaldi-indar fiskaleko muga aplikatuko ibilgailua gorpil-aulkiz erabiltzeko egoikituta badago (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga).

B. KOSTUAK OREKATZEKO BESTELAKO NEURRIAK

Atal honen hasieran aipatuenez, neurri fiskalak ez ezik familientzako **zuzeneko transferentzia ekonomikoak** ere badaude. Hala ere, **neurriak ez dira ekonomikoki oso esanguratsuak** kapitulu honetan aztertu ditugun gainerakoei dagokienez (hurrengo kapituluko konparazioan egiaztatu ahal izango denez) eta **hazieraren kostuekin eta lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzearen sustapenarekin** daukate zerikusia nagusiki. Honako hauek aipatzen ari gara: ardurapeko semeagatik eta/edo alabagatik, erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatik eta nazioarteko adopzioagatik diru-laguntzak (seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen **abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuak** araututakoak) eta seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera larrian dauden senideak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako, horiek ordeztzeko eta semeak eta/edo alabak zaintzeko langileak kontratatuzko diru-laguntzak (familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko **ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak** araututakoak).

Azken horiei eta haien eraginkortasun eskasari lotuta, Erakundearen Arteko III. Planak zera onartu du: *“badirudi erakundeek uztarketarako eskainitako aukeren arrakasta erlatiboa dela”*. Izan ere, alde batetik, *“uztarketarako laguntzen ezagutza nahikoa urria da; eta, oro har, ez oso sakona”* eta, bestetik, diru-zuzkidura urria da eta, beraz, familia-politiketako gastu publikoaren batez bestekoari dagokionez Europarekin bat etortzeko aurrera egiten jarraitu behar da: *“familia politikan, nahiz eta krisi egoeran egon, gastu soziala euskal BPGaren %2,2ra hurbiltzea mailaka, horrela europar batez bestekoarekin bat egiteko”*.

Horrenbestez, eta lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzen laguntzeko neurriak oro har unibertsalak badira ere –txosten hau idaztean horri buruz eztabaidatzen ari garen arren–, ekintza horiek gastu publiko murriztua daukate, hurrengo analisi-taulan ikus daitezkeenez, talde onuradunak, muntak eta kanpoan uzteko egon daitezkeen irizpideak identifikatzen baititu.

1. eranskinen 2. taulan mota horretako neurrietarako xedatutako zenbatekoen zerrenda zehatz bat ikus daiteke; bertan, EAEn bateratzearen arloan dauden laguntzen tipologiak deskribatzen dira, laguntza-mota, erregulatzen duen araudia, onuradunak, lortzeko irizpideak eta araututako muntak adieraziz.

3.2. Estatuko neurriak. Gizarte Segurantzako prestazioak

Kostuak orekatzeko autonomiako neurriak ez ezik, EAEn Gizarte Segurantzatik eskainitako familia-prestazioak ere badaude indarrean. Estatuko izaera daukate eta orobat familiarako erantzukizunak eta kasu zehatz batzuetan seme-alaben jaiotzak edo adopzioak sortzen dituzten gastuak estaltzea dute helburu.

Prestazio horiek aztertuz gero, ikus dezakegu aurrekoekin alderatuta biztanleriaren ehuneko txiki batek eskuratzen dituela, diru-sarrera oso baxuak dituzten familiei baino ez zaizkielako zuzentzen, ahultasun bereziko egoeran dauden familiei (guraso bakarrek edo ezgaitasunen bat dutenak, adibidez) zuzentzen zaizkielako edo soilik prestazio osoa baliatu ahal izateko Gizarte Segurantzaren gutxieneko aldietan kotizatu behar delako.

Era berean, balio ekonomikoari zein iraupenari dagokien oso munta murriztuak ekartzen dituzte (haien zati bat puntuala baita). Salbuespena, beharbada, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako [martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan](#) jasotako amatasun- eta aitatasun-baimenak dira, haien muntak eta aldiak –hurrengo kapituluan ikusiko denez– Europako beste herrialde batzuetan gertatzen denaren ildoan baitaude (nahiz eta, hori bai eta geroago ikusiko denez, Europako gizarteak eskuarki munta eta aldi horiek kritikatu).

Munta horien zerrenda zehatza, erregulatzen dituen araudia, onuradunen tipologia eta lortzeko irizpideak 1. eranskinen 3. taulan kontsulta daitezke.

4.

Familiei laguntzeko zerbitzu gisa eragin altua daukaten neurri garrantzitsuenak

Prestazio ekonomikoek ez ezik, familiei laguntzeko prestazioen mapa zenbait programak eta zerbitzuek ere osatzen dute. Horrela xedatzen du Familiei Laguntzeko 13/2008 Legeak, gizarte zerbitzuak, etxebizitza, hezkuntza, kultura, kirola, aisia eta astialdia eta garraioa arautzen baititu.

Hala ere, arlo horiek guztiek ez diete familiei maila berean eragiten. Aitzitik, **nagusiki hezkuntzan, diru-sarrerak bermatzean, gizarte zerbitzuetan eta etxebizitzan** daude **neurri gehiago eta sakonagoak** familientzako ondorioei dagokienaz.

4.1. Hezkuntza

Aztertzeke ildo orokor gisa, familiei hezkuntzaren esparruan laguntzeko neurrietan, ustez ahultasun-egoeran dauden familia-motek lehenetsuneko tratua emateko neurriak sartu dira, 13/2008 Legearen muiak xedatzen duenez.

Familiei hezkuntzaren esparruan laguntzeko neurriak Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea baino lehen sortu ziren arren, lege horrek dio Eusko Jaurilaritzak “*umeen eta gazteen hezkuntza bermatzeko*” betebeharrak daukala eta bereziki interresgarria den neurri gisa “*0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolak sendotzea*” aipatzen du.

Haur hezkuntza

EAEn, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur hezkuntzako lehen ziklorako plazen eskaintza publikoaz gain, haur-eskolen eskaintza pribatua dago, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituenak– eta azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak –0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituenak– arautzen duten moduan.

Haurrentzako arreta-zerbitzuei buruzko neurri horrek **lehenetsuneko interesa** dauka familiei laguntzeko neurri publikoetan, **familiarekin lotura bikoitza** baitu, **hezkuntzarekin** zein lanbidea, familiarako bizitza eta norberaren bizitza **bateratzeko politikekin lotuta** dago-eta. Erakundeek haur hezkuntzako plazei dagokienaz egiten duten eskaintza, esparru publikoan, hiru taldetan antolatzen da:

- Haurreskolak: 0 eta 3 urte bitartean dituzten haurrentzako eskolak; Eusko Jaurilaritzak eta –orain arte– 167 udalek Haurreskolak Partzuergoari atxikitzeko egin dituzten hitzarmenetatik sortu dira.
- Eskola publikoak: gelak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe, 2 eta 3 urteko ikasleei zuzenduta.
- Haur hezkuntzako udal eskolak: Haurreskolak sarean sartu ez diren udalen menpe dauden eskola publikoak.

Esparru pribatuan, badaude kooperatibak, ekimen pribatua (laikoa nahiz erlijioso) bai eta aurrezki-kutxetako gizarte-ekintzen eskaintza ere.

Eredu horretan, familien erreklamazio garrantzitsuenek landa- eta hiri-inguruetan **Haurreskolak Partzuergoko plaza modu desberdinean banatzearekin** daukate zerikusia nagusiki. Izan ere, horren ondorioz, udalerritik txikietan **plaza bat lortzeko zailtasunik** ez dagoen arren, metropoli-inguruetan zailtasunak nabarmenak dira, bereziki urte 1 baino gutxiagoko umeentzako getetan.

“Diferentzia handiak daude landa- eta hiri-inguruneen artean haurreskoletako plaza-kopuruari dagokionez. Esate baterako, Arabako herri batean plaza-ratioa ia %3 da, eta Bilbon, aldiz, %0,15 izan daiteke gutxi gorabehera”.
(Gizarte-erakundeekin eztabaidatzeko taldea)

Era berean, EAeko udalerritik guztiek ez daukate partzuergoarekin lotuta dagoen ikastetxerik eta batzuek udal-ikastetxerik ere ez daukate; horrek familia batek plaza bat

erdiesteko dituen aukerak are gehiago zatitu eta dibertsifikatzen ditu, bizi den udalerraren arabera.

2011. eta 2013. urteen artean, izaera esperimenterekin, 0 eta 3 urte bitartean dituzten haurrak zaintzeko ekimen diferente bat garatu da: **haur-etxeak**, Europako beste herrialde batzuetan dagoen familia-habien eredu oinarrituta. Haurrak zaintzeko zerbitzu hori zaintzailearen bizilekuan ematen da, umeak zaintzeko eta hartzeko bereziki egokituta eta hornituta baitago; 3 edo 4 ume talde murriztuetan garatzen da, eta haurrak familia-habia batean artatzen dira.

Zerbitzu horrek gazteenentzako zaintza-modalitateen aukera zabaltzen zuen, hezkuntza-saretik haur-eskolen edo haurreskolen bidez egiten zen eskaintza osatzen baitzuen.

Pilotaje-fasea bukatutakoan, eta familia erabiltzaileek gogobetetasun-maila altua adierazi duten arren, zerbitzua eskaintza publikotik ezabatu da eta familientzako eskaintza pribatu gisa mantendu da merkatuan.

Derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezkoa ez dena

Haur hezkuntzaz gain, landa-laneko elkarriketen eta eztabaidatzeko taldeen bitartez familia-ekonomiari erantzen dioten kostuagatik familiak bereziki kezkatzen dituzten beste arlo batzuk identifikatu dira:

■ Liburuen mailegua

EAEn testuliburuak mailegatzeko eta berrerabiltzeko programa EAEn ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako etapan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailatan ikasten duten ikasleei zuzentzen zaie.

Aurrekontuetako doikuntzen ondorioz, liburu bakoitzaren bitzita baliagarriko zikloa *de facto* luzatzen ari da: hasiera batean lau urte aurreikusten ziren arren, orain gutxienez sei urte irauten du. Era berean, eta 16 urteez haraindi luzatzea aurreikusita bazegoen ere, Bigarren Hezkuntzako azken bi ikasturteak oraingoz ez dira programan sartuko, eta horrek familiak eskola-material horretan egiten duen inbertsioa igoarazten du.

Familiek liburuen kostu erreala %20 inguru (26 eta 44 euro bitartean, ikasturtearen arabera) ordaintzen dute, eta gainerakoa administrazioak hartzen du bere gain.

“Testuliburuaren kostua zailtasun nabarmena da seme-alabak dituzten familientzat. Ahalegin handiz egin behar diegu aurre kostu horiei”.

(Gizarte-erakundeekin eztabaidatzeko taldea)

■ Jantoki-zerbitzua

Jantoki-zerbitzuak, elikatzeko eta bizi-aztura osasungarritan hezteko daukan oinarritzako eginkizunaz gain, bateratzeko laguntza garrantzitsu bat eskaintzen die familiei.

Eskuarki, zerbitzu horren zati bat Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du, menuaren kostuaren bi heren bere gain hartzen baititu, eta beste herena familiek ordaintzen dute. Menu bakoitzeko prezio publikoa 3,30 € eta 4,30 € artean dabil, eta urteko kostua, aldiz, 550 € eta 800 € artean.

■ Ikastetxeetara iristeko mugikortasuna

Sare publikoan eta derrigorrezko etapetan eskolatuta dauden ikasle gehienek Hezkuntza Sailak prestatutako doako garraio-zerbitzua daukate. Modu osagarrian eta edozein arazoirengatik eskaintza hori erabili ezin dutenentzat, garraiorako banakako laguntzak daude; familiaren egoitzaren eta ikastetxearen arteko garraioaren zenbatekoa estaltzen dute (garraio publiko erregularrean zein ibilgailu pribatuan). Banakako diru-laguntza hori jasotzeko, ikasleek ikastetxe publiko batean edo salbuespenez itunpeko ikastetxe batean eskolatuta egon behar dute, ez dute doako garraioa edo erakunde publiko edo pribatuak guztiz ordaintzen duten garraioa erabiltzeko aukerarik eduki behar eta ikastetxeak 2 km-tara edo urrunago egon behar du.

Nolanahi ere, elementu horrek tirabira sozialak sortu ditu zenbaitetan –ehunekoari begira familia-kopuru txiki bat ukitu arren–, haurrak eskolatzea eta gurasoek bateratzea erraztu egiten baitu (edo zaildu, laguntza horiek edo beste garraio-mota bat erabili ezin ez bada⁴²).

4.2. Gizarte zerbitzuak

Familietan eragin altua daukaten arloei lotuta, daukan pisu espezifikogatik Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren [5eko 12/2008 Legearen](#) bidezko gizarte zerbitzuen arauketa aipatu behar dugu. Horren elementu nagusia **gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboaren** aitorpena da, herritarren eskubidetzat jo baita, ongizate-sistema publikoaren oinarritzako euskarri moduan.

Sistema hori erantzukizun publikoko prestazioez eta zerbitzuez osatuta dago; horiek mendetasunari, babesgabetasunari eta pertsonen, familien eta taldeen bazterketarekin lotutako premiei erantzuten diete, eta gizarte zerbitzuetako euskal sistemako prestazioen eta zerbitzuen katalogoan zerrendatuta daude (aipatutako legearen 22. artikuluan xehetasunez kontsulta daiteke).

Familientzako ondorioei dagokienez (landa-lanean jasotakoari jarraiki), merezi du **mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko prestazioak** aipatzea, banakako laguntzat jotzen diren arren eragin altua baitaukate familiaren arloan. Izan ere, estaldura-maila altuagoaren edo txikiagoaren arabera eta erkidegoarekin daukan lotura estuagoaren edo lausoagoaren arabera, lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza bateratzeko laguntza hobeak edo txarragoak eskainiko dituzte.

Zentzu horretan, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko [abenduaren 14ko 39/2006 Legearen](#) aplikazioaren egoera EAEn beste autonomia-erkidego batzuetan baino askoz ere eraginkorragoa izaten ari da. Dena den, txosten honen lanean, ezgaitasunen bat duten familiak ordezkatzen dituen hirugarren sektoreak oso era argian identifikatu du mendetasuna baloratzeko irizpideak zorrotzen ari direla. Halaber, adierazi dute duela urte batzuk mendetasun-

⁴² [El Correo](#) (2013-12-16).

gradu altuak ematea eragiten zuten egoera pertsonalek intentsitate gutxiagoko graduetan baloratzen direla orain, eta gaur egungo irizpideak ez daudela argi.

“Ezgaitasunen bat duten pertsonen mendetasuna baloratzeke modua ez da egokia. Nire aburuz, irizpideak ez daude zuzen ezarrita. Bi kasu diferentetan diagnostiko berdinak edukirik, mendetasunaren balorazioei buruz lortzen diren berrikuspenak guztiz desberdinak dira. Diagnostikoak baloratzerakoan eta ezgaitasun- eta mendetasun-mailak finkatzerakoan nolabaiteko arbitrariotasuna igarri dut”.

(Gizarte-erakundeekin eztabaidatzeko taldea)

“Mendetasun-mailak arrazoi nabarmenik gabe jaisten ari dira, eta horrek esan nahi du prestazio ekonomikoak murriztu egiten ari direla, mendetasunak berbera edo handiago izaten jarraitzen duen arren. Lehen III. mailako mendetasuna zenari orain II. graduako balorazioa ematen zaio eta, beraz, pertsona horrek edozein motatako errekurtsio gutxiago jasotzeko eskubidea dauka”.

(Gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketak)

Aldaketa horren garrantzia funtsezkoa da, prestazioetarako eta gizarte zerbitzuertarako sarbidea edukitzeko ezinbesteko giltza delako. Pertsona bati mendetasun-maila jakin bat onartzen ez zaion heinean, ezin izango du haren bizi-kalitatea hobetuko duten (eta haren familiak bateratzeko dauzkan aukerak hobetuko dituzten) prestazioetara eta zerbitzuertara sarbiderik eduki. Halaber, zorrotasun horrek *de facto* prestazioen murrizketa dakar, herritarren zati batek ezin baititu eskuratu.

4.3. Diru-sarrerak bermatzea

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legetik eratorritako prestazioak oso garrantzitsuak dira diru-sarrera baxuak dituzten familiei edo zuzenean pobrezia-arriskuan edo –egoeran dauden familiei laguntzeko. **Diru-sarrerak bermatzeko errentaz, gizarte behar larrietarako laguntzez eta etxebizitzarako prestazio osagarriaz** ari gara.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak arautzen du, Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) kudeatzen du eta familia-unitateak diru-sarrerarik ez daukanean edo horiek oinarritzeko premiei aurre egiteko nahikoak ez direnean eska daiteke.

Familiak inolako diru-sarrerarik ez daukanean, bizikidetzako unitatearen kide-kopuruaren arabera ezarritako hileko gehienezko munta onartzen da: kide bateko bizikidetzako unitateentzat 616 €-koa eta 3 kide edo gehiago dituzten unitateentzat 875 €-koa izaten da –eskuarki eta 2013rako–. Unitateak diru-sarreraren bat eskuratzen badu, munta kalkulatzeko, bizikidetzako unitatearen kide-kopuruaren arabera legokiokeen gehienezko muntari diru-sarrera guztiak kentzen zaizkio.

Ahultasunagatik bereziki babestu behar den familia-mota gisa, guraso bakarrek bizikidetzako unitateen kasuan (ardurapean seme edo alaba bat edo batzuk dituen amaz edo aitaz bakarrik osatuta baitaude), prestazioa hileko 44,81 €-z osatzen da.

Bestalde, **gizarte behar larrietarako laguntzak** aldizkakoak ez diren, izaera ekonomikoa eta diru-laguntza izaera duten prestazioak dira, gizarte-marjinazioko egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatzei (ohikoei edo ez ohikoei) aurre egiteko nahikoak ez diren baliabideak dituzten pertsonen zuzenduta daudenak.

Azkenik, aipatu behar da etxebizitzarako beste laguntza espezifikoa bat dagoela, **etxebizitzarako prestazio osagarria** izenekoa, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen alokairuari aurre egitea helburu duena. Etxebizitzarako prestazio osagarria 2/2010 Dekretuaren bidez araututa dago, eta gaur egun haren gehienezko munta hileko 250 eurokoa da (baina hileko 320 eurokoa ere izan daiteke, adibidez familia-unitateak ardurapean bi seme-alaba edo gehiago dauzkanean).

4.4. Etxebizitza eta lurzorua

13/2008 Legeak etxebizitza familietan eragin berezia daukan arlotzat jotzen du (lege horren aurreko araudian ekimen zehatzak jasotzen baziren ere). Zehazki, ezartzen du tratamendu berezia emango zaiela *“adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak beren ardurapean dituzten familiei, baita familia ugarietara eta egoera bereziki ahulean dauden familiei ere, hala nola guraso bakarrekoei, genero-indarkeria edo terrorismo-ekintzak jasan dituztenei edo antzeko egoeraren batean dauden beste familia-motetara, familia horiek etxebizitza errazago eskuratzeko kupo batzuk ezartzearen”.*

Familiei zuzendutako neurri publiko nagusiei dagokienez, lehen ahalegina Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea 2010-2013 delakoa da. Etxebizitza erosteko fiskalitate berezia aipatzen du, baita familia ugarietarako kupoen aplikazioa ere. Era berean, industrialdeetan edo enpresa-parkeetan haurtzaindegia eta enpresa-jantokiak eraikitzeko gutxienezko azalera bat gordeko dela jasotzen du, lanbidea eta familiako bizitza bateratzea errazteko asmoz. 2013ko abenduaren 23an Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldirako Etxebizitza Bideratzeko Plan berria onartu zuen.

Antzeman daitekeenez, ideia horiek familiei laguntzeko politika publikoen arlo nagusietako biri zuzenduta daude, zeren eta familiaren ikuspuntua bereziki ahulak diren taldeak babesteko nahiz lanbidea, familiako bizitza eta norberaren bizitza hobeto bateratzeko bidea ematen duten ekimenak sustatzeko batzen baita.

Hala ere, familiei laguntzeko etxebizitza-politikak ez dira nagusiki 13/2008 Legearen bidez bideratzen; aitzitik, baliabide gehiago dituzten bi tresna publiko daude:

Alde batetik, etxebizitzari buruzko jardunetako asko (bai erosketan bai alokairuan) **kenkari fiskalen** ikuspuntutik lantzen dira. Horien inguruko datu zehatzak dagokien atalean iruzkindu dira, baina oro har etxe bati urtero gehienez 3.600 € ekar liezazkiokete kenkaritan.

Beste aldetik, azpimarratu behar da **Etxebide** Etxebizitza Euskal Zerbitzuaren bidez familiek neurri zehatzak aurki ditzaketela, hala nola erabilitako etxebizitzak birgaitzeko laguntzak edo Bizigune programa. Azken horrek etxebizitza

hutsak mobilizatzea du helburu eta Etxebiden izena emanda dauden, diru-sarrera gutxi dituzten eta jabetzan etxebizitzarik ez daukaten pertsonen zuzentzen zaie.

4.5. Bestelako jardun-eremuak

Lau arlo horiek familietan eragin altua daukaten neurri dagokienez erreferentzia-puntuak diren arren, ezin da alde batera utzi Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen jarraibideekin lerrotatuta dauden eta garraioarekin, kirolarekin, aisiarekin eta kulturarekin zerikusia daukaten ekintzak ere badaudela.

Esate baterako, **garraio publikoari** lotuta, Eusko Jaurlaritzaren, foru-administrazioen eta udal-administrazioen eskumenekoak diren linea erregularretan familia ugarien eta egoera bereziki ahulean daudenen aldeko tarifa-erregimen berezi bat dago. Hain zuzen ere, neurri horiek Familiei Laguntzeko 13/2008 Legearen nahiz aurreko araudien bidez –biografiaren kontsulta daitezke– antolatzen dira.

Era berean, garrantzitsua da **aisiarako, kulturarako eta astialdirako udal-programak** jasotzea, beraien helburuaz gain kasu batzuetan bateratzen laguntzeko lana egiten baitute. Dokumentazioaren analitik eta landa-lanean udalekin izandako elkarriketetatik ondoriozta daiteke gutxienetan sartu dela familiaren bateratzearen ikuspuntua programa eta zerbitzu horietan.

Hezkuntza, zerga, gizarte-zerbitzu, etxebizitza, garraio eta abarren gaineko politikaz ari gara, eta, EAEn kasuan, erakunde-eremu desberdinek kudeatu ditzakete: maila autonomikoan, foralean edo/eta tokikoan. Horrenbestez, pertsona eta familien beharrezan, sektoreen arabera eta bakoitzak bere ikuspegitik, lantzen dituzten administrazio, organo eta administrazio-unitate desberdinen arteko koordinazio urria defizit historikoa da.

Koordinazio-falta hori lotuta dago, besteak beste, familian gutxi oinarritu den eta baliabide urriak dituen (Europako urrienen artean) estatu-eredu bat izatearekin, administrazio eta lurralde historiko bakoitzak egindako banakako lan historikoarekin (beren kabuz garatu dituztelarik tokiko eta lurraldeko errealitate bakoitzera ondoen egokitzen ziren baliabideak), EAEko eskumen-ereduarekin (eta haren ondoriozko egitura antolatzailearekin) eta lehen aipatutako zeharkako ikuspegi-faltarekin.

Hori guztia dela eta, hiritarrek zatituegi ikusten dituzte familiei laguntzeko politikak, bai horien aurkezpenari dagokionez, bai baliabideak eskuratu eta erabiltzeko trantseei buruzko orientazio eta jarraibideak emango dituen informazio bateratuko zerbitzu-faltari dagokionez.

2. EAEn kostuak konpentsatzeko politiken unibertsaltasun-falta agerian geratzen da neurri ekonomikoen sistema dualean. Alde batetik, erlazionatutako arazorik gabeko familiek konpentsazio ekonomikoak jasotzen dituzte **zerga klasikoaren bidez** (batez ere, PFEZen aitortpenaren bidez) eta arrazoi sozioekonomikoen ondorioz baztertuta edo bazterkeria-arriskuan dauden familiei, aldiz, diru-sarrerak bermatzeko sistemak ematen die arreta. Gainera, bi sistema horiek ez dira era bateratuan diseinatu, eta, ondorioz, sistemaren koordinazioa eta ikuspegi integrala murriztu egiten dira.

Ahulezia-egoeran ez dauden familia gehienek prestazio ekonomikoak jasotzen dituzte familiarekin lotuta, batez ere zergen bidez (PFEZ bezalako zergen gaineko kenkarien bidez). Sistema honek ahulezia nabarmena dauka. Izan ere, desgrabazioak egiteko diru-sarrera nahikoak dituzten familiek soilik erabil dezakete sistema eraginkortasunez, eta, beraz, eztabaidagarria da ea sistema nahikoa mailakatua den eta zein neurritan alda litekeen, berau unibertsalitzatu ahal izateko.

Bestalde, familientzako **aldizkako transferentzia unibertsalen pisua** oso urria da; funtsean, seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoei buruzko 255/2006 Dekretuko laguntzak dira.

3. Nahiz eta familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea erkidego-zuzenbidearen eremutik gehien jorratu den gaietako bat izan den, EAEk neurri gutxi garatu ditu eremu honetan eta orain dela gutxi gainera.

Hala ere, elementu hori funtsezkoa da belaunaldi-erleburako, familien babes integral, koordinatu eta bitarteko nahikodunaren estrategiaren aldeko apustu indartsu eta argia egin duten herrialdeak soilik izan baitira gai jaiotza-krisiari aurre egiteko eta beren biztanleria-piramidea zuzentzeko. Errealitate hori, hain zuzen, larria da Europa osoan eta batez ere EAEn.

5.

Ondorioak

1. Oraintsu sortu da politika publikoetan familiaren ikuspegi zeharka sartzeari ahalbidetu duen **erakunde instituzionala**.

Izan ere, mende berria hasi arte (Familia Zuzendaritza eta familiei babesteko lehen erakunde arteko planak sortuta) eta batez ere 2008. urtetik aurrera (13/2008 Legearekin eta haren garapenarekin, eta, batez ere, erakunde arteko III. planarekin) ezarri da espazio propio bat, bai antolakuntza-mailan, bai neurri zehatzei dagokionez.

Hala ere, oraindik ere garapena hasi berri dago. Izan ere, nahiz eta legezko esparruak ezartzen duen familiei laguntzeko politikek zein norabide hartu behar duten, oraindik ez dauka neurri propio garrantzitsurik eta zailtasun objektiboak ditu euskal erakunde-sarean jarduteko, lurralde historikoen eta tokiko erakundearen eskumenei dagokionez.

Familia Politikarako Zuzendaritzaren lidergoan inplikaturako gainerako agenteen (sozialen eta instituzionalen) eskutik familiei laguntzeko politiketan zeharkakotasuna lantzeko orduan aitortpen urria egon dela ere esan genezake. Azken horiek, izan ere, uztartu egin behar dituzte beren neurri zuzenak, familien gaineko eragina kontuan hartzen duten bestelako sektore-neurriekin.

Estrategia honetan, hasteko, **ekoizpen-ereduaren egitura arrazionalizatzen** da, batez ere ordutegiari dagokienez. Herrialde europar gehienetako egiturekin alderatuta, izan ere, bizitzako alderdi desberdinak uztartzearen gaineko neurri zehatzak zabalegiak dira eraginkorrak izan daitezten.

Neurri zehatz horiei dagokienez, azpimarratzekoa da eragiketara-marjina murriztea dela, EAEren eskumen-eremutik at baitago **aitatasun- eta amatasun-baimenak** bezalako elementu esanguratsuen araudi oparoa. Arlo horretan, EAEk Langileen Estatutuan eta Gizon eta Emakumeen berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa bete behar du. Horien arabera, 16 asteko baimena dago amatasunagatik (zati bat aitaren baimenarekin partekatuta daiteke) eta, gainera, 13 egun daude gizonen kasurako, zerga-oinarriaren %100ean ordainduta.

Hala ere, **EAEk ekimen propioak garatu ditu**, bai zehazki familia, lana eta bizitza pertsonalaren uztartzea hobetzeko, bai arlo horretan eragin altua izateko. Honakoa azpimarratu behar da, batez ere:

- **Kostuak konpentsatzeko neurriei** dagokienez, 177/2010 Dekretuan jasotako laguntzak (urtero arautzen direnak dagokion aginduaren bidez), eszedentzia, lanaldi-murrizketa eta abarren ondoriozko diru-sarreraren galera partzialki konpentsatzea xede dutenak.

Laguntza horien kopurua nahikoa ez den arren, neurriok positiboki baloratzen dira, lehen urratsa baitira familiei aitorten ekonomikoa emateko bidean, uztartze-lanak aurreikusten direlako ez soilik seme-alabekin lotuta (mendetasun-egoerak eta osasun-egoera larriak aurreikusten dira lehen aldiz European), baizik eta baita familien haultaketa-aukerarekin ere, etxean haurren zaintzarako kontratazio bat egiteko aukera emanez.

- **Baliabide eta zerbitzuei** dagokienez, familienganako laguntza publikoa hurbileko baliabideen bidez orientatu da. Zehazki:

- **Hautzaroaren eremuan** oso garrantzitsua da Haurreskolen alde egindako apustu publiko indartsua, baliabide hezitzaileak diren arren, eragin altua baitaukate familia, lana eta bizitza pertsonala hobeto edo txar-toago uztartzeko aukeretan.

Hurbileko baliabideak dira, eta azken urteetan biziki garatu diren arren, oraindik ere desorekak dituzte estalduran (batez ere biztanleria altuko hiriguneetan). Ordutegiari erreparatzen badiogu, testuinguru europarrarekin alderatuta malgutasuna eta zabaltasuna eskaintzen dituen arren, EAEko eta estatu-mailako lan-merkatuak daukan gehiegizko ordu-dedikazioaren ondorioz baliabide hau ez da guztiz erabilgarria familia batzuentzat.

- **Mendetasunaren esparruan** EAE hainbat baliabide jarri dira (etxez etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroak, egoitza-baliabideak...) menpeko pertsonen laguntza emateko, eta, ondorioz, familiei kide ahulenen zaintza, eta, azken finean, uztartze-beharrizanak errazteko (ahal den neurrian).

Gizarte-zerbitzuen sistemako baliabide hauek eragin altua dute familiengan, kalitate-ratio oso altuak eskainiz eta erabiltzailearen partaidetza ekonomikoa aurreikusiz, beren gaitasun ekonomikoaren arabera (beren errentarekin eta ondarearekin lotuta). Eremu honetan, sarritan, zerbitzuak irabazi asmorik gabeko erakundeek ematen dituzte. Euskal sistemaren bereizgarrietako bat da hori eta eredu kontinental europarrekin lotzen da.

Azkenik, atal honetan azpimarratzekoa da lan-ordutegiaren zabalera, lan-merkatuaren eskastasuna edo hainbat baliabideren unibertsaltasun-falta bezalako faktoreen ondorioz familiarren babes informala oraindik ere asko erabiltzen dela eta aitona-amonen zeregina ez dela soilik zerbitzu eta prestazio ekonomikoen hartzaileena, baizik eta, sarritan, baliabide familiar garrantzitsua dira zerbitzu-prestazioari dagokionez, baita kostuak konpentsatzeko ere. Izan ere, erretiroaren pentsioak laguntza ekonomiko handia dira familia askorentzat.



Familiei laguntzeko

politika publikoak

**Europar eta EAEn.
Azterketa konparatiboa**

AV

a t a l a

V. atala

Familiei laguntzeko politika publikoak Europan eta EAEn. Azterketa konparatiboa

1.

Sarrera

Kapitulu honen **helburua** herrialde europarrek familiei laguntzeko garatutako politika desberdinak alderatu eta aztertzea da, baita beren orientazio, apustu eta emaitzak ere, horrela, gure errealitatean esku-hartzea hobetzeko irakaskuntza interesgarriak hartu baitaitezke.

Haurtzaroa, ezintasuna eta mendetasuna, eta adineko pertsonak bezalako aldagaiak hobeto aztertzeko, bada, honakoak landuko dira:

- Hasteko, **kolektibo hauen gaineko laguntza publikoaren esparruko datuak, ahalegin absolutuari eta erlatiboari dagokienez**. Hiru azpi-kolektiboen banakako eta baterako azterketa alderatuz gero, hobeto interpretatu ahalko dira herrialde bakoitzaren gaitasunak eta lehentasunak.
- Bigarrenik, herrialde bakoitzeko familien esku jarritako **baliabide ekonomikoen azterketa konparatiboa** egingo da (bai babes zuzenena –*cash benefits*–, bai zergakentzariena –*tax deductions*–). Hala, argiago ikusi ahalko da babesen intentsitatea.
- Hirugarrenik, herrialde europar desberdinetan familien laguntza-arloko beharrezan asetzeko familien esku dardenen **programa, zerbitzu eta baliabideak aztertuko** dira.

Horrela jakin ahalko dugu ea **jarduera-unitate europar** bat dagoen (edo, gutxienez, **patroi bateratu** batzuk), arlo honetan herrialde europar desberdinen artean dauden **antzekotasun eta aldeak** identifikatuz eta eredu horietan familiei laguntzeko politiken xede kolektiboak zeintzuk diren antzemanaz, **familia-ereduaren eta estatuak**

erakunde honekin duen harremanaren ulermen desberdinen arabera. Hori guztia, izan ere, Europan estatu-mota desberdinek izan dituzten eredu politiko eta sozialen oinordetza da.

Halaber, eta eredu eta herrialde bakoitzarekin lotutako ezaugarri desberdinak aztertuz, **EAEn kokapen bat zehazten** saiatuko gara familiei laguntzeko politikari dagokienez. Horretarako, **indar-gune eta hobekuntza-arlo nagusiak identifikatuko** ditugu eta beste zein errealitate europarrentzako erreferentzia izan litezkeen aztertuko dugu.

2.

Familiei laguntzeko politika eredu nagusiak Europan

Txosten honen lehen kapituluan adierazitakoaren arabera, herri administrazioak familiei laguntzeko egiten dituen esku-hartzeak ez dira neutralak eta gizarte-eredu jakin bat lortzera bideratzen dira. Bide horretan, bada, eragina dute jaiotzasaren orientazioak, familia-harremanen pribatutasunak (familiaratze-prozesuen edo disfamiliaratzearen bidez) edo aukera-berdintasunak, besteak beste.

Hori dela eta, alde nabarmenak aurkitzen ditugu herrialde desberdinetan, eredu batzuetan familiei laguntzeko politikak argi eta garbi baitaude orientatuta jaiotza-tasa eta zerbitzuen unibertsaltasuna sustatzera, eta, beste batzuetan, ordea, esku-hartze publikoa haurren babesik gabeko egoera posibleetan soilik ematen baita.

Horrenbestez, kasu batzuetan sistema unibertsalistak aurkituko ditugu, eta, beste batzuetan, aldiz, baliabide murrizak dituzten familientzako esku-hartzeak soilik aurreikusiko dira (*means-tested*). Era berean, eredu batzuetan gehiago babesten da haurtzarora eta beste batzuetan adineko pertsonen edota mendetasun-egoeran dauden pertsonen babesak garrantzi handiagoa dauka. Azkenik, jarduera publikoa bideratzeko eredu desberdinak ikusiko ditugu, kasu batzuetan bideratze hori zuzena izango baita eta beste batzuetan hirugarren sektoreko erakundeek (laikoak edo erlijiosoak) bidez emango baita.

Aldagai horiek batzean, egile desberdinek sailkapenak ezarri ahal izan dituzte Europan familiaren arloan dauden politika publikoko ereduaren gainean, eta, nahiz eta horien artean aldeak dauden⁴³, puntu ugari errepikatu egiten dira.

Txosten honen xedeetarako, familiei laguntzeko erakunde arteko II. planak egindako sailkapena jarraituko dugu, eredu horietako hiru hautatuta: **eskandinaviarra, kontinentala eta mediterraneo**, EA Erako errealitate hurbilenak eta erreferentzialenak baitira. Horien ezaugarri nagusiak, bada, honakoak dira:

- **Eskandinaviarra:** aukera-berdintasunean, uztartzean eta emakumeen laneratzean oinarritua, haurren ongizateari bereziki erreparatuta. Prestazio familiarak zergen bidez finantzatzen dira eta gizarte zibilaren eta gobernuaren arteko lankidetzaren ereduaren bidez egiten da lan. Eredu horretatik Danimarka, Norvegia, Suedia eta Finlandia aztertu dira.
- **Kontinentala:** Subsidiarotasunaren printzipioaren eragina daukan Europako erdialdeko eredu. Politika familiarretan, historikoki, familia-buruaren kontzeptua nagusitu izan da. Haurrak eta emakumeak familien harremanen menpe egon daitezke. Prestazio familiarak kontribuzioaren eta zergen artean finantzatzen dira eta gizarte zibilak zeregin garrantzitsua dauka politikak ezartzeko orduan. Multzo honetan sartuko lirateke Frantzia, Belgika, Luxemburgo, Herbehereak, Alemania eta Austria, eta, apur bat aldentuta, Erresuma Batua eta Irlanda.
- **Mediterraneo:** Sistema kontinentalarekin hainbat antzekotasun ditu eta gizon sustengatzailearen ereduaren intentsitate historikoa altuagoa da. Estatuak babes ez oso intentsua ematen du eta familiaren jardura bizia da. Hirugarren sektorearekiko harremana ahula da eta arlo horretako finantzazioak urriak. Bestalde, gizarte-erakundeek ez dute laguntzen politikak garatzeko orduan. Talde honetan Espainia, Italia eta Portugal aztertu dira.

Edonola ere, ez dira esparru estanko eta baztertzailak. Sailkapen honek zerikusi handiagoa dauka estatuaren ulermenarekin eta estatuak beste gizarte-agente batzuekiko ezartzen duen harremanarekin, banaketa geografiko zorrotz batekin baino.

⁴³ Eredu honetan beharbada desadostasunik handiena zera da, Esping-Andersenek ukatu egiten duela eredu mediterraneo propio bat dagoela (kontinentalaren muturreko aldagaia dela iritzita) eta beste egile askoren ustez (tartean azterlan hau) ezaugarri desberdin baino berdin gehiago dago esparru mediterraneo herrialdeen barruan.

Berez, eta multzokako sailkapen hauek egindako azterketa desberdinetan oso ohikoak diren arren, batzuetan nahasleak dira. Izan ere, herrialdeen politikak aldatu eta garatu egiten dira gobernu baten edo bestearen zeinuaren arabera, eta, horrez gain, zenbaitetan ekintza-ildo jakin batean eredu baten ezaugarriak hartzen dituzte eta beste politikak batean beste eredu batenak. Horrenbestez, eredu baten ezaugarri nagusiak dituzten herrialde edo eskualdeez mintza gaitzetzeko, baina baita beste bati lotutako ezaugarri partzialez ere.

Adibide bat jartzearren, eredu mediterraneoaren izenak Italia edo Espainia bezalako herrialdeentzat kokapen erreferentziala pentsatu behar. Izan ere, Frantzia, kokapenagatik, eredu horretan sartuko litzateke, baina bere politika publikoak ezin dira sailkapen horretan kokatu. Bestalde, Irlanda, adibidez, kokapenagatik herrialde kontinentala da, baina sarritan bere politikak eredu horretakoez bestelakoak dira. Horixe gertatzen da, kapituluan zehar ikusi ahalko dugunez, EA Eren kasuan, ezaugarri mistoak baititu.

Azterketa pertsonalatuagoa egiten badugu, antolaketa-modu desberdinak aurkitzen ditugu herrialdearen arabera, nahiz eta ia guztietan bi jarrera berdin aurki ditzagun:

- Batetik, **familiaren gaineko eskumen nagusiak dituen** ministerio bat egon ohi da. Normalean, “Familia eta Gazteria”, “Gizarte Zerbitzuak eta Familia” edo “Ekonomia eta Familia”.
- Bestetik, **familia-politikak koordinatzen dituen organismo** bat egon ohi da, eremu honetan, neurri zehatzegain, etxebizitza edo hezkuntza bezalako arloak hartu behar baitira kontuan, zeharka.

Hurrengo azterlanetan ikusiko ahalko denez (azterketa zehatzeko 3. eranskineko 1. taulan kontsulta daiteke), **familiei laguntzeko politika aurreratuenak dituzten herrialdeek egitura-garrantzi handiagoa ematen diete familiei** beren gobernu-antolakuntzetan, zeharkako eskumenak dituzten lan-taldeek bidez (edo ministerioko sailen bidez), eraginkortasunez jardun dezaten familiei laguntzeko neurriak diseinatzeko orduan gobernu-eremu desberdinetan.

Antolakuntzaren gaineko jardunbide onak daude **Frantzian** (zeharkako eskumenak eta monitorizazio-gaitasuna daukan lan-talde zehatz bat dago), **Suedian** (zuzenean lehen ministroaren bulegoaren menpe dagoen koordinazio-bulego bat dago eta bertan ordezkaturik daude alderdi politiko nagusiak, denboran zehar iraungo duten politika adostuak diseinatzeko) edo **Belgikan** (ministerio arteko gaikako batzorde bat dago).

3.

Familiei laguntzeko politiketako gastu publikoak Europan

Europako ongizate-ereduek intentsitate desberdinak ematen dizkiote familia osatzen duten taldeen arretari. Horrenbestez, **arreta-maila desberdinak** daude eta batzuk beste batzuk baino arreta hobea eskaintzen dute, ereduaren arabera (eta, ondorioz, herrialdearen arabera).

Horrenbestez, herrialde batzuen arreta-gune nagusia adineko pertsonak edo ezintasuna izan litezke, eta haurrengan arreta-maila baxuagoa jarriko litzateke; beste eredu batzuek, arreta parekideagoa ematen diete hiru azpi-talde horiei.

Europako erradiografia konparatiboa egiteko, txosten honetan egiturazko bi adierazle aztertuko dira, ahalegin publikoaren ikuspegi absolutu eta erlatiboa eskaintzen dutela uste baitugu:

- Alde batetik, **herrialde bakoitzaren ahalegin erlatiboa** aztertu da, eta, horretarako, herrialde bakoitzak hiru espazio horietan familiari eskaintzen dion **BPG portzentajea** hartu da oinarritzat. Hala, herrialde bakoitzak bere esku-menaren harira egiten duen ahaleginarekin alderatu daiteke. Adierazle honetan herrialde bakoitzaren lehentasunak ikusi ahalko ditugu, eskuragarri dauden baliabideen barruan.
- Bestetik, herrialde bakoitzak hiru eremu horietan **per cápita eskaintzen dituen baliabideak** aztertu dira, **familiei laguntzeko politika publikoek balio absolututan duten eraginaren** ikuspegia eduki ahal izateko. Adierazle horrek, hain zuzen, herrialde bakoitzaren benetako gaitasuna erakutsiko digu (eta bere lehentasunekin alderatu ahalko dugu).

Egiturazko adierazle hauen azterketari esker, herrialde bakoitzeko orientazioari eta lehentasunei buruzko galderak erantzun ahalko ditugu familia osatzen duten kolektiboek dagokienez, baita EAEk dimentsio horiekin lotutako espazio europarrean okupatzen duen tokia ere.

Aurretiatzko gogoeta metodologiko batzuk

Familiei laguntzeko politiken egiturazko adierazleak aztertu baino lehen, aurretiatzko hiru gogoeta metodologiko hartu behar dira kontuan, azterketa konparatiboaren azken emaitza baldintzatzen baitute eta kontuan hartu behar baitira dagokion balioa emateko orduan:

- Kolektibo desberdinen azterketa.** Txosten honek aztertzen duen xedeari jarraiki, haurtzarora, ezintasuna eta mendetasuna eta adineko pertsona azpi-kolektiboak aztertzea erabaki da (lehendabizi banaka eta gero alderatuta), ikerketa-taldearen ustez familiaren esparruan eragin gehien izan dezaketena hiru egoerak baitira.
- Datuen antzinasuna.** Jarraian ikusiko denez (eta txosten honen aurreko kapituluetan adierazi dugunez), datuen egunerokotasuna ez da egokiena. Izan ere, oraintsu (2013) argitaratu diren datuak diren arren, datuok 2008 eta 2009. urteetan jaso ziren. Antzeko azterlanek datu zaharragoak ere erabiltzen dituzten arren, azken

urteetan krisi ekonomikoaren eragina oso garrantzitsua izan da herrialde europarretan eta gizarte-babeseko sistemak jasan dituzten aldaketak ere oso esanguratsuak izan dira.

- Datuen alderagarritasuna.** Metodologiari dagokionez, gehien alderatu daitezkeen iturriak erabiltzeko ahalegin handia egin den arren (SEEPROS metodologia europarra), barne-desberdintasunak daude bilketan, herrialdearen arabera⁴⁴. Hori guztia dela eta, datu hauek erreferentzia gisa ulertu behar dira, akatsik gabeko errealitate ordez, herrialde bakoitzaren barne-antolaketaren arabera kasu nazional batean jaso daitezkeelako eta ez beste batean⁴⁵. Jasotako item nagusiak honakoak dira:

(11. taula)

Estatistika-itimen azterketa konparatiboa, estatistika-motaren arabera

Haurtzarora (SEEPROS funtzioa: familia eta seme-alabak)	Ezintasuna (SEEPROS funtzioa: ezintasuna)	Adineko pertsonak (SEEPROS funtzioa: zahartzarora)
Diru-laguntzak		
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Prestazio familiarrak ✓ Amatasun- eta aitasun-baimena ✓ Beste onura ekonomiko batzuk (familientzako transferentziak) 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ezintasunaren ziozko pensioak ✓ Gaixotasunaren ziozko pensioak ✓ Beste onura ekonomiko batzuk (familientzako transferentziak) 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Pensioak ✓ Beste onura ekonomiko batzuk (familientzako transferentziak)
Programak eta zerbitzuak		
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Arreta-sistema formalak (zentroak eta programak, etab.) ✓ Arreta-sistema ez formalak (etxeko zaintza, etab.) ✓ Gauzako beste prestazio batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Egoitza-zaintza ✓ Etxez-etxeko laguntza ✓ Errehabilitazio-zerbitzuak ✓ Gauzako beste prestazio batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Egoitza-zaintza ✓ Etxez-etxeko laguntza ✓ Gauzako beste prestazio batzuk

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2010c), EUROSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

⁴⁴ EUROSTAT, OCDE eta EUSTAT-en orri metodologikoen datuak biltzeko prozesu bakoitzeko bereiztasun eta salbuespen ugari adierazten dituzte. Izan ere, herrialde bakoitzeko antolaketak desberdinak daude eta, batez ere, ulermen eta ikuspegi desberdinak. Horren ondorioz, hain zuzen ere, hezkuntzarekin lotutako elementuak kanpoan gelditu behar izan dira, datu-bilketan akordio metodologikorik lortu ez delako. Era berean, ezintasun edo mendetasunean edota adineko pertsonengan item jakin batzuk sartzea herrialde bakoitzak bere gizarte-arretarako ereduaren gainean duen ikuspegiaren arabera da eta, ondorioz, desadostasunak sortzen dira alderatzeko orduan.

⁴⁵ Arazo metodologiko honen adibide argi bat 4. kapituluaren izaera bikoitzeko (adibidez, hezkuntza eta uztartzea) zerbitzu gisa aipatzen genituen elementuekin lotuta dago. Haurreskolak, esaterako, aldaketak eragiten dituzten datu-bilketan. Izan ere, gizarte-eskumenetik eskaintzen badira, kasu nazional jakin baterako jasoko dira, eta hezkuntza-eskumenetik eskaintzen badira (EAEren kasuan bezala), aldiz, kanpoan geldituko dira.

Edonola ere, eta adierazitako neurriak gorabehera, azterketa konparatibo hau oso interesgarria iruditzen zaigu. Izan ere, datuetan desadostasun txikiak dauden arren, dauzkagun erreferentziarik homogeneoenak eta berrienak dira, eta, gainera, ikuspegi argia islatzen dute –bestalde aurretik egin-dako beste azterlan batzuetan berretsia izan dena, esaterako De Villota (2009) eta, orainsuago, SIIS (2013a) edo Esping-Andersen (2013) azterlanetan– herrialdeen joeren gainean, oro har ikuspegi zuzena izanik.

3.1. Haurtzaroa

Orokorrean Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeak (baita Frantzia, familiei laguntzeko politika tradizional oso errotua duelako, eta Irlanda ere, jaiotza-politikagatik) dira **haurrekin lotutako neurriak** babesteko baliabide gehien erabiltzen dituztenak **BPG portzentaje**an.

Hala, Luxenburgo, Danimarka, Erresuma Batua, Irlanda eta Suedia haurren politiketara bideratutako BPGren %3,5en gainetik daude, eta kapitulu honetan BPGren **gastu txikie-na izan duten herrialdeak**, funtsean, **esparru mediterraneokoak** dira (Italian, Portugalen eta Espainian %2 baino gutxiago), Herbehereak bereziki nabarmentzen delarik.

(12. taula)


Haurtzaroaren gaineko gastua BPG portzentaje

	1995	2000	2007	2009
Alemania	% 2,2	% 2,1	% 1,8	% 2,1
Austria	% 3,0	% 2,8	% 2,6	% 2,9
Belgika	% 2,3	% 2,6	% 2,6	% 2,8
Danimarka	% 3,8	% 3,5	% 3,5	% 3,9
Espainia	% 0,4	% 1,0	% 1,2	% 1,5
Finlandia	% 4,1	% 3,1	% 2,8	% 3,3
Frantzia	% 2,7	% 3,0	% 3,0	% 3,2
Herbehereak	% 1,7	% 1,9	% 2,0	% 1,7
Irlanda	% 2,1	% 2,0	% 2,9	% 4,1
Italia	% 0,6	% 1,1	% 1,4	% 1,6
Luxenburgo	% 2,6	% 3,2	% 3,2	% 4,0
Norvegia	% 3,5	% 3,1	% 2,8	% 3,2
Portugal	% 0,7	% 1,0	% 1,2	% 1,5
Erresuma Batua	% 2,3	% 2,7	% 3,3	% 3,9
Suedia	% 3,7	% 3,0	% 3,4	% 3,8
EAE	% 0,4	% 0,4	% 0,8	% 1,0

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

(11. grafikoa)


Haurtzaroaren gaineko gastu publikoa BPG portzentaje 2009an



Espainian, herrialde mediterraneoko beste eredu batzuetan bezala (Italia, Portugal), babes publikoaren zenbatekoa oso urria zen (%0,5 inguruan 1995ean) eta nahiz eta nabarmen igo den (2009an %1,5era iritsi arte), oraindik ere oso urrun dago familiei laguntzeko politiken barruan haurtzaroaren aldeko apustu sendoena egiten duten herrialdeetakoetatik.

(12. grafikoa)

Haurtzaroaren gaineko gastu publikoaren bilakaera BPG portzentaje



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

Joera horixe bete-betean aplikatu daiteke **EAEn**. 1995ean, zehazki, EB osoko daturik baxuena zuen (BPGren %0,4), eta, egun %1era igo duen arren (datu erlatibo eta partziala, gero ikusiko dugun bezala), haurtzaroren gaineko politiketan BPGren ahalegin gutxien egiten duena da oraindik ere (behintzat erabilitako metodologiaren arabera), batez besteko mediterraneoaren azpitik eta Luxenburgoko baino %3 beherago, adibidez.

Haurtzaroren gaineko per cápita gastuari dagokionez, EAE Portugalen aurretik soilik dago Europako azterketa konparatiboan. Gastua, zehazki, ez da urtean 300 €-ra iristen, Espainia edo Italia bezalako herrialdeen eta batez besteko europarraren azpitik.

Logikoa denez, eredu kontinentaleko herrialdeen azpitik ere badago, horien per cápita gastua 600 eta 1.000 €-koa baita (Belgika, Frantzia edo Alemania) eta oso urrun dago Eskandinaviako ereduak eta Irlandatik (urtean per cápita 1.000 € baino gehiago) eta, batez ere, Luxenburgotik (2.000 € baino gehiago).


(13. taula)

Per cápita gastua haurtzaroen

	2003	2006	2008	2010
Alemania	798 €	790 €	828 €	946 €
Austria	818 €	853 €	876 €	959 €
Belgika	526 €	554 €	585 €	620 €
Danimarka	970 €	1.049 €	1.206 €	1.268 €
Espainia	229 €	293 €	339 €	352 €
Finlandia	652 €	762 €	855 €	889 €
Frantzia	582 €	680 €	697 €	711 €
Herbehereak	353 €	463 €	405 €	397 €
Irlanda	707 €	816 €	937 €	1.040 €
Italia	252 €	282 €	326 €	322 €
Luxenburgoko	1.934 €	2.014 €	2.502 €	2.328 €
Norvegia	945 €	1.089 €	1.206 €	1.301 €
Portugal	221 €	214 €	240 €	264 €
Erresuma Batua	439 €	433 €	467 €	496 €
Suedia	731 €	844 €	925 €	916 €
EAE	-	158 €	218 €	297 €
EB27	-	482 €	519 €	555 €

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(13. grafikoa)

Haurtzaroren gaineko per cápita gastua 2009an

Hala ere, datu hauek kontu handiz aztertu behar dira. Izan ere, gizarte-izaerako aldaketa europarretan, lehen azaldu bezala, gizarte-babesarekin hertsiki lotutako elementuak soilik sartzen dira.

EAEn kasu arazo metodologiko bat da hori. Izan ere, gure lurraldean familiengana zuzenean zuzendutako elementu batzuk ez datoz gizarteko azpisistematik, baizik eta, adibidez, hezkuntzaren eremutik ematen dira, eta, **eremu horietan**, hain zuzen ere, **EAEk ezaugarri desberdinak** ditu, ez direnak gizarte-arretarako sistemari sartzen eta, beraz, ez direnak estatistika alderatuan jasotzen. Ondorioz, **estatistikak benetakoa baino babes publiko txikiagoa islatzen du.**

Kasu zehatz honetan, beraz, Europa mailako estatistika alderagarriak kanpoan uzten ditu datu interesgarri batzuk, eta, beraz beste iturri zehatzago batzuetara jo behar dugu. *Haurren pobrezia Euskadin* (SIIS, 2013a) txostenaren arabera, berez “*adingabeko pertsona bakoitzeko gastuei dagokionez (...) gastua Estatu osokoa baino %10 altuagoa dela antzeman da. Horrenbestez, Espainian, **familiei laguntzeko politiken gaineko gastua 1.859 €-koa da adingabeko, eta, EAEn, aldiz, gastu hori 2.076 €-koa da adingabeko bakoitzeko**”.*

Adibide bat jartzearen, eta maila zehatzagoan, “*haur-hezkuntzari dagokionez, hau da, 0-6 urte artekoa (...) EAEko gastua %30 altuagoa da*”, eta amatasunaren ziozko errenten arloan (Eusko Jaurlaritzaren uztartze-laguntzak barne) “*gastua 132 €-koa adingabe bakoitzeko, estatu-mailako 75 €-en aldean*”⁴⁶.

⁴⁶ Ibid.

Faktore zuzentzaile hori aplikatuta, **egoera hobea ageri da balio absolutuko babesari** dagokionez (ez BPGri dagokionez) haurtzaroaren eta familiaren esparruan, **Estatuarekin alderatuta** (eta gainerako autonomia-erkidegoekin), batez ere haur-hezkuntzaren eta uztartze-lanen gaineko laguntzen arloan, hurrengo taulan ikus daitekeenez.

(14. taula)

Familiei eta haurrei laguntzeko politiken gaineko per cápita gastu osoa adingabe bakoitzeko. EAE/Espainia azterketa konparatiboa

	EAE		Espainia	
	BPG %	€ per cápita	BPG %	€ per cápita
Diru-laguntzak	% 0,34	703 €	% 0,54	719 €
Kargurako umeen ziozko zenb.	% 0,08	165 €	% 0,17	231 €
Amatasunaren errentak	% 0,16	335 €	% 0,17	223 €
Jaiotzaren ziozko laguntza	% 0,06	132 €	% 0,06	75 €
Gauzazko beste prestazio batzuk	% 0,03	70 €	% 0,14	90 €
Gauzazko prestazioak	% 0,66	1.373 €	% 0,85	1.140 €
Ostatua	% 0,08	158 €	% 0,09	117 €
Etexe-etxeko laguntza	% 0	3 €	% 0	5 €
Haur-hezkuntza (0-6 urte)	% 0,56	1.162 €	% 0,59	792 €
Gauzazko beste prestazio batzuk	% 0,02	50 €	% 0,17	226 €
GUZTIRA	% 1	2.076 €	% 1,3	1.859 €

Iturria: SIIS (2013a).

Datu horien arabera, nahiz eta ezin diren Europa mailako beste kopuru estandarizatu batzuekin alderatu, seme-alabak dituzten familiei laguntza ematen zaie oraindik ere, **baina nabarmen igo da azken hamarkadetan** (beste herrialde europar batzuetan inbertsioa gelditu edo beherantz egon den bitartean), **oso urrun dago oraindik estandar europarretatik** eta seguru asko gure inguru hurbileko herrialdeen azpitik, Italia edo Frantzia kasu.

Era berean, datuoi jarraiki, **per cápita BPG oso altua denez eta biztanleria-piramidea oso zahartuta dagoenez, portzentaje-ahalegin txikiagoarekin** (berez, aztertutako partidak guztietan estatukoa baino ahalegin txikiagoa dute BPGri dagokionez) **etekin ekonomiko handiagoak lortzen dira** seme-alabak dituzten familiei laguntza emateko orduan. Hau da, Estatuak osorik egiten duen ahalegin proportzionalki txikiagoa kontuan hartuta, **per cápita laguntza handiagoa da.**

3.2. Ezintasunak dituzten pertsonak

Ezintasunaren kasuan, **EAE apurka-apurka laguntza publikoa areagotzen joan da, 2009n bere BPGren %1,6ra iritsi arte.** Kopuru hori **batez besteko zifra bat da testuinguru europarrean** eta Austria eta Italiako kopuruaren antzera kokatzen du, Belgika, Espainia edo Alemania bezalako herrialdeen gainetik.

Bestalde, estatu-mailan, Espainian laguntza egonkorragoa izan da (bere BPGren %1,35 inguruan), EAEkoa baino bi hamartar beherago, nahiz eta alemanaren antzera eta irlandar, luxenburgotar eta frantsesaren gainetik.

(15. taula)


Ezintasunaren gaineko gastua BPG portzentajearen

	1995	2000	2007	2009
Alemania	% 1,1	% 1,1	% 1,0	% 1,3
Austria	% 2,2	% 2,1	% 1,6	% 1,6
Belgika	% 1,3	% 1,2	% 1,3	% 1,5
Danimarka	% 1,9	% 1,7	% 2,0	% 2,2
Espainia	% 1,3	% 1,3	% 1,3	% 1,4
Finlandia	% 3,6	% 2,5	% 2,0	% 2,3
Frantzia	% 1,1	% 1,0	% 1,1	% 1,1
Herbehereak	% 3,5	% 3,2	% 2,6	% 1,9
Irlanda	% 0,8	% 0,7	% 0,9	% 1,2
Italia	% 1,5	% 1,4	% 1,5	% 1,7
Luxenburgoko	% 2,2	% 1,9	% 1,1	% 1,1
Norvegia	% 2,4	% 2,3	% 2,4	% 2,8
Portugal	% 1,7	% 1,8	% 1,8	% 1,7
Erresuma Batua	% 2,5	% 2,0	% 2,0	% 2,2
Suedia	% 2,2	% 1,8	% 2,0	% 1,9
EAE	% 1,4	% 1,4	% 1,3	% 1,6

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

(14. grafikoa)


Ezintasunaren gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen 2009an



Testuinguru europarrean, **ezintasunaren gaineko laguntza publikoari** buruzko beste ezaugarri interesgarri bat 1995. urteaz geroztik **BPGrekiko proportzioan** kasu gehienetan **murritu** izana da, batez ere, Austria, Finlandia, Luxenburgo edo Herbehereak bezalako herrialdeetan, edo berau egonkor mantendu izana (adibidez Espainian edo Italian), Europako batez bestekoen azpiko kopuruak zituzten herrialde mediterraneoen kasuan salbu.

(15. grafikoa)

Ezintasunaren gaineko gastu publikoaren bilakaera BPG portzentajea



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

Halaber, interesgarria da Frantzia, Luxenburgo edo Irlanda bezalako herrialdeek ez dutela gainditu gastu publikoaren %1; oso datu deigarria, horien Barne Produktu Gordin altua kontuan hartuta.

Atal honetako **per cápita gastu publikoari** dagokionez, azpimarratzekoa da EAEn 483 €-koa izan zela, hau da, **Europako batez bestekoa baino zerbait baxuagoa** (528 €), **baina herrialde mediterraneoen gainetik**, nahiz eta Frantzian baino pixka bat baxuago (523 €, hori bai ahalegin erlatibo txikiagorekin lortuak).

(16. taula)


Per cápita gastua ezintasunean

	2003	2006	2008	2010
Alemania	572 €	609 €	636 €	670 €
Austria	660 €	669 €	647 €	691 €
Belgika	492 €	518 €	548 €	604 €
Danimarka	987 €	1.190 €	1.115 €	1.230 €
Espainia	316 €	370 €	396 €	416 €
Finlandia	755 €	836 €	930 €	967 €
Frantzia	402 €	483 €	499 €	523 €
Herbehereak	794 €	744 €	812 €	787 €
Irlanda	225 €	297 €	347 €	378 €
Italia	350 €	358 €	397 €	416 €
Luxenburgo	1.464 €	1.571 €	1.458 €	1.491 €
Norvegia	1.450 €	1.658 €	1.702 €	1.814 €
Portugal	388 €	414 €	404 €	394 €
Erresuma Batua	591 €	693 €	759 €	645 €
Suedia	1.105 €	1.284 €	1.353 €	1.223 €
EAE	-	413 €	440 €	483 €
EB27	-	493 €	524 €	528 €

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(16. grafikoa)

Ezintasunaren gaineko per cápita gastu publikoa 2009an



3.3. Adineko pertsonak

Adineko pertsonen dagokienez, politiken gaineko ahaleginak alde nabarmenak islatzen ditu herrialde desberdinetan, ahalegin hori BPGren %4 ingurukoa izatetik %13 ingurura iristen baita.

(17. taula)


Adineko pertsonen gaineko gastua BPG portzentajearen

	1995	2000	2007	2009
Alemania	% 7,8	% 8,6	% 8,5	% 9,1
Austria	% 9,8	% 9,9	% 10,2	% 11,5
Belgika	% 6,9	% 6,8	% 6,9	% 7,9
Danimarka	% 6,2	% 5,3	% 5,5	% 6,1
Espainia	% 8,1	% 6,6	% 6,1	% 7,1
Finlandia	% 7,7	% 6,7	% 7,4	% 9,0
Frantzia	% 10,4	% 10,3	% 10,8	% 11,9
Herbehereak	% 4,6	% 4,6	% 4,5	% 4,9
Irlanda	% 3,3	% 2,3	% 2,8	% 4,0
Italia	% 9,2	% 11,0	% 11,6	% 12,9
Luxenburgo	% 8,1	% 6,9	% 4,8	% 5,8
Norvegia	% 5,1	% 4,5	% 4,4	% 5,1
Portugal	% 6,0	% 6,6	% 9,1	% 10,5
Erresuma Batua	% 5,0	% 5,1	% 5,2	% 6,1
Suedia	% 7,4	% 6,6	% 6,6	% 7,7
EAE	% 8,7	% 8,5	% 7,1	% 8,9

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

(17. grafikoa)

Adineko pertsonen gaineko gastu publikoa BPG portzentajearen 2009an



Ikus daitekeenez, herrialde kontinentalak (Frantzia, Austria, Alemania) eta mediterraneoak (Italia, Portugal) dira **gastu publiko handia** eskaintzen dutenak kapitulu honetan eta herrialde eskandinaviarrak (Norvegia, Danimarka), aldiz, eredu horretara gutxien hurbiltzen direnak (aurrerago beren biztanleria-piramidean ikusi ahalko dugun bezala), %7tik beherako gastuekin.


Ildo horretan, EAEk proportzionalki ahalegin handia egiten du testuinguru europarrean, estatukoaren gainetik (%7 ingurukoa dena), nahiz eta bi kasuetan Italiak edo Portugalek eskaintakoaren azpitik egon.

Azken urteetan BPGren harira gastu publikoaren egindako dedikazioaren bilakaera aztertuta, azpimarratzekoa da, ezintasunean ez bezala, gastu hau etengabe igo dela azken urteetan, ia Europa osoan ematen ari den biztanleriaren zahartzearekin bat.

Alderazi bezala, EAEren portzentaje-ahalegina Europako altuenetakoa da, %8,5etik goragoko batez besteko dedikazioa baitu, eta eredu europarren batez bestekoaren gainetik baitago (nahiko antzekoak dira).

(18. grafikoa)

Adineko pertsonen gaineko gastu publikoaren bilakaera BPG portzentajearen



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

Nahiz eta EAEn gastua nahiko egonkorra den⁴⁷, beste herrialde batzuek (esaterako Austria, Belgika, Alemania, Portugal edo Italiak), beren kokaleku demografikoarekin bat, nabarmen igo dute partida horretako ahalegina; aitzitik, beste batzuetan (Luxenburgo da adibiderik deigarriena) dedikazioa murriztu egin da.

Hau da, **EAEk** ahalegin publiko ertain-altua egin du Europa mailan adineko pertsonengan, nahiz eta oraindik Italia edo Frantziatik urrun dagoen.

Estatu mediterraneoen eta kontinental batzuen berezko ezaugarria da hori eta eztabaidagai bihurtu da. Hala bada, Mari-Klosek (2012) planteatutakoa bezalako gaiak agertu dira, hau da, ea Europako hegoaldeko ongizate-estatuak bezalako baliabide murriztutun ereduatan adineko pertsonen kolektiboari zuzendutako politiketan aplikatutako joera positiboak zein neurritan kentzen dion estatuari beste kolektibo batzuetan (ezintasunean eta, batez ere, haurtzaroen) jarduteko gaitasuna.

Eztabaida ireki honetan egile batzuek ez dute kontraesanik ikusten (beren ustez beharrezkoa da onura gehien duten kolektiboan laguntzei eustea eta babes gutxiena dutenen laguntzak areagotzea); beste egile batzuetan esanetan, ordez, eredu horiek ez dituzte familientzako hornidurak areagotuko, eta, beraz, beharrezkoa da barne-antolaketak aldatzea. Horren harira, eta ikuspegia hedatze aldera, interesgarria da ahalegin publikoaren banaketari buruzko grafikoak herrialdeka kontsultatzea. Aurrerago ikusi ahalko dugu hori eta Europar dauden eredu desberdinen ikuspegia ematen digute.

Azkenik, eta **per cápita gastu publikoari** dagokionez, egoera ez da gehiegi aldatu eta 2009an urtean 2.756 € izaeratik EAE **gune ertain-baxuan** kokatzen da Europa mailan, EB-27ko batez bestekoa baino apur bat gorago (2.719 €).

EAE 2.500 € eta 3.000 € arteko taldean egongo litzateke, Finlandiarekin eta Alemaniarekin (gaineratik) eta Belgika, Portugal eta Espainiarekin (azpitik). Espainiaren kasuan, zehazki, bere gastua 750 € baxuagoa da eta Europako bigarren baxuena da, Irlandaren gaineratik eta Portugalen oso antzera.

Per cápita gastu altuena duten herrialdeekin alderatuta, ez da patroia argirik antzeman. Herrialde eskandinaviar (Danimarka), kontinental (Alemania) eta mediterraneok (Italia) daude zerrendaburuan, nahiz eta lehen bi taldeetako herrialdeen presentzia ohikoagoa den.

⁴⁷ Nabarmendu beharra dago 2007-2008 urteetan BPGren gastu publikoan egondako zuloak ez duela zerikusirik eremu horretan apustu publikoa murriztearekin (datu absolutuak aztertzean ikusiko ahalko denez), baizik eta aurrekaririk gabeko oparotasun ekonomikoarekin, herrialde europarretako BPGak oso altuak izan baitziren. EAEn kasuan, zehazki, 2008an aurreko urtean baino %7,2 altuagoa izan zen eta 2008an 2007an baino %4,3 altuagoa. 2009an etenaldi bat egon zen, grafikoetan argi eta garbi islatzen denez.

(18. taula)


Per cápita gastua adineko pertsonengan

	2003	2006	2008	2010
Alemania	2.383 €	2.650 €	2.743 €	2.859 €
Austria	3.012 €	3.408 €	3.639 €	3.992 €
Belgika	2.135 €	2.327 €	2.464 €	2.592 €
Danimarka	2.726 €	3.023 €	3.785 €	4.066 €
Espainia	1.390 €	1.575 €	1.774 €	2.004 €
Finlandia	1.889 €	2.260 €	2.550 €	2.878 €
Frantzia	2.525 €	2.859 €	3.120 €	3.329 €
Herbehereak	2.559 €	2.994 €	3.304 €	3.408 €
Irlanda	1.074 €	1.258 €	1.411 €	1.571 €
Italia	2.837 €	3.105 €	3.463 €	3.627 €
Luxenburgo	2.873 €	3.185 €	3.385 €	3.588 €
Norvegia	2.280 €	2.630 €	2.971 €	3.200 €
Portugal	1.329 €	1.763 €	1.931 €	2.143 €
Erresuma Batua	2.606 €	3.014 €	2.997 €	3.053 €
Suedia	2.944 €	3.156 €	3.499 €	3.588 €
EAE	-	2.259 €	2.418 €	2.756 €
EB27	-	2.364 €	2.560 €	2.719 €

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(19. grafikoa)

Adineko pertsonen gaineko per cápita gastua 2009an



EAEko adineko pertsonen gaineko gastu publikoaren dimentsioak garrantzi bikoitza dauka gaur egun. Izan ere, familien ezinbesteko euskarri bihurtu da egungo krisi-egoeran (arrazoietako batzuk txosten honetako bigarren kapituluaren identifikatutakoen artean daude), gizarte-sareak aho batez adierazten duen bezala, adineko pertsonak “kasu askotan beren familien euskarri ekonomiko eta emozional nagusi izatera pasa dira” eta beraiek arduratzen dira “hipotekak ordaintzeaz, seme-alaba eta biloben elikaduraz eta eskola-materialaren, arroparen edo jantokiaren fakturak ordaintzeaz” (Diario de Navarra, 2013).

Ondorioz, eta aurreko kapituluetan adierazitakoaren ildotik, adineko pertsonak (eta eurek jasotzen dituzten prestazio publikoek) zeregin bikoitza dute gure gizartean, batzuetan laguntza publikoaren hartzaila garbiak izanik, baina beste batzuetan laguntza-emaileak (bai laguntza ekonomikoa, bai zerbitzua) familia, lana edo bizitza pertsonala uztartzeko espazioetan edo, zuzenean, familia askoren oinarritzko beharizanei laguntza ekonomikoa ematen.

3.4. Baterako konparazioa

Familiaren esparruan eragina duten hiru dimentsioak banan-banan aztertu ondoren, herrialde desberdinek beren BPGren alderatuta egiten duten ahalegin orokorraren baterako ikuspegia azter dezakegu.

Familiei laguntzeko politiketan ahalegin handiena egiten ari diren herrialde europarrek kapitulu honetan beren BPGren %16a gainditzen dute (esaterako, Frantziak, Italiak eta Austriak).

(19. taula)


Familiei laguntzeko politiken gaineko gastu publikoak BPG portzentajearen

	1995	2000	2007	2009
Alemania	% 11,1	% 11,8	% 11,3	% 12,5
Austria	% 15,0	% 14,8	% 14,4	% 16,0
Belgika	% 10,5	% 10,6	% 10,8	% 12,2
Danimarka	% 11,9	% 10,5	% 11,0	% 12,2
Espainia	% 9,8	% 8,9	% 8,6	% 10,0
Finlandia	% 15,4	% 12,3	% 12,2	% 14,6
Frantzia	% 14,2	% 14,3	% 14,9	% 16,2
Herbehereak	% 9,8	% 9,7	% 9,1	% 8,5
Irlanda	% 6,2	% 5,0	% 6,6	% 9,3
Italia	% 11,3	% 13,5	% 14,5	% 16,2
Luxenburgo	% 12,9	% 12,0	% 9,1	% 10,9
Norvegia	% 11,0	% 9,9	% 9,6	% 11,1
Portugal	% 8,4	% 9,4	% 12,1	% 13,7
Suedia	% 9,8	% 9,8	% 10,5	% 12,2
Suedia	% 13,3	% 11,4	% 12,0	% 13,4
EAE	% 10,5	% 10,3	% 9,2	% 11,5

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

(20. grafikoa)

Familia-politiken gaineko gastu publikoak BPG portzentajearen 2009an



Hori bai, haurtzaroaren, ezintasunaren edo adineko pertsonen gaineko baterako dedikazioa eta banakako dedikazioa alderatzean ikus daitekeenez, elkarren artean oso eredu desberdinak dira. Izan ere, pisua Italian ez da haurtzaroan oinarritzen (ahalegin gutxi egiten baitute beste herrialde europar batzuekin alderatuta); horren ordez, adineko pertsonen arretarako politikekin lotuta dago. Aitzitik, Frantzia, Austria, Suedia edo Finlandia bezalako herrialdeetan baliabideen banaketa orekatuagoa da hiru kapituluetan.

Beste muturrean Irlanda, Espainia, Herbehereak edo Norvegia bezalako herrialdeek beren BPGren %10etik beherako dedikazio-ahalegina egiten dute eta Herbehereen kasua oso interesgarria da, apurka-apurka beherantz joan delako familiei laguntzeko politiken gaineko inplikazioa.

EAE erdiko posizioan dago Europa mailan, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Norvegia edo Luxenburgoren antzera, beren BPGren %11 eta %12 artean. Era berean, **familien gaineko gastu publiko orokorra batez besteko espainiarra baino %1,5 altuagoa da (%11,5, %10en aldean)** eta Luxenburgo, Irlanda eta Herbehereak bezalako herrialdeen gainetik dago, baina Erresuma Batua, Belgika edo Alemania bezalakoekin azpitik.

Gastu publikoak 1995az geroztik izandako bilakaerari dagokionez, familiaren ikuspegi integrala kontuan hartuta, **EAEko gastua apur bat igo da azken urteetan**, herrialde europar gehienetan gertatu bezala (**%10,5etik %11,5era pasata**).


Berez, testuinguru europarrean azpimarratzekoa litzateke **1995-2009ko joera orokorra nolabaiteko igoera izan dela** (%3 inguruko) BPGren ahalegin publikoaren gainean (esaterako, Belgikan, Frantzia, Italia edo Portugalen) **edo geldialdi teorikoa** (beren ahalegina ia mantendu duten herrialdeetan, gorantz edo beherantz aldaketa oso txikiak izanik, esaterako, Danimarkan, Alemanian, Austriar edo Suedian).

Datu horiek, multzoan, kapituluaren hasieran aipatzen genituen politika publikoen ereduakin gurutzatzen baditugu (eskandinaviarra, erdialdeko europarra eta mediterranea), ondorio interesgarriak atera ditzakegu.

Ikuspegi horretatik, egindako ahalegin erlatiboari dagokionez, EAEk posizio orokor baxuagoa dauka herrialde eskandinaviarrekin alderatuta (Norvegiaren gainera soilik), tarteko posizioa Europako erdialdeko testuinguruan (Luxenburgoko, Herbehereak edo Irlandaren gainera) eta ertain-baxua eremu mediterranean (Espainiaren gainera soilik).

(21. grafikoa)

Talde eskandinaviarreko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastu publikoaren bilakaera EAerekin alderatuta




Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

Edonola ere, hobeto ulertzeko, datu hauek aztertzearan balio absolututan egindako ahalegina ere kontuan hartu behar da, lehen adierazi dugun bezala. Horrenbestez, **familiei laguntzeko politiketako per cápita gastuaren** azterketari jarraiki, 2008an EAE Europako batez bestekoaren azpitik zegoen (3.536 €-rekin, EB27ko 3.801 €-en aldean) eta soilik Irlanda, Portugal eta Espainiaren gainera (ez dituzte 3.000 €-ak gainditzen).

Zehazki, **ahalegin-portzentaje baxuagoko herrialdeek errendimendu absolutu handiagoak zituzten beren gaitasun ekonomiko handiagoaren ondorioz**. Hori horrela, Luxemburgok, Norvegiak edo Herbehereak (per cápita errenta askoz altuagoekin) EAEk baino baliabide absolutu handiagoak sortzen dituzte (ia 4.600 € Herbehereen kasuan eta 7.400 €-tik gora Luxemburgoren kasuan, azken hori izanik, gainera, balio absolututan laguntza handiena ematen duena).

(22. grafikoa)


Talde kontinentaleko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastu publikoaren bilakaera EAerekin alderatuta



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

(23. grafikoa)

Talde mediterraneoko herrialdeek familiei laguntzeko politiketan egindako gastu publikoaren bilakaera EAerekin alderatuta



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta OCDE (2013) oinarri hartuta.

Ikus daitekeenez, **multzo mediterraneoko herrialdeak dira ahalegin absolutu txikiena egiten dutenak** (beren *per cápita* errentaren arabera), eta herrialde eskandinaviarrek eta kontinentalek (batez ere, Austria, Herbehereak eta Luxemburgo) baliabide askoz gehiago eskaintzen dituzte beren familientzat.

(20. taula)


Per cápita gastua familiei laguntzeko politiketan

	2003	2006	2008	2010
Alemania	3.754 €	4.049 €	4.208 €	4.474 €
Austria	4.490 €	4.930 €	5.163 €	5.642 €
Belgika	3.152 €	3.399 €	3.598 €	3.816 €
Danimarka	4.684 €	5.263 €	6.106 €	6.564 €
Espainia	1.934 €	2.238 €	2.509 €	2.772 €
Finlandia	3.296 €	3.858 €	4.335 €	4.734 €
Frantzia	3.509 €	4.022 €	4.316 €	4.563 €
Herbehereak	3.706 €	4.200 €	4.520 €	4.592 €
Irlanda	2.006 €	2.371 €	2.696 €	2.989 €
Italia	3.439 €	3.745 €	4.187 €	4.365 €
Luxemburgo	6.271 €	6.770 €	7.344 €	7.407 €
Norvegia	4.675 €	5.377 €	5.879 €	6.315 €
Portugal	1.938 €	2.392 €	2.575 €	2.802 €
Erresuma Batua	3.635 €	4.140 €	4.222 €	4.194 €
Suedia	4.780 €	5.284 €	5.777 €	5.727 €
EAE	-	2.830 €	3.075 €	3.536 €
EB27	-	3.339 €	3.603 €	3.801 €

Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(24. grafikoa)

Familia-politiken gaineko per cápita gastu publikoa 2009an




Hala ere, azpimarratu dugun bezala, ahalegina ez da zuzena, herrialde batzuetan gehiago bideratzen baita kolektibo batzuetara beste batzuetara baino. Ondorioz, hainbat galdera sortzen dira: **Zelan banatzen da barrutik gastu publikoa familian eragin gehien duten kolektiboen artean? Gastua bat al dator biztanleria-piramideekin? Gastu orekatua al da?**

Ahalegin publikoaren barne-banaketari buruzko galdera hauei erantzuteko, herrialde bakoitzeko biztanleria-piramidearen garrantzia gakoa da; izan ere, orokorrean familiei laguntzeko politikak desberdinak izango dira biztanleria-taldearen arabera banaketak hala diren neurrian eta biztanleria-zahartzearen garrantzia desberdina da kasuan kasu.

(25. grafikoa)

Biztanleriaren banaketa herrialdeka, adin-talde handietan




Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013a) eta EIN (2013) oinarri hartuta.

Nahiz eta herrialde guztietan ez dagoen korrelazio-maila bera, **EAEren** kasuan, zehazki, batasun handia dago; izan ere, txosten honetako bigarren kapituluaren aurreratzen zenez, Europako biztanleriari zaharretakoa dauka.

Testuinguru horretan, EAEn **gastu publiko handiena adineko pertsonengana bideratzen da** eta kolektibo horren gaineko laguntza da, funtsean, autonomia-erkidegoa posizio ertainean kokatzen duena familiei laguntzeko politiketako gastuan, testuinguru europarrean. Berez, familiarengan egindako ahaleginaren %77 baino gehiago kolektibo honi zuzentzen zaio eta oso gutxi, ordea, haurtzaroiari (gastuaren %9 baino gutxiago), biztanleria-piramidearekin paralelismo nabarmenak izanik (estatuaren kasuaren antzera, nahiz eta kasu honetan intentsitate baxuagoz).

(26. grafikoa)


Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. EAE



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(28. grafikoa)


Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Suedia



Iturria: bertan egina, EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(27. grafikoa)


Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Espainia



Iturria: bertan egina, EUSTAT (2013) eta EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(29. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Danimarka



Iturria: bertan egina, EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.


Aitzitik, **eredu eskandinaviarrean**, esaterako **Suedian** edo **Danimarkan**, ahalegin publikoaren barne-banaketa orekatuagoa da. Adineko pertsonengana bideratzen da familien gaineko BPGren gastuaren %50 inguru, haurtzarora %30 inguru (EAEEn baino askoz kopuru altuagoa) eta %14 eta %18 artean ezintasunera.

Bestalde, beste herrialde batzuek **eredu oso polarizatuak** dituzte eta beharbada antagonikoenak **Italia eta Irlandakoak** dira. Irlandaren kasuan, biztanleria adingabeen portzentajeak EAEkoen oso gainetik daude (%20tik gorako bakarra), Europako iparraldeko herrialdeen antzera soilik (Norvegia, Danimarka). Bestalde, **Italian** (eta Alemanian)

biztanleria-piramidea oso zaharra da (65 urtetik gorako biztanleriaren %20 baino gehiago) eta familiei laguntzeko politikak adin-talde horretara bideratzen dira bereziki, beren baliabideen %80 ia adineko pertsoneri eskaintzen baitzaizkie.

(30. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Italia




Iturria: bertan egina, EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

Alemaniak, bestalde, adinez nagusia den biztanleria-porzentaje altuena daukan herrialdea bada ere, proportzionalki ahalegin handiagoa egiten du haurtzaroan (adibidez, Italiak edo EAEK baino askoz altuagoa) eta adineko pertsonengana bideratzen duen gastua proportzionalki gure autonomia-erki-degoarenaren antzekoa da.

(32. grafikoa)


Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Alemania



Iturria: bertan egina, EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(31. grafikoa)


Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Irlanda



Iturria: bertan egina, EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

(33. grafikoa)

Familien gaineko ahalegin publikoaren banaketa BPGren aldean. Frantzia



Iturria: bertan egina, EUROSTAT (2013a) oinarri hartuta.

Bestalde, **Frantziak**, biztanleria-piramidea Europako iparraldeko herrialdeak bezain zaharra edo zaharragoa izanik ere, ahalegin txikiagoa egiten du haurtzaroarengan Danimarkak edo Suediak baino (ia %20, herrialde horietako %30eko batez bestekoaren aldean), baina beste herrialde kontinental batzuk baino altuagoa, nahiz eta adineko pertsonenganako laguntza handiari eusten dion.

Datuak horiek, beraz, **zer esan nahi dute? Zein eragin dute familiei laguntzeko politikek herrialde bakoitzeko biztanleria-piramideetan? Eta, non kokatzen da EAE? Herrialde europarren zein taldetan sar genezake?**

Herrialde bakoitzeko orientazioari eta biztanleria-piramideari buruzko datuak gurutzatuta aztertuz gero, **orokorrean biztanleria zahartuagoa duten herrialdeak gehiago orientatzen dira adineko pertsonen kolektibora, eta haurtzaroaren gaineko gastu publiko handienak dituzten herrialdeetan biztanleria gazteagoak daude.**

EAEren kasuan, familiei laguntzeko sistema era esponenztialean igo da, hasieran gastu publikoaren oinarriak oso murrizak baitziren, nahiz eta **profila ez den oso proportzionatua**. Batez ere adineko pertsonenganako laguntzan oinarritzen da eta **presentzia oso urria dauka haurtzaroaren gaineko laguntzak** (azterlan batzuetan esaten denez ez da "haurtzaroaren oso aldekoa"⁴⁸).

HIRUGARREN SEKTOREAREN ZEREGINA FAMILIENGAN ERAGIN ALTUA DUTEN POLITIKETAN

EAEko kasuaren **bereizgarrietako** bat, familiengan **eragin altua duten politiken** esparruan, **hirugarren sektoreko** gizarte-erakundeek daukaten **zeregin** hain garrantzitsua da, batez ere gizarte-zerbitzuen sektorean (familiengan eragina duten zerbitzuen zati handi bat bertan sartzen delarik), baina, baita, haurren eta gazteen gizarte eta hezkuntzako aisialdi-erakundeetako publikoaren zati batean ere.

Gizarte-babeserako euskal sistemaren bereizgarria da hori, **eredu mediterraneotik aldentzen duena eta Europako erdialdeko ereduarekin gehiago lotzen duena**, eta batez ere familiengan eragin altua duten gizarte-zerbitzuen prestazioan ematen dena (esaterako, ezintasunaren eremuan edo ahulezia-egoeran dauden familia eta pertsonak ekonomian eta gizartean nahiz hezkuntzan eta gizartean integratzeko eremuetan) eta haur eta gazteen gizarte, kultura eta aisialdiko baliabideetako batzuetan (batez ere udalekoetan).

Zehazki, ezintasunaren, gizarte, hezkuntza eta familiako esku-hartzearen edo haur eta gazteen aisialdi, gizarte, hezkuntza eta kulturaren gaineko baliabideetako asko (ludotekak, gaztegunak, haurtxokoak, eta abar) irabazi-asmorik gabeko erakundeek kudeatzen dituzte, eta, sarritan, zerbitzua garatzen duten erkidegoetan errotuta daude.

⁴⁸ SIIS (2013a).

UNICEF (2012) erakundeak dioenez, inbertsio-eredua zenbatekoa bera bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da eta, horren harira, hirugarren sektoreak ekintza zuzen baterako egindako jabeakuntzak, administrazioaren apustu estrategiko gisa, ondo azal lezake kasu askotan estatu-mailan emandako zenbatekoen antzekoekin herritarrek zerbitzuak hobeto baloratzea eta horien funtzionamenduaren pertzepzioa hobea izatea.

Izan ere, hirugarren sektoreak hiritarrekiko hurbilak diren balioak helarazten ditu eta eragin azkarragoa eta zuzenagoa ematen die familien eskariei, gizarte zibilaren parte izanik. **Subiratsek** (2010) jasotzen duenez, erantzun egokitu, eraginkor eta iraunkorrek eman ahal dizkie gizarte-arazoei beren gizarte-sentsibilizazio, kontzientziazio eta partaide-tzatgatik nabarmentzen diren balio eta printzipioetan oinarrituta, eta, gainera, baliabide eraginkorra da, zerbitzuak emateko orduan eskaintzen duen kalitate altuagatik.

"Hirugarren sektoreko erakundeak kalitate oso altuko zerbitzuak eskaintzen ari gara kostu murriztean, eta, zalantzarik gabe, kostu hori altuagoa izango litzateke zerbitzuok zuzenean administrazioak emango balitu."
(Elkarrizketa gizarte-erakundeekin)

4.

Familiei laguntzeko neurrien azterketa, haurtzaroari dagokionez

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko **prestazioak** bi talde handitan banatzen dira. Batetik, **dirua edota denbora eskaintzan dutenak** (adibidez, amatasun/aitatasun baime-nak edo laguntza ekonomikoak) eta, bestetik, hiritarren esku jarritako **zerbitzuak** (baliabideak, programak, azpiegiturak, eta abar), seme-alabak hezteko laguntza, kasu.

4.1. Diru-laguntzak

Diru-laguntzen atalaren barruan hiru laguntza-mota bereizi behar ditugu:

- Hasteko, **amatasun- eta aitasun-baimenak** (*parental leave*), haurtzaroko lehen uneetarako, jaio eta berehala (nahiz eta kasu batzuetan haurdunaldiaren azken faseetara ere hedatzen diren). Denbora-neurri honek dirua ere badu tartean, %100ean ordaintzen den denbora baita.
- Bigarrenik, **diru-laguntza zuzenak** (*cash benefits*), familientzako transferentzia bidez kostuak konpentsatzeko metodo gisa jarduten dutenak seme-alabak hezteko orduan.
- Hirugarrenik, **zerga-babesak** (*tax benefits*), zerga-kenkarien eta zerga-murrizketen bidez familientzako kostuen konpentsazioa osatzen dutenak, zergen aitorpenak tarteko (normalean errenta-aitorpenen bitartez).

A. Amatasun- eta aitatasun-baimenak

Gurasoen baimenak ordaindutako baimenak dira eta haur berrien jaiotza edota adopzio kasuetan amatasun- eta aitatasun-baimenaren baldintzak dituzte hizpide.

Orokorrean, gizarte-sistema osoa hartzen dute barne. Izan ere, estatuaz gain, enpresa eta pertsona langileak ere presente daude, beren kotizazioen bidez beraiek mantentzeko adinako baliabide ekonomikoak sortzen baitituzte. Ondorioz, oro har, besteren konturako langileek soilik eskuratu dezakete baliabide hau, Europako errealitatea oso desberdina den arren.

Aldeak gorabehera (2. Eranskineko 2. taulan kontsultatu daitezke zehatz-mehatz), amatasun-baimenaren baldintzetan ildo komunak identifikatu daitezke. **Profil generiko** legez honela zehaztu genezake:

- **Besteren konturako emakume langile guztientzako prestazio unibertsala** (herrialde batzuetan lan-merkatuan aktiboak ez diren emakumeei ere diru-laguntza ematen zaie, kopurua txikiagoa den arren).
- **16 aste inguruko iraupena** (herrialdeen arteko aldeak 15 eta 20 aste bitartekoak dira eta Europako iparraldean apur bat altuagoak), nahiz eta 2009az geroztik Europa mailan zuzentarau bat lantzen ari diren, 18 astera igo dadin, eta Europako familia-elkarteek gutxienez 24 aste eskatzen dituzten (COFACE, 2009a).
- **Baimenean azken soldataren %100 jasotzen da batez beste** (kasu batzuetan, hala ere, portzentajea baxuagoa da eta beste batzuetan oinarria ez da azken soldata, baik zik eta azken hiru edo sei hilabeteen batez bestekoa); Europako familia-elkarteek diote inola ere ezin dela soldata gordinarenean %85 jaitsei EBko kide den estatu batean ere (COFACE, 2009a).

Era berean, **aitatasun-baimenaren** figura ere aitortzen hasia da, nahiz eta oraindik umiltasunez. Europako herrialde askotan 10 eta 14 eguneko baimena ematen zaie aitei, ordainduta (normalean soldataren %100ean), jaiotza eta berehala (eta amaren baimenarekin bateragarria). Datu horien azterketa konparatiboaren zehaztasunak 2. Eranskineko 3. taulan kontsultatu daitezke. Aldi hori bat dator Europako familia-elkarteek errekamatutakoarekin, gutxienez 10 egun eskatzen baitituzte %100ean ordainduta eta amaren baimenarekin bateragarria izanik (COFACE, 2011).

Hala ere, beste elkarte batzuentzat (PPiINA, 2010) ez da inola ere nahikoa, aitatasun-baimenak amatasun-baimenaren baldintza berberak izan behar dituela eskatzen baitute, bai kopuruan, bai denboran, eta elkarren artean besterenezinak izan behar baitira, gizonek eta emakumeek beren seme-alaben bizitzaren hasieratik zereginen ardura partekatatu dezaten.

Horrelako ekimenak, oraingoan, Eskandinaviako herrialde batzuetan soilik daude indarrean, esaterako Suedian edo Islandian. Hala, aitatasun-baimenaren iraupena areagotu egiten zaie amaren eta aitaren artean banatzen bada. Suediaren kasuan, adibidez, 2010eko Familia Legeak (2013an berrikusia) bizikidetzaren unitatearen kontzeptua lantzen du, eta, beraz, *a priori* ez du ezartzen amarentzako eta aitarentzako politikarik; horren ordez, bi gurasokideek zereginak

era parekidean partekatzen dituztela hartzen da oinarritzat⁴⁹.

B. Diru-laguntza zuzenak

Jaiotzagatiko edo adopzioagatiko baimenez eta uztartzeko laguntzez gain, Europako herrialde gehienek babes ematen diete seme-alabak dituzten familiei, diruzko transferentzia zuzenak egiten baitizkiete seme-alabak familiaren kargura dauden aldian.

Familiarentzako diru-laguntza sistemaren errealitate europarrak aniztasun handia islatzen du herrialde batetik bestera (eta baita herrialde baten barruko eskualdeen artean ere). Herrialde bakoitzak eredu desberdinak dauzka (2. eranskineko 4. taulan azterketa xehatuagoa edo indibidualizatuagoa ikus daiteke), **ezaugarri komunak** ere identifikatu daitezkeen arren.

Orokorrean, **babes ekonomiko unibertsal bat dago, hilerokoa, 18 urtera arte** mantendu ohi dena (nahiz eta berez 16 eta 27 urte bitarteko tartea dagoen, pertsona hori ikasten ari den ala ez kontuan hartuta). Hala ere, aldakuntza handiak daude, **seme-alaba bakoitzeko 100 eta 150 € arteko** batez besteko kopuruekin (igoerak daude seme-alaba kopuruaren, adinaren eta ezintasunen arabera).

EAeren kasuan, seme-alaba bakoitzeko diru-laguntza hori, kasu guztietan ematen dena kargurako lehen seme-alabaren jaiotzagatik, adopzioagatik edo harreragatik, honako kasuetan soilik mantentzen da bigarren haurrak edo hurrengoak izanez gero: 2 urtera arte, bigarren seme-alabaren kasuan, eta 6 urtera arte, hirugarrenen eta hurrengoaren kasuan. Ordainketa, beraz, urtekoa⁵⁰ da eta aurretiaz eskaera egin behar da.

Diru-laguntza zuzenen **unibertsaltasunari** dagokionez, batez ere eredu eskandinaviarra eta Europako erdialdekoa duten herrialdeetan ematen da, eta, bestetik, eredu mediterraneoeko herrialdeetan baztertuta dauden edo hala egoteko arriskua duten familiei soilik egiten zaizkie transferentziak. Aitzitik, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, herrialde mediterraneoetan zerga-sisteman oinarritzen dituzte familiei laguntzeko politikak.

Nahiz eta Portugalen, Italian eta Espainian baliabide murriztak (*means-tested*) dituzten familientzako diru-laguntza zuzenak soilik aurreikusten diren, beharbada kasurik eztabaidagarriena Espainiarena da. Izan ere, eredu mediterraneoaren barruan Espainian daude iraupen eta zenbateko baxuenak, bai eta laguntzak eskuratzeko diru-sarrera familiarren gehieneko muga murriztenak ere.

Seme-alaba bakoitzeko transferentzia ez puntualez gain, testuinguru europarrean ohikoa da, amatasunaren edo aitatasunaren baimenaren ondoren, herrialde batzuek diruz laguntzea lanaldi-murrizketa edo eszedentzia, kasu

⁴⁹ Hala ere, alderdi horrek eztabaida pizten du herrialdean. Izan ere, azterlan honetan HARO Familia Elkarte Nazionalak egindako kontsultaren arabera, gobernuek ez luke familien barne-autonomian esku hartu behar eta familia bakoitzak erabaki beharko luke bajako 480 egunak nola banatuko dituen (iraupen hori, bestalde, eztabaida-fasean dago, luzatzeko).

⁵⁰ Ikus 1. eranskineko 2. taula.

batzuetan amarentzat soilik eta beste batzuetan amarentzat edo aitarentzat. Epe hori (herrialde batzuetan kalera tzeetatik babestua dagoena) urtebete eta 6 urte bitartekoa da.

Neurri horiei guztiei dagokienez, **EAE** argi eta garbi kokatuko litzateke **eredu mediterraneoan, nahiz eta elementu diferentzial batzuk dauden estatuarekin alderatuta**, esaterako, uztartze-lanetarako eta seme-alaba bakoitzeko laguntzak. Izan ere, hileroko transferentzia unibertsalen faltak Europako erdialdeko herrialdeetako batez besteko eszenatokitatik oso urrun kokatzen du.

Hizpide dugun elementu diferentziala 177/2010 Dekretuko laguntzetan dago (aurreko kapituluan aipatzen zen bezala), eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden pertsonen zuzendua beren seme-alabak zaintzeko (eta enpresei ordezkapenentarako) bai eta familiei langileak kontratatuzko, seme-alaba adingabeak zaindu ditzaten. Horiek, urrats positiboa diren arren (eta diferentziala, estatuko egoerarekin alderatuta) ez dira nahikoak, inola ere, Europako errealitatearekin alderatuta.

Edonola ere, azpimarratzekoa da, Ortega Gaspar-ek (2012) adierazten duen bezala, neurriak arautze hutsak ez duela esan nahi neurriok arrakastatsua direnik; beste elementu batzuek zeregin oso esanguratsua izango dute, esaterako *“aldi horri emandako ordainsariak, gizartearen kulturak, malgutasunak, enpresen sektoreak edo hezkuntza-mailak”*.

Izan ere, **familia uztartzeko erraztasunak ematen dituen kultura soziolaborala falta bada, neurri publikoen eragina txikiagoa da**. Bigarren kapituluan ikusi dugun bezala, enpresetako eta laneko kultura arrazionalagoak eta uztartzeko neurrien aldeko apustu publiko indartsuak soilik lortuko dute biztanleriaren zahartzea murriztea.

Baina, zer esan nahi du uztartzeko neurrien aldeko apustu publiko indartsua egiteak? Egile batzuen ustez, Gauthier (2007) kasu, babeseko baliabide eta zerbitzuak (hurrengo puntuan ikusiko ditugunak) lehen seme-alaba edukitzea (eta goiz edukitzea) gehien bultzatzen duten elementuak diren arren familiei laguntzeko politika publikoetan, transferentzia ekonomikoek *“efektu biziagoak dituzte, batez ere bigarren seme-alabatik aurrera”*. Ondorioz, haurrak hazteko babes ekonomiko garrantzitsuen sistema (beste faktore batzuekin batera, noski) funtsezkoa izango da EAEko jaiotza-tasa areagotzeko eta ongizate-ereduaren iraunkortasuna bermatzeko.

Era berean, Bradshawen (2012) esanetan horrelako laguntzak unibertsalak izan beharko lirakeke, *“familientzako politika publikoen eredurako aurreikusi beharreko sistema bakar gisa, desberdintasuna murrizten dutelako eta berdintasun horizontala sustatu, seme-alabak haztearen ahalegin unibertsala aitortzen dutelako eta haren kostu ekonomikoa konpentsatzen dutelako, aukera-berdintasuna bermatuz, jatorrizko familiaren maila sozioekonomikoa edozein izanda ere, eta, ondorioz, ordezkapen-tasa mantentzen lagunduz”*. EAEren kasuan bereziki garrantzitsua da hori, biztanleriaren zahartzea batez ere ugalkortasun-tasa baxuaren ondorio baita (bigarren kapituluan ikusten genuen bezala).

Hileko laguntzez gain, herrialde batzuek **hornidura osagarriak** dituzte (zehaztasunak 2. eranskineko 5. taulan ikus

daitezke), seme-alabaren jaiotzaren edo adopzioaren unearrekin lotuta. Eredu honetan herrialde batzuek beste batzuek baino sentsibilizazio handiagoa dute eta kontzeptu desberdinak aurreikusten dira, baina bi talde nagusi bereiz ditzakegu:

- **Transferentzia zehatzak jaiotzagatik edo adopzio nazionalagatik** (*birth grant*), hau da, estatuaren ekarpen zehatza familiar, haur berri bat jaiotzean.

Horrelako laguntzak komunak dira eta Eskandinaviako herrialdeetan (Norvegian kasu), Europako erdialdekoetan (Belgikan edo Frantzian) edo Mediterraneoko herrialdeetan (Espainian) aurreikusten dira. Aldea laguntza horien kopurua da: altuagoa da Europako erdialde eta iparraldeko herrialdeetan mediterraneokoetan baino, nahiz eta EAEko kopuruak Europako erdialdeko herrialdeetako oso antzekoak diren.

- **Transferentzia zehatzak nazioarteko adopzioagatik**, hau da, diru-laguntza bat nazioarteko adopzio-prozesu baten berezko gastuak partzialki ordaintzeko. Zenbatekoa igo egiten da adopzio anitzen kasuan.

Talde hau nahiko komuna da, nahiz eta ohikoagoa den herrialde eskandinaviarretan, adibidez Danimarkan edo Finlandian, eta zenbatekoak askoz altuagoak diren. EAEk ere aurreikusten ditu, Frantzia bezalako Europako erdialdeko herrialdeek baino zenbateko altuagoekin.

Ikus daitekeenez, bi taldeetan EAEk Europa mailako herrialde aurreratuenetan dauden baldintza eta zenbatekoen antzekoak ditu. Bestalde, laguntza ekonomiko jarraituen gaineko inplikazio publikoa eskasa da, bai unibertsaltasunari dagokionez, bai zenbatekoari dagokionez.

C. Zerga-babesak

Azkenik, familiei diru-laguntzak emateko formula ohikoa zerga-sistemari buruzkoa da, batez ere zerga-kenkariaren eta murrizketen bidez. Sistema honek, laugarren kapituluan adierazitakoaren ildotik, **desabantaila** batzuk dauzka, birbanatzeko aukera eskaintzen duen arren:

- Batetik, **gaitasun ekonomiko nahiko altua duten familiek** soilik hartu ditzakete sistema honen onurak, diru-sarrera jakin batzuk ez dituzten familiek ezin baitute guztiz erabili.

- Bestetik, sistema honetan **gastuak urtebete berandua-go konpentsatzen zaizkie**, orokorrean hurrengo urteko zergen aitortzean egindako gastuak zuzentzen baitituzte.

Orokorrean, **zerga-sistema erabiltzeko hiru maila** daude Europan familiei laguntzeko politiken arloan:

- Hasteko, **herrialde eskandinaviarrak** daude: zerga-sistema ia ez da existitzen familien kostuak konpentsatzeko sistema gisa, horiek sistematikoki orientatzen baitira familientzako transferentzia zuzenetara.

- Bigarrenik, **Europako erdialdeko herrialdeak** daude, sistema hori erabiltzen duten arren, bigarren mailako posizioa ematen dietenak kostuak konpentsatzeko ereduen barruan, nagusiki familientzako transferentzia zuzenak baitira.

Herrialde batzuek (Erresuma Batuak edo Frantziak, esaterako) **“garatu” egin dute zerga-sistema**, familiei laguntzeko metodo gisa baztertu gabe eta diru-laguntza zuzenekin bateragarri bihurtuz. Horretarako, **itzul daitezkeen zerga-kenkariak** erabili dituzte (aurreko kapituluan deskribatzen genituen), eta, hala, familia guztiei aukera ematen diete (eta ez soilik maila ekonomiko jakin bat dutenei) zerga-sistemaren onurak jasotzeko, baliabide murriztak dituzten familiei laneratzen laguntzeaz gain (*making work pay*)⁵¹. Edonola ere, SIISek (2013b) ondo baino hobeto dioenez, ezin dira gai izan urtebete beranduago kostuak konpentsatzearen ondoriozko arazoak konpontzeko, aurreikuspen eta zenbatespenerako ezarri dituzten sistemak ez baitira bat ere errazak.

- Azkenik, **multzo mediterraneoko herrialdeetan zerga-sistema da** familien kostuak konpentsatzeko **bide publiko nagusia** eta familientzako transferentzia zuzenak ahulezia-egoerarako soilik dira. Gainera, laguntza-sistema klasikoak da eta ez dago zerga-kenkari bihurtzaririk.

Zerga-ereduan aurreikusitako jarduera-eremuei dagokienez, Europa mailan bi azpi-mota nagusi daude.

- Batetik, **eredu klasikoak** (ikus 2. Eranskinen 6. taulako informazioa). Horietan batez ere **familia egituratzeko gastuak** konpentsatzen dira, esaterako menpeko ezkontidearenak, kargurako seme-alabenak edo menpeko beste pertsona batzuenak (normalean ezintasunen bat duten pertsonak eta arbasoak).

Gizon sustengatzailearen eredu klasikoak da, eta, ondorioz, bikotekideen baterako aitortpenak egiteko eta lehen aipatutako kontzeptuen zioz zerga-kenkariak edo murrizketak sartzeko aukera ematen du.

Eremu geografikoa batez ere **herralde mediterraneotan** kokatzen da eta laguntza publikoak zerga-sistemaren bidez bideratzen dira. Europako erdialdeko herrialdeetan ere erabiltzen da, baina intentsitate baxuagoarekin.

- Bestetik, **eredu aurreratuagoak** (ikus 2. Eranskinen 7. taulako informazioa) daude. Horietan, familia egituratzeko gastuez gain, **familia zaintzearen ondoriozko gastuak** konpentsatzen dira. Ondorioz, ondorengoak eta aurrekoak zaintzeko gastuen konpentsazioa aurrerakosten da (ezintasunen eta mendetasunen kasuetan), bai etxe barruan, bai etxetik kanpo (sistema formalak eta ez formalak).

Horrelako sistemak zaintzaren ondoriozko gastuak aurrerakosten zailtasunean oinarritzen dira, eta, beraz, urteko gastua egindakoan, zerga-aitortpena erabiltzen da konpentsatzeko.

Europako erdialdeko herrialdeetan erabiltzen da sistema hau (Frantziak, Alemanian edo Belgikan, kasu) eta partzialki konpentsatzen dira pertsonen kontratazioarako gastuak, seme-alabak edo menpeko adineko pertsonak zaintzeko etxean, egoitzetan, eguneko zentroetan edo haurreskoletan.

Datu horiek ikusita, eta kapitulu honen hasierako egitura-azterketarekin egiten genituen galderei erantzunez, **non kokatzen da EAE? Europako herrialdeen zein taldetan sar genezake EAEko laguntza ekonomikoen eredia?**

EAEk zerga-laguntza klasikoaren eredu mediterraneoa zehazten duten ezaugarriak izan daitezke, lehen aipatutako baldintza gehienak betetzen dituzenez gero:

- **Zerga-sistema da** familia formalizatuen kostuak **konpentsatzeko metodo nagusia** (transferentzia zuzenak ez unibertsalak dira eta funtsean ahulezian edo bazterkerian dauden familiei zuzentzen zaizkie, ez baitira ikusten familiei laguntzeko tresna zehatz gisa).
- **Zerga-sisteman** sartzen dira familian eragina duten elementu guztiak (besteak beste, hezkuntza, osasuna, ezintasuna, haurtzarora, etxebizitza edo garraioa), eta **tresna-esparrua** bihurtzen dira familiei laguntzeko.
- **Sistema honetan zerga-ordainketa bateratuak egin daitezke** (gizon sustengatzailearen ereduaren ohikoak), eta Europako iparraldeko herrialdeetan, aldiz, apurka-apurka atzean geratu da forma hori, berdintasun handiagoaren alde.
- Hala ere, **EAEn desberdintasuna zera da, kontuan hartzen duela familia zaintzeko kostuen konpentsazioa**, nahiz eta ez zerga-sistemaren bidez, baizik eta familientzako transferentzia zuzenen bidez (etxean pertsona bat kontratatuzko laguntzen bidez) edo zerbitzu publiko zuzenen bidez (hurrengo atalean ikusiko dugunez), egoitza-baliabideak eta eguneko zentroak erabiliz ezintasunen bat duten edota mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko.

4.2. Zerbitzuak eta baliabideak

Kostuak konpentsatzeko baliabideez gain, estatuek seme-alaben hazkuntza babesteko baliabideak eskaintzen dizkiete familiei, eta, azpiegitura eta zerbitzu jakin batzuen bidez familia, lana eta bizitza pertsonala bateratzeko aukera ematen diete, bai etxetik kanpoko zerbitzuak tarteko (haurreskolak, adibidez), bai etxe barruko zerbitzuak erabiliz (etxe barruko zaintza-lanak, esaterako).

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko funtsezko sistemei buruz ari gara orokorrean, baina bereziki esanguratsuak dira familia ahulen kasuan, esaterako gurasokide baka-rrekoetan edota ordainsari-maila baxua dutenetan eta beren ibilbide profesionalarekin jarraitu nahi duten emakumeengan. Baliabide horien gabezia edo funtzionamendu okerra (tarifa altuegiak izateagatik, plaza faltagatik edo laneko ordutegiaren eta arreta-ordutegiaren bateragarritasun faltagatik) kontuan hartuta, are zailagoa da alderdi desberdinak uztartzea eta lan-merkatua bueltatzea.

Emakumeen kasuan, bigarren kapituluan adierazten genuen bezala, emakumeen eta gizonen diru-sarreraren dualtasun-eszenatoki batean eta etxeko diru-sarrerak batzen diren testuinguruan, emaitza ekonomikoa onuragarriagoa da emakumeak bere lanaldia murrizten duen edo lana uzten duen familien kasuan, bere diru-sarrerak txikiagoak baitira. Berez, Ortega-Gasparren esanetan (2012), emakumeen kasuan *“lan-merkatutik irteteko funtsezko faktorea adingabeak*

⁵¹ Zerga-eredu hauei buruzko informazio gehiago eskuratzeko interesgarria da SIISek horren harira egindako azterketa zehatza kontsultatzea (2013b).

zaintzeko zerbitzuen kostu altua da, emakume askok lan-merkatua utzi behar izaten baitute (batez ere soldata baxua dutenek)”.

Gurasokide bakarreko familien kasuan, egoera are gogorragoa da. Izan ere, COFACEren arabera (2008a), gizarte-bazterkerian erortzeko arrisku garbia dute, eta, beraz, ibilbide profesionala ez hobetzeaz gain, ekoizpen-sistematik kanpo geratzen dira, familia hauek pairatzen duten txirotasun-gurpila sortuz.

Ondorioz, diru-sarreraren arabera sistema malgu, oso eta konpentsatua izango litzateke modurik onena familia guzti hauek (beren tipologia eta diru-sarrerak edozein izanda ere) berdin gara daitezen eta, beraz, beren garapen sozioekonomikoko aukerak ez daitezen kaltetu familia bat osatu nahi izate hutsagatik.

Era berean, eta EAEren kasuan, zehazki, baliabide hauek erabilgarriak izatea eta funtzionamendu egokia izatea funtsezkoak izango dira biztanleria-piramidea hobetzeko orduan. Izan ere, Rindfuss (2007), Baizán (2009) eta batez ere Esping-Andersenek (2013) diotenez, “*haur-hezkuntzako eskola gehiago egoteak eragin positiboa dauka emankortasun-tasan*” eta “*tresna politiko eraginkorra da jaiotza-tasari aurre egiteko*”, Europako iparraldeko herrialdeetan gertatzen den bezala.

Berez, Esping-Andersenek (2002) esanetan, “*emakumeen enplegua eta familia uztartzeko orduan porrot egiten duten herrialdeek etorkizunean desoreka (biztanleriari dagokionez) garrantzitsuak aurkituko dituzten etorkizuneko hamarkadetan*”.

A. Baliabide-mota nagusiak. Sistema formalak eta ez formalak

EBk, haurrak zaintzeko eta lana eta familia uztartzeko bidean etengabe hobetzeko asmoz, haurrak zaintzeko helburu batzuk ezarri zituen 2002ko Bartzelonako goi-bileran. Hona hemen:

- Hiru urtetik beherako haurren gutxienez %33k haurren zaintza-sistemak eskura izatea.
- Hiru urtetik eskolaratze-adinaren hasierara (bost edo sei urte, herrialdearen arabera) bitarteko haurren gutxienez %90ek haurren zaintza-sistemak eskura izatea.

Hala ere, helburu horiek ez dira berdintasunez betetzen, alde nabarmena baitago egoera batetik bestera, herrialde eta eskualde bakoitzean errealitate desberdinak baitaude. Edonola ere, elementu azpimarragarri nagusien erradiografia bat egiten saiatuko gara:

- Hasteko, **orokorrean eskolaurreko arreta-baliabideak ez dira doakoak** (nahiz eta eskualde eta udalerrri batzuek kostu osoa ordaintzen duten). Aitzitik, sarritan diruz lagundutako baliabideak dira eta horien kostua familien diru-sarreraren arabera izaten da, alde nabarmenak daudelarik familiek herrialde bakoitzean egin behar duten ahaleginean.
- Era berean, **aldaketak daude herrialdeak familiei plaza bat bermatzen dien ala ez kontuan hartuta, eta, gainera, beren seme-alabari zer nolako baliabidea eman nahi**

dietaen aukeratu ahal duten kontuan hartuta (etxean bertan, beste baten etxean, etxeok ez diren baliabideetan, eta abar). Herrialde guztiek ez dute plaza bat bermatzen (are gehiago, herrialde batzuetan eskualde batzuek plaza bermatzen dute eta beste batzuek, aldiz, ez).

- Sistema unibertuala ez duten kasuetan, **alde nabarmenak daude eskaintako plaza-ratioan** (eskuragarritasuna desberdina da eskualde, hiri eta abarren arabera). Izan ere, kasu askotan eskualdeko edo udaleko gobernuak eskaintako zerbitzuak dira eta sarbidea eskatzeko aurreitazio denborak edo plaza-bolumenak alde nabarmenak eragiten ditu.
- **Azkenik, Europako herrialde gehienek arreta-sistema formalak eta ez formalak aitortzen dituzte**, baina aldeak daude aitortutako baliabide-motetan. Frantzia, Austria edo herrialde eskandinaviarretan, adibidez, baliabide ez formal ugari estaltzen dira, haurreskolen sare ofizialaz gain. Beste herrialde batzuetan, bestetik, sare formalak hartzen du pisu handiena.

Haurren arretarako baliabide nagusiak Europan

Haurtzaindegia

Haurtzaindegia (*crèches, kindergarten*) erakunde oso errotuak dira Belgika, Frantzia, Alemania edo Austria bezalako herrialdeetan eta haurra zaintzeaz arduratzen dira amatasun-baja amaitzen denetik bi edo hiru urtera arte.

Ordutegi zabala izaten dute familiaren lan-ordutegia ezartzeko, adibidez, 7:00etatik 17:30era, lanetik irteerako ohiko orduaren arabera.

Haur-hezkuntzako eskolak

Haur Hezkuntzako eskolak hurrengo urratsa izan ohi dira eta 2/3 urteko haurren ardurak hartzen dute (haurtzaindegia amaitzeko adinaren arabera), nahitaezko eskolaratzea hasi arte (5 edo 6 urte, herrialdearen arabera).

Fase honen helburuak ohiko eskolarako prestatu eta egokitzera bideratzen dira, nahiz eta, orokorrean, jolasa erabiltzen den horretarako. Herrialdearen arabera, guztiz edo partzialki diruz lagunduta daude.

Herrialde batzuetan ez dago alderik haurtzaindegien eta haur hezkuntzako eskolen artean. Erakunde bakarra da haurren hezkuntzaz arduratzen dena, amatasun-baja amaitzen denetik derrigorrezko eskolaratzera arte.

Haurren habiak / Umezainak

Haurren habia edo umezain (*childminding*) deiturikoak ez dira hain baliabide instituzionalak, araututa dauden aren. Kasu horietan, pertsona homologatu batek bere etxean zaintzen ditu haurrak (batzuetan bere seme-alabak).

Habiako ume-kopurua desberdina da herrialde eta eskualdeen arabera, baina 3 eta 10 artekoa izaten da. Ordainketa-sistema ere desberdina da, baina, normalean, tarifa publiko eta finko bat ezartzen da haur bakoitzeko. Familiak berak ordaintzen du eta Administrazioak diru-laguntza ematen du.

Era berean, prestakuntza desberdina da herrialdearen arabera. Prestakuntza-maila desberdinak daude eta lan-bideak gizartean duen ezarpena desberdina da (Frantzian, esaterako, lanbide aitortua da eta ibilbide luzea dauka).

Seme-alaben taldeak / Guraso-taldeak

Talde horiek arreta ez formalean sartzen dira eta ez daude guztiz araututa. Ondorioz, desberdintasunak daude beren aitortpen-mailan, herrialdearen arabera. Ez dira guztiz aurreikusten Bartzelonako goi-bileran, bertan ez baita jaso familiako kideek, auzokideek edo ziurtagiririk gabeko zain-tzaileek emandako irtenbiderik (Europar Batasuna, 2002).

Aukera hori aurrekoak baino ezohikoagoa da, nahiz eta Europako iparraldean eta erdialdean hedatuta dagoen eta horregatik aipatu nahi izan dugun. Bertan, familiak dira 5 eta 10 haur zaintzeko antolatzen direnak (normalean txandaka, ordu edo egunen arabera).

Erkidego-izaera duten taldeak dira eta familiak lankidetzan aritzen dira ikuspegi hezitzailea zehaztu eta erantzukizuna partekatzeke orduan. Herrialdearen arabera, kasu batzuetan ez dira aukera aitortua, aintzatetsita egon arren ez daudelako diruz lagunduta, eta beste batzuetan sistema publikoaren parte dira eta beste aukera batzuen artean kokatzen dira

Eguneko etxeak

Eguneko etxeak eskola-osagarria dira arreta-nagusiko aukerez harago doazen lan-ordutegiak dituzten familientzat. Udal-zentroetan, ikastetxeetan edota etxe partikularretan egon daitezke eta haurtzaroa babestea dute helburu, eskolaratzearen jarduera osagarriak eta eskolako, aisialdiko eta lanetarako errefortzu-jarduerak garatuz.

Arreta-eredu orokor hauen eskaintzari buruzko zehaztasunak, herrialdeen arabera, 2. eranskineko 8. taulan ikus daitezke. Halaber, informazio osagarria dago tarifei, ordainketa-moduei, ordutegiei eta abarri buruz.

B. Estaldura-mailak. Sistema formalak eta ez formalak

Dagoen eskaintza ezagututa, garrantzitsua da bere emaitzak egiaztatzea. Europar Batasunaren datuen arabera (2008), Bartzelonako helburuak ezartzean alde nabarmenak aurkitu dira herrialdeen arabera.

Hiru urtetik beherako haurren artean (gogora dezagun zaintza-zerbitzuek estali behar zutela kopuru osoaren %33 gutxienez), bost estatu-kide soilik (Danimarka, Herbehereak, Suedia, Espainia eta Belgika) gainditzen dute portzentaje hori eta Portugal, Erresuma Batua edo Frantzia bezalako herrialdeak hurbil zeuden. Aitzitik, Italian, Alemanian edo Irlandan plazen %16 eta %26 artean eskaintzen zen eta Ekialdeko Europako herrialdeak ziren zenbaki okerrenak islatzen zituztenak, %10etik beherako eskaintzarekin (EUROSTAT, 2006b).


Oraindik derrigorrezko hezkuntzan ez dauden hiru urtetik beherako haurren kasuan, herrialde askotan gainditzen zen plazen %90. Zehazki, Belgikak, Danimarkak, Frantziak, Alemaniak, Irlandak, Suediak, Espainiak edo Italiak datu hori gainditzen zuten, eta Herbehereak eta Erresuma Batua hurbil zeuden (%85-%90). Datu horien azpitik, ekialdeko herrialdeez gain, Portugal eta Finlandiaren kasuak nabarmentzen ziren, %70 eta %85 artean.

Estaldura horren ordutegiak kontuan hartuta (lana eta familia hobeto uztartzeko orduan elementu nagusietako bat izan daitekeelako, adibidez, beren lanaldi osoa mantendu nahi duten eta murrizten ez duten edo eszedentziarik hartzen ez duten familientzat) eszenatoki desberdinak daude.

Babes formaleko egituren kasuan⁵², ordutegi-aukera zabalena eta baxuena zutenak bat zetozen, hiru urtetik beherako edo gorako haurren sistemak aztertzean. Hori horrela, Portugalak, Islandiak eta Norvegiak arreta ertaina ematen dute beren azpiegitura formaletan, astean 33 orduz baino gehiago (gogoratu EBn lanaldi estandarra astean 40 ordukoa dela). Aitzitik, ordutegi-eskaintza baxuena dutenak dira Austria, Irlanda, Herbehereak eta Erresuma Batua (astean 25 ordutik behera).

(34. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema formalak. Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik behera




Iturria: EUROSTAT (2012).

⁵² EU-SILC metodologiaren arabera, sistema formaletan honakoak sartzen dira: eskolaurreko hezkuntza, eskolako hezkuntza (gogora dezagun Europako herrialde batzuek 4 urtetan hasten dutela nahitaezko eskolaratzea, adibidez, Luxenburgok, edo 5 urtetan, adibidez, Greziak, Herbehereak edo Erresuma Batuak), haurren zaintza erkidego-zentroetan eskolako edo eskolaurreko ordutegitik kanpo (aurretik edo ondoren) eta egunetako zentroetako zaintza.

(35. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema formalak.
Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik gora



Iturria: EUROSTAT (2012).

Tarteko taldean daude (EB27ko batez bestekoaren gainetik, asteko 26 ordutan), Espainia (28-30 ordurekin, gutxi gorabehera), Frantzia eta Finlandiarekin batera (hiru urtetik gorako eskaintzaren kasuan).

EAEn, nahiz eta ez daukagun estatistika alderagarriak, **arreta-eredu formalaren aldeko apustu publiko handia egon da**, batez ere Haurreskolak Partzuergoko haur-hezkuntzako eskola-ereduaren bidez, astean gehienez 40 ordu eskainita, baina ez daukagu batez besteko arreta-ordutegirik beste herrialde batzuekin alderatzeko⁵³.


Sistema ez formalen⁵⁴ eremuan, Herbehereak eta Austriak, esaterako, ordu-estaldura baxuagoko arreta-ordutegia dute (astean 9 eta 12 ordu artean) eta Portugalen, beste herrialde eskandinaviar batzuetan bezala, Finlandia edo Suedian kasu (ohituago daude honelako sistemetara, lehen adierazi bezala) batez besteko arreta astean ia 30 ordukoa da.

⁵³ Txosten hau egiteko prozesuan kontsulta egokia egin da, baina ez da emaitzarik atera.

⁵⁴ EU-SILC metodologiak sistema ez formalen artean sartzen ditu haurren arreta pertsonala profesional baten esku dagoenean (child-minder) edota gurasoak ez diren beste senide batzuen esku, auzokideen esku, familiako lagunen esku eta abar, etxean (euren etxean edo zaintzailearenean), hau da, espazio profesionalak eta ez profesionalak barne hartzen ditu.

(36. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema ez formalak.
Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik behera



Iturria: EUROSTAT (2012).

(37. grafikoa)

Haurren zaintza. Sistema ez formalak.
Batez besteko ordu-kopurua. 3 urtetik gora



Iturria: EUROSTAT (2012).

Espainiaren kasuan berriz ere tarteko posizioetan dago, nahiz eta hiru urtetik beherako haurrentzako espazioetan eskaintzen duen batez besteko arreta handiagoa den (astean 25 ordu, hau da, Europako eta Frantzia edo Alemania bezalako herrialdeetako batez bestekoaren gainetik), hiru urtetik

beherakoen arretan baino (astean 10,8 ordu, Europako eta herrialde horietako batez bestekoaren azpitik).

EAEko egoerari dagokionez, datu estatistiko alderagarriak falta diren arren, azpimarratzekoa da honelako baliabideen aldeko apustu publikoa baxuagoa dela. Izan ere, sistema formalaren banaketa indartsuan ez bezala, sistema ez formalaren aldeko babesa murriztagoa da: batez ere haurrak zaintzeko pertsonen kontratazioa diruz lagunduz egiten da, Eusko Jaurlaritzako 177/2010 Dekretuan jasotakoaren arabera.

Datu horiek aztertuta, beraz, **hiru ondorio nagusi** atera ditzakegu:

EAEko haur-hezkuntzako eskolen ordutegia Europako antzeko baliabideen parekoa edo altuagoa da.

Hasteko, EAEko haur-hezkuntzako eskolak irekitzeko ordutegia ez da beste herrialde europar batzuetakoa baino baxuagoa. Hala ere, txosten honen azterketa-lanetan indar gehienaz azaltzen zen alderdietako bat zen hau.

“Une honetan desoreka dago haur-hezkuntzako eskolen plaza-eskariaren eta zerbitzu honen eskaintzaren artean”.
(Elkarrizketa gizarte-erakundeekin)

Kontuan hartuta Haurreskolak Partzuergoak eskainitako ordutegiak Europa mailako altuenetakoak direla, **zergatik eztabaidatzen dira familien artean? Zergatik ez dira guztiz erabilgarriak familia eta lana uztartzeko orduan?**

Beharbada galderaren ardatza aldatu behar dugu erantzun ahal izateko. Izan ere, seguru asko haur-hezkuntzako ikastetxeen ordutegiak ez dira areagotu behar, baizik eta lan-merkatu euskalduna (eta, ondorioz, estatukoa) da arrazionalizatu behar dena, arlo horretan (txosten honen aurreko kapituluetan ikus zitekeen bezala) aldeak baitaude beste herrialde europar batzuekin.

Hau da, kontua ez da arreta-baliabideak beranduagora arte luzatzea, baizik eta lanaldi kontzentratuagoetara egokitzea, bizitzako alderdi desberdinak uztar daitezten eta, gainera, familiek beren seme-alabez goza dezaten. Izan ere, haurreskola bat irekitzeko ohiko ordutegia (07:30/08:00-16:30/17:00 izan ohi dena) Europako erdialdeko herrialde batean edo herrialde eskandinaviar batean guztiz zuzena da, baina estatuan (eta EAE ez da salbuespena) oso zaila da lana 17:30 edo 18:00 baino lehen amaitzen duten enpresa pribatuak aurkitzea.

Berez, Esping-Andersen (2013) bezalako egileen esanetan *“lehenetsi beharko litzatekeen politika publikoen eremu bat lan-merkatuaren egokitzapena da (...); izan ere, Espainiako lan-merkatuaren ezaugarri instituzionalak urrun daude emankortasunaren ikuspegitik egokiak izatek”.*

Ondorioz, beharbada galderak zerikusi gehiago dauka lan-ordutegiak aldatzeko moduarekin (europarren antzekoagoak eta arrazionalagoak izan daitezten, bizitza pertsonalarekin eta familiarekin uztartu ahal izateko), uztartze-baliabideen ordutegi-eskaintza altuagoarekin baino.

Aitzitik, azterketan antzeman den beste kritiketako bat (plazaren banaketan dauden barne-desorekei buruzkoa, batez ere landako eta hiriko guneen artean) esanguratsua da. Izan ere, lehen kapitulu honetan adierazi dugun bezala, haur-

hezkuntzako eskolek funtsezko garrantzia dute uztartzean eta emankortasunean, eta, beraz, beharrezkoa da baliabide horiek eskuratzeko erraztasunak eta aukerak izatea.

Harreman zuzena dago uztartze-baliabideen eskaintza publiko zabalaren eta bi gurasoak lanaldi osora sartzeko aukeraren artean.

Datuak aztertuta atera daitekeen bigarren ondorioa zera da, harreman garbia dagoela herrialde desberdinetan dauden soldata-tarteen eta beren uztartze-eskaintzaren kalitatearen artean.

Adibidez, Erresuma Batuan eta Herbehereetan soldata-tarte altua dago (%20koa eta altuagoa) eta eskaintzen dituzten uztartze-baliabide formalek ordutegi oso murrizta dute. Aitzitik, Portugal, Danimarka edo Italian egoera bestelakoa da: soldata-tarte txikiagoa eta baliabideen ordutegi zabalagoa.

EAEk uztartzea babesteko baliabideetan egin duen apustua batez ere sistema formalarekin lotuta dago.

EAEn uztartzea babesteko baliabide-sarea geroz eta indartsuagoa da eta azken urteetan inbertsio publiko bizia egin da, batez ere Haurreskolak zabaltzeko.

Hala ere, arreta ez formaleko ereduak (Europako beste herrialde batzuetan oso ohikoak direnek) ez omen dute lehen-tasunik euskal administrazioan, dimentsio txikiagoa baitute eta, azken urteetan, murriztu ere egin baitira.

5.

Familiei laguntzeko neurrien azterketa, mendetasunari dagokionez

Mendetasunaren gaineko **prestazioak** bi talde handitan banatzen dira: batetik, prestazio **ekonomikoak** daude (adibidez, pertsonak kontratatze laguntzak edo diru-laguntzak, zuzenak edo zerga-desgrabazioen bidezkoak), eta, bestetik, **zerbitzuak** dauzkagu (baliabideak, programak, azpiegiturak, eta abar), hiritarren esku jartzen direnak mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko, bai arreta-sare formalen bidez, bai ez formalen bidez.

Dualtasun hori, era berean, Europako familia-elkartearen eskaria ere bada (COFACE, 2011). Izan ere, zaintza formaleko, ez formaleko edo bien nahasketako sistemen artean aukeratu nahi dute, familia eta lana uztartzeko aukera ematen dieten familia-zaintzarako sistemak eskuratu ahal ditzaten beraie egokien iruditzen zaien eran, betiere diru-laguntzak ez badira estatuak gai honetan duen erantzukizuna ordeztzeko erabiltzen.

Azaldu beharra dago, nahiz eta txosten honetan zehar bereizi egin diren menpeko pertsonen eta ezgaitasunen bat dutenen babes publikoak (alde nabarmenak daudelako garapen-bidean dauden herrialdeen artean eta azpi-talde hauetako bakoitzari emandako laguntzaren ibilbidean eta azterketa

berezia askoz argiagoa delako banakoen egoerei buruz), bi babes publikoak, orokorrean, modu bakarrean gauzatzen direla.

Izan ere, bi kasuetan mendetasun-mailaren araberakoa da baliabide edo diru-laguntza jakin baterako sarbidea. Hau da, adina edozein izanda ere, prestazioa eskuratzeko elementu erabakigarria mendetasun-mailaren balorazioa da.

Ondorioz, laugarren kapituluaren aztertutakoaren ildotik, mendetasunaren balorazioa funtsezkoa da prestazioak eskuratzeko gakoa delako, eta horrexegatik izan du horrenbesteko garrantzia (lehen ere ikusi dugun bezala) hirugarren sektoreak txosten hau egiteko prozesuan erakutsi dituen eskarrien artean.

Jarraian labur-labur aztertuko dira sare formalean eta ez formalean dauden baliabideak, haurtzarari buruzko kapituluaren egin den bezala, diru-laguntzak edo baliabide eta zerbitzuak diren kontuan hartuta.

5.1. Diru-laguntzak

A. Baimen ordainduak

Jaiotza edo adopzioaren kasuistiken kasuan ez bezala (gurasoen baimen ordainduak baitaude), Europako herrialde gehienek ez dute aitortzen ezintasunen bat duten edo osasun-egoera larri-larriaren dauden senideentzako arreta-baimenik.

“Familiaren barruan gobernuek prestazio ez formalak (batez ere une jakinetan) aitortzeko bidean aurrera egiteko beharra” (COFACE, 2011) Europako familia-elkarteen aldarrikapen nagusietako bat da. Azken horiek apustu garbia daukate *“estatu-kideei familia zaintzeko gutxienez hiru hilabeteko baimen bat emango dien legedi europarra garatzeko orduan, gutxienez gaixotasun-bajaren mailan ordainduta eta lanari eta gizarte-prestazioei dagokienez babestuta”*.

Esparru europarrean, Finlandian eta Frantzia esaterako, menpeko pertsonak zaintzen dituztenei ordaintzeko sistematik daukate. Era berean, Espainian ere badago figura hori, nahiz eta salbuespen bat den (teorian) araua baino gehiago.

EAEn Europa mailako sistema aitzindaria jarri da arlo horretan, lehen urratsak eman baitira mendetasunen bat duten edo osasun-egoera larriaren dauden senideen zaintza aitortzeko bidean (mendetasun-egoeran edo larritasun handian dauden senideak zaintzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntzen bidez, lana eta familia uztartzeko xedez), familia eta lana uztartzen laguntzeko, gizon eta emakumeen aukera-berdintasuna sustatuz.

Laguntza horien barruan sartzen dira lanaldi-murrizketa eta eszedentzia mendetasun-egoeran dauden familientzat, 2.000 eta 3000 euro arteko zenbatekoekin urteko mendetasun-egoerarako eta 800 eta 1.000 euro arteko zenbatekoekin osasun-egoera larrietarako, 2010eko ekainaren 30eko aginduak 177/2010 Dekretuan aurreikusitakorako adierazten duen bezala.

Laguntza-tipologia honek, orokorrean, Europako familia-elkarteen gomendioak betetzen ditu, azken horiek lan-murrizketa partzialen alde egiten baitute (EAeko kasuan bezala) lanaldi osoko eszedentzia luzeen alde baino gehiago. Diotenez, horrelako baimenek *“aukera eman behar dute*

mendetasun-egoeran, gaixotasun larriekin, ezintasundun senideekin eta abar dauden pertsonen laguntzeko eta nahikoa malguak izan behar dute, hala nahi izanez gero, lanarekin eta arreta-sistema formalekin bateragarri izateko” (COFACE, 2011).

Malgutasuna, lana uztartzeari begira, ezinbestekoa da arrakasta lortzeko. Izan ere, honakoak lortu behar dira:

- Enpresa enplegu-emaileek enplegatutako pertsonen nolabaiteko jarraitasuna bermatzea, beren jarduerari partzialki eutsiz. Hori bereziki garrantzitsua da prestakuntza altuko profiletarako edo enpresa txiki, ertain edo mikroenpresa txiki eta ertainetarako, baliabide murriztak baititutze beren langileak ordeztzeko (EAEn lan-merkatu hori nagusitzen da).
- Enpleguari bere lanpostuarekin harreman partziala mantentzeko aukera ematea. Hori garrantzitsua da ez soilik lan-munduekiko harremana gal ez dadin, baizik eta baita ikuspegi psikologikotik ere, pertsona bere zain-tzaile-zereginetik askatzen baitu partzialki.
- Dinamika solidarioa sortzea familiako kide desberdinen artean, gaixoaren zaintzak txandakatuko dituztelarik, emakumeek gehiegizko kargarik izan ez dezaten (beraiek baitira familia-zaintzeko arduradun nagusiak) eta emakume eta gizonen artean erantzukizun partekatuko dinamika ezarritik.

Hala ere, familia ahulentzat (esaterako, gurasokide bakarrekoentzat edota errenta baxua dutenentzat) arazoak sortzen dituzten diru-laguntzak dira. Izan ere, koordinatzaileak berak dioenez, *“ordainketa-mailaren eta gizarte-laneko babesaren bermea oso garrantzitsua da orokorrean, baina kritikoa da familia ahul batzuentzat, adibidez, gurasokide bakarreko familientzat, beraiek batira ahulezia-egoera handiengan daudenak, familia-sare txikiagoa eta diru-sarrera baxuagoak dituztelako eta figura heldu bakarrek dauzkalako diru-sarrerak. Ondorioz, bazterkeria-arriskuan geratzeko aukera gehiago dute”* (COFACE, 2011).

B. Diru-laguntza zuzenak eta zergadesgrabazioak

Aitzitik, diru-laguntzak (bai zuzenak, bai, bereziki, zerga-sistemaren bidezkoak) ohikoagoak dira. Horiek aztertu ahal izateko garrantzitsua da administrazioan **bi multzo handitan** kudeatu daitezkeela kontuan hartzea:

Lehen multzoan **hurren estaldura** sartzen da, hau da, orokorrean, 16-18 urtera artekoa, hurrei buruzko atalean eta 2. eranskinen 4. taulan sakonago aztertu dena.

Europako herrialdeek orokorrean berariazko osagarriak aurreikusten dituzte ezintasunen bat duten haurrentzat, bai zenbatekoan (oinarrizko zenbatekoa bikoizten dute), bai onura ekonomikoen sarbidean. Berez, errenta baxuekin batera, diru-laguntza zuzena eskuratzeko prestazio ez unibertsalak dituzten herrialdeetan aurreikusitako elementuetako bat da.

Bigarren multzoan **16-18 urtetik aurrerakoentzako** diru-laguntzak aurreikusten dira, lan egiteko adinean zehar eta erretiratu ondoren (gaixotasunekin lotutako mendetasunen kasuan, adibidez, gaixotasun neurodegeneratiboekin

lotutako kasuetan). Talde honetan bi diru-laguntza mota uztartu ohi dira:

- Batetik, **pensoiak**, lehen ere egiaztatu denez, nabarmen aldatzen direnak Europar Batasuneko herrialde desberdinen artean.
- Bestetik, **menpeko pertsonentzako** edota menpeko egoeran kideren bat duten **familientzako diru-laguntza zuzenak** eta karguan arbasoak dituzten familientzako zerga-desgrabazioak, osasuneko, egoitzako edo bizikidetzako gastuak partzialki konpentsatzeko xedez.

Horrelako diru-hornidurak ere nabarmen aldatzen dira herrialdeen arabera, bai prestazioren unibertsaltasunari dagokionez, bai eskuratzeko bideari eta zenbatekoari dagokionez. 2. eranskineko 9. taulan kontsultatu daitezke datuok zehatzago, baina esan genezake herrialde europar bakan batzuek soilik eskaintzen dituztela horrelako neurriak (Frantzia, Alemania, Danimarka edo Herbehereak), orokorrean hilean 400 € eta 1.300 € arteko zenbatekoekin.

Espanian, mendetasunaren ondoriozko prestazioetarako eskubide subjektiboa aitortuta dagoen arren (eta, ondorioz, sistema unibertsala denez, nahiz ez doakoa, baliabide jakin batzuk ordaindu egin behar baitira pertsona onuradunaren gaitasun ekonomikoaren arabera), betearazpen-maila oso desberdina da bizilekuko autonomia-erkidegoaren arabera, **EAE** izanik autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko [abenduaren 14ko 39/2006 Legearen](#) betearazpen-maila altuena duenetakoa bat.

Autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko prestazioak zerbitzuak (gauzako prestazioak) edo diru-laguntzak (diruzko prestazioak) izan daitezke. Lehenengo horiek lehentasuna dute diruzko prestazioen gainetik, nahiz eta hori, edonola ere, dauden zerbitzuen eraginkortasunaren eta nahikotasunaren arabera izango den. Horrenbestez, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko legeko 14.2 artikuluari jarraiki, mendetasunari arreta emateko prestazioei dagokionez, honakoa ezartzen da: *“15. artikuluko katalogoko zerbitzuek lehentasuna izango dute eta autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuen sareko eskaintza publikoaren bidez emango dira, behar bezala egiaztatutako zerbitzu edo zentro publiko edo pribatu hitzartuen bidez”*.

5.2. Zerbitzuak eta baliabideak

A. Baliabide-mota nagusiak. Sistema formalak eta ez formalak

Txosten honetan aztertutako beste prestazio batzuetan bezala, mendetasunari buruzkoak ere asko aldatzen dira herrialde europarraren arabera. Camacho, Rodríguez y Hernándezen (2007) esanetan, alde esanguratsuak daude prestazioaren aitorenari, jasotako modalitateei, erabilitako sare-motari, zerbitzuaren unibertsaltasunari edo ordainketa-moduari dagokionez. Herrialdeen profilen azterketa banakatua eginez gero, estatu europarek mendetasunari arreta emateko baliabide desberdinak eskaintzen dituzte (herrialdeen eredu desberdinak 2. eranskineko 10. taulan ikus daitezke), txosten

honetan etxean bertan edo etxetik kanpo ematen diren kontuan hartuta bildu direnak.

Horrenbestez, batetik **etxeko zaintzarekin** lotutakoak daude, orokorrean senideak partzialki konpentsatzen dituzten diru-laguntzen bidez ematen direnak, nahiz eta herrialde batzuek (adibidez, eskandinaviarrek) zerbitzu profesionalak ezartzen dituzten (erizaintzakoak eta bestelakoak) etxean arreta eskaintzeko.

Bestalde, **menpeko pertsonen etxetik kanpo arreta emateko baliabideak** daude, batez ere eguneko zentroak, egoitzaz-zentroak, lanbide-zentroak eta abar.

MENDETASUNARI ARRETA EMATEKO BALIABIDE NAGUSIAK EUROPAN

Etxeko laguntza

Diru-laguntzak

Diruzko hornidurak dira eta menpeko pertsonarentzat (edo eguneroko bizitzako gaitasunak galdu dituenarentzat) eta horien ardura duten senideentzat izan daitezke.

Lehen kasuan, orokorrean estatuko sistemak onartutako hornitzaile-mailaren (hornitzaile ziurtatuak) prestazio jakin bat eskuratu ahal izateko erabiltzen dira, horrek erabakitze askatasun altua ematen baitie erabiltzaileei. Nahiko komuna da eredu kontinentaleko herrialdeetan (Austria, Erresuma Batua) eta eskandinaviarretan.

Bigarren kasuan, menpeko pertsona bere kargura duen familiaren zerbitzuak eskuratzeko kostuak (edo diru-sarreraren galera) konpentsatzeko erabiltzen da (herrialde batzuetan pertsonak berak kobratzen du eta beste batzuetan familiak). Eredu mediterranean gehiago ematen da, Italian edo Espainian kasu.

Etxeko zaintza

Arreta-sare ez instituzionalaren barruan, herrialde eskandinaviarrek eta kontinentalak menpeko pertsona bere etxean edukitzearen aldekoak dira (baita mendetasun altuko egoeretan ere).

Horretarako, etxean zaintza soziosanitarioa (erizaintza, fisioterapia, konpainia pertsonala eta abar) emateko sistemak, etxea egokitze laguntzak eta laguntza teknikoak ematen dira.

Erkidegoko beste zerbitzu batzuk

Gutxiago ikusten diren arren, herrialde batzuek konpainiarako, auzoan laguntasunak bilatzeko, garraio publikoan konpainia egiteko, garbitegirako eta abarretarako zerbitzuak ezartzen dituzte. Orokorrean, hirugarren sektoreko erakundeek ematen dituzte eta etxean bertan edo erkidego-zentroan eskaintzen dira (sozialak edo anbulatorioak).

Etxetik kanpoko arreta

Eguneko zentroak eta lanbide-zentroak

Eguneko zentroak egunez arreta emateko ekipamenduak dira eta menpeko pertsonak arreta soziosanitarioa (fisioterapia, errehabilitazioa, estimulazio psikosoziala, ilea-paindegia, higiena eta abar) jasotzen du lan-ordutegian (normalean 8:00ak eta 19:00ak bitartean), gero bere etxera bueltatu nahiz senideen etxean bizi bada ere.

Orokorrean, mendetasun-etapa neurtuetan erabiltzen dira eta kudeaketa eta titulartasun publikokoak nahiz eskaintza publikokoak zitzaitezke, baina erakunde pribatuek kudeatzen dituzte (herrialdearen arabera irabazi asmoz edo irabazi asmorik gabe).

Egoitza-zentroak

Mendetasun-altuagoko egoerarako egoitza-ekipamenduak daude. Horietan, ostatuaz gain, eguneko zentroko zerbitzu berberak eskaintzen dira. Normalean erkidego-izaera altua dute. Baztertu egin da hiri-inguruetatik kanpoko egoitza-zentro handien eredua.

Neurri apalagoan, egoitzez gain zaintzapeko apartamenduak (mendetasun-maila baxuagoa duten eta autonomia gehiago izan dezaketen pertsonentzat) eta etxe partekatuek (elementu esperimentalagoekin) bezalako ereduak daude.

Garraio egokitua

Lehen aipatutako zentroetara joateko edo mendetasundun pertsonen mugikortasuna errazteko, garraio egokitutako sistemak ezartzen dira.

Orokorrean, Europako hegoaldeko herrialdeetan **eskaintza publikoak** gehiago lantzen du etxetik kanpoko arreta (egoitzak, eguneko zentroak eta abar), nahiz eta kasu batzuetan etxeko arretarako diru-laguntzak ere aitortzen diren. Aitzitik, Europako iparraldeko herrialdeetan zaintza-sarean sartzen dira bai etxe barruko bai kanpoko arreta, eta nahiko maiz hautatu ahal dute familiek bi aukeren artean.

Zerbitzuen kostuei dagokionez, herrialde mediterraneoetan eta kontinentaletan horiek eskuratu ahal izatea menpeko pertsonaren diru-sarreren arabera da, eta, oro har, kostuen zati bat ordaindu beharko du. Era berean, zailtasunak daude sarbide-unibertsitatean; izan ere, batzuetan legediak plaza baterako eskubidea aitortzen duen arren, eskaintza ez da nahikoa izaten. Bestalde, herrialde eskandinaviarretan zerbitzuak unibertsalak dira eta, orokorrean, doakoak.

B. Estaldura-mailak

Europako azterketa konparatibo honetako beste espazio batzuetan maiz ikusi dugun bezala, **menpeko egoeran dauden pertsonen laguntzeko sistemen** azterketak alde nabarmenak islatzen ditu herrialdearen arabera.


Era berean, gai honetan datu orokorrak falta dira (eta, batez ere, EAE beste herrialde europar batzuekin alderatu ahal izatekoak, beraz, estatuko erreferentziak erabili behar izan dira) eta datuak zaharrak dira (horrek zailago egiten du datok aztertu ahal izatea).

Oro har, Europako estaldura-datuak **bi talde handi** ezartzen dituzte. Batetik, **lan egiteko adinean dauden pertsonak** (16-65 urte) eta, bestetik, **erretiro-adinean dauden pertsonak** (65 urtetik gora); funtsean bat datoz lehen taldean ezintasunen bat duten pertsonekin eta bigarrenetan adinarekin lotutako gaixotasunen ondoriozko mendetasun-egoeran dauden pertsonekin.

Lan egiteko adinean dauden pertsonen kasuan, mendetasunagatik diru-laguntza jasotzen duten ezintasundun pertsonen batez besteko europarra ezintasun latzeko kasuetan %50 baino baxuagoa izan da eta ezintasun neurtuko kasuetan %20 baino apur bat altuagoa, egoera nabarmen aldatzen delarik herrialdearen arabera.

(38. grafikoa)

Lan egiteko adinean dauden eta onura ekonomikoak dituzten biztanleak, ezintasun-motaren arabera



Iturria: EUROSTAT (2001).

Ezintasun latza duten pertsonen dagokionez, **Espainian** portzentajea batez bestekoa baino altuagoa da (%56), baina Belgikan, Danimarkan eta Erresuma Batuan kopuruak are altuagoak dira. Europako herrialde gehienak %27 eta %36 arteko estalduran kokatzen ziren.

Ezintasun neurtua zuten pertsonen kasuan, batez besteko europarra %21ekoa zen. **Espainian** biztanleriaren %28ri eskaintzen zitzaion estaldura eta zenbateko hori Europa osoko altuenetakoa da, Danimarkaren atzetik soilik (%29). Aitzitik, beste muturrean daude Frantzia, Austria, Portugal edo Italia, %14aren azpitik.

Datuak lotuz gero, **EAEk** posizio ertain altua izango luke testuinguru europarrean, estatuko batez bestekoa beteta soilik. Datu hori are gehiago indartzen da honako kopuruekin; 2010ean EAEk 4.100 plazaetik gorako eskaintza izan zuen ezintasunen bat zuten pertsonentzat (gehienak 35 urtetik beherakoak) eguneko zentroen eta egoitzen artean, 118 milioi eurotik gorako gastua eraginez.

(21. taula)

Eguneko zentroak EAEn. Ezintasunen bat duten pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea

	GUZTIRA	Publikoa	Pribatua
Zentroak	73	17	56
Plazak	1.859	357	1.502
Erabiltzaileak	1.812	339	1.473
GASTUA GUZTIRA (milaka €)	28.292	7.342	20.950

Iturria: EUSTAT (2010a).

(22. taula)

Egoitzak EAEn. Ezintasunen bat duten pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea

	GUZTIRA	Publikoa	Pribatua
Zentroak	169	45	124
Plazak	2.289	821	1.468
Erabiltzaileak	2.203	772	1.431
GASTUA GUZTIRA (milaka €)	90.488	45.133	45.355


Iturria: EUSTAT (2010a).

Bigarren taldeari dagokionez (**65 urtetik gorako pertsonak**), EBN 65 urtetik gorako menpekoez %10,8k soilik jasotzen zuten iraupen luze zaintza-sistemaren onurak 2007an.

Patroi geografikoa oso nabarmena da, Europan iparralde-zen zeuden herrialdeak baitziren estaldura-ratio altuenak eskaintzen zituztenak: Islandia %30aren gainetik, Danimarka, Herbehereak, Norvegia eta Finlandia baino altuago, %20a baitute.

(39. grafikoa)

Iraupen luze zaintzak jasotzen dituen 65 urtetiko gorako biztanleriaren portzentajea



Iturria: Marin, B et al. (2009).

Horrek guztiak haustura nabarmena eragiten du Europako estaldura-mailetan. Izan ere, batez bestekoa %11 baino zerbait baxuagoa bada ere, alde handiak daude iparraldeko herrialdeez (%20tik gora) eta hegoaldekoen (%10etik behera) artean.

Zehazki, **eremu mediterraneoan** (Espainia barne) %8,5etik beherako tasak dauzkagu, hots, Europako batez bestekoa baino %2tik gora baxuago.

Bestalde, **herrialde kontinental** gehienak batez bestekoaren azpitik daude, Alemania, Luxenburgua, Irlanda eta, batez ere Frantzia gailentzen direlarik (azken hori Espainiaren azpian dago).

EAEn kasuan, datu alderagarriak ez dagoen arren, 2.550 plaza publikotik gora dago eguneko zentroetan eta 6.700tik gora egoitzetan, gastu partekatua 300 milioi euro baino gehiagokoa izanik 2010erako.

(23. taula)

Eguneko zentroak EAEn. Adineko pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea

	GUZTIRA	Publikoa	Pribatua
Zentroak	136	92	44
Plazak	3.828	2.550	1.278
Erabiltzaileak	3.106	2.106	1.000
GASTUA GUZTIRA (milaka €)	44.421	31.427	12.994

Iturria: EUSTAT (2010a).

(24. taula)

Egoitzak EAEn. Adineko pertsonen buruzko datuak. 2010. urtea

	GUZTIRA	Publikoa	Pribatua
Zentroak	431	133	298
Plazak	19.873	6.786	13.087
Erabiltzaileak	17.209	6.276	10.933
GASTUA GUZTIRA (milaka €)	507.386	216.617	290.768

Iturria: EUSTAT (2010a).

Etxeko arretaren kasuan, nahiz eta teorian nazio-mailan aplikatzen den, EAEn datu hori aipagarria da etxeko arretaz-berbitzuen betearazpen-mailagatik (besteak beste autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko [abenduaren 14ko 39/2006 Legea](#) eta [Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea](#) arautuak). Zerbitzuek, hain zuzen, foru- eta udal-mailan ematen dira eta eguneroko bizitzako jarduerak egiten arreta pertsonala ematea dute xede (higienea, jantziak, elikadura, medikamentuen kontrola eta abar). Hala ere, funtzio horiek ez dira nahastu behar lehen aipatutako herrialde eskandinaviarretako zerbitzu soziosanitarioekin, horien barnean erizaintzako, etxeko osasun-arretako, errehabilitazioko... baliabide integralak sartzen baitira.

EAEko mentasunaren errealitateari buruzko datuen azterketa zehatzagoa eta gure erkidegoan estatu-araudiak izan duen ezarpena ikus ditzakegu Arartekoak 2011ko ekainean argitaratuko txosten berezian, **EAE nortzeraren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legegaren aplikazioa** izenburupean. Gai honen jarraipenaren eta erregistratutako bilakaeraren emaitzak **2011**, **2012** eta **2013**. urteetako txostenetan jasotzen dira, III. kapituluko 11. atalean.

6.

Ondorioak

Familiei laguntzeko politika europarren errealitatea oso anitza da eta aldeak daude herrialdeen edota eskualdeen artean. Hala ere, hiru eredu nagusi bereiz ditzakegu: eskandinaviarra, kontinental eta mediterranea.

Antolakuntza-ereduak eta gastu publikoa

Oro har, gobernuetako **antolakuntza-eredu** aurreratuenean, familiei laguntzeko politiken kudeaketan, bi elementu uztartzen dituzte: batetik, familien gaineko eskumen zehatzak dituen ministerio bat, eta, bestetik, familia-politikak koordinatu eta zeharkako bihurtzeko agentzia edo organismo arduradun bat. Frantzia eta Suedia dira eremu honetan erreferente nagusiak.

Gastu publikoari dagokionez, Europako errealitateak desberdintasun izugarriak islatzen ditu eta alde asko dago herrialde batetik bestera (baita eskualde batetik bestera ere). Herrialde batzuetan laguntza-profiletan gehiago lantzen da haurtzarora (adibidez, Irlandan edo Luxenburgon), beste batzuetan gehiago jorratzen da ezintasuna (batez ere herrialde eskandinaviarretan, Norvegia, Finlandia eta Danimarka kasu) eta hirugarren talde batek adineko pertsonen eskaintzen die arreta gehien (esaterako, Italiak, Frantziak eta Austriak).

EAEk, ahalegin absolutuari eta erlatiboari dagokionez (gastua BPGren portzentajearen eta gastua *per cápita*), tarteko posizioa dauka Europako herrialde nagusien artean, nahiz eta barne-banaketa oso desorekatua den, adineko pertsonen (batez ere) eta ezintasunaren (neurri txikiagoan) arreta lantzen baita gehien (bi eremu horietan posizio ertain-altuak izanik), eta, bestetik, haurtzarori ematen zaion laguntza ratio europarretatik oso urrun dago.

Haurtzarori dagokionez

Haurtzaroren esparruan, EAEn baliabideak askoz baxuagoak dira eta oso urrun daude Europar Batasuneko batez besteko estandarretatik. Arrazoi nagusia zera da: **ez dago**

kostuak familientzako etengabeko diru-transferentzia bidez **konpentsatzeko eredu unibertsalik**, inguruko herrialde askotan bezala, EAEk zerga-sistema erabiltzen baitu batez ere laguntza ekonomikoetarako (Europako erdialdeko eta Eskandinaviako herrialdeek ez bezala).

Beharbada elementu honek sortzen du distantzia gehien familiei laguntzeko euskal sistemaren eta beste herrialde europar batzuetakoaren artean. Izan ere, Europako herrialde gehienek (Belgika, Alemania, Danimarka, Norvegia, Frantzia, Austria, Finlandia, Luxenburgoko, Suedia eta abar) familientzako aldizko transferentzia unibertsalak egiten dituzte hilean batez beste 100 eta 150 euro arteko zenbatekoan, gutxienez 18 urtera arte (kasu askotan errentako zerga-kenkari gisa aurreikusten dira familia-egituraren eta senideen arretaren ondoriozko zaintzen esparruan).

Amatasun- eta aitatasun-baimenen harira, Europan amatasun-baimena estatukoaren eta euskaldunaren oso antzekoa da: unibertsala da, %100ean ordaintzen da eta 15 eta 18 aste arteko iraupena dauka (nahiz eta herrialde eskandinaviarretan, Suedian kasu, askoz altuagoa den eta, gainera, baterako erantzukizuna sustatzen duen), eta batez besteko aitatasun-baimena 10 eta 14 egun bitartekoa da, %100ean ordainduta, nahiz eta herrialde guztiek ez duten oraindik aurreikusten.

Edonola ere, EAE kasu horietan batez besteko europarraren barruan badago ere, emandako denborek eztabaida pitzen dute. Izan ere, familia europarrek baimenak gutxienez 24 astera igotzeko eskatzen dute.

Seme-alabak zaintzeko orduan laguntza emateko asmoz familien esku jartzen diren **baliabide eta zerbitzuei** dagokionez, Europako egoera oso anitza da eta, orokorrean (Frantzia, Herbehereak, Belgika edo Austria), uztartu egiten da erkidegoko baliabide formalen (haurreskolak) eta ez formalen (*childminding*) eskaintza publikoa.

Aitzitik, EAEn ereduaren orientazioa instituzionala da guztiz eta haur-hezkuntzako eskolen (batez ere haurreskolen) sistema apurka-apurka unibertsaltzea sustatzen du bereziki. Horiek, plazen eskaintzan gabeziak dituzten arren (batez ere hiriguneetan), beste herrialde europar batzuen antzeko ordutegia dute (eta, beraz, familien uztartze-arazoak askotan lotura gehiago dute gailentzen diren lan-ordutegiekin, haur-hezkuntzako sistemen ordutegi-zabaltasunarekin baino).

Izan ere, EAEko lan-ordutegiaren arrazionalitatea birplanteatzen ez bada (askotan egun guztia barne hartzen baitute), uztartze-baliabideen eragina baxuagoa izango da, egungo lan-ordutegiak orokorrean luzeagoak direlako haurtzarora bideratutako baliabide publikoak eskaintzen dituenak baino.

Mendetasunari dagokionez

Mendetasunaren esparruan, Europako egoera oso anitza da herrialdeen eta eskualdeen arabera, bai kostuak konpentsatzeko laguntzei dagokionez, bai laguntzako baliabide eta zerbitzuei dagokionez.

Diru-laguntzen arloan, haurtzaroen gertatzen denaz beste, baimen ordainduak eta kostuak konpentsatzeko laguntzak (adibidez, lanaldi murrizketarako) orokorrean oraindik

garatzeke daude eta Europako familia-elkarteetan aldarrikapen nagusietako bat dira.

Arlo honetan, EAE abangoardian dago Europan. Izan ere, senideen mendetasun-egoerei edo osasun-egoera oso larriei aurre egiteko eszedentzia edo lanaldi-murrizketak hartu izanagatik jaso ez diren sarreren konpentsazio partziala arautzen du 177/2010 Dekretuak.

Baliabide eta zerbitzuen arloan ere egoera desberdina da herrialdeen arabera. Herrialde guztiek egiten dute baliabide-eskaintza batez ere erkidegokoa, baina Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeetan (adibidez, Finlandian, Suedian edo Austrian) gehiago uztartzen dira etxe barruko eta kanpoko arreta-baliabideak.

Edonola ere, laguntza horien indarra aldatu egiten da, orokorrean zerbitzuen doakotasuna ohikoagoa baita Europako iparraldean (Finlandia, Norvegia), eta kontinentearen erdialdean eta hegoaldean, aldiz, erabiltzaileek zerbitzuaren kostua ordaintzen parte hartzen baitute, errentaren arabera (Frantzia, Luxenburgo).

EAEn oro har gehiago garatu dira egoitza-baliabideak eta eguneko zentroak; hala ere, etxeko arreta ere, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren bidez, nahiko esanguratsua da (eredu eskandinaviarretan baino prestazio baxuagoak dauden arren), kalitate altuko arreta-ratioekin. Erkidego honetan, zehazki, gogotik betetzen da autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko [abenduaren 14ko 39/2006 Legea](#).



Familiei laguntzeko
politiken euskal sistemaren
balorazio kritikoa
EAEn. Ondorioak

a t a l a

VI. atala

Familiei laguntzeko politiken euskal sistemaren balorazio kritikoa EAEn. Ondorioak

Ondorio nagusiak

Testuaren atal batzuetan, “familiei laguntzeko euskal sistema” gisa aipatu dugu familiei laguntzeko abiarazi diren neurrien multzoa (edo, lehen esan bezala, eragin handia dutenena), baina jakin badakigu “sistema” hitzak nolabaiteko plangintza eta antolaketa iradokitzen dituela, nahiz eta kasu guztietan ez den halakorik izan.

1.

Gizartearen eta familien bilakaera eta familiei laguntzeko politiken gaineko eragina

Familia gizarte-eraikuntza bizi bat da, etengabe garatzen da eta gizarte-aldaketa propioekin aldatu egiten da, formalizazio-moduak, barne-egitura edo konposizioa ere aldatzen direlarik, berezko dituen funtzioak betez.

Familia-ereduak anitzak diren arren, aho batez esan daiteke familia gizarteko antolaketa, hezkuntza eta bizikidetzarako oinarrizko egitura dela gure gizartean, **lehen mailako**

gizarte-sare oinarrizkoena eta ezinbestekoena baita. Sare horren bidez, hain zuzen ere, **pertsonek gure gizartean funtsezkoak diren afekzio, hezkuntza eta harremanetako funtzioak jaso eta ematen dituzte.**

Halaber, gizarte-eraikuntza bizi hau gizarte-aldaketen menpeko eta sortzaile ere bada, eta gizartearen bilakaerak harreman zuzena dauka haren konposizioan eta barne-egituran dauden aldaketetan.

Azken urteetan, zehazki, barne-aldaketa handiak egon dira; besteak beste, **bizikidetzaren igo egin da familia egituratzeko bide egonkor gisa** (bikoteen kalterako) eta **familien tamaina murriztu egin da** (oraintxe bertan batez besteko tamaina 3 kide baino apur bat gehiagokoa da).

EAEn munduko biztanleria-piramide zaharretakoa dago, ugalkortasun-tasa baxuaren eta bizi-itzaropen altuaren ondorioz. Horrez gain, **emantzipazio-adina munduko berantiarretakoa da, bizikidetzaren tasak geroz eta altuagoak dira**, eta **zailtasun larriak daude familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko**. Horrek guztiak eragin zuzena dauka jaiotza-tasaren murrizketan eta gizarte-sistemaren iraunkortasunean.

Familiei laguntzeko politikak funtsezkoak dira familia-mota desberdinak garatu ahal daitezen eta gizarte-eraikuntzako funtzio antolatzaileak guztiz bete daitezen giza sozializazioari, hezkuntzari eta bizikidetzari dagokienez.

Adierazi dugun bezala, hainbat kanpo-faktorek dute eragina familian, eta, beraz familiei laguntzeko politikan horiek landu ahal eta behar dira. Izan ere, familiek betetzen

dituzten funtzioak beraiek soilik bete ditzaketen neurrian, **herri administrazioak horiek babestu beharko ditu, kostuak konpentsatuz eta erraztasunak jarritz, baliabide eta zerbitzuak tarteko.**

Esate baterako, erakunde publikoek bermatu egin beharko dute ezkontza bidez araututako bikoteek eta ezkontza bidez araututa ez daudenek eskubide berdinak dituztela, eta, era berean, politika eraginkorrak antolatu beharko dituzte, familiak nahi bezala gara daitezzen (tamainari, antolaketa eta bizikidetzaren ereduari dagokienez). Hori horrela, beren funtzioen garapena babestu beharko dute, neurri eta baliabide ekonomiko eraginkorren bidez.

Are gehiago, egungo beharrezanetara egokitzen den eta baliabide nahikoak dituen familiei laguntzeko politika eraginkor, integral eta malguaren bidez soilik lortuko da –beste herrialde batzuetako esperientziak islatzen duen bezala– egungo biztanleriaren zahartzeari buelta ematea eta egungo gizarte-babeseko sistema iraunkor bihurtzea.

Familiei laguntzeko politika zehatzak babestu eta garatzeko bidean, EAEn azken urteetan legegintza-esparru aurreratua ezarri da familia-aniztasunaren eskubideei eta aitortzari dagokienez.

Familiei laguntzeko politikak ezartzeko urrats garrantzitsua familien beharrezan berrietara egokitutako legegintza-esparru bat finkatzea da.

EAEK apurka-apurka “familiarren ikuspegia” sartu du bere araugintzan. Hasiera batean arreta publikoko sistema bakoitzak bere helburu, zerbitzu, egitura eta antolaketa propio eta partikularrak zehaztu zituen, baina azken urteetan hedatu egin da zerbitzu hauek emateko moduak familiengan edo familia desberdinen beharrezan desberdinetan duen eragina, eta, horretarako, banakakoen arabera erantzunak ematen dituen korrante bat sustatu da, banakakoen ikuspegitik ere eskatu dena.

Berez, familien gaineko araudi esparru propio eta berria izateak (familiei laguntzeko 13/2008 Legearekin eta haren garapen-tresnekin bat) familiei laguntzeko politika propioa ezartzeko aukera ematen du, nahiz eta oraindik ez daukan bere eragina areagotzeko nahikoa neurri.

Euskal legegintza-esparrua aztertuta ondorioztatu daitekeen, **jauzi nabarmena egon da familia desberdinak daudela aitortu eta horiek babesteko orduan.** Hala bada, gure autonomia-erkidegoan gizarte-aldetik aurreratuta dagoen legegintza-egitura bat ezarri da esparru europarraren barruan, batez ere askatasun afektibo eta sexualaren gaineko eskubideei dagokienez, edo mendetasunari, babes faltari eta bazterkeriari arreta emateko gizarte-zerbitzuen gaineko eskubideei dagokienez.

Edonola ere, egia da Euskadin oraindik ere **alderdi ahulak daudela, esaterako familia, lana eta bizitza pertsonala gogotik uzartzeko dela sustatzeko tresna eraginkorrak garatzearen aldeko apustu publiko oraindik eskasa,** tresna gakoa dena biztanleria-piramidearen aldaketan eta garapen eta eragin handienetako elementua dena Europa mailan.

Gizartearen eta familien etengabeko bilakaera eta eraldaketaren ondorioz, gizarte-aldaketan arabera **garatzen eta egokitzen den lege-esparru batek** soilik ezarriko du jardura-testuinguru egokia, EAEko familien beharrezan erantzun eraginkorrak emateko politika publikoak ahalbidetuko dituena.

Era berean, araudi-esparru honen garapenaz gain, **tresna eraginkorrak** ezarri behar dira, **aurrekontu-hornidura nahikoekin** familiei laguntzeko babes zehatzak antolatu daitezzen –batez ere haurren esparruan–. EAEn, hain zuzen ere, inplikazio baxuagoa dago eremu horretan, herrialde europar gehienek aldean.

2.

Familiei laguntzeko politiken ezaugarri nagusiak EAEn

Egindako diagnostikoa kontuan hartuta, hainbat ezaugarri ezar daiteke, familiei laguntzeko sistema euskaldunaren ezaugarri nagusi gisa:

- **Familiarren ikuspegia oraintsu hartu da kontuan erakundeetan eta oraindik eragin urria dauka; halaber, eragin altuko sektore-politiketan familiarren ikuspegia falta da**

EAEk oraintsu sartu eta garatu du familiarren ikuspegia bere politika publikoetan, baina oraindik baliabide gutxi dauka garatzeko orduan eta lidergo-araioak ditu familiengan eragin altua duten politikak ezartzeko orduan.

Politika publikoetan oraintsu antolatu da erakunde instituzional bat da, familiarren ikuspegia zeharka sartzeko ahalbidetuko duena.

Izan ere, mende berriaren hasieran, (Eusko Jaurlaritzako Familia Zuzendaritza eta familiei babesteko lehen erakunde arteko planak sortuta) eta batez ere 2008. urtetik aurrera (13/2008 Legearekin eta haren garapenarekin, eta batez ere erakunde arteko III. planarekin) familien arloko espazio propio bat ezarri da, bai antolakuntza-mailan, bai neurri materialak abiarazteari dagokionez.

Hala ere, garapen hori oraindik hasi berria da: nahiz eta lege-esparruak ezartzen duen familiei laguntzeko politikak zein norabide hartu behar duten, oraindik ere neurri propio garrantzitsuak falta dira eta zailtasun objektiboak daude erakundeen sare konplexu honetatik (EAEko kasu) jarduteko, batez ere lurralde historikoei eta tokiko erakundeek dagokienez.

Esan genezake, bestalde, oraindik ere Familia Politikarako Zuzendaritza berriaz aitortu behar dela familiei laguntzeko politikak zeharkako bihurtzeko bidean eta, prozesu horretan, nahitaez uztartu behar direla neurri zuzen propioak eragin

altuko beste batzuekin (gizarte, zerga, hezkuntza, garraio, etxebizitza... arlokoak), familiei laguntzeko erakunde arteko III. planean aurreikusitakoari jarraiki.

Izan ere, zeharkako ikuspegiak eza defizit historikoa da familiengan eragin altua duten politikak osatzeko orduan eta koordinazio urriko egoerak sortu dira politika eta neurri zehatzagoak jorratzen dituzten administrazio, organo eta administrazio-unitate desberdinen artean, familiengan eragin altua dutelarik.

Koordinazio-falta hori lotuta dago, besteak beste, familian gutxi oinarritu den eta baliabide urriak dituen (Europako urrienen artean) estatu-eredu bat izatearekin, administrazio publiko bakoitzak eta lurralde historiko bakoitzak baliabideen gainean egindako garapen propioarekin (horrek, tokiko eta lurraldeko errealitate bakoitzera egokituta, desoreka nabarmenak eragin dituelarik), EAEko eskumen-ereduarekin (eta haren ondoriozko egitura antolatzailearekin) eta lehen aipatutako zeharkako ikuspegi-faltarekin.

Hori guztia dela eta, hiritarrek zatituegi ikusten dituzte familiak babesteko politikak, bai horien aurkezpenari dagokionez, bai administrazio eskudunari buruzko orientazio eta jarraibideak emango dituen eta baliabideak eskuratu eta erabiltzeko tramiteak erraztuko dituen zerbitzu bateratuen faltari dagokionez.

■ **Laguntza ekonomikoaren sistemak bere horretan desberdintasun handiak eragiten ditu eta, funtsean, zerga-kenkarietan oinarritzen da**

Kostuak konpentsatzeko neurriak dagokienez, EAEko sistema ez unibertsala, inbertsio publiko murriztutakoa –bereziki seme-alabadun familiei laguntzeko orduan– eta batez ere sistema kenkarira orientatua da.

EAEn kostuak konpentsatzeko politikak unibertsaltasun-falta berariaz nabarmentzen da **neurri ekonomikoaren sistema dualean**. Sistema hori, zehazki, eredu mediterraneoaren oso antzekoa da.

Batetik, diru-sarrera nahikoak dituzten familiek konpentsazio ekonomikoak eskuratzen dituzte **zerga**-neurrien bidez, eta, baztertuta dauden edo hala egoteko arriskua duten familiek, aldiz, diru-sarrera baxuak izanda, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eskutik jasotzen dute arreta. Bi sistemak era berezian diseinatzen dira, beste herrialde europar batzuetan ez bezala, eta, ondorioz, sistemaren koordinazioa eta ikuspegi integrala murriztu egiten dira.

Esan bezala, ahulezia-egoeran ez dauden familia gehienek familia gisa egiten dituzten funtzioekin eta horren gastuekin lotutako laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte, batez ere zergen bidez (zergetako kenkariaren bidez, bereziki PFEZen). Sistema honek ahulezia nabarmena islatzen du. Izan ere, desgrabazioak egiteko diru-sarrera nahikoak dituzten familiek soilik erabil dezakete sistema hori eraginkortasunez, eta, beraz, eztabaidagarria da ea sistema nahikoa mailakatu den eta zein neurritan alda litekeen, berau unibertsalizatu ahal izateko, beste herrialde batzuetan egiten ari den bezala.

Euskadin familiei egindako **aldizkako transferentzia unibertsalen** pisua, bestetik, oso urria da, eta, funtsean, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 255/2006 Dekretuan arautzen diren laguntzetara mugatzen da. Horixe da, hain zuzen ere, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko gastu publiko murriztua azaltzen duen arrazoi nagusietako bat (are gehiago beste herrialde batzuekin alderatzen badugu). **Gainera, funtsezko elementua** da testuinguru europarrarekiko aldea ulertzeko, azken horretan aldizkako transferentzia unibertsalak seme-alabak dituzten familiei laguntzeko sistemaren oinarria baitira, kostuak konpentsatzeari dagokionez.

■ **Familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko politikaren garapen urri eta berantiarra, orduko dedikazio handia daukan esparru profesionalen**

Familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeari dagokionez, EAEn politika horiek gutxi garatu dira, jarraiera-aurkera gutxi ematen dituen estatu baten esparruan; hala ere, estatu-mailako errealitatearekin alderatuta, izaera diferentziala duten ekimen zehatz batzuk jarri dira martxan.

Nahiz eta familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko helburua erkidego-zuzenbidearen eremutik gehien jorratu den gaitako bat izan den, EAEk neurri gutxi garatu ditu eremu honetan eta orain dela gutxi gainera.

Hala ere, elementu hori funtsezkoa da. Izan ere, familien babes integrala, koordinatua eta bitarteko nahikoduna garatzeko estratejiaren aldeko apustu indartsu eta argia egin duten herrialdeak soilik izan dira gai jaiotza-krisiari aurre egiteko eta beren biztanleria-piramidea zuzentzeko. Errealitate hori, hain zuzen, larria da Europa osoan eta, batez ere, EAEn.

Estrategia honetan, hasteko, **ekoizpen-ereduaren egitura arrazionalizatzen** da, bereziki ordu-tegiei dagokionez. Herrialde europar gehienetako egiturekin alderatuta, gure ordu-tegiak zabalegiak dira, bizitzako alderdi desberdinak uztartzearen gaineko neurri zehatzak eraginkorrak izan daitezkeen.

Uztartzeko **neurri zehatzei** dagokionez, estatuko araudia- ren pisu garrantzitsua nabarmendu behar da lehendabizi, eragiketa-marjina txikia uzten baitu araudi autonomikoan. Adibiderik esanguratsuenak aitatasun eta amatasunaren baimenak dira, EAEn emakume eta gizonen berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa eta lan-arloko eta Gizarte Segurantzarako estatu-mailako beste arau batzuk betetzen dituztenak. Horien arabera, 16 asteko baimena dago amatasun-baimenetan (zati bat aitaren baimenarekin partekatuta daiteke) eta 13 egun zehatz daude gizonen kasurako, zerga-oinarria- ren %100ean ordainduta.

Nahiz eta egia den amatasun/aitatasun lizentzien epe horiek batez besteko europarraren barruan daudela (EBko herrialdeek orokorrean 15 eta 20 aste arteko amatasun-baimenak ezartzen dituzte eta 10 egunetakoak aitatasunaren kasuan), horrek ez du esan nahi familia europarren jomuga direnik, gizarte-mugimendu garrantzitsu batek berau 24 astera

luzatu nahi baitu amatasunaren kasuan eta apurka-apurka aiten baimena luzatu, biak parekoak izan arte.

Aipatutako eragiketa-marjina autonomikoan **EAEk ekimen zehatzak** garatu ditu eta honakoak azpimarratu behar dira:

Diru-laguntzen kapituluan, eta **kostuak konpentsatzeko neurri** gisa, 177/2010 Dekretuan jasotako laguntzak daude (urtero garatzen eta zehazten direnak sail eskudunaren aginduaren bidez), eszedentzia, lanaldi-murrizketa eta abarren ondoriozko diru-sarreraren galera partzialki konpentsatzea xede dutenak.

Neurri horiek, nahikoak ez diren arren (batez ere zenbatekoari dagokionez), positiboki baloratzen dira. Izan ere, lehen urratsa dira familien aitortza ekonomikoa emateko orduan; seme-alaben zaintzaz haragoko uztartzea aurreikusten dute, eszedentzia-egoerak eta mendeko pertsonak edota osasun-egoera larriar dauden pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketak jasota; eta familien zaintza-sistema formalaren eta ez formalaren artean hautatzeko aukera babesten dute, laguntza ekonomikoa ematen baitzaio etxean familia-zaintzarako kontratazio bat gauzatzeari.

Baliabide eta zerbitzuen kapituluan, erkidegoko baliabideen bidez orientatu da familientzako laguntza publikoa. Horren adibide dira Haurreskolak, haurren kasuan, edo eguneko zentroak, mendekotasunaren eremuan. Zehazki:

■ **Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko esparruan** Haurreskolen alde egindako apustu indartsua nabarmena da; azken hori, hezkuntzako baliabidea bada ere, ezinbesteko laguntza da familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko orduan.

Hurbileko baliabideak dira, eta, azken urteetan gogotik garatu diren arren, oraindik ere desorekak dituzte lurralde-estalduran (batez ere biztanleria altuko hiriguneetan). Testuinguru europarrarekin alderatuta ordutegietan malgutasuna eta zabaltasuna eskaintzen duten arren, gure lan-merkatuko gehiegizko ordu-dedikazioaren ondorioz, familia askorentzat baliabide hau ez da guztiz erabilgarria.

■ **Mendetasun-egoeran dauden pertsonak dituzten familiei laguntzeko esparruan**, EAEn hainbat baliabide jarri dira (etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eguneko zentroak, egoitza-baliabideak, etab.) menpeko pertsonen laguntza emateko, bai etxean bertan, bai etxetik hurbil dauden tokietan.

Gizarte-zerbitzuen sistemako baliabide hauek eragin altua duten familiengan, kalitate-ratio oso altuak dituzte, eta batzuetan irabazi-asmorik gabeko erakundeek kudeatzen dituzte. Euskal sistemaren ezaugarri bereizgarrietako bat da hori eta esparru horretan eredu kontinental europarrekin lotzen du.

Hala ere, eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan dauden plazei dagokionez, erregistratzen diren itxarote-zerrendek baliabide urriak daudela islatzen dute, batez ere menpeko egoeran dauden 65 urtetik gorako biztanleriari bideratzen zaizkien baliabideetan.

Autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko **abenduaren 14ko 39/2006 Legea** indarrean jartzeak ez du lagundu gure administrazioek azken urteetan gizarte-zerbitzuen arloan egin duten

apustu sendoan. Bai estatuko Administrazio Orokorrek ezarritako gutxieneko intentsitateek –orokorrean EAEn ezartzen ari zirenak baino baxuagoak–, bai prestazioak jasotzeko eskubidearen eraginkortasunari buruzko irizpideek, administrazio horrek hartu dituenak krisi-egoeraren ondorioz, kasu batzuetan kaltetu egin dute arreta aragoitu eta etengabe hobetzeko bide hori.

Oro har, baliabide hauek koordinketa-sistema dute, familiaren diru-sarreraren arabera, eta oraindik unibertsalak ez diren arren (batez ere seme-alabak dituzten familiei laguntzeko orduan), sistemaren bokazioa apurka-apurka eta era iraunkorrean garatzen ari da, datozen urteetan unibertsalak izan dadin.

Azkenik, atal honetan azpimarratzekoa da lan-ordutegien zabalera, lan-merkatuaren eskastasuna edo hainbat baliabideen unibertsaltasun-falta bezalako faktoreen ondorioz familiaren babes informala oraindik ere asko erabiltzen dela. Aitona-amonen zeregina nabarmena da arlo horretan, zainetak beraiek jaso ordez, sarritan familientzako babes aktibo nagusiak baitira beren seme-alabak zaintzeko orduan. Jakina da, era berean, kasu batzuetan familiaren ekonomian ere laguntzen dutela beren erretiro-pentsioekin, familientzako ekarpen ekonomikoa garrantzitsua izanik.

■ **Familiengan eragin altua duten politikek garrantzi handia dute familiei laguntzeko politikaren euskal sisteman eta, askotan, gizarte-ahulezian dauden familiei arreta emateaz arduratzen dira**

Familiengan eragin altua duten politikek pisu handia dute familiei laguntzeko euskal sistemaren osaeran, haur-hezkuntza edo mendetasuna bezalako arloak jasotzen dituztelako eta lotura zuzena dutelako familiei laguntzeko 12/2008 Legean ezarritakoarekin.

Familiengan eragin altua duten politikek, askotan, familien ahulezia-profiletan esku hartzen dute (baita uztartzeko beharrezko askotan ere), eta, horien artean, gutxienez honako arazoak jaso behar dira:

Hasteko, **diru-sarrera baxuak dituzten familiek** babes ekonomikoa eta laguntza teknikoa jasotzen dituzte Diru-sarrerak bermatzeko 18/2008 Legeari jarraiki, bertan eskubide bikoitzaren printzipioa ezartzen delarik: bizitzaren oinarrizko beharrezko aurre egiteko bitarteko ekonomikoa jasotzeko eskubidea eta erkidegoko arreta-esparruan gizarteratzeko eta laneratzeko babesak jasotzeko eskubidea.

Guraso-gaitasunak betetzeko zailtasunak dituzten familientzako laguntzak, batez ere beren seme-alaben beharrezko fisiko eta emozionalen zaintza eta arreta emateari dagokionez, udaleko gizarte-zerbitzuek antolatzen dituzte lehendabizi. Esan beharra dago oinarrizko gizarte-zerbitzuek (orokorrean) eta gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko taldeek (zehazki) gizartean eta hezkuntzan egiten duten lana gehiago garatzea komeni dela, eta, horretarako, familien konpainia, orientazio, prestakuntza eta prebentziorako programak zabaltzea eta sakondu beharko lirakeela.

Hirugarrenik, **mendekotasun-egoeran dauden kideak dituzten familiak** daude. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak pertsonen autonomia sustatzea eta mendekotasunaren ondoriozko beharizan pertsonal eta familiarak aurreikusi eta asetzea dira. Lege horrek gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa jasotzen du, hiritarren eskubidea izanik. Zerbitzuek, bada, lehentasuna dute diruzko prestazioen gainean.

Hala ere, nabarmendu beharra dago estatu-mailan **otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuaren** bidez onartutako baremoaren arabera dela gaur egun mendetasun-egoeraren aitortza, eta, ondorioz, babes-sistemara sartzeko gakoa. Baremo hori aplikatzean, hala ere, murriztu egin da balorazio-berrikuspenen maila eta aurreko baremoan baino mailaketa baxuagoak ezarri dira antzeko egoerarako. Profesionalek eta elkarteek, era berean, baloratutako pertsonen babes- eta ikuskapen-beharrianak ikusita zail uler daitezkeen mailaketa batzuk adierazi dituzte. Baremo horien ondorioz, izan ere, kasu askotan diru-laguntzak eskuratzeko orduan kanpoan gelditzen dira, laguntza horiek funtsezkoak izanik zaintzailak babesteko, eta batzuetan zerbitzuetatik at ere geratu dira.

Azkenik, pertsonen autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoerari arreta emateko politiken garapenean estatu-mailan egondako atzerapen nabarmena ikusita, funtsezkoa da, baitetik, administrazio publiko euskaldunek duten ahalmena betetzen jarraitzea, autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeren dauden pertsoneri arreta emateko legeko 7 eta 11.2 artikuluen arabera, ukitutako kolektiboari babes-maila osa-

garriak ezartzeko orduan; eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Karterari buruzko Dekretua onartzeak eskaintzen duen aukera aparta aprobetxatzea, aipatutako atzerapena arintzeko eta EAeko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea eraginkortasunez ezartzen dela bermatzeko.

Azkenik, **ahulezia-egoeran dauden beste familia-errealitate batzuen beharizan zehatzak babesteko berariaz ezarritako neurri gutxi dagoela** azpimarratu behar da. Kasu horietan egongo lirateke, besteak beste, kide bakarreko gurasoak, sexu bereko gurasoak, familia egituratu gabeak edo beren jatorriagatik integratzeko zailtasunak dituztenak.

Nahiz eta 13/2008 Legeak familia-ereduen aniztasuna eta familia-mota desberdinentzako politikak garatzeko beharra jasotzen dituen, egia esan legezko printzipio horiek (orokorrean) oraindik ez dira garatu, ekimen oso zehatzez harago; esaterako, beren etniagatik integratzeko zailtasunak dituzten familiei buruzkoak (tokiko programen bidez, adibidez Bilbon PiseKaló edo Araban babes-falta larrian dauden seme-alabak dituzten familia ijitoekin esku hartzeko berariazko programa), genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume edo adingabedun familiei buruzkoak (esaterako, zeharka, etxebizitzaren gaineko ekintza positiboko neurrien bidez edo, zuzenago, egoera horiek babestu eta antzemateko ekimenen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak babestuak kasu), edo, oraintsuago, arauz kanpoko genero-jarrerak dituzten adingabedun familiei buruzkoak (esate baterako, Berdindu Familiak zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren barruan).

Mrs. Smith



Mr. Smith



Smith Junior



Gomendioak



a t a l a

VII. atala

Gomendioak

1.

Familiei laguntzeko politiken erronkak Euskadin

Lan honetan egindako azterketei esker, Euskadiko familia-politiken erronka batzuk identifikatu ahal izan ditugu eta gure iritziz botere publikoek behar adinako erantzuna eman behar diete erronka horiei datozen urteetan. Jarraian zehatz azalduko ditugu erronkak. Ondoren, aurrez identifikatutako erronkei behar bezala aurre egiteko, Euskadiko familiei zuzendutako politika publikoak artikulatzen dituzten administrazio desberdinei gomendio batzuk planteatuko dizkiegu.

Gure azterketan hautemandako erronkak gai hauei buruzkoak dira:

■ **Familiei laguntzeko politiken buruzagitza eta zeharkakotasuna**

Familiei laguntzeko politiken erronkarik handienetakoa da datozen urteetan buruzagitza irmoa garatu beharra dagoela gai honetan inplementatutako neurriak Euskadiko ekonomia- eta gizarte-, lan- eta gizarte-, hezkuntza- eta gizarte- eta osasun- eta gizarte-errealitatera egokitu daitezen. Horrek inplikazio bikoitza du euskal botere publikoentzat: batetik, dauden administrazio-egiturak gizarte-beharretara egokitu beharra dago, familien behar berrien ondoriozkoak baitira gizarte-behar horiek; eta bestetik, familiei laguntzeko euskal legedia garatu behar da, familia-politiken eskumenero errealitateetara zehatzago egokituko diren neurriak hartzeko marko juridiko egokia finkatu dadin.

Horretarako, zenbait gomendio proposatzen ditugu aurrerago; gomendio horien xedea alor honetako eragile nagusiak

eta bideak artikulatzea da eta horren ondorioz familiaren ikuspegia sartu eta finkatuko litzateke euskal erakundesare osoan eta familien alorrean indarrean dagoen legezko markoa garatuko litzateke bai familia politikari dagozkien neurriekiko bai eragin handiko beste sektore neurriekiko.

■ **Inbertsio publiko handiagoa, seme-alabak dituzten familien gastuak konpentsatzeko**

Euskadirentzat funtsezko erronka da seme-alabekiko familiei babes ekonomikoa emateko egin beharreko inbertsio publikoa. Gai honetan europar testuinguruarekin pixkanaka parekatzeko, beharrezkoa da familia hauen gastuen konpentsazio publikoaren neurriak oso haztea.

Adierazi den bezala, Euskadik orain arte izan duen gastuen konpentsazio-sistema ez-unibertsala eta batez ere dedukzionista izan da; europar testuinguruan izaera unibertsalagoa eta inbertsionistagoa duten arren.

Gure inguruko herrialdeek familien ahaleginari lagundu egiten diote, seme-alabak izatea, haztea eta heztea esfortzu handia baita eta herrialde horien pare jarri behar izanez gero pixkanaka, ahalegin ekonomiko publiko handiagoa egin beharra dago, seme-alabekiko familientzat zuzeneko laguntzak unibertsalizatzea lor dadin. Era berean, beharrezkoa da zerga-ereduaren egiazko progresibitateari buruzko hausnarketa prozesua abian jartzea, irtenbide berritzaileagoak eta inklusiboak aurkituaz, beste europar errealitate batzuetan bezala.

■ **Bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa uztartu**

Familiei laguntzeko politikek duten beste erronka handietako bat familiako bizitza, lanekoa eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak sakontzeari, garatzeari eta hedatzeari buruzkoa da.

Europar erkidegoko Zuzenbidetik neurri desberdinak sustatzen ari dira eta egiturazko eta balio arloko aldaketak eskatzen dituzte, europar familien eskariei erantzuteko, baita Euskadiko familien eskariei ere, arlo honetan gero eta aurrerapen gehiago eskatzen baitituzte. Familiek beraien eguneroko bizitzan familia eta lana uztartzeko dituzten zailtasun handiek zeresan handia dute biztanleria zahartzean eta egungo ongizate sistema, gaur egun ulertzen dugun bezala, etorkizunean mantentzean ere.

Euskal botere publikoek gaur egun erantzun beharreko erronka nagusiak hauek dira: familiako eta laneko bizitza uztartzeko estrategia koordinatuak sustatu, sentsibilizazio estrategiak garatu eta baliabide eta bokazio unibertsala duten laguntza eraginkorrak abian jarri.

■ **Egoera zaurgarrian dauden familiei lagundu: familietan eragina duten beste sektore batzuetatik esku hartzea**

Azterketa honetatik ondorioztatu dugunez, Euskadin oraindik ere beharrezkoa da laguntza bereziko neurrietan sakontzea laguntzarik txikiena duten familiei edo zailtasun objektiboak dituztenei laguntzeko eta hori batez ere hiru arlotan egin behar da:

- Familia egoera desberdinen erabateko aitorten juridikoa, Familiei laguntzeko 13/2008 Legea garatzen duten lege instrumentuek familietako gorabehera eta eredu desberdinei estaldura eta laguntza emateko balio dezaten.
- Laguntza sozioekonomikoa, familiako zailtasun ekonomiko objektibagarriak txikitzeko edo arintzeko baliabideak eta euskarriak haziaz, batez ere zuzeneko laguntzen bidez, europar herrialde batzuetan egiten den bezala.
- Gizarte- edo kultura-arloko bazterkeria-faktoreen aurkako borroka, arrazoi horien ondorioz gizarte-zaurgarritasun egoeran dauden familiek laguntzarako tresna eraginkorrak izan ditzaten.

Bestalde, beste politika sektorial batzuetatik (hezkuntza, etxebizitza edo mendekotasunaren babes) diseinatutako neurriek lotutako beste erronka batzuk ere hauteman ditugu eta hauek ere eragin handia dute familietan.

- Hasteko, Euskadiko familientzako laguntzak gauzatu beharreko **marko juridikoaren garapenari** buruzko gomendioak daude.
- Bigarrenik, familiei laguntzeko politika publikoen **erakunde mailako antolakuntzari** buruzko gomendioak daude.
- Hirugarrenik, **familien arloko inbertsio publikoari** lotutako gomendio batzuk ditugu, nahiz familien gastuak konpentsatzeko neurrien garapenari dagokionez nahiz familiei zuzendutako zerbitzuen artikulazioari dagokionez.
- Laugarrenik, azterketan zehar garrantzi identifikatibo handia izan duelako, **familiako bizitza, lanekoa eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriei** buruzko gomendioen berariazko atal bat dago.
- Bosgarren tokian gomendio **batzuk** egin nahi izan ditugu **sektore desberdinetako neurriei buruz, familietan eragin handia baitute**. Bereziki arrazoi ekonomikoen ondorioz edo baztertzeko arriskua dutelako zaurgarritasun handiko egoeran dauden talde batzuei dagozkien berariazko beharrei dagokienez.

a. Familiei laguntzeko 13/2008 Legean ezarritako helburuak ezartzeko marko juridikoaren garapenari buruzko gomendioak

1. Gomendatzen da Eusko Jaurlaritzak ezar ditzala **Familiei laguntzeko 13/2008 Legean ezarritako helburu nagusiak (bereziki lege horretako 4. artikuluko a eta h ataletan adierazitakoak); horretarako, baliabide edo babes berezia behar duten familiako errealitate desberdinak identifikatuko dira, erakunde maila desberdinetatik familia hauek (guraso bakarrekoak, ugariak, mendekoe-kikoak, etab.) babesteko egiten diren esku-hartzeen diseinu koordinatua egiteko markoa sortzeko.**

Horretarako gomendatzen da Eusko Jaurlaritzak zehatzago garatu dezala -behar izanez gero tresna araugileen bidez- egoera zaurgarrian dauden familien definizioaren barruan dagoen kasuistika, familia hauei laguntzeko eskumena duten euskal erakunde desberdinek ezarritako neurrien eskubideen titularrentzat marko bateratua sor dadin.

b. Familiei laguntzeko politiken inguruan erakunde mailako antolakuntza hobetzeko gomendioak

2. Gomendatzen da Eusko Jaurlaritzak instantzia publiko edota maila instituzional desberdinetatik datozen familiei laguntzeko neurri eta politiken diseinu koordinatua susta dezala. Horretarako, funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzak buruzagi papera hartzea, bereziki familiei laguntzeko erakunde arteko plana inplementatzea beharrezkoa delako.

Euskal erakunde-sarea konplexua da, herritarrak artatzeko hainbat instantziak esku hartzen dute, baita familietan eragina duten zerbitzuak eskaintzeko eta baliabideak eskura jartzeko ere; horren ondorioz, zenbaitetan zaila da horien berri izatea eta familiak baliabide eta zerbitzu batzuetara bideratzea eta sartzea. Gainera, familia mota eta egoera ugari

2.

Euskal herri administrazioei egindako gomendioak Euskadin familiei laguntzeko

Arrazoi operatiboengatik eta azalpena argiagoa izateko, gure gomendioak bost ardatz tematiko handiren inguruan artikulatu ditugu. Jarraian azalduko ditugun gomendio hauen xedea da euskal herri-administrazio desberdinak familiei laguntzeko politiketarako Euskadin identifikatu ditugun erronkarik nagusienetara bideratzea.

dagoenez, familien beharrak ere anitzak dira eta gero eta gehiagotan eskatzen dute behar anitz hauek ezagututa eta ikuspegi integrala izanda diseinatu behar litzatekeela arreta, familien eskubideak argitzeko eta dauden prestazioetara sarbide arrazionala eta berdina izateko.

Europar familiei laguntzeko politikarik aurreratuenak dituzten herrialdeetan, aspalditik diseinatu dira politika horiek modu integralean, zerikusia duten eragile edo ikuspegi desberdinak (haurrak, mendekotasuna, fiskalitatea, etab.) erakunde koordinatzaile baten bidez uztartuaz.

3. Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio, eta dagokienean foru aldundien eta udalen lankidetzarekin, familiak informatzeko gailu integralak sor ditzala, Euskadiko familien esku dauden baliabideen eta zerbitzuen berri herritarrek errazago izan dezan.

Familiei zerbitzuak eta baliabideak eskaintzen dizkieten erakunde ugari daude (batez ere hainbat arazoirean ondorioz egoera zaurgarrian daudenei eskaintzen dizkietenak) eta horrek zenbaitetan zaildu egiten du erakunde edota sail arteko orientazioa.

Horregatik, eta Euskadin familientzako dauden baliabide guztietarako sarbidea errazteko eta argitzeko, informaziorako gailu bat sortzea gomendatzen da, horren bidez familiek laguntza ekonomikoak, programak eta zerbitzuak kontsulta ditzaten, guztiak ere gai honetan esku hartzen duten herri-administrazio desberdinek eskainitakoak.

4. Euskal administrazio guztiei gomendatzen zaie eta bereziki Eusko Jaurlaritzari, ahalegin bat egin dezatela euren eskumenen alorretik europar mailako praktika onak identifikatzeko eta familiak artatzeko eredu berriak diseinatzean praktika on horiek hartzeko euskal testuingurura egokitzeke gidarizat.

Aurrez egindako diagnostikoan adierazi bezala, familiako errealitateak eta horien beharrak etengabeko aldaketen mende daude, beraz, familiei laguntzeko politikak pixkanaka eguneratu behar lirateke, herritarrentzako erabilgarritasuna bermatuko duen ikuspegi berrizailetik.

Hori dela eta, beharrezkoa da hausnarketa eta alderaketa prozesuak ezartzea europar mailako ekimen arrakastatsuekin, familientzako zerbitzu berriak egokitzeke, zabaltzeko edo sortzeko erabili ahal daitezen.

Adibide batzuk aipatu dira jada txosten honetan, hala nola, Islandia edo Suediako gurasoen baimenen sistema, Austriako baliabideen malgutasuna edo Frantziako prestazioen koordinazioa.

5. Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio Familiak Babesteko Erakunde arteko III. Planaren indarraldia luza dezala, bertako neurri guztiei heldu ahal izateko, gaur egun plan horrek legealdi honetarako finkatutako lehen-tasunez gain.

Familiak Babesteko Erakunde arteko III. Planaren xedeak bere indarraldirako neurri gehiegi ezarri zituen arren, helburu, estrategia eta neurri egokiak ditu eta erakunde eta

gizarte-arloan denbora ugari inbertitu da eta inplikazio handia egon da. Horregatik, eta ahalegin politikoen eraginkortasuna gogoan izanda, egokia iruditzen zaigu Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planaren indarraldia luzatzeko aukera aztertzea, bertan adierazitako neurri guztiak epe ertainean ezarri ahal izateko.

c. Familiako publikoa indartzeko gomendioak, batez ere seme-alabekiko familien gastuak konpentsatzeko

6. Euskal administrazio guztiei gomendatzen zaie, eta bereziki Eusko Jaurlaritzari eta foru aldundiei, hazi dezatela familien gastuak konpentsatzeko neurri ekonomiko inbertsio publikoa eta bereziki seme-alabak dituzten familiena, Europako beste herrialde batzuen batez besteko kokapenera irits gaitzen pixkanaka.

Familiak babesteko legearen 10.5 artikuluan ezarritakoa besteaz –“euskal herri-administrazioak progresiboki zabalduz joango dira ardurapeko seme-alaba adingabeengatik ematen diren zuzeneko diru-laguntzak, 2020. urtean Europar Batasunaren mailan izateko”– uste dugu eremu honetan eskumenak dituzten euskal administrazioek Euskadiko BPGren %2ra arte hazi behar dutela pixkanaka familiei laguntzeko gastua, Europako batez bestekora iristeko seme-alaba bakoitzeko laguntzei dagokienean, bai kopuruari bai iraupenari dagokionez, eta gutxienez derrigorrezko hezkuntza-aldia estalita izan.

7. Horretarako, gaian eskumena duten euskal administrazioei gomendatzen zaie seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomiko sistema bidera dezatela sistema unibertsalera eta ez batez ere zerga dedukzioetan oinarritutakora (gaur egun bezala).

Seme-alabekiko familiei bideratutako ahaleginean europar batez bestekora gerturatzeko, beharrezkoa da sistema inbertsionista unibertsala ezartzea (zerga dedukzioenaren osagarri), hau da, errentaren mende ez dauden zuzeneko laguntza unibertsalen sistema.

8. Fiskalitateari dagokionez, foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaie koordinazio sozio-fiskala indartzeko neurriak ezartzeko –estrategia integralen bidez– eta horren eragina egiaztatzeke ekimen pilotuen garapenean jarraitu. Bereziki hau gomendatzen da:

- Foru aldundiek azter dezatela *kenkari berreskuragarrien* sistemaren aplikazio esperimentaleko prozesu pilotuak egiteko aukera, eredu honen egiazko eragina (soziala eta ekonomikoa) eta ondorioak (positiboak eta negatiboak) neurtu ahal izateko eta horrela, familiak babesteko ereduaren unibertsalitatean aurrera egiteko.
- Foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak eremu sozialaren eta fiskalaren arteko koordinazio handiagoan aurrera egin dezatela, estrategia inklusiboak diseinatu ditzatela elkarrekin bi sistemetan familiei eskaintzen zaien laguntza kontuan izanda, europar testuinguruan jada egiten den bezala.

d. Familiako bizitza, lanekoa eta pertsonala uztartzea areagotzeko gomendioak

9. Euskal administrazio guztiei gomendatzen zaie neurriak hartu ditzatela pertsonak eta enpresak sozialki sentsibilizatzeko pertsonen zainketan dagoen erantzunkidetasunaren garrantziaz, eta batez ere, familiako eta laneko bizimodua uztartzeko beharraz. Horretarako, euskal administrazio guztiei eskatzen diegu:

- Enpresetan heziketarako eta sentsibilizaziorako neurriak dituzten programak gehitu eta indartu ditzatela (horren adibide da Eusko Jaurlaritzaren Bateratu+ programa) eta uztartzearen eraginkortasun ekonomiko eta errentagarritasun handiaz kontzientziatu daitezela.
- Laneko denborak eta ordutegiak arrazionalizatzearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta hezteko (enpresak, herri-administrazioak eta gizartea, oro har) programak sortu ditzatela eta lanpostuko presentzia malgutuko duten eta laneko eraginkortasuna sustatuko duten neurriak bultzatzea.
- Enpresei, administrazioari eta gizarteari oro har zuzendutako programak sortu ditzatela, zaintzako denborak gizarte- eta gizaki-mailan behar diren denbora bezala balora ditzan gizarteak eta ekonomikoki oso errentagarriak izan daitezela ikusi.
- Buruzagitza publikotik enpresen eta lan-erakundeen ekoizpen-egituran uztartzea normaltzeko programak susta ditzala, aitatasun eta amatasun baimenen garrantzi soziala barnera dezaten eta karrera profesionala aldi baterako utzi zen puntu hartatik jarraitzeko aukerak emango dizkien mekanismoak eskaini ditzaten.

10. Euskal administrazio guztiei gomendatzen zaie, euren eskumenen arabera uztartzea babesteko programak, baimenak eta zerbitzuak hazi edota indartu ditzatela. Horretarako, euskal administrazio guztiei eskatzen diegu:

- Baliabide-eskaintza zabala berma dezatela, zaintzaz arduratzen direnen lanaldian zaintza behar dutenen arreta bermatzeko, eta bereziki indartu ditzatela eskaintza txikieneko arloak, hala nola, eskolatu gabeko adingabeena eta bereziki, estaldura txikieneko hiri-eremuetan.
- Laneko sektore guztietara (publiko eta pribatueta) malgutasun handiagoa ekarriko luketen bideak aztertu daitezela, lanaldia murrizteari eta berrantolatzeari dagokionez eta denbora presentzialari edo telelanari dagokionez, uztartzea errazagoa izan dadin.

Batez ere Eusko Jaurlaritza hertsatzen dugu:

- Etorkizunean amatasun eta aitatasun baimenen denborak parekatu ahal izateko bitartekoak aztertzea.
- Osasun-egoera larrian dauden familiako kideak zaintzeko baimen berezia emateko bideak aztertzea, mendekotasun egoeran, osasun-egoera oso txarrean... dagoen familiako bat zaintzeko denbora-baimen unibertsala sortzearen bideragarritasuna aztertuz.
- *Haur-Etxeak* proiektua berriro ezartzeko aukera aztertzea, behar izanez gero egoki irizitako aldaketak eta

egokitzapenak planteatuaz, familiek oso adin txikiko seme-alabak zaintzeko zerbitzu gehiago izan ditzaten aukeran eta hezkuntza administrazioetik alor honetan egin daitezkeen balizko ekimenei kalterik egin gabe.

- Era berean, hezkuntza- eta familia-arloetan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailak koordinatzea gomendatzen da, 3 urtez azpikoentzako hezkuntza eskaintza –bere esanahirik zabalenean– publikoa zabaltzeko eta horretarako, dagokionean, gaian esku hartzeko gaitasuna duten udalekin lankidetzan aritu beharko da. Zentzu honetan, komenigarria da ekimen pilotu formalak eta ez formalak aztertzea, beste herrialde batzuetan erabilitako praktikak onak oinarri hartuta, hala nola, haurtzaindegi izateko udal-guneak, erkidegoko ekimenak (familiak taldekatu), etab.

11. Eusko Jaurlaritzari gomendatzen zaio uztartzearen gastuak zati batean konpentsatzeko laguntza ekonomikoen sistema unibertsal bat mantendu dezala. Horretarako, hertsatzen dugu:

Prestazio ekonomikoa, ardurapean hartutako adin txikiko edo seme edo alaba bakoitzagatik edo %65eko edo handik gorako ezgaitasuna duen adin nagusiko bakoitzagatik	Azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak arautzen dituena.	Gurasoak edo adoptatzaileak elkarrekin bizi badira, onuraduna biatariko edozein izango da. Gurasoen edo adoptatzaileen elkarbizitzarik egon ezean, onuraduna seme-alaben zaintza eta jagoletza duena izango da.	Kide bakarreko familientzako gehieneko muga ekonomikoa 11.490 eurokoa da urtean; familia ugari dagokienez, ordea, 17.293 eurokoa da, betiere 2.801 euro gehituz kargupeko laugarren seme edo alaba bakoitzeko, azken hori barne. Ez dago sarrerengatik onuradunaren izaera aitortzeko ezgaitasunarekin ardurapean hartutako seme, alaba edo adin txikikoagatik.	1.000 euro urtean haur bakoitzeko (18 urtetik beherako seme edo alabei dagokienez, baldin eta %33ko edo handik gorako ezgaitasuna badute), 4.378 euro urtean seme edo alaba bakoitzeko (18 urtetik gorakoei zuzendua, baldin eta %65eko edo handik gorako ezgaitasuna badute) eta 6.568 euro urtean (18 urtekoak edo handik gorakoak, baldin eta %75eko edo handik gorako ezgaitasuna badute). Zenbateko hori %15 handituko da ardurapean hartutako adin txikiko bakoitzeko, bigarrenetik aurrera (bigarrena barne).
Prestazio ekonomikoa erditze edo adopzio anizkoitzagatik	Azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak arautzen dituena.	Gurasoak edo adoptatzaileak elkarrekin bizi badira, onuraduna biatariko edozein izango da. Gurasoen edo adoptatzaileen elkarbizitzarik egon ezean, onuraduna seme-alaben zaintza eta jagoletza duena izango da.	Bestelako laguntza batzuekin batera daiteke, esate baterako amatasun edo adopzio anizkoitzagatik prestazioak edo ardurapean hartutako seme edo adin txikikoagatik esleipen ekonomikoa.	Ordainketa bakarra 2.581 eurotik (bi haurren kasuan) 7.743ra bitartean (4 haur edo gehiagoren kasuan). Seme-alabetariko bategen %30eko edo handik gorako ezgaitasuna izanez gero, bikoitza zenbatekoa da.
Euren kabuz ezin konpon badaitezke, adin txikiko seme-alabak, harreran hartutako adin txikikoak edo 2. mailako odolkidetasuneko bestelako familiarterko bat zaintzeko hartutako eszedentzia	Azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak arautzen dituena.	Besteren kontura lan egiten duten langileek eskura dezakete (eta, beraz, ezin eskura dezakete itsasoko araubide berezian edota autonomoenean euren kontura lan egiten duten langileek).	Epealdia kotizatutaz joko da Gizarte Segurantzaren prestazioen ondorioetarako gehienez ere hiru urteko epean eta zenbatuko da antzinatasunaren ondorioetarako. Halaber, lehendabiziko urtean lanpostua gordetzeko eskubideari eutsiko zaio (18 hilabete familia ugaria izanez gero).	Prestazio ez-ekonomikoa ⁵⁵ .
Amatasun eta aitatasunagatiko eskubideak	Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako berdintasunari buruzkoa.	90 egunetik (21 urtetik beherakoak) 180 egunera bitartean (nagusia goak) kotizatu duten amak. Baimena aitarekin bana daiteke zenbait baldintzaren pean. Gehikuntzak daude haurdunaldi-arriskuagatik.	Gizarte Segurantzak ordaindutako 16 aste jarraian, bi aste gehiago luza daitezkeenak seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzioa edo harrera egonez gero, eta beste bi aste ere luza daiteke ezgaitasuna duten seme-alabarik izanez gero.	Oinarri arautzailearen %100aren ordainketa.
Aitatasunagatiko eskubideak	Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako berdintasunari buruzkoa.	Azken zazpi urteetan 180 egun kotizatu dituzten aitak. Ezin parteka daiteke amarenarekin.	13 egun jarraian, bi egun luza daitezkeenak seme edo alaba bakoitzeko bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzioa edo harrera anizkoitza egonez gero.	Oinarri arautzailearen %100aren ordainketa.
Edoskitzarogatik eskubideak	Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako berdintasunari buruzkoa.	Amak eta aitak, bereizi gabe.	Haurrak bederatz hila bete bete arte, ordaindutako ordubeteko absentsia edo lanaldia ordu erdi batean murriztea. Denbora-tarte hori lanaldi osoetan meta daiteke.	Oinarri arautzailearen %100aren ordainketa.

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua aipatutako informazioetan oinarri hartuz (2013).

⁵⁵ Taula honetan jaso da Gizarte Segurantzaren familia-orientazioaren neurrietariko bat delako eta kontziliazio-neurriekin zerikusia duelako.

2. (eranskina).

**Familiei laguntzeko politiken konparatiboa.
Kostuak konpentsatzeko neurriei eta
familia-orientazioko programei eta zerbitzuei
buruzko taulak**



Familiei laguntzeko politiken konparatiboa. Kostuak konpentsatzeko neurriei eta familia-orientazioko programei eta zerbitzuei buruzko taulak

(1. taula)

Gobernu-antolakuntzaren konparatiboa herrialdeka, familiari dagokionez

Herrialdea	Egitura nagusia
Alemania	Oro har familia-gaietan ministerioen arteko koordinazioa oso hurbila den arren, familia- gaien, edadeko pertsonen, emakumearen eta gazteriaren arloko ministerio bat dago, legegintzako garapenaren eta jarduketa-ereduen ezarpenaren arduraduna dena; era berean, familien ministerioa dago eta organo hori ministerioen arteko koordinazioa sustatzeaz arduratzen da, bai eta baterako lan-prozedurak ezartzeaz ere; horiek guztiek gero eta garrantzi handiagoa hartuz doaz arian-arian. Ministerio guzti-guztietan genero-ikuspegia zeharkako gaia da.
Austria	Ekonomia eta Lan eta Familia eta Gazteria ministerio federalak laguntza-politiken buru dira, Gizarte Zerbitzu, Justizia eta Emakume Ministerioarekin eta Zientzia eta Hezkuntza Ministerioarekin lankidetzak eta elkarlanak bideratuz eta ezarriz.
Belgika	Erkidego flandriarrean ministerioen arteko gaikako batzorde bat dago, familiari dagokionez, betiere familia-politikak zeharkako gaia hartuz eta enplegua, etxebizitza, aukeren berdintasuna eta abar koordinatuz. Erkidego waloian Zerbitzu Publikoaren Ministerioa da familiarekin zerikusia duen jarduketaren buru; haren barean biltzen dira, besteak beste, gizarte-ekintza, osasuna, aukeren berdintasuna, enplegua edo alojamendua. Era berean, gizarte-kohesioari begira sailen arteko zuzendaritza bat dago, gobernu osoan familiaren gaia zeharkako bihurtzeko ahaleginak egiten dituen, baina kontrol-gaitasunik gabe.
Danimarka	Gizarte Zibileko eta Familia Gaietako Saila (Gizarte Gaietako Ministerioaren barnean sartua) familiarekin zerikusia duten politika guztiak koordinatzeko zentroa da Danimarkako gobernu osoan.
Finlandia	Osasuneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa familiei laguntza emateko politiken burua da eta gainerako ministerioekin koordinatzen da politikak sailen artekoak izanez gero; gauzak horrela, sektoreen arteko ekintzak eraman daitezke aurrera.
Frantzia	Familia-arloko ekintzaren burua familia-gaietarako lan taldearen arduraduna da; horrela bada, familia-gaietan jardueraren bat duten ministerioen ekintza garatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da. Halaber, politikak monitorizatzeke eta horiei jarduketa-marko berria ezartzeko erantzukizuna dauka.
Herbehereak	Familia-politikak Gazteria eta Familia Programaren bitartez egituratzen dira nagusiki; organo horrek lankidetzan jarduten du ministerio eskudunekin sektoreko ekintzetan.
Irlanda	Sailek beren politikak erabakitzen dituzten arren, ministerioen arteko akordio partekatuek daude (plangintzen bitartez egituratuak). Aldi berean, Lehen Ministroaren Sailak koordinatzen ditu jarduketa guzti-guztiak.
Italia	Familia Politiketako Ministerioa familia-arloko politiken burua da eta horiek koordinatzen ditu Osasun, Lan eta Gizarte Politiketako Ministerioarekin lankidetzan, bai eta neurri txikiagoan arlo horretako erantzukizunak dituzten bestelako ministerioekin ere.
Luxenburgo	Familia eta Aukera Berdintasuneko Ministerioak koordinatzen eta zuzentzen ditu familia-arloko jarduketak; izan ere, horietariko asko beste ministerio batzuetako zeregin nagusien barruan sartzen dira. Orobat, Gobernu Kontseilu bat dago, Lehen Ministroaren lehendakariaren pean, bi asterik behin biltzen dena, familia-arloko politikak dinamizatzeke helburuarekin. Arazo teknikorik izan edo sortuz gero, ministerioen arteko lantaldeak osatzen dira.

Herraldea	Egitura nagusia
Norvegia	Familia-arloko politikak aukera-berdintasunaren aldeko politiken eskutik garatzen dira eta arreta berezia jartzen da haurrei begirako politiketan. Lan eta Gizarteratze Ministerioak bazterkeria-arriskuan dauden familiek inzerkuzia duten politikak eramaten ditu aurrera; aitzitik, Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioak arduratzen da haurrak artatzeko baliabide eta bitartekoez.
Portugal	Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak familia-arloko politikak garatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da; politika horien barnean, gizarte-zerbitzuak, enplegua, aukera-berdintasuna, ezgaitasuna eta gizarte-bazterketa sartzen dira. Zenbait estatu-idazkaritzatan banaturik dago eta Estatu Idazkaritzaren menpeko koordinatzaile bat dago. Halaber, Lan eta Enplegurako Batzorde bat dago, Gobernuak, gizarte-eragileek eta enpresa pribatuek osatutakoa; bertan familia-gaiak jorratu eta lantzen dira.
Erresuma Batua	Familia-politiketan eragina duten zenbait ministerio daude: Lan eta Pentsio Sailak haurren pobrezia-kasuetan eta haurren pentsioetan jarduten du. Negozio eta Enpresa Saila amatasun- eta aitatasun-baimenez arduratzen da. Altxor Sailak egiten ditu zerga-arloko kenkariak. Justizia Ministerioa eskuduna da gazteria-arloko politiketan. Azkenik, Familia, Haur eta Gazte Azpibatzordeak sailen arteko ekintzak koordinatzen ditu, betiere, jarduketan ekonomikoek dagokienez, Altxor Sailarekin beren-beregi koordinatuz.
Suedia	Integrazio eta Aukera Berdintasuneko Ministerioak zeharkakotasunez jarduten du gainerako ministerioen familia-arloko ekintzetan berdintasunaren ikuspegitik; hala eta guztiz ere, familia-arloaren erantzukizun nagusia Osasun eta Gizarte Gaietako Ministerioak dauka. Orobat, Lehen Ministroaren menpeko koordinazio-bulego bat dago; bulego horretan lau alderdi politiko nagusiak ordezkatzen daude eta bertan sektore eta sailen arteko elementurik garrantzitsuenak koordinatzen dira.
Spainia	Gizarte-, enplegu-, osasun- eta hezkuntza-politikari buruzko plangintza guztiek familia aintzakotzat hartu behar dute zeharkakotasunez. Gainera, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioan Familiarentzat eta Haurrentzako Zerbitzu Zuzendaritza Nagusia dago; haren zereginak honakoak dira, besteak beste: <ul style="list-style-type: none"> Lehen artapenari, gizarteratzeari, familien eta haurren babesari eta sustapenari eta egoera zailen edo gizarte-gatazkaen prebentzioari buruzko gizarte-zerbitzuen jarduketara programak bultzatzea, sustatzea, aztertzea, prestatzea, koordinatzea eta haien jarraipena egitea. Lehen artapeneko gizarte-zerbitzuen, gizarteratze-zereginaren eta babesaren eta familien eta haurren sustapenaren inguruko azterlanak, estatistikak eta profesionalen prestakuntza. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gizarte-helburuetarako zerga-ezarpenaren konturako diru-laguntzen deialdia eta kudeaketa eta gizarte-zerbitzuen, familien eta haurren araubide orokorrarena. Kide anitzeko organoen sustapena eta kudeaketa, familien, haurren, ijitoen eta gizarte-ekintzen arloan azterketak, eztabaidak eta proposamenak bideratzeko.
EAE	Eusko Jaurlaritzak osasun eta hezkuntzari buruzko eskumenak ditu. Hezkuntza bermatzen du derrigorrezko etapen (6-16 urte) eta Haur Hezkuntzaren bigarren zikloaren estaldurak (3-6 urte) kopuru garrantzitsuak ditu. Era berean, Oitk 2 urtera bitarteko eskaintza, nagusiki, Haurreskolak partzuegoaren bitartez gauzatzen da; haren finantzazioa zati berdinean ordaintzen dute Hezkuntza Sailak, udalek eta familiek. <p>Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza dago; zuzendaritza horrek erantzukizunak ditu familiei laguntzeko politikaren diseinuan, bai eta haren barnean sartutako neurri batzuen kudeaketan ere, hala nola seme-alabengatiko diru-laguntzak, lana eta familia bateratzeko laguntzak, sentsibilizazio-ekintzak, haurrak hazteko laguntza (gurasotasun positiboa) eta abar. Halaber, familiaren ikuspegia txertatzearen eta haren zeharkakotasunaren alde egitea dagokio gainerako politika sektorialetan.</p> <p>Enpleguaren eremuari dagokionez, Lanbide, enpleguaren aldeko politika aktiboen erakunde autonomoa gisa, sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak kudeatzen ditu, betiere euskal familiei gutxieneko errenta batzuk ziurtatuz.</p> <p>Emakunde aukera-berdintasunaren aldeko politikez arduratzen den erakunde autonomoa da; gainera, ikuspegi hori zeharkakotasunez jorratzen da Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan.</p> <p>Mendekotasunaren inguruko eskumenak Eusko Jaurlaritzaren (gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat etorritik), foru-aldundien eta udalen artean banaturik daude; gauzak horrela, foru- eta toki-erakundeak dira (salbuespenak salbuespen) gizarte-zerbitzuak kudeatzeko erantzukizuna dutenak.</p> <p>Foru-aldundiek eskumen zehatzak dituzte ogasun arloan (besteak beste tributak biltzea), eta zeregin horretan zerga-kenkariaren esparrua nabarmendu beharra dago.</p>

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua [Council of Europe](#)ko erreferentzia oinarri hartuz (2013).

(2. taula)

Amatasun-baimena, herrialdeen arabera

Herraldea	Asteak	Baldintzak
Alemania	52-60	Soldataren %65eraino, gehienez ere hilean 1.800 euro irabaziz; hala eta guztiz ere, 300 euro gehiago haz daiteke seme edo alaba bakoitzeko, erditze anizkoitzetan.
Austria	16	16 aste horietatik 8 erditu baino lehenago izaten dira eta gainerako 8ak erditu ondoren. Soldataren %100 ordaintzen da. Erditze anizkoitzei dagokienez, 12 aste gehiago eman daitezke. Data horretatik aurrera, eszedentzia bat hartzeko aukera jasotzen da hiru urtez; aukera horren diru-muga 436 eurokoa da hilean.
Belgika	15	Lehendabiziko hilabetea soldataren %82rekin ordaintzen da; gainerako epealdian soldataren %75 ordaintzen da. Bajatik aurrera, 95 eurotik 532 eurora bitartean kobra daitezke hilean, baldin eta lanaldia murriztea aukeratzen bada edo urtebetera arteko eszedentzia bat eskatzen bada jaioberria zaintzeko helburuarekin.
Danimarka	52	Zenbait baldintza betez, soldataren %100 kobra daiteke.
Finlandia	18	Soldataren kopurua %70etik %90era bitartekoa da, alde zuzeneko sarreraren bolumenaren eta aukeratutako baja-epearen arabera. Aldi berean, langabe dauden edota errenta txikiak dituzten pertsonentzako estaldura dago; halakoetan, gehienez ere 553 euro kobra daitezke hilean. Bajaren ondoren, hilean 316tik 484 eurora bitarteko prestazio bat dago jaioberria etxean zaintzeko, betiere diru-sarreraren mailaren eta familiaren etxeko tamainaren arabera.
Frantzia	16-34	Soldataren %100. Erditzea erraza izan bada, 16 asteko baimena ematen da; erditze anizkoitzen kasuan, 34 astera arte luza daiteke. Bajatik aurrera, amak 513 euroraino jaso dezake aurreneko hiru urteetan, baldin eta jaioberria zaintzeko eszedentzia bat aukeratzen bada.

(2. ERANSKINA). FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKEN KONPARATIBOA. KOSTUAK KONPENTSATZEKO NEURRIEI ETA FAMILIA-ORIENTAZIOKO PROGRAMEI ETA ZERBITZUEI BURUZKO TULAK

Herrialdea	Asteak	Baldintzak
Herbehereak	16	Soldataren %100 ordaintzen da; gehienezko muga 177 euro dira egunean. Horren ondoren, amak 26 aste hartzeko aukera dauka eta aitak beste horrenbeste; hala eta guztiz ere, halakoetan, konpentsazio ekonomikoa ez da finkoa eta lan-hitzarmenen arabera da. Hartara, hitzarmen batzuek ez dute inolako ordainketarik jasotzen.
Irlanda	26-42	Soldataren %80 lehendabiziko 26 asteetan; baimena beste 16 astez luza daiteke, baina halakoetan ordainketa ekonomikorik gabe.
Italia	20	Soldataren %80 lehendabiziko 20 asteetan. Bajatik aurrera, beste 6 hilabetez luzatzeko aukera dago soldataren %30arekin eta, horren ondoren, beste 4 hilabetez, baina inolako prestazio ekonomikorik gabe.
Luxenburgo	16	16 aste horietatik 8 erditu baino lehenago izaten dira eta gainerako 8ak erditu ondoren. Soldataren %100 ordaintzen da. Erditze anizkoitzetan 4 hilabetera arte luza daiteke. 16 astean ondoren, gehienez ere 1.778 euro jaso daitezke 6 hilabetez (jaioberria zaintzeko epe horretan eszedentzia bat hartuz gero) edo 485 euro hilean (lanaldia murriztea aukeratzen bada).
Norvegia	47-57	47 asteko baja aukeratzen bada, soldataren %100 jasotzen da; aitzitik, 57 aste aukeratzen badira, soldata murrizten da. Baldintza guztiak bete gero, urteko gehieneko diru-kopurua 61.034 eurokoa da. Langabe egonez gero, urtean 4.528 euroko estaldura ekonomikoa dago. Gaur egun, herrialdean eztabaidatzen ari dira ea kopuru hori handitu behar den ala ez.
Portugal	17-22	17 asteko baimena aukeratu gero, soldataren %100 kobratzen da. Aitzitik, 22 asteko aukera hautatu gero, diru-kopuru hori soldataren %80ra jaisten da.
Erresuma Batua	52	Prestazioaren zenbatekoa enpleguaren antzintasunaren eta diru-sarreraren mailaren arabera da. Oro har, gehienez ere soldataren %90 jasotzen da aurreneko 39 asteetan (hala eta guztiz ere, seigarren astetik aurrera hilean gehieneko kopurua 628 euroko da).
Suedia	34,5	Soldataren %80 jasotzen da lehendabiziko 195 egunetan eta epearen gainerako zatian 20 euroko tarifa finkoa egunean. Baimenaren epearen zati bat ezkontideari eskualdatzeko aukera dago. Erditu aurretik eta arriskurik egonez gero, gehienez ere 50 eguneko epean soldataren %80 jasotzen da.
Espainia	16	Soldataren %100. Lanaldia murrizteko aukera konpentsazio ekonomikorik gabe, sei urtera arteko epean.
EAE	16	Estatu mailako arautegia betetzen da; nolahi ere den, bajatik aurrera diru-laguntza batzuk daude eszedentzia edo lanaldiaren murrizketa konpentsatzeko helburuarekin.

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: [Europar Batasuna](#) (2013), [Council of Europe](#) (2013), [Norvegiako Haur, Familia eta Gizarteratze Ministerioa](#) (2012) eta [Haroko Galdeketa](#), [Sweden National Organisation for Families](#) (2013).

(3. taula)

Aitatasun-baimena, herrialdeen arabera

Herrialdea	Existentzia	Baldintzak
Alemania	Daturik ez	Amatasun-baja partekatzeko aukera.
Austria	Daturik ez	Amatasun-baja partekatzeko aukera.
Belgika	Bai	10 egun, horietariko 7 soldataren %82rekin ordaintzen dira.
Danimarka	Bai	14 egun, soldataren %100arekin.
Finlandia	Bai	Bajako 6 aste gehiago daude, baja hori aita edo amarekin partekatuz gero. Halaber, erditzea izan ondoren, 42 eguneko gehieneko epe osagarria ezartzen da aitarentzat.
Frantzia	Bai	11 egun soldataren %100arekin + 3 egun familia-osagarriarekin.
Herbehereak	Bai	2 egun.
Irlanda	Daturik ez	Amatasun-baja partekatzeko aukera.
Italia	Daturik ez	Amatasun-baja partekatzeko aukera.
Luxenburgo	Daturik ez	
Norvegia	Bai	12 aste (derrigorrezkoak, amak ezin erabil ditzakeenak) soldataren %100arekin.
Portugal	Bai	10 egun, soldataren %100arekin.
Erresuma Batua	Bai	14 egun soldataren %90arekin; aldi berean, 13 aste gehiago hartzeko aukera dago, baina ordainketarik gabe.
Suedia	Bai	34,5 aste. Soldataren %80 jasotzen da lehendabiziko 195 egunetan eta epearen gainerako zatian 20 euroko tarifa finkoa egunean. Baimenaren epearen zati bat ezkontideari eskualdatzeko aukera dago.
Espainia	Bai	13 egun, soldataren %100arekin.

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: [Europar Batasuna](#) (2013), [Council of Europe](#) (2013), [Norvegiako Haur, Familia eta Gizarteratze Ministerioa](#) (2012) eta [Haroko Galdeketa](#), [Sweden National Organisation for Families](#) (2013).

(4. taula)

Haurrekin zerikusia duten familia-transferentzia jarraituak

Herrialdea	Zenbatekoa	Baldintzak
Sistema unibertsalak		
Alemania	164-215 €	18 urte bete arte (25 urte bete arte, ikasten egonez gero). Ez dago mugarik ezgaitasunik egonez gero. Diru-kopurua seme-alaben kopuruaren eta adinaren arabera handitzen da. Ezkontideetarik batek lan egiteari uzten badio, semea edo alaba zaintzeko, batez besteko soldataren %67 jasotzeko eskubidea dauka 14 astez (edo 300 euro, aldeaz aurretik ordaindupeko soldatarik izan ezean).
Austria	105-152 €	18 urte bete arte (26 urte bete arte, ikasten egonez gero). Semearen edo alabaren adinaren arabera handituz doa, bai eta seme edo alaba bakoitza gehiagorekin ere (97,8 € unitate bakoitza). Hilean 550 euroko osagarria ezgaitasuna duten haurrei zuzenduta, 55.000 eurotik beherako irabaziak dituzten etxeetan. Irailean aparteko ordainketa bat dago; beraz, 13 hileko ordaintzen dira.
Belgika	88-244 €	18 urte bete arte (25 urte bete arte, ikasten egonez gero). Guraso bakarreko familiek 21etik 46 eurora bitarteko osagarri bat dute hilean. Halaber, tratamendu bereziak daude langabezia dauden familientzat edo pentsiodunentzat.
Danimarka	110-269 €	18 urte bete arte. Semea edo alaba zenbat eta gazteago izan, orduan eta zenbateko handiagoa da. 82 euroko osagarri bat dago 7 urtetik beherako haurrentzat (gehienez ere 215 euro hilean).
Finlandia	100-182 €	18 urte bete arte. Zenbatekoa seme-alaben kopuruaren heinean handitzen da (100 € lehenengoarentzat, 182 bosgarrenarentzat eta hurrengoarentzat). Kide bakarreko familientzako osagarri bat dago: 47 euro hilean seme edo alaba bakoitzeko.
Frantzia	124-259 €	Bakar-bakarrik ordaintzen da familiak gutxienez 2 haur izanez gero. 20 urte bete arte. 512 euroraino irits daiteke aurreneko hiru urteetan, gurasoetarik batek lan egiteari uzten baldin badio semea edo alaba zaintzeko. Gehienez 161 € gehitu ahal zaizkio, familia errenta txikiak izanez gero. 124tik 1.018 eurora arteko osagarria, ezgaitasuna duten seme-alabadun familientzat.
Herbehereak	193-276 €	17 urte bete arte. Seme edo alabaren adinak aurrera egin ahala haziz doa, betiere seme-alaben kopuruaren arabera.
Irlanda	166-203 €	16 urte bete arte (18 urtera arte, ikasten egon edo ezgaitasunen bat izanez gero). Urtean 1.100 euroko gehikuntza 6 urte bete arte.
Luxenburgo	185-685 €	18 urte bete arte (27 urte bete arte, ikasten egonez gero). Oro har, laguntzak 185 eurotik 362 eurorainokoak dira (seme-alaben kopuruaren heinean eta adinaren arabera haziz doaz). Gainera, 6 urtetik beherako seme-alabentzat 16 euroko osagarri bat dago eta 12 urtetik beherakoentzat 48 eurokoa. Semeak edo alabak ezgaitasunen bat izanez gero, gehikuntza 185 eurokoa da hilean. Aldi berean, eskolatzeko-gastuak zati batez konpentsatzeko laguntza bat dago 113tik 323 eurora bitartekoa, hilean (betiere 6 urtetik aurrera).
Norvegia	118-157 €	18 urte bete arte. Herrialdearen eremuaren arabera aldatzen da (iparraldeko landa-eremuetan 39 euroko osagarri bat dago oinarritzko 118 euroren gainean).
Erresuma Batua	64-100 € (gutxi gorabehera)	16 urte bete arte (20 urte bete arte, ikasten jarraituz gero). Zenbatekoa aldatzen da seme-alaben adinaren eta kopuruaren arabera.
Suedia	116-165 €	16 urte bete arte (18 urte bete arte, semeak edo alabak eskolaturik jarraituz gero). Zenbatekoa seme-alaben kopuruaren arabera haziz doa eta 1.000 eurora arteko osagarri bat dago haurrak ezgaitasunik izanez gero. Zergak ordaintzetik salbuetsita dago.
Sistema ez-unibertsalak		
Italia	10-258 €	Familia-etxeko errentaren eta pertsona-kopuruaren arabera.
Portugal	0-407 €	Bakar-bakarrik errenta txikiarentzat. Bost ordainketa-mota ezartzen dira (laguntzarik faltatik gizarte-bazterketa larriko egoeretara egokitu-takoak). Gehikuntza daude guraso bakarreko familientzat, ezgaitentzat edota familia ugariarentzat.
Spainia	0-84 €	11.300 eurotik beherako familientzako laguntza ekonomikoak (18.000 euro familia ugarietarako dagokienez); laguntzak Gizarte Segurantzak ematen ditu. Ezgaitasunagatik osagarriak ezartzen dira. Arreta berezia jartzen da Otik 6 urtera bitarteko adin-tartean. Autonomia-erkidegoek DSBE sistemak ezartzen dituzte; sistemon zenbatekoak eta baldintzak aldatzen dira erkidego batean edo bestean.
EAE	33-375 €	Urtean 400etik 1.100 eurora bitartean, ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko. Gainera, semea edo alaba (edo menpeko pertsona) zaintzeko asmoz, lanaldia murrizten bada, urtean 2.046tik 3.500 eurora arteko laguntzak daude. Eszedentziei semeak edo alabak 6 urte bete arte euts dakieke; halaber, lanaldi-murrizketak erabil daitezke semeak edo alabak 14 urte bete arte. Gainera, inpaktu handiko neurrien barruan eta seme-alabak dituzten familientzako neurri zehatzak ez badira (baina bai handitzen dira seme-alaben kopuruaren arabera), nabarmendu beharra dago diru-sarrera murrizteko bizikidetzaren unitateen kasuan diru-sarrerak bermatzeko sistemak 616tik 875 eurora bitartean ematen dituela etxebizitza bakoitzeko (kide-kopuruaren arabera); halaber, etxebizitzagatik osagarriak ezartzen dira (250 € hilean).

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: Europar Batasuna (2013), Council of Europe (2013), Norvegiako Haur, Familia eta Gizarteratze Ministerioa (2012) eta Euskadi.net (2013).

(5. taula)

Haurrekin zerikusia duten familia-transferentzia zehatzak

Herrialdea	Zenbatekoa	Baldintzak
Belgika	1.086-1.903 €	Jaiotza edo adopzioagatik. Bigarren seme edo alaba bakoitzagatik (erditze edo adopzio anizkoitzak) 817 euro gehiago gehitzen dira.
Danimarka	5.634 €	5.634 euroko laguntza zehatza, nazioarteko adopzioa dela eta.
Finlandia	1.900-4.500 €	Laguntza zehatza, nazioarteko adopzioa dela eta. Zenbatekoa aldatzen da haurraren jaioterriaren arabera.
Frantzia	855-1.719 €	855,25 euro ordaintzen dira jaiotzako. Haur bat adoptatuz gero, zenbateko hori 1.719 eurokoa da.
Irlanda	635 €	635 euro jaiotzean, laugarren eta hamaikagarren urtebetetzeetan, erditze anizkoitza izanez gero.
Luxenburgo	1.741 €	Laguntza zehatza (hiru epetan ordaintzen dena) jaiotza bakoitzeko. Lan egiten ez duten amek prestazio ekonomiko osagarriak jasotzeko eskubi-dea dute; prestaziook aitatasunaren baimenaren antzekoak dira.
Norvegia	4.092 €	4.092 euroko laguntza zehatza, jaiotako edo adoptatutako haur bakoitzeko.
Erresuma Batua	625 € (gutxi gorabehera)	625 euro inguru seme edo alaba jaioberri bakoitzeko. Gainera, 325 euro inguruko txeke bat sartzen da haurraren kontu batean; kontu hori bakar-bakarrik erabili ahal izango da 18 urte betetzen dituenean.
Espainia	2.581-7.743 €	Erditzeagatik edo nazioarteko adopzioagatik laguntza zehatzak; laguntzok 2.581 eurokoak dira 2 seme-alabentzat eta 7.743 eurokoak 4rentzat edo gehiagorentzat. Ezgaitasunik egonez gero, zenbatekoak bikoiztu egiten dira.
EAE	2.000-3.500 €	Adopzioei, erditze anizkoitzei eta nazioarteko adopzioei dagokienez, 2.000 € lehenengo seme edo alabarengatik eta 1.500 € gehiago ondokoengatik bider errenta estandarizatuaren koefizienteaz (azken zenbatekoa zehazteko, familiaren diru-sarreraren heinean).

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: Europar Batasuna (2013), Council of Europe (2013), Norvegiako Haur, Familia eta Gizarteratze Ministerioa (2012) eta Euskadi.net (2013).

(6. taula)

Zerga-kenkariak familia-egituraren gastuak direla eta

Herrialdea	Oinarrizkoa		Gehigarria		
	Ezkontideagatik edo antzeko erlazioagatik	Ondorengoengatik	Ondorengoengatik	Guraso bakarra izateagatik	Ezgaitasun edo mendekotasunagatik
Alemania	Baterako aitortpena eginez gero, oinarrizko kenkariak bikoizten dira, gehienez ere 14.412 euroraino urtean. Guraso bakarreko familiei dagokienez (gutxienez seme edo alaba bat izan behar dute), 3.108 euroko zerga-kenkari bat ezartzen da.	Urtean 18 urtetik beherakoentzako 1.848 eurotik (lehen seme edo alaba) 2.148 eurora artekoak (hurrengoak); kopuru horiek 27 urtera arte luzatzen dira, ikasten badu edo langabezia badago. Zergak batera ordainduz gero, zenbatekoak bikoizten dira.	Urtean 774 euro (baterako zerga-ordainketa egonez gero, 1.574 euro), 16 urtetik beherako adin txikikoen edo minusbaliatuen kasuan.	Guraso bakarreko familientzako kenkaria semeak edo alabak 16 urte bete arte; kopurua 2.050 eurokoa izango da lehenengoagatik eta 1.030 eurokoa hurrengo bakoitzarengatik.	Ezgaitasunen bat duten seniderik ardurapean izanez gero, kenkaria dago; haren zenbatekoa 307tik 1.412 eurora bitartekoa izango da hilean, minusbaliotasunaren arabera.
Austria	Aitortpena egiten duen ezkontideak urtean 6.000 euro baino gutxiago ingresatzen baditu (seme-alabak dituen familia batean), hilean 364 euroko zerga-kreditu bat dago.	50 euroko zerga-kreditua hilean, zuzeneko laguntzekin bateragarria dena.	Seme edo alaba bakoitzeko, hilean 130 euroko zerga-kredituko gehikuntza bat dago, 220 eurorainoko, hirugarren eta ondorengoengatik. Zerga-kenkari negatiboaren formula sarrera txikien kasuan ezartzen da.		
Belgika	Aitortpena elkarrekin eginez gero, banakako oinarrizko kenkariak batu daitezke, 4.140 euroraino. Ezkontideak ezgaitasunen bat badu, 1.200 euroraino.	1.160 euro urtea lehenengo seme edo alabagatik; kopuru hori arian-arian haziz doa 10.860 euroraino laugarrenagatik (eta 4.150 hurrengoengatik), baldin eta diru-sarrerarik ez badago edo oso murriztak badira. Seme edo alabaren batek ezgaitasunik izanez gero, bikoitza zenbatzen da.	430 euro hiru urtetik beherako seme edo alaba adin txikiko bakoitzeko, baldin eta alde zuzenetik kenkaririk jaso ez bada haur-zainketagatik (etxe barruan edo kanpoan).	Seme-alabarik kargupean izanez, alarguntzarik badago edo aita edo ama ezkongabea bada, 1.200 euroko kenkariak ezartzen dira.	Urtean gehienez 1.200 euro, kargupeko menpeko pertsonagatik kenkaria gisa (baldin eta diru-sarrerarik gehienez 2.490 eurokoak badira).
Danimarka	Ezkontideen artean transferi daitezkeen 3.492 euroko zerga-kreditu urtean; hala ere, ordainketa-sistema banakakoari dagokio. Pertsona bakoitzak 231tik 1.643 eurorainoko zerga-kreditua bermaturik dauka; zerga-ordainketaren kopurua aldatzen da diru-sarreraren mailaren heinean.	Ez.	Ez.	Ez.	Ez.

Herraldea	Oinarritzkoa		Gehigarria		
	Ezkontideagatik edo antzeko erlazioagatik	Ondorengoagatik	Ondorengoagatik	Guraso bakarra izateagatik	Ezgaitasun edo mendekotasunagatik
Finlandia	Ez. Banakako zerga-sistema.	Ez.	Ez.	Ez.	Ez.
Frantzia	Bikotekako kenkaria, banakakoen batuketara baino txikiagoa (Quotient sistema, ezkontideak zergak %50ean ordaintzea eragiten duena). PACak (izatezko bikoteen baliokideak) senar-emazteztzat jotzen dira zerga-tratamenduari begira.	Zerga-ordainketa beherantzkoa da ardurapeko seme-alaben arabera.	4.338 euro kargupeko seme edo alaba bakoitzeko, 21 urte bete arte edo 25 bete arte, ikasten badihardu.	Ez.	Zergadunarekin bizi den 75 urtetik gorako pertsona bakoitzeko, 3.000 euroko kenkaria urtean.
Herbehereak	Ezkontideen arteko zerga-kreditua, urtean 3.868 eurokoa.	Urtean 1.459 euroko zerga-kenkaria seme-alabak direla eta (horien kopurua alde batera utzita).	12 urtetik beherakoengatik kenkariak, errentaren arabera aldakorrak direnak. 11tik 742 eurora bitartekoak dira (baldin eta diru-sarrerak urtean 4.562 euroko gainditzen badituzte). Gastua ere ken daiteke zenbait ikasketak motatan.	7.035 euro 27 urtetik beherakoa den ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko guraso bakarreko familietan. Gehigarri gisa, errenta osoaren %12ko kenkaria (gehienez ere 3.402 euro), 12 urtetik beherako ardurapeko seme-alabentzat, bakar-bakarrik guraso bakarreko familietan.	Ez.
Irlanda	Urtean 3.660 euroko zerga-kreditua bikote bakoitzeko. Gainera, bikotearen kideetarikoa bat 65 urtetik gorakoa izanez gero, 1.016 euroan gehitzen da.	Urtean 900 euroko zerga-kreditua adin txikiak edo menpekoak diren seme-alaben ardura hartzen duen ezkontideetarikoa batentzat (baldin eta haren diru-sarrerak 7.000 eurotik beherakoak badira).	Ez.	Ez.	Hilean 85etik 159 eurora bitarteko zerga-kenkaria ezgaitasunen bat duen ardurapeko pertsonagatik edo ezkontideagatik.
Italia	Ezkontideetarikoa bat bestearen ardurapean dagoenean (2.480 euroko gainditu gabe), urtean 434tik 546 eurora bitarteko kenkaria bat egiten da, etxeko errentaren heinean.	266 eurotik 2.100era seme edo alaba bakoitzeko (horien kopuruaren eta familiaren diru-sarreraren arabera), baldin eta diru-sarrerarik ez badago edo oso murrizak badira (gehienez ere 2.480 euro).	3 urtetik beherako seme-alaben kasuan, 123 euro urtean. Nazioarteko adopzioaren kasuan, gastu guztien %50erainoko dirulaguntzak daude. Era berean, ikasketetako gastuen %19 ere ken daiteke.	Guraso bakarreko familietan, kenkariak 266tik 575 eurora bitartekoak izan daitezke seme edo alaba bakoitzeko; kopurua aldagarria da familiaren errentaren arabera (ez da unibertuala).	Menpeko pertsonagatik kenkaria, 133tik 142ra bitartekoa (etxeko diru-sarreraren arabera), baldin eta menpeko pertsonaren diru-sarrerak 2.840 euro gainditzen ez badituzte.
Norvegia	Oro har, zerga sistema banakakoa da; hala ere, ezkontidetarikoa batek lan egiten ez badu, baterako kenkaria bat ezarrita dago, urtean 6.582 eurokoa.	Urtean 3.198 euroko zerga-kenkaria lehenengo seme edo alabagatik, eta 639 eurokoa hurrengoengatik 12 urte bete arte. Aparteko zirkunstantziarik egonez gero (esate baterako ezgaitasunik) mugagabe zabalitzen da.	Ez.	Oinarritzko kenkaria guraso bakarreko kasuetan handitzen da, seme edo alaba bakoitzeko bikoiztuz (452 euroraino).	Hilean 618 eurorainoko kenkariak ezkontidea edo seme-alabak ez diren ardurapeko pertsonentzat.
Portugal	Urtean baterako kenkaria, 279 eurokoa.	Urtean 100etik 107 eurora bitartean, seme edo alaba bakoitzeko, kopuruaren arabera. Hezkuntza-gastuetan %30erainoko zerga kenkaria.	Urtean gehienez ere 170 euro menpeko seme edo alaba bakoitzeko; kopuru hori 341 eurora handitzen da 3 urtetik beherako adin txikiaren kasuan.	Urtean 340 euroko zerga-kenkaria guraso bakarreko familien kasuan.	Urtean 151tik 234 eurora bitartean zergadunarekin bizi diren aurrekoentzat, haien pentsioak ezarritako gutxiena gainditzen ez badu. Menpeko pertsonen osasunari lotutako gastuen %30.
Erresuma Batua	Baterako zerga-ordaintzaren kenkaria errenta-mailaren arabera eta bakar-bakarrik 30 ordu asteen lan egiten duten bikoteentzat. Zenbatekoa aldakorra da errentaren arabera, 1.050etik 4.560 eurora bitartean, gutxi gorabehera.	700 euro inguruko zerga-kreditua seme edo alabagatik (kopurua alde batera utzita) eta beste 2.300 euro 16 urtetik beherako seme edo alaba bakoitzeko edo 19 urte bete arte, ikasten badihardu. Gainera, seme edo alaba bakoitzaren lehenengo urtebetean beste 700 euro ezartzen dira.	3 urtetik beherako seme edo alabak dituzten familientzako 680 euroko zerga-kreditua urtean.	Asteen 16 ordu baino gutxiago lan egiten duten guraso bakarreko familientzako zerga-kreditua, urtean 1.800 eurokoa.	Ondorengo minusbaliatua dituzten familientzako zerga-kreditua, urtean 2.700 eurokoa, eta 1.200 euro gehiago ezintasuna larria izanez gero.
Suedia	Ez. Banakako zerga-sistema.	Ez.	Ez.	Ez.	Ez.
Espainia	Zergadunaren 5.050 euroko gutxienekoa (gutxieneko pertsonal eta familiarra), likidazio-oinarria murrizten duena. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria, gehienez 1.352 euro zergadun bakoitzeko.	Urtean 1.800etik (lehenengo seme edo alabagatik) 4.100 eurora bitarteko kenkaria (laugarrenagatik eta hurrengoengatik), baldin eta diru-sarrerak urtean 1.800 eurotik beherakoak badira.	Urtean gehienez ere 1.200 euroko zerga-kenkaria seme edo alaba bakoitzaren bizitzaren lehendabiziko 3 urteetan.		Likidazio-oinarriaren 2.300etik 7.038 eurora bitarteko murrizketa, eskatzaileak, ondorengo batek edo aurreko batek ezgaitasunen bat dutenean (ezgaitasun-mailaren arabera). 65 urtetik gora dituen edo %33tik gorako ezgaitasuna duen ardurapeko pertsona bakoitzeko, 918tik 1.122 eurora bitarteko murrizketa, baldin eta pertsona horren sarrerak 1.800 eurotik gorakoak ez badira urtean.

Herrialdea	Oinarritzkoa		Gehigarria		
	Ezkontideagatik edo antzeko erlazioagatik	Ondorengoagatik	Ondorengoagatik	Guraso bakarra izateagatik	Ezgaitasun edo mendekotasunagatik
EAE	1.375 euroko kenkari orokorra. Eskatzailea 65 urtetik gorakoa bada, 330 euroko osagarria, eta 75 urtetik gorakoa bada, 605 eurokoa. Etxebizitzagatik kenkaria (erosketa edo alokairua), 2.760 eurorainokoa, etxe bakoitzeko.	Urtean 579 eurotik (lehen-go seme edo alaba) 1.869 eurora arteko zerga-kenkaria (bosgarrena eta hurrengoak).	6 urtetik beherako ondorengoentzako 331 euroko zerga-kenkari osagarria, eta 6 urtetik 16 urtera bitartekoa bada, 50 euroko osagarri gehigarria (Araba eta Bizkaia). Elikagaie-tarako pentsioei begira, %15 kendu ahal izango da, seme-alaben kopuruaren arabera gehieneko kopuruarekin.		

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: Europar Batasuna (2013), Council of Europe (2013), [SIIS](#) (2004), [Espainiako Zerga Agentzia](#) (2013), Arabako Foru Aldundia (2013), Bizkaiko Foru Aldundia (2013) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (2013).

(7. taula)

Zerga-kenkariak familia-zainketaren ondoriozko gastuak direla eta

	Ondorengoak		Menpekoak (aurrekoak, ondorengoak eta lehen mailako senideak)	
	Etxebizitzatik kanpo (laguntza espezializatuaren kontratazioa)	Etxebizitzan (etxeko laguntzaren kontratazioa)	Menpeko pertsonak etxebizitzatik kanpo zaintzeko gastuak	Menpeko pertsonak etxebizitzan zaintzeko gastuak (etxeko laguntza)
Alemania	Seme-alabak zaintzeko kostuaren 2/3ko kenkaria (gehienez ere 4.000 euroraino).	Seme-alabak zaintzeko kostuaren 2/3ko kenkaria (gehienez ere 4.000 euroraino).	Zerga-kenkariaren bitartezko estaldura partziala, edadeko pertsonentzako egoitza batek sorrarazten dituen gastuei aurre egin ahal izateko.	Zerga-kenkariaren bitartezko estaldura partziala, menpeko edo edadeko pertsonak edo gaioak artatzeko etxeko laguntzaren kontratazioak sorrarazten dituen gastuei aurre egin ahal izateko.
Austria			Menpeko pertsonak zaintzeko dakartzan gastuek kenkariak dituzte errentaren aitortpenean.	Menpeko pertsonak zaintzeko dakartzan gastuek kenkariak dituzte errentaren aitortpenean.
Belgika	Egunean 11,2 euroko kenkaria etxetik kanpoko artapena dela-eta, 3 urtetik beherako seme edo alaba bakoitzeko.	Urtean 6.100 euroko gehieneko kenkaria, Gizarte Segurantzaren altatutako pertsona baten kontratazioaren gastuen %50eraino konpentsatzea ahalbidetzen dutenak, seme edo alaba bakoitzak 12 urte bete arte.	Ez.	Urtean 6.100 euroko gehieneko kenkaria, Gizarte Segurantzaren altatutako pertsona baten kontratazioaren gastuen %50eraino konpentsatzea ahalbidetzen dutenak.
Danimarka	Ez.	Ez.	Ez.	
Finlandia	Ez.	Ez.	Ez.	
Frantzia	7 urtetik beherako seme-alabentzat eta guraso bakarreko familietan edo bi ezkontideek lan egiten dutenean, zaintzaren kostuaren %50 ordaintzen da, urtean gehienez ere 6.000 euro. Gehieneko kopuru hori 7.500 eurora irits daiteke ezgaitasunen, familia ugarien eta abarren kasuan.	Gehienez ere urtean 6.000 euroko kenkaria (7.500 euroraino etxean ezgaitasunen bat duen pertsona bizi bada), Gizarte Segurantzaren altatutako pertsona baten kontratazioaren gastuen %50eraino konpentsatzea ahalbidetzen dutenak.	Ez.	Urtean 13.800 euroko gehieneko kenkaria, Gizarte Segurantzaren altatutako pertsona baten kontratazioaren gastuen %50eraino konpentsatzea ahalbidetzen dutenak.
Herbehereak	Ez.	Ez.	Gastu medikoen kostuaren zati baten zerga-kenkaria.	Gastu medikoen kostuaren zati baten zerga-kenkaria.
Irlanda	Urtean 900 euroko zerga-kreditua adin txikikoak edo menpekoak diren seme-alaben ardura hartzen duen ezkontideetarako batentzat (baldin eta haren diru-sarrerak 7.000 eurotik beherakoak badira).	Ez.	Urtean gehienez ere 1.800 euroko zerga-kenkaria, edadeko pertsona batentzako egoitzak sorrarazten dituen gastuei aurre egin ahal izateko.	Ez.
Italia	Ez.	Ez.	Ezgaitasunen bat duten pertsonen gastu medikoen %19.	Ezgaitasunen bat duten pertsonen gastu medikoen %19.
Norvegia	12 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzat, urtean 3.100 eurotik 3.800 eurora bitarteko kenkari bat (betiere seme-alaben kopuruaren arabera).	Ez.	Ez.	Ez.

	Ondorengoak		Menpekoak (aurrekoak, ondorengoak eta lehen mailako senideak)	
	Etxebizitzatik kanpo (laguntza espezializatuzaren kontratazioa)	Etxebizitzan (etxeko laguntzaren kontratazioa)	Menpeko pertsonak etxebizitzatik kanpo zaintzeko gastuak	Menpeko pertsonak etxebizitzan zaintzeko gastuak (etxeko laguntza)
Portugal	Ez.	Ez.	Menpeko pertsona nagusiak zahar- etxe edo egoitzetan zaintzeko gastu guztien %25eraiz.	Ez.
Erresuma Batua	Gutxien-gutxienik 16 ordu astean lan egiten duten bikoteen haurren zaintzaren kostua konpentsatzeko zerga-kredituak, haren barnean lanpostuko haurtzaindegien kostua sartuz; zenbatekoak urtean 2.700 eurotik (enprestatoko haurtzaindegiak) 11.000 eurora bitartekoak dira, gutxi gorabehera.	Gutxien-gutxienik 16 ordu astean lan egiten duten bikoteen haurren zaintzaren kostua konpentsatzeko zerga-kredituak, haren barnean lanpostuko haurtzaindegien kostua sartuz; zenbatekoak urtean 7.000 eurotik (enprestatoko haurtzaindegiak) 11.000 eurora bitartekoak dira, gutxi gorabehera.	Ez.	Ez.
Suedia	Ez.	Ez.	Ez.	Ez.
Espainia		Menpeko pertsona bat zaintzeko gastuengatik likidazio-oinarriaren 2.316 eurorainoko murrizketa (bai eskatzailearen bai haren ondorengo nahiz aurrekoena).		Menpeko pertsona bat zaintzeko gastuengatik likidazio-oinarriaren 2.316 eurorainoko murrizketa (bai eskatzailearen bai haren ondorengo nahiz aurrekoena).
EAE	Haurrak eta gazteak errehabilitazio-eta prestakuntza-jarduereen zerga-kenkaria; bularreko umeentzako laguntza eta 6 urtetik beherakoentzako umeak artatzeko eta laguntza emateko ere; haur eta gazteentzako ikastaroak, kanpalekuak edo bidaiak eta antzekoak, 25 urtetik beherako pertsonen zuzenduak elikadura-zerbitzuetan, alojamenduan edo garraioan, zuzenbide publikoko erakundeek menpeko pertsonen eskaintzen dizkietenak.			Zuzenbide publikoko edo gizarte-izaerako establezimendu pribatuek ematen dituzten gizarte-laguntzako zerbitzuen prestazioa (edadeko pertsonak, partekatu gabeko familia-zamak, ekintza komunitarioa eta familia-ekintza). Aurrekoen osagarriak diren elikadura-, alojamendu- edo garraio-zerbitzuen zerga-kenkaria, aipatutako establezimenduen edo erakundeek eskainiak, euren balibideak edo beste batenak erabiliz.

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: Europar Batasuna (2013), Council of Europe (2013), SIFS (2004), Espainiako Zerga Agentzia (2013), Arabako Foru Aldundia (2013), Bizkaiko Foru Aldundia (2013) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (2013).

(8. taula)

Haurrak zaintzeko sistemak, herrialdeka

Alemania	Estatuaren inbertsioa handia den arren, Alemaniako zenbait eremutan plazen ratioa txikia da eta nekeza izaten da haur-eskoletan plazak aurkitzea (gainera, tarifak zenbaitetan oso altuak izaten dira).
Austria	Estatu federala denez gero, eremuen arabera alde eta desberdintasunak daude. Hala ere, oro har antzeko egitura bati eusten zaio, hiru urtera arteko haurrak zaintzeaz arduratzen diren <i>crèche</i> -ekin eta 5 urtera arteko <i>nursery school</i> -ekin. Era berean, sistema ez-formalak ere badaude, hala nola ume-zaintza, aita-amen taldeak (egunen eta orduen arabera txandak ezartzen dituztenak) eta eguneko etxeak (5-10 ume inguru jagoten dituztenak). Hala eta guztiz ere, tarifak eta eskaintza eremuen arabera aldatzen dira, esate baterako Vienan zenbait zerbitzu doakoak dira, baina ez, ordea, Tirolen edo Burgenland-en.
Belgika	Artapen-sistema desberdina da eta aldeak daude Flandrian eta Valonian. Tasak, diruz lagunduta badaude ere, herrialdearen eremuen arabera aldatzen dira, bai eta familia-sarrerak ere. Ohar har, bi azpiegitura-mota daude: batetik, formala dena (<i>crèches</i>) eta, bestetik, ez-formala (joko-taldeak). Bietan plazak alde zuzenak dira behar dira, baina ez daude bermaturik. Orduetara zabalda da, oro har 7:00etatik 18:00etara bitartekoa. Sistemak txeeen bitartez funtzionatzen du; txeeok tarifa finko baten bitartez eskuratzen dira, orduan 7,5 eurokoa, pertsona enpleguak kobratzen dituztean 20,5 euro ordaintzen dira orduko (bi kopuruen arteko aldea Estatuak estaltzen du).
Danimarka	Estatuak haur-eskoleto plazak bermatzen ditu 6 hilabeteetatik eskola-sisteman hasi arte. Haur-eskolek lan merkatuaren arabera egokitutako irekiera-ordutegirako konpromisoa dute; era berean, elikadura osasuntsuaren alde ere egiten dute. Umezaintzako sistema ere aukera daiteke. 2004tik aurrera haurrak zaintzeko gastuak ez ezik 65 urtetik gorako pertsonenak ere estaltzen dira. Estatuak kasu guztietan kostuen %50eko laguntza eskaintzen du.
Finlandia	Eguneko zentroen sare publiko bat dago, haurrak zaintzeko; haur guztiak horretarako eskubidea dute. Plazaren kostuak familiaren diru-sarreraren arabera izaten dira. Itunpeko zentroen sare pribatu bat ere badago; horren kostuak zati batez laguntzen ditu diruz Finlandiako Gizarte Seguratzaren Institutuak. Aldi berean, zerga batzuen nolabaiteko salbuespena dago: %60 enpresen kasuan eta %100eraino zerbitzuak ematen dituzten pertsonen dagokienez.
Frantzia	Plazen eskaintza askotarikoa da, baina ez da ez unibertsala ez doakoa; eskuarki familiaren diru-sarreraren arabera izaten da. Familiek <i>crèche</i> -ak aukera ditzakete (herrialdean oso sustraiturik dauden haur-eskolak, umeak bi hilabete dituztenetik hartzen dituztenak, eta publikoak edo pribatuak izan daitezke), edo ume-zaintza (Frantzia oso ohikoa) edo haur-eskolak (2 urtetik aurrera), etab. Zerbitzu guztien ordutegia malgua da (07:00etatik 19:00etara) eta diruz lagundurik dago. Gaur egun, estatuak plangintza bat garatzen dihardu, eskaintzaren bolumena handitze aldera. Haurrak zaintzeko sistema txeeen prozedura batean oinarritzen da; familiek txeeak erosi ditzakete eta horrek haurrak zaintzeko zerbitzuak erostea ahalbidetzen die (zerbitzu formalak edo ez-formalak), urtean 12.000 eurorainoko kenkariak izanik (gehienez ere gastu osoaren %50); langileen kontziliazioari laguntza ematen dioten enpresak ere badira txee horiek erosi.

(2. ERANSKINA). FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKEN KONPARATIBOA. KOSTUAK KONPENSATZEKO NEURRIEI ETA FAMILIA-ORIENTAZIOKO PROGRAMEI ETA ZERBITZUEI BURUZKO TULAK

Herbehereak	Artapenerako sistema formal bat dago (haur-eskolen bitartezkoa); era berean, sistema ez-formala ere badago (esate baterako ume-zaintza edo gobernua ezar ditzakeen tarifak eskura ditzaketen senideen zaintza-lana). Sistema horren kostua gobernuaren eta enpresen artean banatzen da, zerga berezi baten bitartez.
Irlanda	Estatuak eskola aurretik eskolatzeko urtebete eskaintzen du, ia-ia doakoa dena denbora-tarte partzial batez, hori guztia ECCE programaren barnean (38 aste, egunean 3 ordu eskainiz, edo 50 aste, egunean 2 ordu eta laurden eskainiz).
Italia	Ez dago estatuaren eskaintzarik, baina erregio batzuetan udal-zerbitzuak ematen dira; hala eta guztiz ere, horiek guztiak bazterketa-arriskuan dauden kolektiboetan jartzen dute arreta.
Luxenburgo	Zenbait sistema ezarririk daude, hala nola etxeko zaintza, ume-zaintza eta udaletako haur-eskolen sistema (<i>maison relais</i>), 12 urtera arteko haurrei zuzendua. Azken kasu horri dagokionez, bonoen sistema baten bitartez, estatuak bere gain hartzen ditu 3 ordu astean. Hurrengo 21 orduak 3 euroko kostu bat dute orduko eta 7,50 eurokoa astean eman daitezkeen 60 orduetara arte. Ordu gehiago erabiliz gero, tarifa osoa ordaindu beharra dago.
Norvegia	Familia-bajaren lehendabiziko urtearen ondoren, haurrak sistema publikoko plaza baterako eskubidea dauka; sistema hori diruz lagunduta dago nabarmen. Kostua diru-sarreraren araberakoa da, baina eskuragarria da (hilean 85-424 euro inguru). Irekiera-ordutegia zabalagoa da, lan-ordutegia baino zabalagoa (90 minutu gehiago). Sistema hori erabili ezean eta haurra etxean bertan zainduz gero, hilean 452 euro jasotzen dira.
Portugal	Familietan oinarri hartzen duen sistema ez-formal zabalagoa da; hala eta guztiz ere, ume-zaintza ere badago (legezko gehieneko kopurua 4 hurreko da zaintzaileko eta etxeko). Aldi berean, haur-eskola pribatu eta publikoen sistema formal ez-unibertsala dago; haur-eskola publikoei dagokionez, tarifen sistema bat ezarrita dago, familia-sarreraren arabera.
Erresuma Batua	4 urtera arteko haur-artapena publikoa eta doakoa da, gehienez ere 15 ordu astean eta 38 aste urtean. Zerbitzu formalak erabil daitezke (haur-eskolak) eta ez-formalak ere (joko-taldeak, ume-zaintza eta abar).
Suedia	Estatuak haur-zentroen sareari zuzentzen zaizkion diru-laguntza handiak ematen ditu (15.000 euroraino plaza bakoitzeko). Ohiko ordutegia 6:00etatik 18:00etara artekoa da; hala eta guztiz ere, zenbait hiritan zabalagoa da. Kostua diru-sarreraren arabera aldatzen da, baina kasu bakar batean ere ez da hilean 140 eurotik gorakoa seme edo alaba bakoitzeko. Halaber, etxeko zaintza ere bidera daiteke, baina aukera hori udalen menpekora da eta bakar-bakarrik eskuragarri dago udalerrien heren batean gutxi gorabehera; halakoetan 333 euroko batez besteko konpentsazio bat ezartzen da urtebetetik 3 urtera arteko seme edo alaba bakoitzeko, eta, gainera, zerga-kenkari osagarriak aplikatzen dira.
Espainia	Familiek zailtasunak dituzte haur-eskolen sareko eskuragarritasunean, bai plaza-kopuruagatik bai ezarritako tarifengatik. Alde eta desberdintasun nabarmenak daude autonomia-erkidegoen artean.
EAE	Haurrak zaintzeko sare bat dago, baina ez du bermatzen plazen sistema unibertsala; hala ere, arian ariko hazkundera izan du azken urteotan. Eskaintzarik zabalena haur-eskolena da, gehienbat 0tik 3 urtera bitarteko Haurreskolak Partzuergoko zentroak; horien kostua 148 eurotik 208ra bitartekoa da hilean eta gehienez 40 ordu estaltzen ditu astean. Nolanahi ere den, hain zabalak ez diren bestelako neurriak ere badaude, esate baterako etxeko zaintzarako pertsonak kontratatzekeko laguntzak edo haur-etxeak izeneko proiektua, ume-zaintza oinarritzen dena.

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: Europar Batasuna (2013), Council of Europe (2013), [Federal Ministry of Economy, Family and Youth. Austria](#) (2012), [Ministry of Health, Welfare and Sport. Netherlands](#) (2012), <https://www.euskadi.net> (2013) eta [haurreskolak.net](#) (2013).

(9. taula)

Mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza ekonomiko zehatzak

	Arina	Latza	Larria edo oso larria
Alemania	440-1.023 €.	440-1.279 €.	700-1.918 €.
Danimarka	Legeriaren bitartez bermatzen diren zerbitzu unibertsalak eta doakoak.		
Frantzia	530-1.235 €.		
Herbehereak	Legeriaren bitartez bermatzen diren zerbitzu unibertsalak Zenbaitetan zerbitzuen ordainketan parte hartzeko eskatzen da, diru-sarreraren eta eskualdearen arabera.		
Italia	480 euro, familia-laguntzaren gaitasunaren araberakoak diren arren.		
Erresuma Batua	360 euro inguru, urtean 27.000 eurotik beherako diru-sarreraren mugetarako.		
Espainia (lurralde nazionala)	60-300 €.	300,9-462,18 €.	417-833,96 €.

Iturria: Kamette, F. (2011).

(10. taula)

Mendekotasuna artatzeko baliabideak, herrialdeka

Herrialdea	Etxeko artapena	Etxetik kanpoko artapena
Alemania	Ez dago eskuragarri.	Ez dago eskuragarri.
Austria	Senideak jagoten dituzten pertsonentzat ezarririk dauden onura ekonomikoak, bereziki mendekotasun handiko mailak izaten direnean. Mendekotasuna artatzeko sistemak etxeko artapen eta laguntza profesionalizatuaren bidez (etxeko laguntza, laguntza komunitarioa, egokitutako garraioa eta abar).	Era guztiak mendekotasunak artatzeko sistemak, erakundeek eskainitako (eguneko egoitzak, eguneko zentroak, zahar-etxeak...).
Belgika	Ez dago eskuragarri.	Ez dago eskuragarri.
Danimarka	Ez da zehazten.	Ezgaitasuna duten edo edadekoak diren pertsonentzako zaintzapeko etxe edo apartamentuak; besteak beste etxeko laguntza, higiene pertsonala, errehabilitazioa, zaintza sanitarioa (15 ordu astean), ekipamendu egokituak, etab. Doako zerbitzuak oro har.
Finlandia	Udalek etxeko laguntza eskaintzen dute (erizaintzako langileen bitartez). Doako zerbitzuak.	Udalek ezgaitasuna duten pertsonen egokitzeko zaizkien alojamendu-zerbitzuak eskaintzen dituzte (adina alde batera utzita), bai eta egokitutako garraio-zerbitzuak ere. Doako zerbitzuak.
Frantzia	Etxeko laguntza eguneroko trebetasun eta gaitasunak galdu dituzten edadeko pertsonen zuzendua, oro har itunpeko hirugarren sektoreko erakunde bitartez. Aldi berean, etxean eskaintzen diren erizaintza-zerbitzuak ere ematen dira. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.	Menpeko pertsonentzako egoitzak eta egoitzen programa berezi bat, landa-guneetako edadeko pertsonen zuzendua. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.
Herbehereak	Etxeko zereginetarako eta etxeko mugikortasunerako laguntza. Laguntza eta sorospena garraio publikoan. Gizarte-harremanen sare bat sortzeko laguntza. Etxeko sorospena. Sistema hauek administrazioak berak zuzenean eman ditzake edo erabiltzaileak berak zuzkidura ekonomiko bat aukera dezake, nahiago duen artapena "eskuratze" asmoz.	Ez dago eskuragarri.
Irlanda	Erizaintzako zaintzan eta etxeko laguntzan (garbiketa, catering, etab.) oinarritzen diren etxeko artapeneko programak, bai eta fisioterapiako zerbitzuak ere. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.	Ospitaleko zerbitzuak eta eguneko zentroak (jatorduak, bainua, fisioterapia, okupazio-terapia, arropa-garbiketa eta abar), bai eta egoitzako zerbitzuak ere. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.
Italia	Etxeko artapeneko programak (gizarte- eta osasun-arlokoak), bai eta senideak ardurapean dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoak ere (gastuen kontsazio partziala eskainiz). Zerbitzua publikoa izanagatik ere, sarri askotan hirugarren sektoreko erakundeek eskaintzen dute.	Egokitzeko eta zaintzapeko apartamentuen sistemak, mendekotasun-mailaren arabera. Azken kasu honetan, programa pilotu esperimental bat dago, pertsonak ingurune komunitario batean egon daitezela. Zerbitzua publikoa izanagatik ere, sarri askotan hirugarren sektoreko erakundeek eskaintzen dute.
Luxenburgo	Herrialde osoa estaltzen duten etxeko laguntza- eta zaintza-zerbitzuak. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.	Eguneko artapeneko sistemak (eguneko zentroak). Egoitza-zerbitzuak (1.600 ohe), Servior sare publikoaren bitartez eskainiak. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.
Norvegia	Udal-laguntza etxeetan. Doakoa. Zerbitzu osagarriak (osasun-laguntzatik aparte), kostu mugatua dutenak.	Kostu mugatuko egoitza-etxeak (diru-sarrera zehatz batzuetatik aurrera, sarren %75arekin lagundu beharra dago). Hala eta guztiz ere, ondasunak eta beselako ondareak ez dira zenbatzen kalkulua egiteko orduan.
Portugal	Eguneroko bizitzan trebetasun eta gaitasunak galdu dituzten pertsonen zuzentzen zaizkien etxeko zainketak. Herrialdearen estaldura handia, baina denbora aldetik mugatua (etxeetan ez da 24 orduko zerbitzurik eskaintzen). Neurri txikiagoan familia-harrerako formula bat jarri da abian. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.	Eguneko zentroak (9:00etatik 17:00etara) eta egoitza-zerentroak (alajamendua, jatorduak, etab. estaltzen dituztenak). Neurri txikiagoan, zaintzapeko apartamentuen egitasmoa garatu da. Ordainketa partzialeko zerbitzuak, betiere errenta eskuragarriaren arabera.
Erresuma Batua	Etxeko laguntza eta artapeneko zerbitzuak, erakundearen artapenaren aldean lehenesten direnak. Haien barruan, etxea egokitzeko zerbitzuak sartzen dira. Menpeko pertsonen edo haien ardurapeko senideei ordainketak ezartzen zaizkie, interesik gehien duten zerbitzuak hautatzeko (haiek aukeratu beharrekoak egiaztatutako hornitzaile batzuen artean).	Ez dago eskuragarri.
Suedia	Laguntza ekonomikoa 65 urtetik gorako menpeko pertsonentzat, etxeko laguntza ordaintzeko. Era berean, etxerako laguntzak ere ezartzen dira etxebizitzak zaharberitzeko. Adin txikiagoan menpeko pertsonak zaintzeko familiei zuzentzen zaie laguntza ekonomikoak ezartzen dira.	Eguneroko bizitzan beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasunak galdu dituzten edadeko pertsonentzako edo menpekoentzako egoitza-kosten estaldura partziala. Ordainketa partziala da, eskuragarri dagoen errentaren arabera.
Espainia	Etxeko laguntzako zerbitzua. Herrialdearen arabera ezarpen desberdina (toki batzuetan ez da existitzen). Menpeko senideak ardurapean dituzten pertsonentzako laguntza ekonomikoak, erregio batzuetan arautzat eta ez salbuespentzat hartzen direnak, oro har ezarritako erakunde-prestaziorik ez dagoelako. Oro har, ordaindu beharreko zerbitzuak errentaren arabera.	Eguneko zentroak eta egoitza-zerentroak. Garapen desberdina herrialdeko zonaldeen arabera. Oro har, ordaindu beharreko zerbitzuak errentaren arabera.
EAE	Etxeko laguntzako zerbitzuak. Ezarpen zabala hiru lurralde historikoetan. Parte-katutako etxebizitzaren inguruko zerbitzu esperimentalak.	Erakunde-sistemaren presentzia zabala, eguneko artapeneko (eguneko zentroak eta okupazio-zerentroak) eta egoitzetako sistemaren garapen handiari esker. Garraio-sistema egokituak. Baliabideen eskuragarritasuna unibertsala da; hala eta guztiz ere, prezio publikoaren ordainketa onuradunaren errenta eskuragarriaren arabera da. Zenbatekoa kalkulatzeko orduan, desberdintasunak daude hiru lurralde historikoen artean.

Iturria: azterlan honetarako beren-beregi prestatua honako informazioetan oinarri hartuz: Europar Batasuna (2013), Council of Europe (2013), Arabako Foru Aldundia (2012), Bizkaiko Foru Aldundia (2013) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (2013).

3. (eranskina).

**Arartekoaren Haur eta
Nerabeen Kontseiluaren bileraren aktaren laburpena
(2013ko martxoaren 15a)**




Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluaren bileraren aktaren laburpena (2013ko martxoaren 15a)

Askotariko familien gaineko azterlanari egindako ekarpenak, lankidetzan


Helburu honi begirako lana bi momentutan egituratzen da: lehenengoak familiaren eredu desberdinei buruzko hausnarketa bati heltzen dio, bai eta pertsona talde hori familia dela zehazten duten elementuei buruzkoari ere; bigarrenak, familietan atzemandako zailtasunik edota premiarik handienen gainean hausnartzen du, bai eta beharrian horiek estaltzeko proposamenen gainean ere.

Familia-ereduei gagozkiolarik, ekarpenak honako hauexek izan dira:

- Seme-alabak dituzten bi helduen familiak: mota honetako familia ugari ezagutzen dituzte. Oso ohikoak bi seme edo alabekin, bai eta (haien ustetan gero eta ugariagoak) seme edo alaba bakarrarekin ere. Familia ugariak ere ohikoak izaten dira, baina ez hainbeste. Aitak, amak, semeak, alabak eta maskotak osatutako familia filmetan irudikatzen da eta horixe da gogotik ateratzen zaigun lehendabizikoa familia baten gainean pentsatzen dugunean, baina errealitatea konplexu, askotariko eta aberatsagoa da.



Bi heldu eta hiru seme-alaba, maskota batekin.




Aita, ama eta bi seme-alaba. Den-denak harreman ezin hobean.



Aita, ama, seme bakarra eta maskota.



Aitak, amak eta bi seme-alabek (semea eta alaba) osatutako familia.



Aita, ama, semea, alaba eta maskota. Gogoan daukagun lehenengoa "familiaz" pentsatzen dugunean.

- Bi gizon homosexualak adoptatutako alaba batekin osatutako familia bat. Bikote homosexualak ezagutzen dituzte, baina ez seme-alabekin.




Bi gizonzkoek osatutako bikote bat, adoptatutako alaba batekin.

- Guraso bakarreko familiak: Guraso bakarrekoak izan daitezke, banatu direlako edo alargun geratu direlako, baina, era berean, semea edo alaba bakarrik izatea hautatu dutelako. Bi familia-mota horiek ezagutzen dituzte.



Emakumezko ezkongabea semearekin eta amarekin.



Ama alarguna hiru seme-alabekin. Aitak agertzen jarraitzen du...

- Sendiaren beste kide batzuekin bizi diren familiak, eskuarki aitita-amamekin. Hori ohikoa izaten da, bereziki edadeko pertsonak bakarrik geratzen direnean eta norbaitek zaintzea beharrezko bihurtzen denean. Beste toki batzuetan (Angola) "familia" osatzen dute beste kide batzuek, esate baterako auzokideek, laguntza behar duten pertsonak, etab.




Etxe horretan elkarrekin bizi diren aita, ama eta seme-alabak. Familiaren beste kide batzuen argazkiak.

- Gizonezko heldu batek eta ama gazte batek osatutako familiak. Seme edo alaba bakarra dute. Halako gero eta familia gehiago ikusten dituzte, adin-alde handia duten familiak, hain zuzen ere.



Aita heldua ama gazte batekin eta bien semea.

- Familia berrosatuak. Ohiko familia izaten da eta askotariko harremanak sorrarazten ditu, bai seme-alaben eta gurasoen bikote-kide berrien artean bai bikote-kide bakoitzak dituen seme-alaben artean ere.



Maite: ama, aita semea besoetan duela; seme zaharrena (jada banandua) orango emaztearekin eta beren semearekin; semearen lehenengo bikotea (eskuinetara), bien semearekin eta bere amarekin bizi da...

- Elkarrekin bizi diren “familia-unitate batzuk”. Ohikoagoa izaten da beste toki batzuetan, esate baterako Kuban; hemen ez da hainbeste ikusten.

Familia bat familia izan dadin, bat datoz lotura maitasuna dela, odol-loturak baino gehiago. Bizitza-proiektu bat dago elkarrekin; etorkizuna elkarrekin eraikitzeko nahia.

“Mailen” aldeak ikusten dira hartu-eman horietan eta familiarekiko loturetan. Etxe berean bizi den familia dago; horixe da gehien margotu dena, baina familia zabalago baten existentzia ere hartzen da aintzakotzat (aitita-amamak, izeko-osabak, lehengusu-lehengusinak, bai eta oso hurbileko auzokideak ere); horiekin guztiekin ere oso lotura eta harreman estuak izaten dira sarri askotan.

Familiak poztasuna ematen du (horrexegatik agertzen dira aurpegi irribarretsuak margotutako marrazkietan); horrek ez du esan nahi haserrekuntzarik eta desadostasunik ez dagoenik. Oro har, familian lasaitasuna sentitzen da.

Sendiak segurtasuna, egonkortasuna, laguntza, artapena, gauza materialak, heziketa... ematen ditu. Familiak onena nahi du bere kideentzat.

Familien premiei eta beharrezanei dagokienez, honako hauek aurkitu ditugu:

1. Administrazioak eskain edo erraz ditzakeen gauzak:

- Dirua, laguntza ekonomikoa, elikagaietarako laguntza, gaixotasunak sendatzeko laguntza, ikasketak (goi-hezkuntza bermatzea). Familia batzuek beste batzuek baino zailtasun handiagoak dituzte: Seme-alaba gehiago dituztenak, senideetariko bat gaixorik dutenak. Dirua garrantzitsua da, oinarritzkoena bermatzeko.

- Lana, gustatu edo ez. Behar-beharrezkoa da dirua lortu ahal izateko.
- Norbait izatea gidatuak izateko eta aholkuak emateko: informazioa, argibideak, orientazioa...
- Bitarte edo zerbitzu publikoetarako eskuragarritasuna: osasuna, hezkuntza...

2. Gizarteari, komunitateari, gutariko guztioi honako ekarpenak egitea dagokigu:

- Ordena. Baliabideak hobeto antolatzeko premia, muga ekonomikoak dituen garai honetan.
- Denbora. Familiek denbora behar dute jarduera bakoi-tza aurrera eraman ahal izateko: lana, seme-alabak, bikotea... Denbora faltak eta familiarentzako dedikazioak banaketak eragin ditzake. Orain familiak ekonomikoki presionatuago daudenez gero, denbora gehiago erabiltzen dute lan egiteko eta denbora gutxiago familiarentzat. Dena egon daitezke estresaturik, bai gurasoak bai seme-alabak. Garrantzitsua da elkarrekin egoteko “kalitatezko” denbora.
- Laguntza, elkarrenganako laguntza. Gauza materialez gain, familiek laguntza behar dute, bai barruan (etxeko zereginak partekatzea) bai kanpoan (elkartasun-sareak).
- Begirunea, errespetatuak sentitzea. Familia batzuek, esate baterako homosexualek osatutakoek edo adoptatutako seme-alabek, oraindik ere zailtasunak dituzte onartuak izateko.

3. Biei:

- Etxe egonkorra, segurua. Nolabaiteko etorkizun-bermeak behar dira, nolabaiteko segurtasuna eskaintzen duen ikuspegia.

4. (eranskina).

Hirugarren sektorearen ekarpenak



Hirugarren sektorearen ekarpenak

Laugarren eranskin honetan, familiei laguntzeko politika publikoen egoera dela-eta EAEko hirugarren sektoreak egiten dituen proposamenak eta eskariak jaso ditugu.

Hemen ageri den informazioa zenbait galdetegi, elkarrizketa eta eztabaida-talderen bitartez lortu da. Haietan, izan ere, lan honetako “ohar metodologikoa” atalean aipatutako entitateek hartu dute parte. Horren bidez islatu nahi izan ditugu beren helburu sozialak direla-eta familiei laguntza emateko politiketan interes partikularra duten hainbat elkarteren iritzia; izan ere, elkarre horiek eskuzabaltasunez hartu dute parte lan honetan. Nolanahi ere, kontuan hartu beharra dago Arartekoaren erakundeak Euskadiko familiei laguntzeko politiken egoera hobetzeko egiten dituen gomendioak txosten honetako azken kapituluaz azaldutakoak direla, eta ez dutela zertan bat etorri hemen jasotako proposamenak eta eskariekin. Hala eta guztiz ere, interes handikotzat jotzen dugu berezko indarrez argia ikus dezatela esparru honetan gizarte aktiboak diren taldeen iritzia, zeren eta horrekin jasotzen baitugu, neurri handi batean, gizarte zibilaren pulstua, familiei laguntza ematearen arloko beharrezanezi eta hobekuntza-esparruei dagokienez.

Eranskin honen irakurketa errazteko, informazioa zenbait arlo tematikoren arabera antolatu dugu:

- Legediarekin eta proiektu instituzionalarekin lotutako proposamenak eta eskariak.
- Fiskalitatearekin, prestazioekin eta prezio publikoekin lotutako proposamenak eta eskariak.
- Etxebizitzarekin eta lurzoruarekin lotutako proposamenak eta eskariak.
- Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearekin lotutako proposamenak eta eskariak (enplegua eta prestakuntza, aisia eta kultura).
- Hezkuntzarekin eta sentsibilizazioarekin lotutako proposamenak eta eskariak.
- Laguntza sozio-sanitarioarekin lotutako proposamenak eta eskariak.
- Garraioarekin lotutako proposamenak eta eskariak.

Halaber, familia-eredu desberdinak hartu ditugu kontuan informazioa egituratzerakoan, betiere kontuan hartuz proposamenak eta eskarien hartzaileak direla, oro har, familia guztiak, ezgaitasun edo/eta mendetasun egoeran dauden pertsonak dituzten familiak, familia bananduak edo/eta dibortziatuak, familia hartzaileak eta adopziozkoak, guraso bakarreko familiak eta kultura-arteak.

1. arloa

LEGEDIA ETA ERAKUNDE-PROIEKZIOA

Familia guztiak

- Familiaren Euskal Institutua sortzea, berariazko erakunde gisa, sail guztietatik independentea eta bere aurrekontu-zuzkidurarekin, familiari laguntzeko politika egokia –integrala eta zeharkakoa– garatu ahal izateko, Lehendakari-tzak zuzenean lagundua eta abalatu.
- Familia-politiken gastu publikoan zentratutako azterlanak egitea, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egiten diren antzekoak, esparru horretan EAE Europako beste herrialde batzuen pare jartzearen bidean aurrera egiteko.
- Inpaktu familiar eta sozialari buruzko txosten edo azterketak ezarri eta aplikatzea, ingurumenaren arloan edo generoaren arloan daudenen antzekoak, hezkuntzaren, gizartearen, lanaren edo etxebizitzaren arlokoak izan eta familiar eragina duten araudiak onesteko prozesuan.
- IKTak sartzeko politika publikoaren garapenean, eta herritarrek familia-izaerako zerbitzuen arloko informazioa duten sarbidea modernizatu eta hobetzea. Adibidez, *Concilia* + webgunearen erreplika bat egitea, informazio fiskalaren edo politika familiarren arloko jokabide egoki gisa.
- Esku-hartze sozialaren arloko hirugarren sektoreari zuzendutako diru-laguntzen antzinako sistema berreskuratzeke ahalegina egitea, programa egonkorak dituzten hitzarmenen aldeko apustua eginez, gizarte zerbitzuen zorroaren bitartez.
- EAEko administrazioetako sailen eta erakundearen arteko komunikazio- eta koordinazio-kanalak hobetzea, familia-sistema batean esku hartzen denean, eta argiro zehaztea administrazio desberdinen arteko eskumen-desberdintasunak.
- Sustatzea EAEko hirugarren sektoreko entitateek parte-hartze handiagoa izan dezatela Familiei laguntzeko Erakundearen arteko Planeko laguntza-ekintzen eta politika sozial eta familiarren plangintza, diseinu, exekuzio eta ebaluazio jarraituan.
- Familiaren esparruko eskumenak birbanatzea Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen bitartez, familiarren arloko ekintzei behar adina baliabide ekonomiko emanez, gizarte zerbitzuen zorroan jasotako urte anitzeko hitzarmen eta itunen bitartez.
- Familien dibertsitatearentzako arreta aplikatzea familiarren arloko politika guztiei, eta arreta integrala eskaintzea.
- Familiei Laguntzeko Legea eta Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Plana garatzen jarraitzea, eta haiei baliabideak ematea, halako moduz non ekintza edo/eta aplikazio eraginkorra izango duten.
- Familia-unitatearen barruan pobrezia aurrea hartzeko politikak indartzen laguntzea, bereziki haurren babesari dagokionez.

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna zeharkako elementu gisa sartzeko EAEko politika publiko, programa, zerbitzu eta familientzako laguntza- eta arreta-baliabide guztietan.
- Berariazko protokolo eta jarduketak sartzeko Familiei Laguntzeko III. Planen ageri diren ekintza guztietan, ezgaitasuna duten pertsonen zuzenduak, haien autonomia pertsonala defendatze aldera.
- Kontuan izatea ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familien beharrak, lehenetsunak, orientabideak eta proposamenak, bai eta haiek ordezkatzeko dituzten elkarten ere, familiarren arloko politika publikoak diseinatu eta ezartzeko garaian.
- EAEko Gizarte politikako eta osasuneko sail eta arloen eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzaren hobetzea, ezgaitasun kasuetarako jarduketako protokoloak ezartzeko.
- Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten pertsonak Familiarren Kontseiluan sartzeko.

Familia ugariak

- EAEn, Familia Ugariari buruzko Legea eraginkortasun praktikoaz aplikatzea, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea betetzearen bitartez, azken horren helburuak bete-tze aldera. Helburu horien artean dago pertsonen gauza dezatela nahi dituzten seme-alabak edukitzeko askatasuna.

Familia bananduak edo/eta dibortziatuak

- Aukera ematea elkarte mistoek Emakunderen diru-laguntzak eskuratu ahal ditzaten, halako moduz non erakunde horrek lagunduko dituen familia barruko indarkeriari buruzko programak.

Familia hartzaileak edo/eta adopziozkoak

- Familia hartzaile profesionalen figura berreskuratzea.
- Harreraren aurretiko prestakuntza-saioak jasotzeko derri-gorrezkotasuna ezartzea harrera egin nahi duten familia guztientzat.

Guraso bakarrek familiak

- Bi seme-alaba dituzten guraso bakarrek familiak familia ugartzat jotzea.

Familia eta kultura-artekotasuna

- Ijito-familia definitzeko terminologia berariazkoa sortu eta normalizatzea, hura etnia edo kultura gisa identifikatuta.
- Ijito-familia Familiarren Kontseiluan edo Behatokian sartzeko.

2. arloa

FISKALITATEA, PRESTAZIOAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Familia guztiak

- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiken multzoa EU-15aren batez bestekoaren pareko terminoetan jartzea, hau da, BPGaren %2tik gora.
- Familiak artatzeko zuzkidurak murriz daitezela eragozte, bereziki baliabide gutxien dituztenen kasuan.
- Familian esku hartzeko eta ingurune irekian hezteko programen aurrekontu-zuzkidura handitzea, zeren eta familia bakoitzari bideratutako ordu-kopurua askotan ez baita nahikoa izaten, edo familia batzuek arreta jasotzeko itxaron behar izaten baitute.
- Ahaleginak zentratzea diru-sarrerak Bermatzeko Errenta emateko irizpideak urtez urte egokitzean, kolektibo babesgabeak kanpo gera daitezela saihesteko.
- Gizarte bazterketaren arriskuan dauden familiei zuzendutako Familian Esku Hartzeko Programaren aurrekontua areagotu eta finkatzea.
- Haurtzaroren arloko prestazioak unibertsal egitea, halako moduz non seme-alaben hazkuntzaren kostuak haien baldintzen eta adinaren proportzioan estaliko baitira. Proposatzen da laguntza hori ez mugatzea soilik gurasoen baliabideetara.
- Kenkari fiskalen sistema aldatzeko lan egitea, errentaren gaineko zerga negatiboaren (EZN) eredura hurbiltzeko. Horren bidez, izan ere, Estatuak herritarrei dirua emango die errentaren gaineko zergaren bitartez, gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatzeko.
- Saihestea zama daitezela aitona-amonek seme-alabei eta bilobei egindako transferentziak; halakoek, izan ere, ez dute zergarik izan behar. Gaur egun, aitona-amonek seme-alabei eta bilobei egindako transferentziak haurren pobrezia aurka borrokatzeko elementu garrantzitsua dira, eta, horrenbestez, lehentasunezko zerga-tratamendua eman beharko litzaieke.

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- "Adimen-egzaitasun bat duen pertsona bat artatzeak familia batean duen eragin ekonomikoaren azterlana" izenekoaren ondorioak txertatzea zerga-politiken diseinuan, familien errealitateari egokitzeko.
- Ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta-sistema zurkaiztea, aurrekontu-zuzkidurei eutsiz, halako moduz non krisiak ez duen atzera pausurik edo familia zaintzera itzuli beharra ekarriko; izan ere, zainduko da ezgaitasuna duen pertsonarentzako baliabide ekonomikoak haren bizi-kalitatea hobetzeko erabiltzen direla (izan ere, batzuetan gerta daiteke familia-guneko bakarrak izatea), eta erakundeen arteko lankidetzaren bitartezko arreta-sistema eraginkorra ezartzea.

- Arreta goiztiarraren bidezko tratamendu-programetarako laguntza ekonomikoak areagotzea, bai eta ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoak ere.
- Mendetasuna edo/eta ezgaitasuna duten pertsonen zain-tzaileentzako laguntza ekonomikoan lerro bat ezartzea, atsedeen-zentroetara, laguntza psikologikoa hartzera edo laguntza eta informazio zerbitzuetara joan daitezela.
- Aurrekontu handiagoa jartzea ezgaitasuna duten pertsonak etxean zaintzeko langile teknikariak kontratatzeko laguntza ekonomikoetarako.

Familia ugariak

- Seme-alabengatikozuzeneko laguntza ekonomikoak handitzea, eta neurri handiagoan 15 urte arteko hiru-garren ondorengoei eta ondokoei zuzendutakoak, zeren eta Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Planen hartutako konpromisoaren arabera, zenbatekoan gutxitu baitira eta denboran geroratu baitira hirugarrenen eta ondokoen kasuan.
- Errenta estandarizatuko⁵⁶ sistema bera lortzea administrazio publiko eta sail guztietan familiei laguntzeko laguntza edo zerbitzuetan, baldin eta haiek eskuratzeko baldintza edo prestazio horren kopuruaren irizpidea horrek baldintzatzen baldin badu.
- Seme-alabarengatikoz kenkariak hobetzea, haiek urtean dakarten gastuaren errealitateari egokitzeko, ondorengo gehiago izateak inplikatzeko duen progresibotasuna bermatuz, KPlaren pareko urteko gutxieneko eguneratze batekin edo etxebizitza-kenkariarekin, betiere mugak (bai urtekoa, bai etxebizitzaren guttizkoarena) %20 igota seme-alaba bakoitzarengatik.
- Bi kenkari berri sartzeko: bata kategoria orokorreko familia ugariarena (3 edo 4 seme-alaba, edo 2, horietako batek ezgaitasunen bat duenean) edo kategoria berezia (5 ondorengo edo gehiago), kolektibo horrek EAEn sostengarritasun demografikorako egiten duen ekarpenarengatik; eta beste kenkari bat ("Kontzilia") beren bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egite aldera seme-alabak artatu eta zaintzeko zain-tzaile bat kontratatu behar duten familia ugariarentzat.
- Tributuen arloko Koordinazio Organoa (TKO) premiatzea Gipuzkoako Batzar Nagusiek toki ogasunen araua alda dezaten, familia ugariari %90 bitarteko hobaria eman ahal izateko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ), Arabako eta Bizkaiko izen bereko erakundeetan egina den bezala.
- Familia ugariari tributu-zorren geroratzeak edo/eta zatikatzeko erraztea, bermeak aurkezteko mugak igoz eta epeak luzatuz.

⁵⁶ Uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak ezarritako sistemak familia-errenta kideen eta familiaren osaketaren arabera hainbatzen du.

Familia bananduak edo/eta dibortziatuak

- Gizarte Bermeko Funtsa abian jartzea elikagai-pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako, hurrengo aurrekontuetan 500.000 euro bitarteko kontu-sail bat jarriz funts horretarako, halako moduz non seme-alaba bakoitzeko 400 euro jaso ahalko diren⁵⁷.
- Errenta aitortpena semearekin edo alabarekin batera egiteko aukera ematea ama eta aita bananduei, eta 18 urteko adina (gaurko muga) 22 urtera igotzea.
- Ondorengoengatikoen kenkaria igotzea, edozein dela ere egoera zibila, eta mantentzeko kenkarian gutxieneko kopuru finko bat ezartzea.

Familia hartzaileak edo/eta adopziozkoak

- PFEZn nazioarteko adopzioarako behar diren bidaietan inbertitutako gastuen ehuneko bat desgrabatzeko aukera ezartzea.
- Nazioarteko adopzioarako erakunde laguntzaileak babes-tea, haiei laguntza ekonomiko handiagoa emanez.

Guraso bakarrek familiak

- Guraso bakarrek familiarentzat %100 dohainik izango den hezkuntza ezartzea.

Familia eta kultura-artekotasuna

- Ijitoen identitatea aitortzea, horren barne dela Eusko Jaur-laritzaren aurrekontuetan haien garapenerako berariazko aurrekontu-sail bat egotea.

3. arloa

ETXEBIZITZA ETA LURZORUA

Familia guztiak

- Errenta estandarizatuaren sistema erabiltzea⁵⁸ alokatzeko nahiz erosteko etxebizitza bat eskatzen duten pertsonen diru-sarrerak haztatzerakoan eta etxebizitzak zaharberri-terako laguntzak eskuratzeko.
- Seme-alabak dituzten familien etxegabetzea saihesteko, hipoteken ordainketa geroratzeko formulak (hipotekadun zorretarako 5 urteko luzamendu bat ezarriz) edo alokairuak sustatzea. Horretarako, proposatzen da Hipoteka Betearazpenei buruzko Legean eta Hiri Errentamenduei buruzko Legean aldaketak egitea, halako moduz non

familia-etxebizitza eta ohiko etxebizitza ezin bahituzko ondasun gisa jasoko diren, edo, bestela, etxebizitza ordainean ematearen aplikazioa jasoko den atzera eraginez eta nahitaezko izaeraz.

- Lehentasuna ematea alokairu sozialeko etxebizitzak sustatzeari, saldu gabeko etxebizitzak gaindikinak eta aurrezki kutxek dituztenak xede horretarako erabiliz, eta hutsik dauden etxebizitzak zergapetzea merkatura atera eta premia handiena duten pertsonen prezio zuzen batean erabili ahal ditzaten.

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten pertsonentzako egoitza- nahiz etxebizitza-arretarako zerbitzuen sarea zabaltzea.
- Aldi baterako familietarako atsedeen-zerbitzuen beharriaren hazkundeari erreparatzea: egoitza-arreta eta eguneko arreta.
- Ezgaitasuna duten pertsonentzako bizimodu independenterako etxebizitzak eskaintza sustatzea.
- Familientzako laguntzen lerro berezi bat jartzea, beren etxebizitzari eutsi ahal diezaioten.

Familia ugariak

- Eskubide subjektibo gisa ezartzea pertsonen etxebizitza duin eta egokia eduki ahal izatea, horretarako bidean familia ugarietara lehentasuna emanez, zozketan nahitaezko kupo bat ezarriz. Hori egin ezean, proposatzen da seme-alaben kopuruaren arabera haztapena (gaur egun, 3 puntu seme-alabak dituzten familientzat; 2 puntu bikotearentzat, eta puntu bat pertsona bakararentzat).
- Gutxienez %5eko eta gehienez %15eko kupo ezartzea familia ugarietarako etxebizitzetan, babes ofizialeko etxebizitzak alokairurako nahiz erosketarako promozio publiko nahiz sustapen guztietan (105 eta 120 m² bitarteko etxebizitzak) edo, kasua bada, bi etxebizitzak erosketa arautzea, familia ugari handien etxebizitzaren gehiegizko okupazioari konponbidea emateko.
- Familia ugariarentzat, etxebizitza alokatu edo zaharberri-terako, dauden laguntzetarako diru-sarrera haztatzea, kontuan izanda babes ofizialeko etxebizitza bat eskatzeko eskatzen diren diru-sarrerak.
- Familia ugarietarako kooperatiba araubideko etxebizitzak sustapena ematea.
- Etxebizitzarengatikoen kenkaria hobetzea, seme-alaben kopurua ere kontuan hartuz, eta mugak (urtekoa nahiz etxebizitzaren guztizkoa) ondorengo bakoitzarengatik %20 igoz.

⁵⁷ <http://agipase.blogspot.com.es/>. 2012-09-16ko prentsaurrekoa *Seme-alabentzako pentsioen ez-ordaintzeak %19 eta %32 bitarte egin dute gora lau urtean*.

⁵⁸ Uztailaren 24ko 154/2012 Dekretua.

4. arloa

BATERAGARRITASUNA

4.1. Enplegua eta prestakuntza

Familia guztiak

- Beren kargura adingabeak dituzten familia guztien esku-
ra jartzea beren beharrianak asetzeko baliabide tekniko
nahiz ekonomikoak, hartara familia eta lana eraginkorta-
sunez bateragarri egin ahal dezaten.
- Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarria izan
daitezen sustatzea pertsonen zainketa (adingabeak,
zaharrak edo mendetasuna dutenak) errazteari buruzko
lan-araudian, eta *Kontzilia* programari eustea.
- Kontziliazioaren arloan familiei laguntza emateko eki-
menei eustea; esate baterako, teknologia berriei la-
guntza-baliabideak eskaintzera bideratutako laguntzak,
biztanleria osoari eta familia-eredu desberdinei zuzen-
dutakoak.
- Lan ordutegiak eskola ordutegien arabera egokitzea, eta
aitorpen publiko eta pizgarri fiskalak ematea beren planti-
lletan kontziliazio-neurri horiek errazten dituzten enpresei:
ordutegi malgutasuna, baimenen zabalpena, enpresaren
kargurako prestazioak eta abar.
- Seme-alabak zaintzeko eszedentziarako eta lanaldi mu-
rriktarako laguntzak haztatzea, eta haiek handitzea
haietara biltzen den pertsonak daukan seme-alaba ko-
puruaren arabera.
- "*Kontzilia*" kenkaria aplikatzea beren seme-alabak arta-
tzeko eta zaintzeko etxean zainzaile bat kontratatu behar
duten familiei, familia, lana eta bizitza pertsonala batera-
garri egiten laguntzeko.
- Familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko poli-
tikak zabaltzea jada jardunean ez dauden pertsonen ar-
tean, "amona esklaboaren" sindromea saihesteko, eta
prestakuntza-neurrien nahiz bestelakoen bitartez adineko
pertsonengan dagoen talentuari probetxu handiagoa ate-
ratzeko.
- Doako haurtzaindegi zerbitzuak eskaintzea prestakuntza
eta laneratze prozesuetan dauden pertsonen, gizartean
esku hartzeko entitateen bitartez.
- Diruz lagundutako aisiako jarduerak sustatzea irakas-
kuntzarako zentro publiko nahiz itundu pribatuetan, ope-
rraldietan, ordutegiak familia-beharren arabera egokituz,
bizitza pertsonala, lana eta familia ahal den modurik one-
nean bateragarri egiteko.
- Haur hezkuntzako postuen eta zentroen eskaintza mal-
gutzea, kontziliazio politikekin koordinatuta, halako mo-
duz non ordutegien, oporraldien, egokitzapen aldien eta
abarren arloetan politika publiko koordinatua egongo
den.

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea sus-
tatzeko laguntzak bultzatzea ezgaitasuna duen seme edo
alaba bat duten familientzat, terapia, kontsulta edo trata-
menduetara joateko modua behar dutenean.
- Laguntza lan-araudian sar daitezela familia, lana eta bi-
zitza pertsonala bateragarri egiteko neurri zehatzak, or-
dutegiak malgutuz mendetasuna duten pertsonak zaindu
ahal izateko.

Familia ugariak

- Bultzatzea hitzarmen kolektiboetan neurriak sar daitezela
familia ugariaren titularrak diren langileak babesteko eta
haiei erraztasunak emateko, mugikortasun geografikoari,
lan-baldintzen funtsezko aldaketei eta lan-kontratuak
azkentzeari dagokienez⁵⁹.
- Gurasoen lan kontrataziorako pizgarriak ematea (arre-
ta berezia eskainiz familia ugari), hori sustatzen duten
enpresei hobari gisa zerga-desgrabazioak emanez, zeren
eta Gizarte Segurantzak enpresei amatasun-baimena eta
ondoren lanera sartzen ziren emakumeengatik ematen
ziren hobariak kendu baitira⁶⁰.
- Familia ugari aisiako eta kulturaren arloko jardueretan
sartzeko lehentasuna ematea (esate baterako, Arabako
Foru Aldundiak antolatzen dituen kanpamendu edo uda-
lekuak), zeren eta bizitza pertsonala, familia eta lana bate-
ragarri egiteko zailtasuna zenbait eta seme-alaba gehiago
izan orduan eta handiagoa baita.

Familia hartzaileak edo/eta adopziozkoak

- Lanaldi murriztuei eta eszedentziei buruzko araudia be-
rregitea, eta adingabearen adina baino familian daraman
denbora kontuan izatea.
- Amatasun bajak luzatzea (borondatez eta amek eskatuta)
egokitzeko denbora gehiago behar duten familien kasuan.
- Figura berariazko bat sortzea (amatasun eta aitatasun
baja berezia) nazioarteko adopzioetarako behar diren bi-
daiak egiteko aldia hartzeko.

4.2. Aisia eta kultura

Familia guztiak

- Zahartze aktiboa eta aitona-amonek familiarako errefe-
rente positibo gisa duten eginkizuna bultzatzea.

⁵⁹ Familia Ugariak Babesteari buruzko 40/2003 Legea.

⁶⁰ 43/2006 Legeko 4.2 artikularen laburpena. Artikulu hori lan
erreforma berriaren bidez kendu da.

- Belaunaldien arteko bizikidetasunerako espazioak eta programak bultzatzea. Familien dibertsitatearen arloko hezkuntzak belaunaldien arteko ezagutza bultzatu behar du. Beste belaunaldiekin bizikidetasunean egoteak eta elkarrekin ikasteak aberasgarri gertatu behar dute bai haurrentzat bai adineko pertsonentzat.
- Doako kirol aisiako eskaintza publiko bat sustatzea, kontuan izanda familien beharrak eta haien bizitokia, zeren eta eskola publikoaren kostua pixkanaka handitzen ari baita (esate baterako, gaur egun ez da laguntza ekonomikorik ematen opor garaietako udalekuetarako).

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- Hezkuntza-laguntzako eta aisiako baliabideak eta zerbitzuak sustatzea, ezgaitasuna duten adingabeei zuzenduak, zeren eta gaur egun horiek eskasak baitira, bereziki, egoitza-zerbitzuetako atsedendaldien ondoriozko aldizkotasunari dagokionez.

Familia ugariak

- Familia ugarien aukera berdintasuna erraztea, bertako kultura eta ohiturak ezagutzeari eta haietaz gozatzeari dagokionez, eta diru-laguntzak ematea hori bultzatzen duten espazio eta jardueretarako: aterpeak, euskaltegiak, kultur obrak, kirol instalazio eta jarduerak eta abar.

Familia homoparentalak

- Seme-alabak dituzten familia homoparentalentzat topaguneak bideratzea.

Familia eta kultura-artekotasuna

- Ijito-familien parte-hartzea eta kultura-artekotasuna sustatzeko espazioak bideratzea, eta familiei beren hizkuntzan laguntza ematea kultura-arteko prozesuetan.

hezkuntzan, gurasoek beren seme-alaben kualifikazioa dela-eta daukaten aukera-askatasuna bermatuz.

- Bermatzea Haur eskoletako eta ikastetxeetako egokitzaldiak haurren beharrari egokitzen zaizkiola berariaz, haiak ezinbestez luzatu behar izan gabe.
- 0 eta 3 urte arteko haurrak artatzeko zerbitzu publikoak zabaltzea, eta beste herrialde batzuetako jokabide egokiak txertatzea: haurtzaindegi gisa egokitutako herritar zentroak, ekimen komunitarioak (familia elkartuak), lehendik dauden hezkuntza azpiegituz baliatzea eta abar.
- Haur-etxeak proiektu pilotua ebaluatzen prozesua egin, haren eragina eta balizko zabaltzea ezagutzeko.
- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko 0 eta 3 urte arteko etapa betetzeko postu publikoen kopurua (haur eskolak) handitzea, goizeko ordutegian gutxiegi erabilita dauden espazioak aprobetxatuz xede horretarako eta postuen eskaintza arrazionalizatuz, halako moduz non ez den gertatuko toki batzuetan (hiriak) postu gutxiegi daudela eta beste batzuetan (herriak), berriz, ez dela eskaintza betetzera iristen.
- Laguntza ekonomiko handiagoa egon dadila bultzatzea eta ikastetxe publikoetan 2 urteko haurrentzako goiztiarren zerbitzua sustatzea.
- Eskola porrotari aurre egiteko eta haren aurka jarduteko neurriak sustatzea, hezkuntzaren arloaren eta gizarte zerbitzuen arteko erakundearen arteko koordinazioa hobetuz bikoiztasunak saihesteko, gastua arrazionalizatzen eta programa efizienteagoak sortzeko.
- PFEZa ordaindu behar ez duen gauzako ordainsari gisa hartua izateko egun dagoen 1.000 euroko muga kentzea, langileen seme-alaben haur hezkuntzako lehen zikloko zerbitzuari dagokionez. zeren eta muga horrek ez baitu kontuan hartzen seme-alaben kopurua, eta hura zabaldu ahal izatea baita derrigorrezko irakaskuntza osora eta batxilergora ere.
- Hezkuntzarako beherapenak eta laguntzak ezartzea familia guztientzat, bi aldagairen arabera: familiaren diru-sarrerak eta familiaren gastuak.
- Baliabide batzuk garatzea (*online*) familiei informazio osoa eta eguneratua emate aldera hezkuntzaren arloko laguntza, baliabide eta zerbitzu publikoei buruz, eginbehar horretan lagungarriak izateko.
- Seme-alabak dituzten familiei informazioa, aholkua eta laguntza emateko programa publikoak sustatzea, bai eta EAEko familia-politikaren oinarri izan behar duten balore nagusiak direla-eta sentsibilizatzen kanpainak ere.
- Familiaren eta guraso izate positiboaren irudia zaintzea hedabide publikoetan, familiaren eginkizunen, amatasunaren eta aitatasunaren balorazio sozialaren aldeko, familiako kide guztiek etxearen zaintzan eta arretan eta dituzten erantzukizunen inguruko eta lana eta familia bateragarri egitea sustatzeko erakunde-kanpainen bitartez.

5. arloa

HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZATzea

Familia guztiak

- Errenta estandarizatuaren sistema sartzeko ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan onartzeko irizpideetan, bai eta unibertsitate-beketan eta unibertsitatez kanpoko beketan ere.
- Testuliburuaren eta curriculum materialen kudeaketa solidarioko programa zabaltzea ikastetxe publiko eta pribatu itundu guztietara zabaltzea, gutxienez ere derrigorrezko

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- Hezkuntza ondasun publikotzat hartzea, eta kalitatearen, parekotasunaren eta pertsona guztien berdintasunaren elkarrekiko mendetasuna sortzea.
- Administrazioetatik lan egitea ezgaitasun mota desberdinak normalizatzeko, ezgaituen berariazko egoera babesteko eta eskubide osoko herritartasunaren eraikuntza sustatzeko.
- Ingurune fisikorako, komunikaziorako eta informaziorako oztupoak kentzea, eta barrera psikologiko eta egiturazkoak ere deuseztatzea.
- Modu sistematikoan, kide ezgaituak dituzten familientzako esperientziak elkarrekin trukatzeko jardunaldiak eta saioak egitea.

Familia hartzaileak edo/eta adopziozkoak

- Ikastetxeetan, adingabe adoptatuentzat egokitze-aldi bat ezartzea, eskolara sartzen diren neskato-mutiko txikiekien egiten den bezala.

Guraso bakarreko familiak

- Guraso bakarreko familien hezkuntzaren erabateko doakotasuna ezartzea, lehenengo seme-alabatik hasita.

Familia homoparentalak

- Oro har eta zeharkakotasunez, familia-dibertsitatea eta dauden familia-eredu desberdinak sartzeko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako curriculumean eta hezkuntza-diskurtsoan.
- Hezkuntzaren arloko profesionalak prestatzea familia-dibertsitateari buruzko aurreiritziak hausteko eta haren inguruan kontzientzia hartzeko.
- Eskabide eta izapide administratiboetarako galdetegiak aldatzea: bekak, eskolara sartzeko, jakinarazpenak eta abar, eta haiek familia-ereduei egokitzea.
- Familia homoparentalak direla eta, herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio eta kontzientziazio sozialeko kanpainak sortzea.

- Erakundeen eta sailen arteko integrazioa eta komunikazioa hobetzea, bai eta Administrazioaren eta hirugarren sektorearen arteko ere, zerbitzuen zatikatzea eta bikoiztasunak saihesteko eta dauden baliabideak optimizatzeko.
- Ingurunea dela eta, herritarren beharrian sozio-sanitarioen eskala bat kontuan izateko beharrezkoa den eza-gutza ematea Administrazioari: presakoak, garrantzitsuak eta bigarren mailakoak.
- Estaldura publikoa duten programak ezartzea (PADI- Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren modukoak) haurren oftalmologiako, logopediako, psikiatriako, psikologiako eta abarreko anomaliak eta arazoak artatzeko, gero eta maizago gertatzen baitira.
- Protokolo bat ezartzea, prebentzio selektibo eta parte-hartutakoan oinarritua, bazterketa arriskuan dauden edo/eta jokabide oldarkor edo disruptiboak dauzkaten seme-alaben familiei laguntzeko.
- Baterako terapia psikologikoko zerbitzu publikoak eskaintzea familia-arazoak dauden egoeretan.
- Arreta zentralizatuko eredueta aurrera egitea, kasuaren kudeatzailearen figura ezartzearen bitartez.

Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten kideak dauzkaten familiak

- Diagnosi duala (adimen-egzaitasuna eta gaixotasun mentala) duten pertsonentzako gailuen diseinua eta arretarako sistema integral bat bultzatzea, beharriari erantzun egokia emateko alderdi desberdinetatik.
- Adimen-egzaitasuna duten pertsonentzako laguntza psikologiko eta psikiatrikoa sustatzea, bai esparru sozio-sanitariotik, bai Osakidetzaren planetatik.
- Adimen-egzaitasuna duten pertsonak eta haien familiak babesteko sisteman lortutako aurrerapen eta lorpenei eta ezarritako eskubideei eustea.
- Ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta-zerbitzuen sarearen zabalpena indartu eta berriz hartzea, haientzako sarbidea erraztuz.
- Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten pertsonen arreta eta laguntza emateko gailuak sortzea, familia horien beharrian errealei erantzun eraginkor eta efizientea emango dietenak, esparru sozio-sanitarioko zerbitzuen zatikatzea saihestuz.
- Ezgaitasun egoeran dauden haurrak dauzkaten familiei zuzendutako laguntza-programak garatzea, bai eta ezgaitasuna duten adingabeentzako garapen- eta autonomia-proiektuak ere.
- Familiei laguntza beren hizkuntzan eman dakien sustatzea, jakinda interpreteak eta zeinuen lengoaiako itzultzaileak behar direla.
- Etxeko laguntza-zerbitzuan arreta-orduen kopurua handitzea.
- Etxeko Atsedeen Zerbitzua praktikan jartzea (orduka etxean laguntza emango duten langileak) une jakin batzuetan, eta atsedeen-egonaldien zerbitzu malguak

6. arloa

LAGUNTZA SOZIO-SANITARIOA

Familia guztiak

- Familiaren Agentzia bat garatzea, eredu frantsesa egokitu-tuta, eta hartan prestazioak eta zerbitzuak zentralizatzea, leihatila bakarreko sistema baten bitartez, esku-hartze integrala eskaintzeko, konpartimentu estankokoak eta segmentazioa saihestuz.

ezartzea, ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten familien beharrezko araberakoak.

- Ezgaitasuna edo/eta mendetasuna duten pertsonen zaintzaileak direnentzako esku-hartze psikologikoko programak sustatzea.
